

Gizarte ikerketarako teknikak

Teoria eta adibideak

Patxi Juaristi Larrinaga



Gizarte ikerketarako teknikak

Teoria eta adibideak

Gizarte ikerketarako teknikak

Teoria eta adibideak

Patxi Juaristi Larrinaga



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
servicio editorial argitalpen zerbitzua

© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 84-8373-540-7

Depósito legal/Lege gordailua: BI - 2175-03

Fotocomposición/Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.
Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Impresión/Inprimatzea: Itxaropena, S.A.
Araba Kalea, 45 - 20800 Zarautz (Gipuzkoa)

Liburu hau nola irakurri behar den, ahalik eta hobekien ulertu ahal izateko, proposamena egiteko asmoa dut hemen. —Bere birtartez adierazi nahi dena pentsamendu bakar bat da. Hala ere, neure ahalegin guztiak gorabehera, ezin izan dut, hori adierazteko, liburu oso hau baino bide laburragorik aurkitu.

Arthur Schopenhauer: *Mundua nahimen eta errepresentazio gisa* liburuaren lehen edizioaren hitzaurrean

Aurkibidea

ATARIKO HITZAK	13
I. IKERKETA PROZESUA GIZARTE ZIENTZIETAN	23
1.1. Ikergaiaren definizioa	24
1.2. Gaiari buruzko literaturaren azterketa	27
1.3. Hipotesien formulazioa	29
1.4. Aldagaien edo kontzeptuen operazionalizazioa	32
1.5. Ikerketaren diseinua	34
1.5.1. Diseinua erabakitzerakoan eragina duten zenbait faktore	34
1.5.2. Estrategia eta plana	39
1.5.3. Egitasmoaren aurkezpena	41
1.6. Datuen bilketa	45
1.7. Datuen azterketa	50
1.8. Ondorioen interpretazioa	52
1.9. Azken txostenaren idazketa	54
1.10. Ikerketaren fidagarritasunaren eta balioaren kontrola	58
1.10.1. Tresnaren fidagarritasuna	59
1.10.2. Ikerketaren balioa	61
II. LAGINKETA	65
2.1. Zer da lagina?	65
2.2. Laginen abantailak eta desabantailak	66
2.3. Laginketa motak	67
2.3.1. Laginketa probabilitikoak	67
2.3.2. Laginketa ez probabilitikoak	72
III. SAIOA	77
3.1. Saioen berezitasunak	78

3.2.	Saioen abantailak eta desabantailak	79
3.3.	Saioen balioa eta fidagarritasuna	80
3.3.1.	Saioen fidagarritasuna	80
3.3.2.	Saioen balioa	81
IV.	INKESTA	85
4.1.	Inkestaren oinarri metodologikoak	85
4.2.	Inkestaren abantailak eta desabantailak	86
4.3.	Inkesta bat prestatzeko eman beharreko pausoak	88
4.3.1.	Aldagaien operazionalizazioa	88
4.3.2.	Galdeketa diseinua	104
4.3.3.	Datuen bilketa	111
4.3.4.	Datuen azterketa	114
4.3.5.	Emaitzen interpretazioa eta txostenaren idazketa	114
4.3.6.	Inkestaren fidagarritasuna eta balioa	115
4.3.6.1.	Galdeketa fidagarritasuna	115
4.3.6.2.	Inkestaren bitartez lortutako informazioaren balioa	116
V.	ITEM ASKO DITUZTEN NEURRIAK: INDIZEAK ETA ESKALAK ...	119
5.1.	Indizeen eta eskalen abantailak eta desabantailak	120
5.2.	Indizeen berezitasunak	120
5.3.	Eskalen berezitasunak	122
5.3.1.	Eskala motak	123
5.3.1.1.	Sailkapen eskalak: hierarkizazioa eta pareoa	123
5.3.1.2.	Ebaluazio eskalak: termometroa eta diferentzial semantikoa edo polaritate Perfila	125
5.3.1.3.	Jarrera eta iritzi eskalak: Thursthonen teknika eta Likert eskala	129
5.4.	Eskalen fidagarritasuna eta balioa	134
5.4.1.	Tresnaren fidagarritasuna	134
5.4.2.	Eskalen balioa	136
VI.	SAKONEKO ELKARRIZKETA	139
6.1.	Zer da sakoneko elkarrizketa?	139
6.2.	Sakoneko elkarrizketen abantailak eta desabantailak	140
6.3.	Sakoneko elkarrizketa motak	142
6.4.	Sakoneko elkarrizketa egiteko zenbait arau	142
6.4.1.	Sakoneko elkarrizketaren gidoia	143
6.4.2.	Sakoneko elkarrizketako prozesuak	146
6.4.2.1.	Elkarrekintza prozesua	147
6.4.2.2.	Informazioa ateratze prozesua	149
6.4.2.3.	Informazioa gordetze prozesua	152

6.5.	Datuen azterketa eta interpretazioa	153
6.6.	Azken txostenaren idazketa	154
6.7.	Sakoneko elkarrizketaren kalitatearen kontrola	157
VII. BIZITZA HISTORIAK		159
7.1.	Zer dira bizitza historiak?	159
7.2.	Nola egin bizitza historiak?	160
7.3.	Bizitza historien abantailak eta desabantailak	163
7.4.	Zer da bizitza historia batean ikertu behar dena?	164
7.5.	Historia baten eraikuntza	165
7.6.	Azken txostenaren idazketa	165
7.7.	Bizitza historien kalitatearen kontrola	166
VIII. EZTABAIDA TALDEAK		169
8.1.	Zer da eztabaida taldea?	170
8.2.	Eztabaida taldeen abantailak eta desabantailak	170
8.3.	Eztabaida taldeak egiteko aholku batzuk	172
8.4.	Prozesuak eztabaida taldean	178
8.4.1.	Elkarrekintza prozesua	178
8.4.2.	Informazioa ateratze prozesua	178
8.4.3.	Informazioa gordetze prozesua	180
8.5.	Informazioaren azterketa	181
8.6.	Azken txostenaren idazketa	181
8.7.	Eztabaida taldeen kalitatearen kontrola	182
IX. DELPHY		185
9.1.	Dephy teknikaren berezitasunak	185
9.2.	Delphy teknikaren abantailak eta desabantailak	187
9.3.	Delphy bat egiteko eman beharreko pausoak	188
9.4.	Delphyen kalitatearen kontrola	192
X. BEHAKETA ZUZENA		195
10.1.	Behaketaren berezitasunak	196
10.2.	Behaketaren abantailak eta desabantailak	197
10.3.	Behaketa zuzen mota desberdinak	199
10.4.	Behaketa bat egiterakoan erantzun behar diren hiru galderak	201
10.4.1.	Zer da behatu behar dena?	201
10.4.2.	Nola laburbildu behatzen dugun hori?	203
10.4.3.	Zer-nolako harremanak izan behar ditugu behatuekin?	207
10.5.	Informazioaren azterketa	209
10.6.	Azken txostenaren idazkera	209
10.7.	Behaketaren balio eta fidagarritasuna	210
10.7.1.	Tresnaren fidagarritasuna	210
10.7.2.	Behaketaren balioa	212

XI. EDUKI AZTERKETA	215
11.1. Eduki azterketaren berezitasunak	216
11.2. Eduki azterketaren abantailak eta desabantailak	218
11.3. Eduki azterketaren osagaiak	221
11.4. Eduki azterketaren balioa eta fidagarritasuna	227
11.4.1. Eduki azterketaren fidagarritasuna	227
11.4.2. Eduki azterketaren balioa	228
XII. ITURRI EZ ZUZENEN AZTERKETA	229
12.1. Zer da iturri ez zuzenen azterketa?	229
12.2. Iturri ez zuzenen azterketaren abantailak eta desabantailak	230
12.3. Iturri ez zuzenen azterketan erabili daitezkeen materialak	231
12.4. Iturri ez zuzenen azterketak egiteko informazioa eskaintzen duten erakunde batzuk	235
XIII. GIZARTE ZIENTZIAN ERABILGARRIAK IZAN DAITEZKEEN PROGRAMA INFORMATIKOAK	241
13.1. Gizarte zientzian erabilgarriak izan daitezkeen programa informatikoen abantailak eta desabantailak	242
13.2. Datu kuantitatiboak aztertzeko programa informatikoak	242
13.3. Testuen azterketak egiteko programa informatikoak	245
XIV. ERABILITAKO LIBURUAK	255

Atariko hitzak

«From the beginning tension arose between those scholars within each field (qualitative and quantitative) who were believers in the admirably 'objective' results achieved in the much older natural sciences, and those who felt that the 'human sciences needed a different approach because of their complexity and the existence of a phenomenon unknown in the mechanical world: consciousness. Except in anthropology, there were always social scientists who aspired to the clean and clear rules that physics and chemistry could produce, and others who argued that human beings were not things and did not function according to such simple causal laws».

Tesch, R. (1990): *Qualitative Research: Analysis Types and Software Tools*

Edozein zientziarena bezala, Gizarte Zientzien azken helburua da, aurre-sateak egitea; alegia, gertatu daitekeenaren aurrean babesteko etorkizuna alde-z aurretik iragartzea. Horretarako, aztergai diren fenomenoak zehatz-mehatz ezagutu behar dira; eta hori ezin da egin kaleko solasaldietan oinarrituz edo komunikabideetatik jasotzen dugun informazioaren bidez.

Gizarteen eta gizakien egoera eta bilakaera ezagutzeak informazioa era sistematikoan biltzea eta zehaztasunez aztertzea eskatzen du. Horretarako, nahitaez ezagutu behar dira, alde batetik, ikerketa prozesuaren pausoak, eta, bestetik, neurketarako erabili daitezkeen tresnen berezitasunak eta erabiltzeko baldintzak.

Zeintzuk dira, bada, Gizarte Zientzietan erabiltzen diren ikerketa teknikak? Zeintzuk dira gizarte fenomenoak euren konplexutasunean eta aberastasunean aztertzeko tresna egokienak? Noiz eta nola erabili behar dira?

Ikertzeko lau bideak eta teknikak

Gizarte Zientzietako teknikei buruzko liburuetan oso arrunta da teknika kualitatiboaren eta kuantitatiboaren arteko desberdintasuna hasieratik azpimarratzea, eta tekniken aurkezpena sailkapen horren arabera egitea. Hau da, teknikei buruzko eskuizkribuetan argi eta garbi bereizten dira, alde batetik, adierazgarritasuna ziurtatzen eta gizarte fenomenoaren kontaketa ahalbidetzen duten teknikak eta, bestetik, adierazgarritasuna ziurtatzen ez duten baina gizarte fenomenoak sakonean ezagutzeko gaitasuna duten teknikak.

Beste batzuetan, teknika kualitatiboaren eta kuantitatiboaren arteko desberdintasunak are eta gehiago nabarmentzen dira, eta teknika mota bakoitzerako liburu monografikoak egiten dira. Era honetako liburuetan oso arrunta da teknika mota batzuen abantailak eta besteen desabantailak azpimarratzea; alegia, teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak aparteko munduak balira bezala aurkezten dira, askotan elkarren etsai bezala.

Gure ustez, teknika kualitatiboak eta kuantitatiboak bereizita eta, zenbait kasutan, elkarren aurka aurkezteko joera hau ez da oso egokia; egiaz, Gizarte Zientzien aurrerabidea oztopatzen duela pentsatzen dugu. Kontuan izan behar da, edozein zientziaren batasuna bere metodoan oinarritzen dela, eta metodo kualitatiboaren eta kuantitatiboaren artean desberdinduz zalantzan jartzeko delako Gizarte Zientziak bat bera direlako ideia.

Honela, bada, teknika mota bien berri ematen duen liburua egin nahi izan dugu. Izan ere, gure ustez, ikertzeko bide bi hauek elkarren osagarri dira, eta gizarte fenomenoaren ezagutza zehatzena lortzen da ikerketa prozesuan bi metodoak nahasten direnean. Teknika kualitatiboak eta kuantitatiboak banaezinezko txanpon beraren bi aurpegiak diren heinean, egokiena da elkarrekin aurkeztea.

Gizarte Zientzietako tekniken banaketaren aurka egoteko bigarren arrazoia da, Gizarte Zientzietan erabiltzen diren ikerketa teknika batzuk ezin direla era errazean teknika kualitatiboaren eta kuantitatiboaren artean sailkatu; hain zuzen ere, alde kualitatiboak eta kuantitatiboak dituztelako. Inkesta, adibidez, inolako arazorik gabe sailkatzen dugu ikerketa teknika kuantitatiboetan eta sakoneko elkarrizketa, ikerketa teknika kualitatiboetan, baina zer egin eduki azterketarekin? Eta behaketarekin? Ziur aski ezingo genuke ikerlari guztiek onartuko luketen erantzunik aurkituko.

Gauzak horrela, erabilgarriagoa da, gure ustez, Gizarte Ikerketarako Tekniken sailkapena informazioa biltzeko erabiltzen duten bidearen arabera egitea; bestela esanda, teknikak ematen dituzten pausoen eta erabiltzen dituzten estrategien arabera sailkatzea. Ikuspuntu honetatik, Gizarte Zientzietan lau bide edota lau motatako teknikak daude ikerketak egiteko:

—Lehen bidea da gizakien bizitzan parte-hartze kontrolatua eginez, portaerak, jarrerak edo gertaerak sortu edo manipulatzeko. Saioa da bide

honetako teknika adierazgarriena. Ikerketarako bide honen oinarri metodologiko garrantzitsuena da adierazgarria dela ikerlariak prestatu duen estimulua jasan dutenen eta jasan ez dutenen arteko desberdintasunen azterketa, eta hortik abiatuz orokortzeak egiteko informazioa lortu genezakeela.

- Bigarren bidea da, gizakiei euren ikuspuntuei, jarrerei edota portaerei buruz era sistematikoan eta kontrolatuan galdetzea. Ikertzeko bigarren bide honen baitan, sakoneko elkarrizketa, bizitza historia, eztabaida taldea, inkesta eta delphy bezalako teknikak ditugu. Teknika hauen abiapuntu metodologikoa da, kanpo portaera behatuz ezin dugula fenomenoen sakoneko esanahia ezagutu, eta, ondorioz, esanahi hori behar bezala ezagutzeko eta bere sakontasunean ulertzeko biderik onena gizakiei galdetzea dela.
- Hirugarren bidea da, inolako manipulazio edota aldaketarik egin gabe, gizakien portaerak era sistematikoan eta kontrolatuan begiratzea. Behaketa zuzena da teknikarik ezagunena hirugarren bide honetan, eta bere abiapuntu metodologikoa da kanpo portaera behatuz informazio ugari lortu genezakeela, baita fenomenoen sakoneko esanahia ezagutu ere.
- Laugarren bidea da, beste batzuk sortu edota bildu duten materiala aztertzea: eduki azterketa eta iturri ez zuzenen azterketa dira laugarren bide honetako teknikarik ezagunenak. Azken bide honen oinarri metodologikoa da adierazgarria dela beste pertsona edo erakunde batzuek bildu, sortu edota gorde dituzten estatistikak, testuak, dokumentuak eta materialak aztertzea.

Liburu honetan ikerketarako lau bide hauek aurkezten ditugu. Hobeto esanda, lau bide hauei loturik dauden ikerketa tekniken berezitasunak, hauek behar bezala erabiltzeko aholkuak, eta ikerketa prozesuaren antolaerari buruzko irizpideak ematen ditugu.

Soziologian, Zientzia Politikoetan, Antropologian eta Ekonomian beraz lan egiten dutenek gehien erabiltzen dituzten teknikei buruzko eskuizkribua da. Izan ere, diziplina hauek guztiek ikerketa eremu zabalak hartzen badiutze ere, teknika berdin antzekoak erabiltzen dituzte.

Adibideen jatorria

Esku artean duzuen liburua ikerlari zein irakasle gisa urteetan hartutako esperientziaren ondorioa da. Alde batetik, 1993. urtetik gaur egunera arte, UPV-EHUko Gizarte Komunikazio Zientzien Fakultatean, Estatistika eta Gizarte Ikerketarako Tekniken irakasle gisa hartutako jakituria ezinbestekoa izan da tekniken abantailak eta desabantailak ezagutzeko, eta ikerketa prozesua bere aberastasunean eta sakontasunean ulertzeko. Bestetik, urteetan zehar egindako ikerketak, lanak eta txostenak asko lagundu didate teknikak

nola erabili behar diren ikasi eta, oro har, ikerketa prozesuaren berezitasunak ezagutzeko. Hemen aurkezten ditudan adibideak urteetan egindako ikerketa, txosten eta lanetatik hartuak daude. Besteak beste, honako ikerketa hauek erabili ditut adibideetarako:

- Eusko Jaurlaritzak emandako LETRAKIT bekaren dirulaguntzarekin eta Labayru Institutuaren babespean, euskal alfabetatze prozesua aztertu genuen 1991. urtean. UNESCOk bultzatutako Alfabetatzearen Nazioarteko Urtearen aitzakiarekin, helduen euskal alfabetatzearen historia aztertu genuen. Ikerketa honen berri liburu honetan aurkitu daiteke: Basterretxea, I. Aldekoa-Otalora, A., Gorostiaga, I., Juaristi, P. (1987): *Euskal Alfabetatzearen Historia Zenbait Sortzaileren ahotan 1960-1990*. Labayru, Bilbo.
- Bizkaiko Foru Aldundiak eskatuta, bizkaieraren erabilera aztertu genuen Bizkaiko Administrazioan 1992. urtean. Alegia, Bizkaiko udal-txeek, Bizkaiko Batzar Nagusiek eta Foru Aldundiko Administrazioak egiten duten bizkaieraren ahozko eta idatzizko erabilera aztertu genuen. Ikerketa honen berri liburu honetan aurkitu daiteke: Elzo, J. (Zuzendaria) (1995): *Bizkaieraren erabilerak administrazioan*. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.
- Galdakaoko Udal Euskaltegia kudeatzen duen fundazioak eskatuta, Galdakaoko biztanleek Udal Euskaltegiari buruz duten jarrera eta, bereziki, ikasleriaren gutxitzearen arrazoiak ezagutzeko ikerketa bat egin genuen 1993. urtean.
- 1995. urtean, *Ondasunekiko Harremanak Justo Mokoroaren Repertorio de Locuciones del Habla Popular Vasca* tesi lana aurkeztu nuen. Tesi hartan oinarrituz, *Euskaldunak eta Ondasunak* liburua argitaratu nuen 2001. urtean. Ikerketa honetan, ondasunekiko harremani dagokienez iraganean izandako pentsaera eta ikuspuntuak ezagutu genituen, ahozko literaturaren eduki azterketa eginez. Ikerketa honen berri liburu honetan aurkitu daiteke: Juaristi, P. (2001): *Euskaldunak eta ondasunak*. Pamiela, Iruñea.
- Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritzak eskatuta, 100 langile baino gehiago zituzten Euskal Autonomia Elkartearen enpresen lan estrategiak aztertu genituen 1996. urtean.
- Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Turismo Sailak eskatuta, EAEko hoteletan ostatu hartzen duten turistek buruzko ikerketa egin genuen 1996. urtean. Ikerketa honen berri Eusko Jaurlaritzak argitaratu zuen txosten honetan aurkitu daiteke: Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailburuordetza (1996): *EAEko hoteletan ostatu hartutako turistek gastuei buruzko txostena*. Txostenak eta dokumentuak bilduma.
- Markinako AEK-k eskatuta, Lea Artibaiko lantegietako langileen euskararekiko jarrerak, euskara ikasteko nahiak eta lantegietan euskara ikasteko taldeak sortzeko aukerak aztertu genituen 1997. urtean.

- Irungo Udalak eskatuta, San Martzial Jaietan egiten diren Alardeetan emakumeen parte-hartzeari buruzko irundarren iritzia eta jarrerak aztertu genituen 1997. urtean.
- Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Turismo Sailak eskatuta, hoteletan ostatu hartzen duten eta arrazoi profesionalengatik EAera datozen bisitarien batez besteko gastuari buruzko ikerketa egin genuen 1998. urtean. Ikerketa honen berri Eusko Jaurlaritzak argitaratu zuen txosten honetan aurkitu daiteke: Eusko Jaurlaritzak-Turismo Sailburuordetza (1999): *Negozio Bidaiak. Eguneko batez besteko gastua*. Euskal Turismoaren Txostena, 2. zenbakia.
- Markina-Xemeingo Bera Kurutz Ikastolan ikasten duten ikasleen gurasoen satisfazio mailari buruzko ikerketa egin genuen 1998. urtean.
- 1997 eta 1998. urteetan, *Efectos y actitudes de la infancia y de la juventud ante las nuevas tecnologías de la información* ikerketa egin genuen. Ikerketa honetan ikus-entzunezko teknologia zahar eta berriek Europako 6 eta 16 urte bitarteko ume eta gazteen portaeretan eta jarreretan zuten eragina aztertu genuen. Ikerketan Europako 15 herrialdeko ikerlariak parte hartu zuten, eta UPV-EHUK, *Broadcasting Standards Commission* batzordeak, *The Youth of Europe* programak eta Zientziaren Europako Fundazioak ordaindu zuten. Ikerketa honen berri honako aldizkari eta liburuetan aurkitu daiteke:
 - Juaristi, P. *et al.* (1998): «Las relaciones de los niños y de los jóvenes con las viejas y las nuevas tecnologías de la información» in *ZER. Revista de Estudios de Comunicación*, 4. zenbakia, Zarautz.
 - Juaristi, P. *et al.* (1998): «Media Use and the Relationships of Children and Teenagers with their Peer Groups. A Study of Finnish, Spanish and Swiss Cases» in *EUROPEAN JOURNAL OF COMMUNICATION* 13(4), Bretaina Handia.
 - Juaristi, P. *et al.* (1999): «Qué ven y cómo juegan los niños y los jóvenes españoles. El uso que los niños y los jóvenes hacen de los medios de comunicación», *ZER. Revista de Estudios de Comunicación*, 6. zenbakia, Zarautz.
 - Juaristi, P. *et al.* (2001): «Media childhood in three European countries» in *Children, Technology and Culture. The Impacts of Technologies in Children's Everyday Lives*. Ian Hutchby and Jo Moran-Ellis (Edit.). Roudtledge/Falmer, London.
 - Juaristi, P. *et al.* (2001): «Media Genres and Content Preferences» in Livingstone y Bovill (edit.): *Children and their Changing Media Environment: a European Comparative Study*. Lawrence Erlbaum Associates, New Jersey.
- Usansoloko herritarren (Galdakao, Bizkaia) beharizan eta arazoei buruzko ikerketa egin genuen 1999. urtean. Ikerketa horrekin, Usansolon bultzatu edota konpondu behar diren arloak hobeto ezagutu nahi ziren.

- 1999. urtean, *Los jóvenes de San Sebastián: la ciudad y el ayuntamiento* ikerketa egin genuen Donostiako Udalarentzat. Ikerketa horretan, hiriko bizi-kalitatearekiko, hiriko zerbitzuekiko eta egitasmo desberdinekiko 15 eta 30 urte bitarteko donostiarren portaera, pertzepzioa, jarrera eta eskaerak aztertu genituen.
- 2001. urtean, Hego Euskal Herriko umeen politikarekiko harremana aztertu genuen. Hau da, politikari dagokionez umeentzat garrantzitsua eta adierazgarria dena ezagutu genuen.
- 1980. urtean, euskal kulturaren egoerari buruzko azterketa bat egin genuen. Ikerketa horren berri artikulua honetan ematen da: Juaristi, P. (1988): «Relaciones transfronterizas en el ámbito de la cultura y de la lengua vasca en la CAPV, CFN y en el Consejo Regional de Aquitania» in *La Construcción del espacio vasco-aquitano. Un estudio multidisciplinar*. Antón Borja, Francisco Letamendia eta Kepa Sodupe (editoreak), UPV-EHUko Argitalpen Zerbitzua, Leioa.
- 2001. urtean, *Euskal Herria Globalizazioaren Aurrean* liburua argitaratu nuen. Horretarako, euskal kulturarekin, ekonomiarekin, demografiarekin eta, oro har, euskal gizartearekin zerikusia duten datu ugari aztertu nituen. Lan honen berri liburu honetan aurkitu daiteke: Juaristi, P. (2001): *Euskal Herria Globalizazioaren aurrean*. BBK-Euskaltzaindia, Bilbo. Liburu honek Euskaltzaindiaren Mikel Zarate saiakera sarria jaso zuen 2000. urtean.
- Markina-Xemeingo Bera Kurutz Ikastolan ikasten duten ikasleen gurasoek Ikastolak eskaintzen dituen eskolaz kanpoko ekintzei buruzko satisfazio maila neurtzeko ikerketa egin genuen 2001. urtean.
- Aragoiko Gobernuak eskatuta, *Situación Sociolingüística de las Hablas del Alto Aragón* ikerketa egin genuen 2001. urtean. Hau da, Aragoi Garaiko hizkuntzen ezagutza, erabilera eta jarrerei buruzko azterketa burutu genuen.
- UNESCOren babespean eta Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzarekin, *Munduko Hizkuntzei Buruzko Txostena* egin genuen 1998. urtetik 2002.era. Ikerketa honen helburuak hanakoak ziren: munduko hizkuntzen egoerari buruzko diagnostikoa egitea eta etorkizunean hizkuntzen biziraupena ziurtatzeko hartu beharreko erabakiei buruzko informazioa biltzea. 2003. urtean argitaratuko den txosten honen berri honako artikulua honetan aurkitu daiteke: Barreña, A., Etxebarria, M., Idiazabal, I., Juaristi, P., Junyent, C., eta Ortega, P. (2000): «World Languages Report: a Preliminary Approach» in Omkar N. Koul and Devaki, L. (Editoreak): *Linguistic Heritage of India and Asia*. Central Institute of Indian Languages, Manasagangotri, Mysore, India.
- 2001 eta 2002. urteetan, *La formación del capital social en España: organizaciones y activistas en 6 municipios* ikerketan parte hartu nuen, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko eta Madrileko Unibertsitate Autonomoko irakasleekin batera. Ikerketa honetan Estatu espai-

niarreko elkartean eta hauetan parte hartzen duten elkartekideen berezitasunak aztertu genituen.

Ikerketa hauetan guztietan hartutako erabakiak eta emandako pausoak adibide gisa erabiliz, bereziki ikasleentzat erabilgarria izango den liburua egiten ahalegindu gara; alegia, Soziologian, Zientzia Politikoetan, Antropologian edo Ekonomian ikerketak egiteko aholku praktikoak ematen dituen eskuizkribua egin nahi izan dugu. Horrekin batera, teknika horiek benetako ikerketetan nola erabili diren, kasu bakoitzean zer-nolako erabakiak hartu diren eta nolako ikerketa diseinuak egin diren azaldu nahi izan dugu.

20 ikerketa hauetatik hartutako adibideak laukietan bereizita eta idatzi ziren hizkuntza berean aurkituko ditu irakurleak. Batzuetan euskaraz eta beste batzuetan erdaraz. Horrekin nahi izan duguna da, erabili ditugun iturriekiko fideltasuna gorde eta ikerketak egin eta idatzi ziren modu berean erakutsi, hots, inolako aldaketarik gabe.

Teknikak aurkezteko edota ematen ditugun azalpenak argitzeko beste liburu batzuetatik hartu ditugun pasarteak ere idatzi ziren hizkuntza berean agertzen ditugu. Adibideekin bezala, hemen ere iturriekiko fideltasuna gorde nahi izan dugu.

Liburuaren egitura orokorra

Liburu honek hamahiru atal nagusi ditu. Lehenengo atalean, ikerketak egiterakoan eman behar diren pauso orokorrei buruz irizpide batzuk ematen ditugu. Bestela esanda, edozein delarik erabiltzen den teknika, azterketa prozesuan egin beharreko lanei eta hartu beharreko erabakiei buruzko informazio eta irizpide orokorrak ematen ditugu.

Bigarren atalean, lagin mota desberdinak eta laginketa prozesuan hartu beharreko erabakiak aurkezten ditugu. Izan ere, populazioari dagozkion emaitzak eta ondorioak ateratzeko, ezinbestekoa da lagin adierazgarriak lortzen jakitea.

Hirugarren atalean, saiakeran oinarritutako diseinuei buruz aritzen gara; hau da, ikertzaileak aldagai askea, aztergai diren subjektuak eta aztergai den fenomenoak kontrolatzen dituen ikerketa motei buruz. Soziologian, Zientzia Politikoetan, Ekonomian edo Antropologian saio gutxi egiten badira ere, interesgarria iruditu zaigu ikerketarako bide honi buruzko zenbait aholku ematea. Zenbait kasutan, eta baldintza egokietan, informazioa lortzeko iturri ego-kia izan daiteke.

Laugarren atalean, inkestaren gorabeherak azaltzen dira. Inkestak prestatzeko eman beharreko pausoak eta hartu beharreko erabakiak aurkezteaz gain, inkesta pertsonalen, posta bitartez egindako inkesten eta inkesta telefonikoen berri ematen dugu.

Bosgarren atalean, galdeketetan sarri erabiltzen diren eskalak eta indizeak aztertzen dira. Hots, fenomeno konplexuak modu ez zuzenean neurtzeko tresnen berezitasunak aurkezten ditugu. Horrekin batera, indizeak eta eskalak nola prestatu behar diren azaltzen dugu.

Seigarren atalean, sakoneko elkarrizketaren berezitasunak aurkituko dituzte irakurleak. Atal honetan, sakoneko elkarrizketen berezitasunak aurkeztu ondoren, sakoneko elkarrizketak egiterakoan era batera edo bestera agertzen diren prozesuak aztertzen dira.

Zazpigarren atalean, bizitza historiak aztertzen ditugu; alegia, pertsona baten bizitza berreraikitzeke erabiltzen den teknika.

Zortzigarren atalean, eztabaida taldeen gorabeherak aurkezten ditugu. Gai bati buruz eztabaidatzeko elkartzen diren pertsonen solasaldiaren, elkarrizketaren edo iritzien trukaketa nola prestatu eta aztertu behar den agertzen dugu.

Bederatzigarren atalean, delphy teknika aurkituko du irakurleak. Teknika honen bitartez, iritzi liderrek edo adituek galdeketa bati emandako erantzunak aztertzen dira, zertan dauden ados eta zertan ez ikusteko; eta, ondoren, aurkitutako adostasunetan oinarrituz, erabakiak hartzen dira edo jarraitu beharreko bidea zehazten da.

Hamargarren atalean, behaketa zuzena aurkezten dugu. Gizakien portaerak inolako manipulaziorik gabe, era sistematiko eta kontrolatuan behatzen duen teknika da. Teknika honekin ez ditugu hitzezko, idatzizko edo ikus-entzunezko estimuluen (inkesta, gidoia...) eragina jaso duten pertsonen erantzunak aztertzen, euren portaerak baizik.

Hamaikagarren atalean, eduki azterketa aztertzen dugu. Hots, testu bategatik baliozko inferentziak ateratzeko prozedura desberdinak erabiltzen dituen ikerketa teknika.

Hamabigarren atalean, iturri ez zuzenen azterketak nola egin behar diren aurkezten dugu. Bestela esanda, beste pertsona edo erakunde batzuek bildu, sortu edo gorde dituzten estatistika, dokumentu, grabaketa eta material pertsonalen azterketan oinarritzen den ikerketa teknikaren berezitasunak aztertzen dira.

Hamahirugarren, eta azken, atalean, Gizarte Zientzietan egiten diren ikerketen lagungarri izan daitezkeen programa informatiko batzuen berri ematen dugu. Hasieratik esan nahi dugu atal horretan ez dela programa hauen erabilera eta berezitasunen deskribapen zehatza egiten. Gure helburu bakarra da, merkatuan dauden programa batzuk aurkeztea, irakurleak era honetako programei buruzko iritzi orokor bat izan dezan.

Eskerrak ematen

Aitzin solas hau bukatzeko, lan hau erraztu duten guztiekin zorretan nagoela aitortu gura nuke. Eta nire zorra aitortzearekin batera, esker oneko nautela ere esan nahi diet. Bihotz-bihotzez esan ere.

Hasteko, 1993. urtean hasita azken hamar urte hauetan nirekin ikerketa lanetan ibili direnak eskertu gura nituzke. Izan ere, liburuan zehar aipatzen ditudan adibide gehienak lankide askorekin egindako ikerketetatik hartuak daude. Bereziki, Politika eta Administrazio Zientzien Fakultateko irakasleak eskertu gura nituzke. Liburu hau eurei ere zor diet, hein handi batean.

Eskerrak, era berean, testua zuzentzeko iradokizunak eta zuzenketak egin dizkidaten lagun eta lankideei. Txarto egindako eta idatzitakoen errua nirea izaki, ondo egindako gauza asko eurek emandako aholkuen ondorio dira.

Eskerrik asko UPV-EHUko Euskara Errektoreordetzari ere 2001. urtean lan honi ekiteko emandako bultzadagatik eta diru laguntzagatik.

Azkenik, ez ditut ahantzi nahi lan hau eskaintzen diedan nire emazte Maite eta alaba Malen. Hau bezalako lan batek behar duen oinarri, indar eta orekarik ez bainuen izango haiek inguruan izan ez banitu.

I

Ikerketa prozesua gizarte zientzietan

«Curiosidad y necesidad son los motivos esenciales subyacentes en la investigación humana. O intentamos comprender el mundo que nos rodea en aras del conocimiento, o intentamos comprenderlo para poder proteger o mejorar la situación que nos depara. En cualquier caso, nuestro conocimiento conlleva a menudo, al menos potencialmente, la aceptación de ciertos modos de perfeccionar las cosas que descubrimos. En otras palabras, cuanto más sabemos sobre nuestro entorno social y físico, mejor pertrechados estamos para actuar sobre él».

Manheim, J.B. eta Rich, R.C. (1988): *Análisis político empírico. Métodos de investigación en Ciencia Política*

Asko dira Gizarte Zientzietan gai bat aztertzeko bideak eta moduak. Ikerketa bakoitzak bere beharrak, oztopoak, helburuak eta, oro har, berezitasunak dituen heinean, ikerlariak erabaki behar du zein den kasu bakoitzean ikerketarako diseinurik onena; hots, zeintzuk diren erabiliko dituen teknikak eta emango dituen pausoak. Gainera, gerta daitekeena da, ikerketa aurrera doan heinean hasieran aurreikusten diren estrategia eta pausoak zeharo aldatzea; beraz, ikerlaria aldi oro adi eta prest egon behar da aurretik pentsatutako diseinu guztia birplanteatzeko eta aurrerantzean eman beharreko pausoak berriz antolatzeko.

Ikerketa bakoitza mundu bat bada ere, badaude ikerlari guztiek, aurreago edo atzerago, erantzun behar dituzten galdera orokor batzuk. Hau da, ikerketa bakoitzaren berezitasunak eta beharrianak ahantzi gabe, badaude modu batera edo bestera ikerketa guztiek eman behar dituzten pauso batzuk. Gure ustez, hamar dira ikerketa prozesuan eman behar diren pausoak:

- Ikergaiaren definizioa
- Gaiari buruzko literaturaren azterketa

- Hipotesien formulazioa
- Aldagaien edo kontzeptuen operazionalizazioa
- Ikerketaren diseinua
- Datuen bilketa
- Datuen azterketa
- Ondorioen interpretazioa
- Azken txostenaren idazketa
- Ikerketaren fidagarritasunaren eta balioaren kontrola

Badakigu ikerlari guztiak ez direla ados egongo aurkeztutako hamar pauso hauekin. Izan ere, ikerketak egiten dituztenek izen desberdinak erabiltzen dituzte ikerketa prozesuan egin beharreko lanak zehazterakoan, edo guk hamar pausotan agertzen duguna beste batzuk gutxiagotan aurkezten dute (adibidez, lotu egiten dituzte aldagaien edo kontzeptuen operazionalizazioa eta ikerketaren diseinua).

Honela, bada, hasieratik esan nahi dugu, pauso hauek aurkezten ditugula, aztertutako autore gehienek lanetan eta ikerketetan agertzen direlako, eta, urteetan lortu dugun esperientziak erakutsi digunaren arabera, era batera edo bestera ikerketa prozesu guztietan agertzen direlako.

Hamar pausoak banatuta aurkezten baditugu ere, guztiak elkarrekiko harreman estuan daude. Pausook ez daude bata bestearengandik bereizirik, bai-zik eta elkarri lotuta. Beraz, pauso batean hartutako erabakiek beste pausoak zehazten dituzte edo euren eragin eragiten dute.

Azkenik, pauso hauek bata bestearen atzetik aurkezten baditugu ere, horrek ez du esan nahi batak besteari era zuzen eta automatikoan jarraitzen dionik. Batzuetan, pauso bat baino gehiago eman ditzakegu momentu berean, edo bat bukatu orduko beste bat prestatzen hasi gintezke. Ikerketa definitzen ari garen momentuan bertan, adibidez, gaiaren inguruan dagoen literatura aztertu genezake edota erabili ditzakegun teknikak erabaki ditzakegu.

1.1. Ikerketaaren definizioa

Asko dira Gizarte Zientzietan ikerketak egiteko arrazoiak. Egia esan, ikerketa bezainbat arrazoi daude. Zientzia Politikoen, Soziologiak, Antropologiak edo Ekonomiak ikerketa eremu zabalak hartzen dituzten heinean, era askotakoak dira diziplina hauetako ikerketen sorreran dauden zalantzak, jakinminak eta arrazoiak.

Simplifikazio handia egiten ari garela onartuta ere, Gizarte Zientzietan egiten diren ikerketen hasieran dauden arrazoi guztiak bi talde nagusitan banatu ditzakegu:

Gai bati buruzko ezagutza teorikoa handitzea da ikerketak egiteko lehen arrazoi nagusia. Ikerlariaren helburua kasu honetan, gehiago da gizarte feno-

menoak sakonean ezagutzea, arazo zehatz bat konpontzea baino. Ikerketa mota hau **oinarrizko ikerketa** izenarekin ezagutzen da, hain zuzen ere, gizarte batean gertatzen diren gorabeherak hobeto ulertzeko ezagutza teorikoa handitzen laguntzen duelako.

Umeak eta ikus-entzunezko teknologiei buruzko ikerketan, ikus-entzunezko teknologia zahar (telebista, irratia, musika aparatua...) eta berriek (ordenagailua, bideo-kontsola...) Europako 6 eta 16 urte bitarteko umeen portarengan eta jarrerengan zuten eragina aztertu genuen 1997. urtetik 1998. urtera. Gure helburua ez zen arazo bat konpontzea, baizik eta umeek ikus-entzunezko teknologiekiko duten harremana aztertzea, eta gai honi buruzko ezagutza handitzea.

Ikerketak hasteko bigarren arrazoia da beharizan sozial bati erantzutea. Ikerketaren helburua kasu honetan, gizartean egon daitezkeen arazoak konpontzea da. Era honetako ikerketei **ikerketa aplikatua** deitzen zaie, lortzen diren ondorioak erabilpen zuzena dutelako eguneroko bizitzan. Besteak beste, ikerketa mota hau garrantzitsua da hiru arrazoiengatik:

- Ikerketak ematen dituen emaitzak arazo baten inguruan adiera erakartzeko erabili daitezke. Bizkaiko Foru Aldundiak eskatuta, Bizkaiko Administrazioetan egiten den bizkaieraren erabilera aztertuz, bizkaiera galtzearen arriskuari buruz atentzioa deitu, eta administrazioan bizkaiera erabiltzearen aldeko jarrera sustatu nahi izan zen.
- Bigarrenik, ikerketen ondorioak arazo zehatzei irtenbideak bilatzeko edo gizarte batean dauden disfuntzioak konpontzeko balio dezakete. Irungo San Martzialen omenezko jaietako Alardeari buruz egin genuen ikerketarekin, Alardean emakumeen parte hartzeak sortzen zituen liskarren nondik norakoa ezagutzeko eta gatazkari irtenbideak aurkitzeko alternatibak aurkitu nahi genituen.
- Azkenik, gobernuak, agintariek eta erakundeek populazioaren nahi eta eskaerak ezagutzeaz gain, martxan jarri behar dituzten politikei buruzko informazioak lortu ditzakegu. Euskal Autonomia Elkarte (EAE) enpresen lan estrategiei buruz Eusko Jaurlaritzarentzat egin genuen ikerketarekin, lan kontratazioaren inguruan EAEko enpresek dituzten estrategiak eta planak, eta arlo honetan sustatu beharreko politiken berezitasunak ezagutu nahi ziren.

Ikerketak hasteko arrazoi hauek bereiztuta aurkezten baditugu ere, kon-tuan izan behar da, ikerketa askok helburu biak nahastuta izaten dituztela. Ikerketa bera **oinarrizko ikerketa** eta **ikerketa aplikatua** izan daiteke. Hala, ikerketa baten emaitzak gai bati buruzko ezagutza teorikoa handitzeaz gain, arazoren baten inguruan adiera erakartzeko, arazo zehatzei irtenbideak aurkitzeko edo politika zehatzak martxan jartzeko erabili daitezke. *Munduko Hizkuntzei Buruzko Txostenean*, adibidez, ikerketarako arrazoi mota biak nahasten ziren: hizkuntzei buruzko ezagutza teorikoa handitzea eta hizkuntzen heriotzaren aurrean adiera erakartzea.

1. ADIBIDEA: ikergaiaren definizioa

MUNDUKO HIZKUNTZEI BURUZKO TXOSTENA

Munduko hizkuntzei buruzko txostenerako egin den ikerketak hiru helburu ditu:

Batetik, hizkuntzei buruzko informazio objektiboa emango digun diagnostikoa egin nahi da. Diagnostiko honek hizkuntzen egoera eta dinamika azalduko dizkigu, euren ezagutza, erabilera eta bilakaerari buruzko datuak emanez.

Bigarrenik, alde geografiko desberdinetako errealitate soziolinguistikoen prospekzio azterketa burutuko da.

Hirugarrenik, eredu positibotzat edo negatibotzat hartu daitezkeen kasuen jarraipen zehatza egingo da, hizkuntzen dinamikan aldagai garrantzitsuak zeintzuk diren definitzeko. Hori guztia gai hauen inguruan adiera erakartzeko eta desagertzeko arriskuan edota gutxitutako egoeran dauden hizkuntzen sustapenerako eta berreskurapenerako politiken arloan hartu beharreko erabakiak bultzatzeko.

Ikerketa aplikatua zein oinarrizko izan, gizarte ikerlarien lehen helburua da ikergaia behar bezala definitzea. Alegia, argi eta garbi adierazi behar da zer aztertu behar den eta zein den ikertuko den populazioa.

«Antes de iniciar cualquier proyecto de investigación debemos saber: que existe un problema teórico o práctico, que es investigable, y que su estudio científico puede aportar luz sobre él. Sólo si se cumplen estas tres condiciones previas merece la pena iniciar el trabajo». Ruiz Olabuenaga, J.I., Aristegi, I. eta Melgosa, L. (1998): *Cómo elaborar un proyecto de investigación social*. ICE-ren kuaderno monografikoak, 7. zenbakia, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 11. orrialdea.

Gizarte Zientzietan aztertzen diren gaiak era askotakoak izan daitezke. Hori bai, gizarteen joan etorriekin zerikusia izan behar dute, edota gizarteko fenomenoetara buruz ezagutza handitzen lagundu behar dute. Gizarte Zientzietan egiten diren ikerketek gizakien, taldeen eta erakundeen berezitasunak, zein euren arteko harremanak aztertzen dituzte, gai horri buruzko ezagutza handitzeko, etorkizunean gertatu daitekeenarekiko babesteko, arazoak konpontzeko edo zerbait hobetzeko helburuarekin.

Gaia definitzearekin batera, ikergai den populazioa edo unibertsoa zein den zehaztu behar da. Oso ondo adierazi behar da zeintzuk diren aztergai diren kasuak.

Batzuetan, populazioa osatzen dutenen zerrendak izango ditugu eta oso erraz definituko dugu aztergai den populazioa. Beste batzuetan, ez dugu zerrendarik izango, eta arazoak izango ditugu populazioa mugatzeko. Laginei buruzko atalean ikusiko dugun bezala (bigarren atala), populazioa definitzeko dauzkagun aukera eta arazoei garrantzi handia dute ikerketa proze-

suan, bereziki laginketa prozesuan. Hain zuzen ere, zerrendak dauzkagunean lagin probabilistikoak egin ahal izango ditugu eta zerrendarik ez daukagunean lagin ez probabilistikoak.

2. ADIBIDEA: ikergaiaren definizioa

INVESTIGACIÓN SOBRE LA SATISFACCIÓN DE LOS PADRES DE LOS ALUMNOS/AS DE LA IKASTOLA BERA KURUTZ RESPECTO DE LAS ACTIVIDADES EXTRAESCOLARES QUE SE OFERTAN EN LA IKASTOLA Y EL TIPO DE ACTIVIDADES QUE LES GUSTARÍA POTENCIAR EN EL FUTURO

Desde una perspectiva técnico-pedagógica, los especialistas en educación infantil coinciden en que las actividades extraescolares son positivas para los alumnos y alumnas, porque les ayudan a socializarse, y promueven facultades que van más allá de lo que propiamente se conoce como currículum escolar.

Como muchos de los centros escolares del País Vasco, la Ikastola Bera Kurutz de Markina-Xemein organiza actividades extraescolares para sus alumnos y alumnas. Concretamente, organiza actividades como eskupilota, multideporte (Fútbol, balonmano, rugby...), natación, baloncesto, educación física, mecanografía, técnicas de estudio, inglés, teatro o bertsolaritza, con el ánimo de completar la educación que reciben sus alumnos y alumnas dentro de las clases ordinarias.

Con esta investigación se quiere, por una parte, conocer la satisfacción de los padres de los alumnos y alumnas de la Ikastola respecto de las actividades extraescolares que actualmente se ofertan en el centro, y, por otra, conocer las preferencias e intereses de éstos en relación a las actividades extraescolares que les gustaría se ofertaran para sus hijos e hijas en el futuro. Además, se ha analizado la posibilidad e interés de que los padres para participar en actividades extraescolares organizadas para ellos.

1.2. Ikergaiari buruzko literaturaren azterketa

Ikerketa gidatuko duten hipotesiak egin aurretik, beharrezkoa da ikergaiaren inguruan idatzita dagoena aztertzea. Hots, ikerketaren helburuak zehaztu ondoren, ikertu nahi dugun gaiari buruz idatzita dauden liburu, artíkulu, txosten zein ikerketak zehatz-mehatz ezagutu eta aztertu behar dira. Literaturaren azterketak honako abantaila hauek ekartzen dizkio ikerketari:

- Gaiari buruzko ezagutza handitzea ahalbidetzen du.
- Gure ikerketaren beharrian, helburu eta berezitasunak hobeto ezagutzen eta zehazten laguntzen du.
- Informazio gehiago dugu hipotesi hobeak eta osatuak formulatzeko.

- Lortzen ditugun emaitzen zein ikertzen ari garen kontzeptuen eta aldagaien arteko harremanen interpretazioa errazten du.
- Dirua eta denbora aurreztu daitezke. Gure ikerketarako baliagarriak izan daitezkeen datu eta informazio asko aurretik beste ikerlari batzuek bilduak egon daitezke, eta ezer ordaindu gabe, era erraz batean eskuratzeko moduan egon daitezke.
- Beste ikerketa batzuek erabili dituzten diseinu, estrategia eta teknikak ezagutu ditzakegu; hau da, besteen esperientziak ezagutu ditzakegu gero guk erabiltzeko. Nahiz eta aurretik egindako ikerketek akatsak izan, hauen irakurketak ikerketa hobeak egiten lagun diezaguke.
- Beste ikerketa batzuetan erabili diren diseinuak kopiatuz, alderaketak egin ditzakegu. Egiaz, beste ikerketa batzuetan erabili diren galderak eta galdeketak erabiliz, dirua eta denbora aurrezteaz gain, beste ikerketa batzuetan lortutako emaitzekin alderaketak egiteko aukera dugu.

«Using existing questions has numerous benefits for the researcher. Replication and the ability to compare research results with previous research is an important aspect of accumulating scientific knowledge. Repeated use of questions in similar contexts with similar results indicates reliability of measurement. Repeated use also may allow estimates of trends». Garson G. D. (1976): *Political Science Methods*. Holbrook Press, Boston, 176. orrialdea.

Ikergaiari buruzko literaturaren azterketa oso loturik dago iturri ez zuzenen azterketarekin; hau da, ikertzen ari garen gaiari buruz beste pertsona edo erakunde batzuek (erakunde publiko zein pribatuak, ikerlariak, gobernuz kanpoko erakundeak...) bildu, sortu edota gorde dituzten estatistikak, dokumentuak eta materialen ikerketarekin. Zentzu honetan, ikerketa hasi aurretik, interesgarria izan daiteke gure gaiari buruz egon daitezkeen material hauek aztertzea: dokumentu idatziak (liburuak, edozein motatako literatura, egunkariak...), zenbakiak eta estatistikak dituzten dokumentuak (zentzuetako eta erroldetako datuak, adibidez), baita aurreko kategori bietan sartzen ez diren dokumentuak ere; bestela esanda, idatziak ez diren eta estatistikak ez dituzten dokumentuak (filmak, irudiak, argazkiak, diskoak, lanabesak...). Era honetako materialen azterketak informazio asko eman dezake gaiari buruzko ezagutza handitzeko.

3. ADIBIDEA: ikergaiari buruzko literaturaren azterketa

MUNDUKO HIZKUNTZEI BURUZKO TXOSTENA

Munduko Hizkuntzei Buruzko Txostenean, munduko hizkuntzei buruz idatzita dauden liburu, artikulua eta lanen azterketarekin hasi gara. Besteak beste, honako iturri hauek aztertu ditugu:

1. Aurretik eginda dauden munduko hizkuntzen atlasak.
 2. Munduko hizkuntzen egoerari buruzko azterketa deskribatzaileak.
 3. Zenbait komunitate linguistikoei buruzko ikerketa soziolinguistikoak.
 4. Diagnostikoak egin edo galtzeko arriskuan dauden hizkuntzak sustatzeko ekintzen ardura duten instituzioen azterketa eta txostenak.
 5. Idazle, hizkuntzalari eta soziolinguistek hizkuntzen egoerari buruz idatzitako lan, ikerketa, liburu eta txostenak.
-

1.3. Hipotesien formulazioa

Hipotesiak ikergai den fenomenoari buruz ikerlariaren ikuspuntua erakusten duten baieztapenak dira. Ikerketa egin aurretik aldagaien (teknika kuantitatiboekin lan egiten dugunean) edo kontzeptuen (teknika kualitatiboekin lan egiten dugunean) artean egon daitezkeen harremani buruzko ikerlariaren aurreiritziak dira.

Garrantzitsua da aurreiritzi hauek ondo formulatzea. Azken finean, hipotesiek ikerketaren diseinuan eragiten dute. Hots, egingo ditugun hipotesiek garrantzi handia dute ikerketaren hasieratik amaiera arte emango ditugun pausoak zehazterakoan, baita informazioa biltzeko erabiliko ditugun teknikak zehazterakoan ere. Hipotesi batzuk frogatzeko inkestak antolatu beharko ditugu. Beste batzuetan, behaketa zuzenak, sakoneko elkarrizketak edo eztabaida taldeak egin beharko ditugu.

Ikerketa egin aurretik formulatzen direnez, hipotesiak zuzenak edo okerrak izan daitezke. Zentzu honetan, ondorioen atalean lortutako emaitzak hasieran formulatutako hipotesiekin alderatuko ditugu, eta, ondorioz, txostenaren atal horretan hipotesi horiek onartu edo alboratuko ditugu.

Kontuan izan, dena dela, ikerketa batzuetan hipotesirik egin gabe hasi gaitzkeela lanean. Ikerketa esploratzaileetan, adibidez, oso arrunta da inolako hipotesirik gabe hastea. Ikergai den gaiari buruz informazio gutxi dugunean edo ikerketarekin gaira hurbiltze soila egin nahi dugunean, hipotesirik gabe hasi gaitzke ikertzen. Behin gaira lehen hurbilpena egin eta ezagutza handitu ondoren, errazagoa da hipotesiak formulatzea eta bigarren ikerketa bat egitea.

Oro har, lau motatako hipotesiak daude: hipotesi hutsak, koerlatiboak, norabidea erakusten dutenak eta kausalak:

- Hipotesi hutsak:** aztergai diren kontzeptuen edota aldagaien artean ez dagoela harremanik adierazten dute. Hipotesi huts bat da: adinak ez du eraginik bozka politikoan.
- Hipotesi koerlatiboak:** kontzeptu edo aldagai bi edo gehiagoren artean harremana dagoela adierazten dute. Hala ere, era honetako hipotesiek ez dute ezer esaten harreman horren norabideari buruz. Era honetako hipotesi baten adibidea da: Euskal Herrian harremana dago adinaren eta politikarako joeren artean. Kontuan izan, hipotesi honek

ez digula esaten nortzuk diren (gazteak edo zaharrak) politikarako joera gehien dutenak; alegia, ez du ezer esaten harreman horren norabideari buruz.

—**Norabidea erakusten duten hipotesiak:** era honetako hipotesietan aztertutako aldagaien edo kontzeptuen artean harremana dagoela adierazteaz gain, harreman horren norabidea zehazten da.

Hipotesiak aldagaiak edo kontzeptuak elkarrekin handitzen edo txikitzen direla adierazten badu; aldagaien edo kontzeptuen artean zuzeneko harremana adierazten duen hipotesia da. Adibidea: mendebaldeko herrialdeen errenta igotzen den heinean, handitu egiten da alderdi kontrabadoreek hauteskunde orokorretan lortzen duten bozka kopurua.

Hipotesiak aldagaia edo kontzeptu bat handitzen denean bestea txikitu egiten dela adierazten badu, aldagaien edo kontzeptuen artean alderantzizko harremana adierazten duen hipotesia da. Adibidez: mendebaldeko herrialdeen errenta igotzen den heinean, gutxitu egiten da ezkerreko alderdien bozka kopurua.

—**Hipotesi kausalak:** aldagaien edo kontzeptuen artean harreman ausartean adierazten dituzte, eta fenomenoak sakonean ezagutzeko informazio asko ematen dute. Hala ere, zailean dira baieztatzeko edo ezeztatzeko.

Hipotesi kausalak era askotakoak izan daitezke:

- Batzuetan, hipotesi kausalek aldagai edo kontzeptu bat beste aldagai edo kontzeptu baten kausa dela adierazten dute. Adibidez: alfabetizazioak mugimendu demokratikoak sortzen ditu.
- Beste batzuetan, «zerbait gertatzen bada... orduan beste zerbait gertatzen da» bezalako formulak erabiltzen dituzte, aldagaien edo kontzeptuen artean harremanak adierazteko. Adibidez: herrialde bateko errenta 3000 dolarretara iristen bada, Gobernuz Kanpoko Erakundeen (GKE) kopurua 200etik gorakoa da.
- Azkenik, hipotesi kausalak era ezkorrean formulatu daitezke. Adibidez: hurrengo hauteskundeetan EAJk 10 puntuko abantaila ateratzen ez badio PPri, gutxienez bere botoen %10 galduko du hurrengo hauteskundeetan.

4. ADIBIDEA: hipotesien formulazioa

EFFECTOS Y ACTITUDES DE LA INFANCIA Y DE LA JUVENTUD ANTE LAS NUEVAS TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN

Efectos y actitudes de la infancia y de la juventud ante las nuevas tecnologías de la información ikerketan, ikus-entzunezko teknologia zahar (telebista, irratia, musika aparatua...) eta berriek (ordenagailua, bideo-kontsola...) Europako 6 eta 16 urte bitarteko ume eta gazteen portaerengan eta jarrerengan zuten eragina aztertu genuen 1997 eta 1998. urteetan.

Ikerketa horretan honako hipotesi hauek erabili genituen:

1. Los niños y jóvenes españoles tienen un alto nivel de equipamiento tecnológico en sus hogares pero, sin embargo, apenas lo utilizan en sus tareas escolares. Su uso se limita en gran medida a los juegos.
 2. Las nuevas y viejas tecnologías de la información permiten a los niños y jóvenes comunicarse con los demás. Es más, no parece que el uso de estos aparatos crea problemas en las relaciones de los niños y jóvenes con sus padres, amigos y/o profesores.
 3. Los jóvenes y niños tienen claro que los amigos, padres y familia tienen más importancia en sus vidas que los aparatos tecnológicos.
-

Hipotesi hutsek, hipotesi koerlatiboek eta norabide zehazten dutenek aztergai diren kontzeptu edo aldagaien artean dauden harremanak adierazten dituzte. Hobe esanda, erlazioak, korrelazioak eta kobariazioak adierazten dituzte aldagaien edo kontzeptuen artean. Hipotesi kausalek, aldiz, aldagaien edo kontzeptuen arteko harremanak zehazteaz gain, beste bi eratako informazioak ere ematen dizkigute: alde batetik, fenomeno bat (kausa) beste fenomeno bat (efektua) baino aurretikoagoa dela denboran; bestetik, kausarik gabe efekturik ez dagoela edo efektua kausaren menpe dagoela.

«Political scientists often speak about causal hypotheses, construct causal models, and perform causal analysis, but we seldom achieve causal knowledge. The world of politics is so complex and our ability to test causal hypotheses so limited that causal knowledge remains elusive, and causal hypotheses are rare. But since a causal hypothesis posits the most informative form of scientific knowledge, it is in many respects the most desirable type of hypothesis». Buttolph, J. y Joslyn, A.R. (1995): *Political Science Research Methods*. CQ Press, Washington, (3. edizioa), 48. orrialdea.

Hipotesi kausalek gizarte fenomenoak sakonean ezagutzeko informazio asko ematen badute ere, kontuan izan behar dugu Gizarte Zientzietan oso zaila dela kausa-efektu harremanak aurkitzea.

5. ADIBIDEA: hipotesien formulazioa

LOS NIÑOS Y LA POLÍTICA EN EUSKAL HERRIA SUR

Con esta investigación, hemos querido conocer lo que es importante y significativo para los niños y niñas de Euskal Herria Sur en relación con la política; es decir, llegar a comprender cómo ven, clasifican e interpretan el mundo de la política.

La investigación se ha basado en información cuantitativa obtenida de 800 encuestas personales que se ha realizado a niños y niñas que están estudiando en diferentes modelos lingüísticos y en escuelas privadas y públicas de Navarra, Bizkaia, Gipuzkoa y Álava.

La investigación parte de las siguientes hipótesis:

1. La familia es el ámbito que mayor influencia genera en el proceso de socialización política en los niños y niñas de entre seis y doce años en la CAPV y Navarra.
 2. Existen diferencias de género en la socialización política de niños y niñas, que explicaría el supuesto menor interés e implicación de las mujeres en la política.
 3. Existen diferencias de género a la hora de valorar el liderazgo político; es decir, la valoración de los líderes masculinos es más positiva que la valoración hecha a sus iguales femeninos.
 4. Existen diferencias significativas en la socialización política de los niños y niñas de entre seis y doce años en función del modelo lingüístico en el que son educados/as.
 5. La identificación e interiorización de un conjunto de símbolos políticos están relacionadas con la ubicación geográfica.
-

1.4. Kontzeptuen edo aldagaien operazionalizazioa

Kontzeptu edo aldagaien operazionalizazioarekin, hipotesietan erabili ditugun aldagai edo kontzeptuak nola neurtuko ditugun zehazten dugu. Horretarako, hipotesietan erabili ditugun hitzekin eta kontzeptuekin zer esan nahi dugun argitu behar dugu, lehenengo eta behin. Ondoren, kontzeptu bakoitza neurtzeko modu onena zein den zehaztuko dugu.

6. ADIBIDEA: kontzeptuen edo aldagaien operazionalizazioa

EAEKO ENPRESEN LAN ESTRATEGIEI BURUZKO IKERKETA

EAE-ko enpresen lan estrategiak aztertzeko egin genuen inkestan, enpresen kontratazio politika aldagai askea zen, eta arduraldi osoan kontratatutako langile kopurua neurtuz operazionalizatzen genuen.

Pregunta 25. ¿Cuántos trabajadores tienen dedicación completa en su empresa?

Trabajadores

Hitzen eta kontzeptuen definizioa garrantzitsua da Gizarte Zientzietan. Izan ere, erabiltzen ditugun hitzek eta kontzeptuek esanahi bat baino gehiago izaten dituzte sarri askotan, eta bakoitzarekin esan nahi duguna argitzen ez badugu, ez ditugu behar bezala operazionalizatuko, eta txarto ulertzen diren edo zalantzak sortzen dituzten galderak sortuko ditugu. Hau da, neurtu nahi duguna neurtzen ez duten tresnak sortuko ditugu.

Kontzeptuen edo aldagaien operazionalizazioa aldatu egiten da teknika-
ren arabera:

- Saioetan, estimulu esperimentalak zehaztu, estimulu esperimentalaren eragina jasotzen duten eta jasotzen ez duten taldeak osatu eta hauen portaerak gertatuko diren ingurunearen baldintzak kontrolatu behar dira. Saioa bukatu ondoren, galdeketa edo test bat prestatu behar da, estimulu esperimentalak izan duen eragina neurtzeko.
- Inkestaren kasuan, aztergai diren aldagaien operazionalizazioa galdeketa joango diren galderen formulazioan datza. Galdeketa erabiliko ditugun galderak idatzi, galdeketa izango duen formatua zehaztu, eta galderari erantzuteko estimulu gisa erabiliko diren fitxa, txartel edota irudiak prestatuko ditugu.
- Sakoneko elkarrizketetan, bizitza historietan eta eztabaida taldeetan, aztertu nahi diren arloak edo neurtu nahi diren dimentsioak eta kontzeptuak zehatz-mehatz definitu ondoren, horiei buruzko informazioa jasotzeko erabiliko dugun gidoia osatuko dugu. Gidoiak informazioa lortzeko egin beharreko galderak edo aurkeztu beharreko gaiak zehazten ditu.
- Delphy teknikan, galdera irekiak dituen galdeketa prestatzen da. Adituek askatasun osoz erantzutea nahi dugun heinean, galdeketa horrek galdera irekiak ditu. Alegia, ez da erantzun aukerarik ematen, eta inkestatuek nahi dutena erantzuten dute.
- Behaketetan, aldagaien operazionalizazioak datuak biltzeko protokoloarekin edo fitxarekin zerikusia du; alegia, ikusten denari buruz informazioa biltzeko erabiliko dugun tresnarekin.
- Eduki azterketan, aldagaien operazionalizazioa testuan zehar aztertuko ditugun erregistro unitateak (hitzak, esaldiak...) eta erregistro unitate horiek sailkatzeko erabiliko ditugun kategoriak zehaztearekin zerikusia du; alegia, testutik inferentziak ateratzeko erabiliko dugun sailkapen ereduarekin.

7. ADIBIDEA: kontzeptuen edo aldagaien operazionalizazioa

USANSOLOKO HERRITARREK IKUSTEN DITUZTEN BEHARRIZAN ETA ARAZOEI BURUZKO IKERKETA (1999)

Ikerketa honetan, Usansoloko biztanleek zituzten beharrizan eta arazoak aztertu genituen, bultzatu edota konpondu behar ziren arloak hobeto ezagutzeko asmoarekin. Honako hipotesi honetatik abiatzen ginen: Usansoloko herritarren arazo nagusienak osasun zerbitzuekin eta garraio publikoekin zerikusia dute.

Hipotesi hau frogatzeko, Usansoloko herritarren arazo nagusienak zeintzuk ziren neurtu genituen honako galderaren bitartez:

2. Usansolon dauzkagun zerbitzu publikoen kalitatea kontuan hartuz, zer-nolako gaiak bultzatu edo konpondu behar dira? (guztiak irakurri eta bi aukeratu)

—Osasun zerbitzuak	1
—Garraio publikoak	2
—Kultur zerbitzuak	3
—Oinarrizko zerbitzuak (ura, estoldak)	4
—Irakaskuntza zerbitzuak	5
—Kirol zerbitzuak	6
—Aisialdirako zerbitzuak	7
—Beste batzuk	8
—Ez daki ez du erantzuten	9

1.5. Ikerketaren diseinua

Ikerketaren diseinuarekin, gure helburuak lortzeko egingo dugun **plana** eta jarraituko dugun **estrategia** zehazten ditugu. Plana ikerketaren hasieratik amaiera arte egingo dugunarekin loturik dago; hau da, emango ditugun pauso zehatzekin. Estrategiak informazioa biltzeko aukeratu den teknikarekin zerikusia du.

Diseinuak, beraz, ikerketaren hipotesiak onartzeko edo ezeztatzeko egin behar diren azterketak, azterketa horiek egiteko emango diren pausoak, eta behin informazio lortu ondoren erabiliko diren prozedura analitikoak eta estatistikoak zehazten ditu.

1.5.1. DISEINUA ERABAKITZERAKOAN ERAGINA DUTEN ZENBAIT FAKTORE

Ikerketa diseinu on bat egitea, ikergaia ondo definitzea zein hipotesi egoikiak formulatzea bezain garrantzitsua da. Nahiz eta hipotesiak ondo formulatuta egon eta originalak izan, diseinu txar batek ondorio okerretara edo garrantzirik gabekoetara eramango gaitu. Aldiz, diseinu on bat gauzak ondo egiteko eta emaitza onak lortzeko oinarrizko abiapuntua da. Ikerketarako erabakiko den diseinua ikerketaren helburuen, ikergaiak onartzen duen kontrol mailaren eta informazioa lortzeko dauden muga praktikoen arabera dago nagusiki:

a. **Ikerketaren helburuak:** ikerketaren helburuek eragin handia dute diseinua zehazterakoan. Izan ere, ikerketa esploratzaileetan, deskribatzaileetan eta esplikatzaileetan diseinu mota desberdinak erabiltzen dira:

—**Ikerketa esploratzaileetan,** fenomenoaren ezagutza orokorra lortu nahi da. Helburua gehiago da balizko azalpenak aurkitzea, hipotesi zehatzak frogatzea baino. Aztergai den fenomenora lehen hurbilpena egin nahi dugunez, diseinu malgua egiten dugu. Zer aurkituko dugun alde aurretik ez dakigunez, ahal den informazio gehien biltzen saiatu behar gara. Beraz, galdera orokorrak eta irekiak planteatzen ditugu. Ikerketa esploratzaileetan oso onak dira behaketak, eztabaida taldeak eta sako-

neko elkarrizketak; hau da, aztergai den fenomenoari buruz ideia orokorra ematen diguten teknikak.

- **Ikerketa deskribatzaileetan**, fenomeno baten arlo desberdinen eza-gupen zehatza egin nahi da, formulatu ditugun hipotesiak frogatzeko. Ikerketa esploratzaileetan baino diseinu zehatzagoak behar dira; hots, ikerketarekin lortu nahi dena argi dagoenez, ikerketa diseinu landua-goak erabiltzen dira. Era honetako ikerketetan, erabilgarriak dira inkestak eta ondo zehaztutako behaketak.
- **Ikerketa esplikatzaileetan**, hipotesi kausalak frogatu nahi dira. Era honetako ikerketen helburua da, aldagai bat edo batzuk beste aldagai batengan edo batzuegan duten eragina azaltzea. Aztergai diren fenomenoen azalpen kausalak lortu nahi dira; beraz, teoria sendoak eta diseinu oso sofistikatuak behar ditugu. Inkestak eta saioak dira ikerketa esplikatzaileak egiteko teknikarik aproposenak. Inkestaren bitartez lortzen dugun informazioarekin, aztergai den fenomenoari edo portaerari ematen zaion sakoneko esanahia ezagutu eta hipotesi kausalak frogatu daitezke. Saioarekin, menpeko aldagaiaren aldaketak neurtuz, estimulu esperimentalak zenbateraino eragina duen aztertzen da, eta, horrekin, hipotesi kausalak frogatu ditzakegu. Hala ere, ez ahaztu, diseinu esperimentaletan oinarrituz generalizazioak egiteko arazoak izaten direla.

b. **Ikergaiak onartzen duen kontrol mailaren eragina**: aldagai askea, aztergai diren subjektuak eta aztergai den portaera edo fenomenoak kontrolatzeko dugun gaitasunak edo erraztasunak eragina du diseinu bat edo beste prestatzerakoan. Zentzu honetan, diseinu esperimentalen eta ez esperimentalen artean desberdindu behar da:

- **Diseinu esperimentaletan**, ikerlariak aldagai askea, aztergai diren kasuak eta aztergai den fenomenoak edo portaerak kontrolatzen ditu. Ikertzaileak zehazten du nork jasango duen aldagai askearen eragina eta nork ez. Aldagai askearen eragina jaso duten eta jaso ez dutenen arteko desberdintasunak aztertzen dira ondoren. Saioa da diseinu esperimentalak egiteko teknikarik onena. Hala ere, kontuan izan Gizarte Zientzietan diseinu esperimental gutxi egiten dela. Izan ere, arazoak izaten dira talde esperimentalak eta kontrolerako taldeak osatzeko, eta estimuluek portaeretan eta jarreretan duten eragina neurtzeko; baita diseinu esperimentaletan oinarrituz generalizazioak egiteko ere.
- **Diseinu ez esperimentaletan**, ikertzaileak ez du aldagai askea, aztergai diren kasuak eta aztergai den fenomeno edo portaera kontrolatzeko gaitasunik. Ez daki *a priori* nork hartuko duen aldagai askearen eragina eta nork ez. Errealitatea den bezala, manipulatu gabe aztertzen du. Sakoneko elkarrizketa, behaketa zuzena, eztabaida taldeak edo inkestak oso erabiliak dira diseinu ez esperimentaletan. Gizarte Zientzietan gehien erabiltzen den diseinu mota da.

c. **Informazioa lortzeko dauden muga praktikoen eragina:** ikerketa bakoitzean dauden muga eta arazoek eragin handia dute diseinu orokorrean. Diseinu batzuk etikarik gabekoak edo legez kanpokoak izan daitezke, mesfidantzak edota zalantzak sortu ditzakete, edo ezin dira egin informazio, denbora edo dirurik ez dugulako. Beraz, dauzkagun arazo, oztopo eta muga guztiak kontuan izanik, diseinu onena aukeratu beharko dugu. Besteak beste, ikerketak diseinatzerakoan honako arlo hauek izan beharko ditugu kontuan:

- Ikertzeko modu batzuk etikarik gabekoak dira. Adibidez, ez da oso etikoa, sakoneko elkarrizketetan edo bizitza historietan, elkarrizketatuari grabatzeko baimena eskatu gabe, ezkutuko grabagailuak erabiltzea edo galdeketak erantzutera bultzatzeko gezurrak esatea (opari bat jasoko duela edo zozketa baten parte hartuko duela esatea, adibidez). Etika profesionalaren izenean uko egin behar diogu datuak edonola lortzeari. Zentzu honetan, ezkutuko kamerak erabiliko ditugu bakar bakarrik: ikerketaren emaitzak interes publikoarentzat oso garrantzitsuak badira, ikerketa horren emaitzek jende askori eragiten badiete, informazio lortzeko beste aukera guztiak amaitu badira, eta lortutako informazioaren garrantziak gizabanakoen intimitate haustea gainditzeko badu.
- Lege eta araudiek eragin handia dute ikerketen diseinuetan zein aukeratu den teknikan. Lege eta araudiek ikerketak zer-nolako mugen barruan egin behar diren zehazten dute. Baimenik gabe sakoneko elkarrizketa bat grabatzen badugu eta elkarrizketatua ohartzen bada, lege arazoak izan ditzakegu pertsona horrekin, bere oinarriko eskubideak ukatu ditugulako. Arazo bera izango dugu, legezkoak ez diren behaketak egiten baditugu edo informazioa eman diguten pertsonen izenak euren baimenik gabe plazaratzen baditugu.
- Teknika bat aukeratu edo diseinu orokorra pentsatzerakoan, teknika bakoitzak ikertuengan izan dezakeen eragina aztertu behar da; hau da, sortzen dituen erreakzioak ezagutu behar dira. Kontuan izan behar dugu, ikertzaileak edo datuen bilketan erabiliko den teknika eragina izan dezakeela ikergai den fenomenoan, eta hori kutsatutako edo akatsak dituen ondorioen sorrera izan daitekeela. Zentzu honetan, ikerketarako aukeratu dugun teknika ikertuen portaerak aldatu (behaketan ikertzaileak oso agerian hartzen baditu notak, adibidez) edo erantzunak bideratu ditzakeela pentsatzen badugu (gai batzuetan inkestatzailearen janzkerak, izaerak edota berezitasunek erantzunak zentzu batean edo bestean bideratu ditzakete), beste teknikaren bat erabili beharko dugu.
- Oso kontuan izan behar ditugu populazioaren berezitasunak. Ikergai den populazioaren berezitasunen arabera, teknika batzuk beste batzuk baino erabilgarriagoak izango dira:
 - Umeengandik eta zaharregandik, adibidez, inkestaren bidez informazioa lortzea asko kostatzen da.

- Ikerketa posta bitartez egitea pentsatzen badugu, eta aztergai den populazioa idaztera ohitua ez badago, ez da komeni galdera ireki asko erabiltzea.
 - Jende oso pobrea edo oso aberatsa ikertzeko, ezin ditugu inkesta telefonikoak erabili. Izan ere, lehenengokoek ez dute telefonorik eta besteek, telefonoa izan arren, asko kostatzen da euren telefono zenbakiak aurkitzea edo telefonoa hartzen duen norbait izaten dute, eta zaila izaten da eurekin zuzenean hitz egitea.
- Azkenik, azpimarratzekoa da teknika batzuk beste batzuk baino garestiagoak direla, edo informazioa bizkorrago biltzen dutela. Daukagun diruak eta denborak eragin asko dute egingo dugun diseinuan:
- Lagin handiak hartzen dituzten inkestak edo panel ikerketak oso garestiak dira, eta denbora asko behar izaten da behar bezala egin nahi baditugu. Inkesta pertsonalak, inkesta telefonikoak eta postaz egiten direnak baino garestiagoak dira, gainera denbora gehiago behar da ikerketa burutzeko.
 - Eztabaida taldeetan, bizitza historietan eta sakoneko elkarrizketetan oinarritutako ikerketak inkestetan oinarritutakoak baino merkeagoak dira, baina denbora asko behar izaten da taldeak osatzeko, eta elkarrizketarako pertsona egokiak bilatzeko.
 - Delphyetan, kanpo lana inkestetan baino errazago prestatzen da. Gainera, jende gutxiago behar da lanerako. Beraz, dirua eta denbora aurrezten dira. Dena dela, kontuan izan, erantzun kopurua handitzeko mota askotako sariak eskaini daitezkeela (opariren bat, zerbaiten zozketan parte hartzea...), eta horrek ikerketa garestitu dezakeela.
 - Behaketa zuzenak denbora asko eskatzen du ikerlari bakar batek egiten badu. Bestalde, oso garestia izan daiteke behatzaile asko behar duten behaketak egin behar baditugu.
 - Eduki azterketa Gizarte Zientzietan daukagun ikerketa teknikarik merkeenetarikoa da. Izan ere, teknika honekin beste batzuk sortu duten materiala aztertzen da. Dena dela, kontuan izan behar da, teknika honen bidez egindako ikerketak garestiak izan daitezkeela, testuak ordenagailuz aztertu nahi baditugu. Aztergai den materiala euskarri informatikoan ez badago, garestia da testuak ordenagailuarekin aztertzekeo eran prestatzea.
 - Iturri ez zuzenetatik lortzen dugun informazioa merkeagoa da; hain zuzen ere, erabiltzen ditugun datuak beste pertsona edo erakunde batzuk bildu eta ordaindu dituztelako. Informazioa erraz eskuratu badaiteke, oso bizkor egiten dira ikerketak.

Ikuspuntu hauek denak kontuan hartzen ez baditugu, errore sistemati-koak egingo ditugu. Diseinuak egiterakoan, ikerketaren helburuak, iker-

gaiak onartzen duen kontrol maila eta informazioa lortzeko dauden muga praktikoak kontuan hartzen ez baditugu, baliorik gabeko ikerketak egingo ditugu. Egiaz, ikerketa prozesuan egiten ditugun errore sistematikoek eragin izugarria dute bilduko dugun informazioaren kalitatean. Gure emaitzak itxuraldatzeaz gain, errore sistematikoek ezin daitezke neurtu eta euren eragina pilatu egiten da. Errore sistematikoak ekiditeko kontuan izan honako aholku hauek:

- Galderek forma egokia izan behar dute. Zentzu honetan, gai bati buruzko informazio asko ez daukagunean edota zer aurkituko dugun aldeez aurretik ez dakigunean, ez da egokia galdera itxiak erabiltzea. Izan ere, ez dakigu zeintzuk diren galderen erantzun aukera posible guztiak, eta gerta daitekeena da, erantzun aukera batzuk ahaztea. Ondorioz, baliokoak ez diren emaitzak lortuko ditugu.
- Teknikak ikergai den populazioarengan sortzen dituen erreakzioak ere errore sistematikoen sortzaile izan daitezke. Teknikak txarto aukeratzearen ondorioz, jendeak gezurra esan dezake, eta, beraz, baliokoak ez diren ondorioak lortuko ditugu. Gizakien sexu portaerak neurtzeko etxez-etxeko inkesta egiten badugu, normalena da inkestatuek gezurrak esatea, inkestatzailearen aurrean gai horri buruz egia esaten lotsatzen direlako edo itxura zehatz bat eman nahi dutelako. Zentzu honetan, gai bakoitzak era bateko teknikak erabiltzea eskatzen du. Aztertzen den gaiari ondo egokitzen ez zaizkion teknikak aukeratzeko baditugu, kalitate txarreko emaitzak lortuko ditugu. Euskararen erabilera neurtzeko, adibidez, ez da egokia etxez-etxeko inkestak erabiltzea; hain zuzen ere, inkestetan jendeak errealtatean euskara erabiltzen duena baino gehiago erabiltzen duela erantzuten duelako. Inkestatuek, errealtatean oinarrituta baino gehiago, nahien arabera erantzuten dute. Honela, bada, era honetako inkestetan errore sistematikoak egiten ditugu, inkesten emaitzek euskararen erabilera errealtatean dena baino handiagoa dela erakusten dugulako. Euskararen erabilera neurtzeko modu onena behaketak egitea da.
- Teknikak aukeratzekoan populazioaren berezitasunak kontuan hartzen ez baditugu, errore sistematikoak egin ditzakegu. Umeekin, pertsona helduekin eta nagusiekin teknika desberdinak erabili beharko ditugu. Inkesta bat egin behar badugu, umeekin komiki erako galdeketa bat erabiliko dugu, eta nagusiekin gauza denak oso ondo azalduta eta letra handiak dituen galdeketa.
- Bildutako informazioa laburbildu eta aurkezteko aukeratu ditugun koefiziente eta estatistikoak ere errore sistematikoen iturri izan daitezke. Aldagai nominal bat aldagai jarrai gisa aztertzen badugu, baliorik gabeko emaitzak lortuko ditugu. Hots, sexua bezalako aldagai nominal batetik batez bestekoa ateratzen badugu, zentzurik gabeko emaitzak lortuko ditugu.

8. ADIBIDEA: errore sistematikoak

EUSKARARI BURUZKO IKERKETA LEA ARTIBAIKO LANGILEEN ARTEAN

Lea Artibai Eskualdean, euskararen ikaskuntza indartzeko eta susperitzeko, eskualde honetako lantegietako langileek euskara ikasi edota hobetzeko dituzten gogo eta jarrerak ikertu eta, era berean, euskara ikasteko edo alfabetatzeko talderen bat sortu daitekeen ezagutu nahi izan dugu. Azken helburua da, lantegietan sortzen diren berezko taldeetan euskarazko ikastaroak martxan jartzeko dauden aukerak ezagutzea.

Ikerketa egiteko inkestan oinarritu gara. Zehazki, langile bakoitzak bete duen inkesta egituratua erabili dugu. Honela, bada, enpresetako langileen artean galdeketa banatu dugu, eta aste baten buruan erantzunda ekartzeko eskatu diegu. Inkestan honako galdera hau erabili dugu:

1. Zein izan zen zure lehen hizkuntza umetan? (Bat aukeratu)

—Euskara	1
—Erdara	2
—Biak	3
—Beste bat	4

Gure ikerketak errore sistematikoak izango lituzke, galdera honi emandako erantzunetatik abiatuz, batezbesteko bat aterako bagenu. Baita beste aldagai nominal batekin (sexuarekin, adibidez) duen harremana neurtzeko Pearsonen r bezalako koefizientea erabiliko bagenu ere. Lehen hizkuntzari buruzko galdera hau aldagai nominala den heinean, informazioa laburbiltzeko aldagai nominalekin erabili daitezkeen koefizienteak erabili beharko ditugu. Kasu honetan, informazioa laburbiltzeko modu bakarra da ehunekoak ateratzea. Modu berean, sexuarekin duen harremana ezagutzeko, chikarratu koefizientea erabili beharko dugu.

1.5.2. ESTRATEGIA ETA PLANA

Ikerketaren helburuak, aztergai den fenomenoaren berezitasunak, dauzlagun bitartekoak, mugak edo arazoak eta aztergai den fenomeno kontrolatzeko dugun gaitasuna kontuan hartuz, diseinurik onena aukeratu behar da. Hau da, faktore hauek guztiak kontuan hartu ondoren, informazioa biltzeko estrategia eta plan onenak pentsatu behar dira, edo, nahiago bada, emango diren pausoak eta erabiliko diren teknikak zehaztu behar dira.

Pausoei dagokionez, eta arestian esan bezala, era batera edo bestera ikerketa guztietan eman behar diren hamar pauso daude: 1.—Ikergaiaren definizioa, 2.—Gaiari buruzko literaturaren azterketa 3.—Hipotesien formulazioa, 4.—Aldagaien edo kontzeptuen operazionalizazioa, 5.—Ikerketaren diseinua, 6.—Datuen bilketa, 7.—Datuen azterketa, 8.—Ondorioen interpretazioa, 9.—Azken txostenaren idazketa, 10.—Ikerketaren fidagarritasuna.

sun eta balioaren kontrola. Hala ere, ikerlariak erabaki behar du kasu bakoitzean zeintzuk diren emango dituen pauso zehatzak. Daukagun diruak, denborak eta aukeratu dugun teknikak zer esan asko dute horretan.

Zenbat eta diru eta denbora gehiago izan, are eta lasaiago ibiliko gara pauso bakoitzean, eta gauza gehiago egin ahal izango ditugu. Denbora eta dirua dugunean, teknika desberdin gehiago erabili ahal izango ditugu, hartuko ditugun laginak handiagoak izango dira, eta, oro har, diseinu sofistikatua goak prestatu ahal izango ditugu.

Erabiliko diren teknikak zehazterakoan, gauza bi izan behar dira kontuan:

Alde batetik, ezin da ahantzi, ikerketa prozesuan teknika kuantitatiboak (inkesta, eduki azterketa edo behaketa) eta kualitatiboak (sakoneko elkarrizketa, bizitza historiak, delphy edo eztabaida taldeak) oso ondo elkar lotzen direla. Teknika mota bi hauek elkarren aurka jartzen dituztenen aurrean, gure ikuspuntua da teknika mota biak elkarren osagarri direla, eta nahitaezkoa dela teknika mota biak erabiltzea.

Bestetik, eta liburu honen sarreran esan bezala, teknikak aukeratzekoan ikerketarako lau bide daudela gogoratu behar dugu:

- Lehen bidea da gizakien bizitzan partehartze kontrolatua eginez, portaera, jarrera edo gertaerak sortu edo manipulatzeko. Saioa da bide honetan aurkitzen dugun teknika adierazgarria. Era honetako tekniken oinarri metodologikoa da, adierazgarria dela ikerlariak prestatu duen estimulua jasan dutenen eta jasan ez dutenen arteko desberdintasunen azterketa, eta hortik abiatuz generalizazioak egiteko informazioa lortu genezakeela.
- Bigarren bidea da, gizakiei euren ikuspuntu, jarrera edota portaerei buruz era sistematiko eta kontrolatua galdetzea. Ikertzeko bigarren bide honen baitan sakoneko elkarrizketa, bizitza historiak, eztabaida taldea, inkesta eta delphy bezalako teknikak ditugu. Teknika hauen abiapuntu metodologikoa da kanpo portaera behatuz ezin dugula fenomeno sakoneko esanahia ezagutu, eta, ondorioz, esanahia hori behar bezala ezagutzeko eta bere sakontasunean ulertzeko biderik onena gizakiei galdetzea dela.
- Hirugarren bidea da, inolako manipulazio edota aldaketarik egin gabe, gizakien portaerak era sistematiko eta kontrolatua begiratzea. Behaketa zuzena da teknika ezagunena hirugarren bide honetan, eta bere abiapuntu metodologikoa da, kanpo portaera behatuz informazio ugari lortu eta fenomeno sakoneko esanahia ezagutu genezakeela.
- Laugarren bidea da, beste batzuk sortu edota bildu duten materiala aztertzea: eduki azterketa eta iturri ez zuzenen azterketa dira, laugarren bide honetako teknika ezagunenak. Azken bide honen oinarri metodologikoa da, adierazgarria dela beste pertsona edo erakunde batzuk bildu, sortu edota gorde dituzten estatistika, testu, dokumentuak eta materialak aztertzea.

Gaiaren eta daukagun diruaren eta denboraren arabera, bide bat edo beste aukeratuko dugu.

1.5.3. EGITASMOAREN AURKEZPENEA

Behin diseinu orokorra pentsatu ondoren, beharrezkoa izaten da ikerketa egiteko kontratatu gaituenari edo ikerketa ordainduko duenari pentsatutako diseinua aurkeztea. Besteak beste, egitasmo honek honako atal edo informazioak izan behar ditu:

- Ikerketaren helburuak eta hipotesiak agertzen dituen sarrera izan behar du.
- Informazioa biltzeko aukeratutako teknika edo teknikak aurkeztu, eta hauek erabiltzeko arrazoiak agertu behar dira.
- Laginaren berezitasunak (laginketa errorea, konfiantza maila, lagina biltzeko datak...) eta kanpo lana nola egingo den argitu behar dira.
- Ikerketaren kronograma zehaztu behar da
- Aurrekontua azaldu behar da

9. ADIBIDEA: egitasmoaren aurkezpena

USANSOLOKO HERRITARREK IKUSTEN DITUZTEN BEHARRIZAN ETA ARAZOEI BURUZKO IKERKETA (1999)

Aurkezpena

Herri baten beharrian guztiak zehatz-mehatz ezagutzea zaila dela ez dago zalantzarik. Dena dela, interesgarria da, egon daitezkeen beharrian eta arazoei buruzko ikerketa bat egitea, hauen inguruan argitasun pixka bat lortzeko, eta bultzatu eta konpondu behar diren arloak hobeto ezagutzeko.

Argi dugu ere, inkesta honek neurtu nahi dituen gai eta arazo asko ez direla era errazean konpontzeko modukoak. Dena dela, interesgarria iruditzen zaigu Usansoloko herriak gai hauei eta, orokorrean, etorkizunari aurre egiteko aurkezten dituen bide eta proposamenak ezagutzea. Honela, bada, ikerketa honek helburu nagusi bi ditu:

1. Usansoloko herritarren arazoak ezagutzea.
2. Arazo horiek gainditzeko planteatzen dituzten irtenbide eta proposamenak ezagutzea.

Erabiliko den metodologia

Ikerketa hau egiteko etxez-etxeko inkesta bat egingo dugu.

Unibertsoa eta Lagina

Ikerketa honen unibertsoa 16 urte baino gehiago duten Usansoloko herritarrek osatzen dute.

600 inkesta egin behar ditugu laginketa errore onargarri bat lortzeko. Hau da, %95eko konfiantza mailarekin \pm %3,8ko errorea izateko.

Usansolo auzo desberdinetan banatu ondoren, auzo bakoitzean bertako biztanleen araberrako inkesta kopurua egingo dugu. Era berean, auzo bakoitzean adin eta sexuen arteko banaketa hartuko da kontuan.

Ikerketaren kronograma

- Otsailean zehar, inkesta eta lagina behar bezala prestatu, fotokopiak atera eta inkestatzaileak bilatu eta prestatuko dira.
- Martxoko lehen astean, galdeketa pasatuko dugu.
- Martxoko bigarren astean, datuak ordenagailuan sartuko ditugu.
- Martxoko bigarren erditik apirilaren erdira arte, datuak atera, emaitzak aztertuko ditugu eta azken txostena idatziko dugu.

Kronograma egiterakoan, oso kontuan izan behar dugu ikerketa egiteko daukagun denbora. Lehen esan bezala, zenbat eta denbora gehiago izan, are eta lasaiago ibiliko gara pauso bakoitzean, eta diseinu sofistikatuagoak egin ahal izango ditugu. Teknika desberdin gehiago eta, oro har, azterketa konplexuagoak erabili ahal izango ditugu.

Kronogramak egiterakoan, erabilgarriak izan daitezke honako aholku hauek:

- Telefono bidez, postaz egindako inkestekin baino bizkorrago lortzen dugu informazioa, eta postaz egindako inkestekin etxez-etxe egindakoekin baino bizkorrago.
- Galdera irekiak dituzten ikerketak egiteko (inkestatzaileari ez zaizkio erantzutza aukera posibleak ematen, eta bere hitzekin erantzuten dio galderari), galdera itxiak erabiltzen dituzten ikerketak egiteko (inkestatzaileak aurkezten zaizkion erantzun aukera desberdinen artean aukeratu behar du) baino denbora gehiago behar da. Izan ere, galdera irekiekin denbora asko behar da erantzunak irakurtzeko, kodifikatzeko eta ordenagailuan sartzeko. Horregatik, hain zuzen ere, ikertzaileek galdera irekiak ekiditen dituzte, edo oso galdera ireki gutxi erabiltzen dituzte galdeketetan.
- Zenbat eta lagin handiagoa izan, laginketa errorea gutxitu egiten da, baina denbora gehiago behar izaten da ikerketa egiteko.
- Sakoneko elkarrizketa eta eztabaida taldeetan oinarritutako ikerketek inkestetan oinarritutakoekin baino denbora gehiago behar dute. Izan ere, asko kostatzen da elkarrizketatzeko eta eztabaidetan parte hartzeko jendea bilatzea.
- Momentuko gertakizun bat ikertu nahi ez bada, behaketan oinarritutako ikerketak luzeak dira, ia gehienetan. Izan ere, behaketa zuzenean oinarritutako ikerketetan behaketa ugari egin behar izaten da.
- Ikerketak egiteko modurik bizkorrena, iturri ez zuzenak aztertzea da; alegia, beste pertsona edo erakunde (erakunde publiko zein pribatuak,

ikerlariak, gobernuz kanpoko erakundeak...) batzuk bildu, sortu edo gorde dituzten estatistika, dokumentu, grabaketa eta material pertsonalak aztertzea. Iturri ez zuzenen azterketarekin, ez dugu kanpo lanik egiten. Informazioa sortu, antolatu eta gorde beste pertsona batzuk egin duten heinean, bizkorrago egiten da ikerketa.

- Ikerketa batzuetan, galdeketa banatzen hasi aurretik, azertu nahi den populazioaren zati txiki batean pasatzen da galdeketa, jendeak galdeketa galderak ulertzen dituen ikusteko, eta egon daitezkeen arazoak aldeztu aurretik ezagutzeko. Aurre-testek abantaila asko ekartzen badiutuzte ere, denbora eta dirua gastatzea esan nahi du.

10. ADIBIDEA: ikerketaren kronograma

CRONOGRAMA DE LA INVESTIGACIÓN LOS NIÑOS Y LA POLÍTICA EN EUSKAL HERRIA SUR

1.º AÑO: 2000

- Enero-febrero-marzo de 2000: análisis de la literatura existente sobre el tema:** la investigación comenzará con el análisis exhaustivo de la literatura, las investigaciones y la información existente sobre la relación de los niños/as con la política.
- Abril-mayo-junio-julio de 2000: redacción del cuestionario y de los guiones necesarios (padres, niños/as y educadores) para llevar a cabo las entrevistas en profundidad:** a partir del análisis de la literatura existente sobre el tema, se redactarán tanto el guión para las entrevistas en profundidad como el cuestionario que se van a utilizar para obtener la información.
- Septiembre de 2000: preparar la muestra:** será necesario obtener una muestra de las escuelas y aulas en las que se pasarán las encuestas, así como determinar las personas a las que se realizará la entrevista en profundidad.
- Octubre de 2000: el pretest:** se escogerá una escuela para realizar el pretest de la encuesta, y se realizarán dos entrevistas, para ver como funcionan tanto la encuesta como los guiones preparados.
- Noviembre-diciembre de 2000: la recogida de datos:** una vez que se tienen el cuestionario, el guión para las entrevistas en profundidad y se ha determinado la muestra y las personas a las que se va a entrevistar, se procederá a recoger la información. Primeramente, de todas formas, se hará un pretest para comprobar la validez y la fiabilidad del cuestionario.

2. AÑO: 2001

- Enero-febrero-marzo del año 2001: introducción de los datos en el ordenador:** mediante el uso del programa informático SPSS, se introducirán los datos en el ordenador. Al mismo tiempo, se transcribirán las entrevistas en profundidad obtenidas.

- Abril-mayo-junio del año 2201: análisis de los datos e interpretación de los resultados:** se realizará el análisis estadístico de los datos, a través del programa informático SPSS. Al mismo tiempo, se analizará y clasificará la información obtenida a través de las entrevistas.
 - Septiembre-octubre-noviembre-diciembre del año 2001: la redacción del informe final:** a partir de la información obtenida, se redactará el informe final sobre la relación de los niños y niñas con la política.
-

Aurrekontua egiterakoan, kontuan izan behar da ikerketaren pauso bakoitzean gastatuko duguna. Lehen esan bezala, zenbat eta diru gehiago izan, are eta diseinu sofistikatuagoak egin ahal izango ditugu, teknika desberdin gehiago erabili ahal izango ditugu eta, oro har, azterketa konplexuagoak egingo ditugu.

- Telefono bidez egiten diren inkestak, postaz egindako inkestak baino merkeagoak dira, eta postaz egindako inkestak etxex-etxe egindakoak baino merkeagoak.
- Galdera irekiak erabiltzen dituzten inkestak galdera itxiak erabiltzen dituztenak baino garestiagoak dira. Egiaz, galdera irekiekin diru gehiago behar dugu erantzunak irakurtzeko, kodifikatzeko eta ordenagailuan sartzeko.
- Sakoneko elkarrizketa, bizitza historia eta eztabaida taldeetan oinarritutako ikerketak inkestetan oinarritutakoak baino merkeagoak izaten dira.
- Momentuko gertakizun bat ikertu nahi ez bada, behaketan oinarritutako ikerketak garestiak dira, ia gehienetan. Izan ere, behaketa zuzenean oinarritutako ikerketetan, behaketa ugari egin behar izaten da, eta behatzaile askok parte hartzen dute. Horrek, ikerketa garestitzen du.
- Ikerketak egiteko modurik merkeena da, iturri ez zuzenak aztertzea;hots, beste pertsona edo erakunde batzuk bildu, sortu edo gorde dituzten estatistika, dokumentu, grabaketa eta material pertsonalak aztertzea. Kontuan izan, iturri ez zuzenen azterketarekin ez dugula kanpo lanik egiten. Informazioa sortu, antolatu eta gorde beste pertsona batzuk egin duten heinean, ikerketa prozesua merkeagoa da.
- Delphy bat egiterakoan, adituekin zenbat eta gehiagotan jarri harremanetan are eta garestiagoa izango da ikerketa. Hau da, galdeketa zenbat eta gehiagotan bidali adituei, are eta garestiagoa izango da ikerketa.
- Aurretesta edo pretestak ere garestitu egiten du ikerketa.
- Lagina zenbat eta handiagoa izan, are eta ikerketa garestiagoak izango ditugu. Lagin handi batek laginketa errorea gutxitzen du, baina oso garestia izan daiteke.
- Sarri askotan, sariak eskaini behar izaten dira informazioa lortzeko. Eztabaida taldeetan parte hartzeagatik dirua ematen da, postaz egindako inkesta batean parte hartzea handitzeko zozketak edo opariak eskaintzen dira... Kontua da, erantzunak handitzeko erabiltzen diren sari edo opari hauek guztiek ikerketa garestitzen dutela.

11. ADIBIDEA: ikerketaren aurrekontua

PRESUPUESTO DE LA INVESTIGACIÓN SOBRE EL ALARDE DE SAN MARCIAL PARA EL AYUNTAMIENTO DE IRUN

Irungo San Martzial jaietako Alardeari buruz egin genuen ikerketarekin, Alardean emakumeen parte hartzeak sortzen zituen liskarren nondik norakoa ezagutu, eta gatazkari irtenbideak aurkitzeko alternatibak aurkitu nahi genituen. Ikerketa horren aurrekontua honako hau izan zen:

- Gastos de infraestructura: 120.000
- Diseño de la Investigación (cuestionario, muestra...): 200.000
- Trabajo de Campo: 750.000
 - 600 encuestas a 1.000 pesetas cada encuesta: 600.000
 - Control de campo: 150.000
- Digitalización, depuración y explotación estadística: 300.000
- Redacción del informe final: 200.000
- Edición de las encuestas y del informe final: 100.000

Total: 1.670.000

16% I.V.A.: 267.2000

Total presupuesto de la investigación: 1.937.200

1.6. Datuen bilketa

Datuen bilketa egindako diseinua martxan jartzearekin loturik dago. Datuak biltzen hasi aurretik, lau dira kontuan hartu behar diren faktore garrantzitsuenak: laginaren tamaina, aukeratutako teknikak sor ditzaketen erreakzioak, ikerketa prozesuan parte hartuko dutenen heziketa eta kanpo lana nola antolatuko den.

Laginaren tamaina ezagutzeko, populazioaren tamaina, konfiantza maila eta onartzeko prest gauden laginketa errorea (etxe-etxe inkestetan gutxi gorabehera $\pm 4\%$ baino gutxiago) zehaztu behar ditugu. Izan ere, populazio bati buruz hitz egiteko modu bakarra da, ikertuko dugun laginak tamaina egokia izatea, edo berdina, adierazgarria izatea, eta lagina osatzen duten elementuak zoriz aukeratuak izatea. Laginketari buruz aurrerago hitz egingo badugu ere, kontuan izan behar da laginketa mota bi daudela: probabilitatezko laginketa eta probabilitatezkoa ez den laginketa.

- Probabilitatezko laginketa:** laginketa mota hau erabiltzen da populazioa osatzen duten guztien zerrenda bat dugunean. Era honetako laginketetan, populazioaren elementu guztiek laginean aukeratuak izateko probabilitate bera dute. Bost eratako probabilitatezko laginketak daude: zorizko laginketa simplea, laginketa sistematikoa, laginketa estratifikatua, konglomeratu bidez egindako laginketa eta laginketa telefonikoa.

—**Probabilitatezkoa ez den laginketa:** populazioa osatzen duten guztien zerrendarik ez dugunean, ezin dugu jakin laginean aukeratua izateko elementu bakoitzak duen probabilitatea. Laginketa mota hau ikertzailearen nahien arabera osatzen da. Probabilitatezkoa ez den laginketarekin, lagin adierazgarriak lortu ditzakegu, baina ezin dugu jakin zenbatekoa den laginketa errorea. Probabilitatezkoak ez diren laginketen artean lau dira ezagunenak: iritzi laginketa, komenientziazko laginketa, kuota bitartez egindako laginketa eta elur bolaren laginketa.

Datuak biltzen hasi aurretik kontuan hartu behar den bigarren faktorea da, egon daitezkeen **erreakzio arazoak**. Hots, aldeztatik ziurtatu behar dugu, gure ikerketan parte hartuko duten pertsona guztiek ez dutela informazioa emateko inolako arazorik, informazioa biltzeko erabiliko ditugun tresnek behar bezala funtzionatzen dutela, eta ez dutela inolako erreakziorik sortzen.

«La reactividad alude a la sospecha de que la persona que realiza el estudio o los métodos del propio estudio puedan influir en el modo de comportarse o de pensar de los sujetos observados, o modificarlos, en ausencia del investigador. Dicho de otra manera, existe el riesgo de que el propio acto de observación haga cambiar el comportamiento de los observados y de que, en consecuencia, los resultados de la observación sean engañosos». Manheim, J.B. eta Rich, R.C. (1988): *Análisis político empírico. Métodos de investigación en Ciencia Política*, aipatutako liburu, Alianza Editorial, Madril, 23. orrialdea.

Informazioa biltzeko teknika eta estrategiek erreakzio arazoak sortu ditzaketela susmatzen badugu, interesgarria izan daiteke aurre-test bat egitea. Ez da aiantzi behar, errore sistematikoak, hau da, teknika eta estatistiko okerrak erabiltzearen ondorioz sortzen diren erroreak ezin direla neurtu, edozein inferentzi distorsionatzen dutela eta euren eragina pilatu egiten dela.

Hirugarrenik, garrantzitsua da ikerketa prozesuan **parte hartuko duten guztiei** (inkestazailerei, datuak ordenagailuan sartuko dituztenei...) **gauzak nola egin behar dituzten erakustea**. Kontuan izan, elkarrizketagile lotsagabe batek, behatzaile axolagabe batek edo bere lana edonola egiten duen kodifikatzaile batek pikutara bidali dezaketela ondo diseinatutako ikerketa bat.

12. ADIBIDEA: datuen bilketa

MUNDUKO HIZKUNTZEI BURUZKO TXOSTENA (1998-2002)

Munduko Hizkuntzei Buruzko Txostenean erabili den galdeketak 40 galdera ditu. Orubete eta ordu eta erdi bitartean behar da galdera guztiei erantzuteko eta euskaraz, ingelesez, frantsesez, arabieraz, txineraz errusieraz eta espainieraz idatzia dago. Helburu nagusietako bat ahal den jende gehienak erantzuteko galdeketa ahalik eta gehien hedatzea izan den heinean, ezinbestekoa izan da munduan gehien hitz egiten diren hizkuntzetara itzultzea.

Galdera gehienak irekiak dira, hau da, ez da mugarik jartzen informatazileen erantzunei. Gauza jakina da teknika honen bitartez lortutako datuen tratamenduan eragozpen gehiago sortzen direla, erantzunak kodifikatzeko eta ordenagailuan sartzeko arazo gehiago agertzen direlako. Hala ere, munduko hizkuntzek bizi dituzten errealitate, testuinguru eta egoera aniztasuna kontuan hartuz, egokitzat jo da galdera irekiak egitea, ez-ohiko eta ustekabeko erantzunak jasotzeko.

Galdeketak posta arruntez bidali ziren eta, ahal zenean, posta elektronikoz. Galdeketa bete ondoren, UNESCO ETXEAREN egoitzara igortzeko eskatu zitzaizen informatzaileei. Erantzunen kopurua handitzeko, informatzaileei txostenean parte hartu izanaren agiria eta euren izena azken txostenean proiektuaren kolaboratzaile gisa azaltzeko aukera eskaintzen zen.

Galdeketak bidaltzen hasi aurretik, aurre-testa edo proba-pilotua egin genuen Soziologia, Zientzia Politikoetako eta Hizkuntzalaritzako ikasleekin. Honekin, besteak beste, galderetan egon zitezkeen akats edo ambiguitasunak aurkitu, galdeketa erantzuteko behar zen denbora kontrolatu eta dokumentuekin egon zitezkeen arazoak ezagutu nahi ziren. Aurre-testaren ondorioz, aldaketa asko egin ziren galderen idazkera eta aurkezpenean.

Honela, bada, ezinbestekoa da **kanpo lana ondo antolatzea**. Elkarrizketagileei, behatzaileei eta inkestatzaileei alde aurretik esan behar zaie euren lana nola egin behar duten. Batez ere lan horietan berriak direnean, ezinbestekoa da eman behar dituzten pauso zehatzak alde aurretik erakustea. Hala, inkestak egiten direnean, argi adierazi behar da zein den inkestatzaileak elkarrizketatuak lortzeko jarraitu behar duen bidea, zein den elkarrizketatuak aukeratzeko irizpidea, eta zer egin behar den aukeraturako pertsona etxean ez dagoenean.

Honekin batera, etxez-etxeko inkestak etxeetan eta ez kalean edo tabernetan egin behar direla azpimarratu behar da. Inkestatzaileak argi izan behar du, inkestatua aukeratzeko zoriak eta ez beste faktore batzuk parte hartu behar dutela. Horretarako, inkestatuak nola bilatu, elkarrizketa nola egin eta etxean ez daudenekin zer egin behar den adierazi behar da; hots, hasieratik amaiera arte eman behar diren pausoak zehaztu behar dira.

13. ADIBIDEA: kanpo lanaren antolaketa

INVESTIGACIÓN SOBRE EL ALARDE DE SAN MARCIAL DE IRUN

Irungo San Martzial jaietako Alardeari buruz egin genuen ikerketarekin, Alardean emakumeen parte hartzeak sortzen zituen liskarren nondik norakoa ezagutu, eta gatazkari irtenbideak aurkitzeko alternatibak aurkitu nahien. Ikerketa hori egiteko kanpo lana era honetan antolatu genuen:

Selección de los entrevistados

Cada encuestador o encuestadora tiene una ficha de campo donde se señalan el número y las características de las de personas que debe entrevistar.

Es decir, cada entrevistador debe conseguir el número exacto de entrevistados de cada grupo de edad, sexo y localización geográfica que se preveen en la ficha de campo.

La selección de los entrevistados se debe hacer con la máxima objetividad y de forma sistemática, para cumplir el fin principal de cualquier muestreo que es el de reducir al mínimo los sesgos o errores en la representatividad de los ciudadanos.

Para ayudar a que la selección de los entrevistados se realice con la máxima objetividad y de forma sistemática presentamos tres métodos:

Primer método: para capitales, ciudades y localidades de estructura urbana

1. Situado el entrevistador frente a algún edificio significativo de la localidad (Ayuntamiento, plaza, iglesia, gran almacén, etc.) que se ha establecido de antemano, se procede del siguiente modo:

- a. Se elige la primera calle a la izquierda, realizándose la primera entrevista en el primer portal.
- b. Las siguientes entrevistas se realizarán contando de tres en tres portales de izquierda a derecha de la calle.

2. En caso de encontrar un callejón, descampado, vía ferrea, industria o cualquier otro impedimento al desarrollo normal de la ruta, se gira y se continua contando portales por donde hemos venido. En caso de volver al punto de origen se iniciará de nuevo la ruta, pero esta vez de derecha a izquierda.

3. Si el portal fuese una vivienda unifamiliar, se realiza allí la entrevista, y se pasa al siguiente portal, según la ruta diseñada.

Si se trata de un bloque, la puerta a elegir es la que coincide con el número del portal, empezando a contar desde abajo y de izquierda a derecha, a partir de la primera planta habitada.

No es aconsejable hacer más de una entrevista por portal. En todo caso, si el edificio tiene más de 12 viviendas, sólo se pueden realizar un máximo de tres entrevistas por portal, y siempre siguiendo los mismos requisitos de selección.

Si, por las razones que sean, no fuese posible hacer entrevistas en el portal seleccionado al azar, excepcionalmente se pasa al portal de al lado, y se continua con la ruta señalada anteriormente.

4. La persona elegida para la entrevista será la que reúna las características de sexo y edad previstas en las fichas de campo.

En el caso de que no exista ninguna persona con tales características o que la persona elegida no se halle en la casa después de haber vuelto tres veces a por ella y/o se niegue a contestar, se sustituye por otra de las mismas características en la vivienda contigua (portal, piso, etc.).

Segundo Método: para localidades que se extienden a lo largo de un eje de comunicaciones (carretera o vía de ferrocarril)

Partiendo de uno de los lados de dicho eje (el más cercano a la capital de la provincia, por ejemplo), se realiza la primera entrevista en el primer portal o vivienda de la mano izquierda, y las restantes cada tres portales o vi-

viviendas de la misma mano. Cuando se finalice con dicha mano, se pasa a la derecha y se repite el procedimiento.

La selección de puerta e individuo se hace como en el caso anterior.

Tercer método: para localidades pequeñas, grupos de caseríos o barrios rurales

Dado el número reducido de viviendas, el entrevistador procederá, en primer lugar a numerarlas, y posteriormente, se van eligiendo las casas de izquierda a derecha, comenzando por la más cercana de la provincia.

Igual que en el método anterior, se realizará una entrevista cada tres casas.

Normas de carácter general

Las entrevistas han de hacerse siempre a domicilio, y no en la calle, en los bares o en sitios públicos.

Es imprescindible que las entrevistas estén identificadas con el nombre y el teléfono del entrevistado. No se deben preguntar estos datos hasta que no esté finalizada la entrevista, para no despertar la suspicacia del entrevistado.

El nombre y el teléfono se piden para controlar dichas entrevistas, de modo que si no se cumple este requisito las entrevistas serán dadas por no hechas o falseadas, y, por tanto, anuladas.

Del mismo modo, es imprescindible que no quede ningún dato sin recoger, haciendo todas las preguntas previstas en el cuestionario. Hay que tener en cuenta que se anularán las entrevistas con lagunas serias.

Desarrollo de la entrevista

Tras el saludo, se debe mostrar la credencial de encuestador/a. Si la persona seleccionada se resiste a responder por cualquier razón, hay que insistirle que sus respuestas son muy importantes para el buen desarrollo de la investigación. En todo caso, no hay que forzar demasiado la situación.

Si la persona seleccionada no está, hay que preguntar cuando estará, y volver a hacer la entrevista a la hora señalada.

Si resultara imposible encuestar a la persona seleccionada, pasar a la siguiente vivienda y anotar el fallo en el apartado de incidencias del final del cuestionario.

Si la persona seleccionada ha aceptado hacer la entrevista, hay que leer las preguntas lentamente y con claridad. Hay que prestar atención, por una parte, a las anotaciones que van entre paréntesis, porque van destinadas, precisamente, a facilitar el trabajo de los entrevistados/as. Por otra, hay que tener cuidado con las preguntas filtro, es decir, con las preguntas que nos permiten saltar de una pregunta a otra cuando, en función de las características o de las respuestas del entrevistado, no se deba hacer una pregunta.

Behin lagina aukeratu, erreakzio arazorik ez dagoela baieztatu, ikerketa prozesuan parte hartuko dutenek lana ondo egingo dutela ziurtatu eta kanpo lana nola egingo den zehaztu denean hasten da kanpo lana; hau da, aurretik

pentsatutako estrategia eta plana martxan jartzen dira. Kanpo lana desberdina da teknikaren arabera:

- Saioetan, talde esperimental bat eta kontrolerako talde bat osatu behar dira, estimuluek aztergai diren portaera eta jarreretan duten eragina neurtzeko. Saioa, hain zuzen ere, estimulua jasan dutenen eta jasan ez dutenen arteko desberdintasunen azterketan oinarritzen da.
- Inkestetan, behin inkestatzaile bakoitzari inkestak non pasatu behar dituen eta lortu behar dituen galdeketa kopurua zehaztu zaionean, galdeketak pasatzen hasten gara.
- Sakoneko elkarrizketak eta bizitza historiak egiterakoan, gaiarekin zerikusia duten edo gure helburuentzako egokienak diren pertsonak bilatzen eta elkarrizketatzen ditugu.
- Eztabaida taldeetan, taldeak osatzen ditugu, eta taldekideen artean eztabaida bultzatzen dugu, dauden adostasunak eta desadostasunak eza-gutzeko.
- Delphyetan, adituen artean galdeketa banatu ondoren, lehenengoz elkarrizketa bete duten adituei beste adituek esan dutena erakusten zaie, edota dauden adostasunak edo desadostasunak aurkezten zaizkie hiru, lau edo bost alditan. Fase bakoitzean zerbait gaineratu, zehaztu edo aldatu nahi duten galdetzen zaie. Azken helburua da, zerbaiten inguruan erabakiak hartzeko adostasunak bilatzea.
- Behaketetan, informazioa biltzeko fitxak zehaztu ondoren, partehar-tzaileen berezitasunak, hauen portaera eta portaera gertatzen den tes-tuingurua aztertzen ditugu.
- Eduki azterketetan, aztergai diren datuak zehazten ditugu, lagin bat hartzen dugu eta alde zuzeneko pentsatuta dauden estrategiak erabiliz testuen berezitasunak aztertzen ditugu.
- Iturri ez zuzenen azterketetan, oinarritutako ikerketetan beste pertsona edo erakunde batzuk bildu, sortu edota gorde dituzten estatistika, do-kumentu, grabaketa eta materialak aztertzen ditugu.

1.7. Datuen azterketa

Datuen azterketa da informazioa bildu dugunean hasten. Informazio hori ikerketaren hasieran jarri ditugun galderari erantzuteko edo hipotesiak frogatzeko moduan antolatu behar dugu. Datuen azterketa desberdina da erabili-tako teknikaren arabera:

- Saioetan, estimulua jasan dutenen eta jasan ez dutenen arteko desber-dintasunak aztertzen dira. Talde esperimentalean (estimulua hartzen duena) eta kontrolerako taldean (estimulua hartzen ez duena) men-peko aldagaiaren aldaketak neurtuz, estimulu esperimentalak zenbate-raino eragina duen aztertzen da.

- Inkestetan, bildutako informazio kuantitatiboa deskribatu edota laburbildu (ehunekoak, batenaz bestekoak, moda, mediana...), egon daitezkeen erlazioak ezagutu (taula gurutzatuak, korrelazioak...) eta aldagai anitzetan dagoen informazioa laburbildu (aldagai anitzen azterketak) dezakegu. Honekin batera, lagina erabiltzearen ondorioz egiten ditugun erroreak (laginketa errorea) ezagutu behar ditugu. Azken helburua da, populazio osoari buruzko generalizazioak egitea. Besteak beste, honako hiru galdera hauei erantzun nahi izaten da, inkesten bitartez lortutako datuak aztertzen ditugunean: harremanik badago azaldu nahi dugun fenomenoaren (menpeko aldagaia) eta aztergai diren beste aldagai edo faktoreen artean (aldagai askeak)? Nolako da harreman hori? Zer-nolako probabilitatea dago laginean aurkitu ditugun harreman horiek populazioan aurkitzeko?
- Sakoneko elkarrizketetan eta bizitza historietan, pertsonen bizi esperientziak zein gai zehatz baten inguruan dituzten ikuspuntuak, iritziak eta jarrerak aztertzen dira, esperientzia edo iritzi horiek berreraikitze asmoz. Berreraikitze hau elkarrizketatuek azpimarratu dituzten gai garrantzitsuak, fase erabakigarriak, inflexio puntuak eta momentu edo gertaera kritikoak aztertuz egiten dugu.
- Sakoneko elkarrizketetan bezala, eztabaida taldeetan, agertu diren ikuspuntuak, iritziak eta jarrerak aztertzen dira, esperientzia edo iritzi desberdinak berreraikitze asmoz. Dena dela, eztabaida taldeak aztertzerakoan, garrantzi berezia eman behar zaio dauden adostasunak eta desadostasunak aztertzeari.
- Delphyetan, galdeketa bete duten adituen artean dauden adostasunak edo desadostasunak aztertzen dira. Azken helburua da, zerbaiten inguruan erabakiak hartzeko adostasunak bilatzea.
- Behaketa zuzenean oinarritutako ikerketetan, behatutako portaeren berezitasunak deskribatu eta interpretatu, eta beste aldagai batzuekin harremanetan jarri behar ditugu. Horretarako, behaketan bildutako informazio kualitatiboa eta kuantitatiboa ordenatu beharko dugu.
- Eduki azterketan, aztergai den testuaren berezitasunak aztertu behar dira kualitatiboki zein kuantitatiboki; kontuan izanik, agerpen maiztasunak testu batean garrantzia duten gaien adierazlea direla. Zenbat eta hitz edo kontzeptu batzuk gehiago agertu testuan, are eta garrantzitsuagoak dira testu hori sortu dutenentzat. Azterketa kuantitatibo prozedura hauek erabiltzen dira gehienetan: estatistika deskriptiboan oinarrituz (ehunekoak, ratioak...), hitz, ikur edo esamoldeen, hau da, aukeratutako erregistro unitateen agerpen maiztasunak aztertzen dira. Bigarrenik, eduki azterketaren bitartez, lortutako kategorien zein hauen eta beste bide batzuetatik lortutako aldagaien arteko harremanak aztertzen dira (taula gurutzatuak, asoziazio neurriak, chi-karratua, aldagai nominalen arteko harremanak aztertze koefizienteak, korrelazioak). Azkenik, kategoria desberdinak erabiliz indize orokorrak erakitzen dira.

—Iturri ez zuzenen azterketetan, beste pertsona edo erakunde batzuk bildu, sortu edota gorde dituzten estatistika, dokumentu, grabaketa eta material pertsonalen azterketak egiten ditugu. Azterketa horiek egiteko estatistika deskriptiboa zein inferentziala erabili daiteke. Ikuspuntuei, iritziei eta jarrerei buruzko informazio kualitatiboa dugunean, aldiz, bizi esperientziak berreraiki eta adostasun eta desadostasunak ordenatu beharko ditugu.

1.8. Ondorioen idazketa

Behin bildutako informazioa aztertu dugunean, ondorioak idazten hasi behar gara. Hots, esku artean dugun gaiaren inguruan lortu ditugun emaitzak laburbildu behar ditugu.

Honekin batera, egindako aurkikuntzak hasierako hipotesiekin zein gaiari buruzko teoria orokorrekin jarri behar ditugu harremanetan. Horrela, gure ikerketarekin emandako aurrerapausoak zeintzuk diren agertuko ditugu.

Lortutako emaitzak laburbiltzeko, interesgarria izan daiteke D.A.F.O. azterketak egitea. Hau da, ikusi ditugun ahultasunak, ahultasun horiek sortu ditzaketan mehatxuak, aztertutako errealitatearen alde sendoak eta alde sendo horien ondorioz agertzen diren aukerak aztertu ditzakegu.

14. ADIBIDEA: ondorioen idazketa

INVESTIGACIÓN SOBRE LA SATISFACCIÓN DE LOS PADRES DE LOS ALUMNOS/AS DE LA IKASTOLA BERA KURUTZ RESPECTO DE LAS ACTIVIDADES EXTRAESCOLARES QUE SE OFERTAN EN LA IKASTOLA Y EL TIPO DE ACTIVIDADES QUE LES GUSTARÍA POTENCIAR EN EL FUTURO (2001)

En la investigación sobre la satisfacción de los padres de los alumnos/as de la ikastola bera kurutz respecto de las actividades extraescolares que se ofertan en la ikastola y el tipo de actividades que les gustaría potenciar en el futuro (2001), nos pareció interesante realizar un estudio D.A.F.O; es decir, las debilidades, amenazas, fortalezas y oportunidades de la Ikastola en relación a las actividades extraescolares.

Estudio D.A.F.O. (Debilidades, Amenazas, Fortalezas y Oportunidades) de la ikastola Bera Kurutz con relación a las actividades extraescolares

Debilidades:

—Desde 1998 se ha reducido el porcentaje de padres que están satisfechos con las actividades extraescolares que se ofertan en la Ikastola.

- Desde 1998 se ha reducido el porcentaje de padres que creen que las actividades extraescolares que se ofertan en la Ikastola son las más adecuadas.
- Insatisfacción con respecto a las instalaciones en las que se practican multideporte, baloncesto y eskupilota
- Insatisfacción con respecto a las instalaciones en las que se estudia inglés.
- No se ofertan cursos de informática para los alumnos / as ni para los padres.

Amenazas:

- Que se reduzca el número de los alumnos y alumnas que participan en los cursos de inglés organizados por la Ikastola, porque lo han dejado o porque han ido a la competencia.
- Que otros organismos se aprovechen de la demanda existente por parte de los padres de la ikastola para potenciar la informática tanto entre sus hijos e hijas como entre ellos mismos.
- Que los padres y los alumnos del centro busquen otras alternativas o se dirijan a otros organismos a la hora de practicar multideporte, baloncesto o eskupilota.

Fortalezas:

- Un número importante de familias (122 familias) está implicado de una forma u otra con las actividades extraescolares que se organizan en el centro. Es uno de los puntos fuertes de la Ikastola.
- El 70% de padres está satisfecho con las actividades extraescolares que se organizan en la Ikastola.
- El 63% de padres cree que las actividades que se ofertan son las más adecuadas.
- El 58,4% de padres cree que los profesores/as están bien preparados para llevar a cabo actividades extraescolares.
- Los padres perciben que las actividades extraescolares que se ofertan en la Ikastola son baratas.

Oportunidades:

- Un 17,2% de padres (63 familias) pide potenciar actividades relacionadas con los ordenadores. Esto supone que es posible desarrollar el aprendizaje de la informática tanto entre los alumnos / as del centro como entre los padres.
- El 16,7% de los padres (61 familias) quiere potenciar los idiomas en la Ikastola. Es decir, hay grandes oportunidades para desarrollar más el aprendizaje de idiomas y atraer un mayor número de alumnos / as a tipo de extraescolares.
- 57 padres estarían dispuestos y/o interesados en participar en actividades extraescolares organizadas para ellos.
- 35 padres estarían dispuestos a participar en clases de informática organizadas expresamente para ellos.

1.9. Txostenaren idazketa

Txostenak idazteko formula magikorik ez dago. Hori bai, egiten ditugun txostenek, ulergarria izateaz gain, argi adierazi behar dute zeintzuk diren eman diren pausoak, hartu diren erabakiak (laginaren tamaina, erabilitako teknika...) eta lortu diren emaitzak. Kontuan izan, txarto idatzitako eta egituratutako txostenek ikerketarik onena alferrik galtzen dutela.

Honela, bada, garrantzitsua da txostenaren atalak zein aurkezten diren ideiak elkarri ondo elkarlotuta agertzea. Horretarako, argi izan behar dugu zer esan nahi dugun. Gainera, esan nahi dugun hori egoki antolatzen jakin behar dugu; komunean dauden ideiak esalditan bilduz eta esaldien artean lotura logiko egokiak agertuz, gehiegizko betegarriak alde batera utzita.

«Ordenak izan behar du sinplea, gogoan luzaz gordetzeko modukoa. Bi pausu bereizi behar dira, gure iritziz: 1.—Eduki nagusiak ordenatzea. 2.—Eduki nagusi horiek xehetasunez garatzea. Bi pausu horiek ematerakoan, beti ere, kontuan izango ditugu azken hartzailearen nahia eta egoera: zertarako behar duen idazkia, non irakurriko duen, nola... Eduki nagusien ordena ezarri eta gero, hurrengo pausua eduki nagusi horiek xehetasunez garatzea litzateke... Igorleak eta azken hartzaileak gaia ez dute era berean ezagutzen, ez eta era berdinsuan ere. Horregatik, igorleak kalkulatu egin behar du hartzaileak zer dakien eta zer ez... Daukagun informazioa hartzailearekin konpartituz gero, hark zalantza gutxiago izango ditu. IVAP (1997): *Argiro idazteko proposamenak eta ariketak*. IVAP, Vitoria-Gasteiz, 36-37. orrialdeak

Bestalde, ez ahantzi edozein txostenek gutxieneko elementu batzuk izan behar dituela. Besteak beste, txosten guztiek aurkibideak, sarrera, erabilitako teknika eta erabaki metodologikoei buruzko azalpenak, aurkikuntzen aurkezpen atala, ondorioak eta eranskinak izan behar dituzte.

Aurkibideak: aurkibidea da, txostenean aurkituko diren gai eta errekurtsio guztien orrialdea adierazten duen zerrenda. Txostenaren aurrean edo atzean jarri daiteke. Hori bai, aurkibideek gauzak zein orrialdetan aurkituko ditugun adierazi behar dute. Horrek esan nahi du, aurkibideek orrialdeak zehaztu behar dituztela.

Bestalde, txostenean aurkituko diren gaiak eta errekurtsioak aurkeztu behar ditugun heinean, aurkibide bat baino gehiago sartu ditzakegu. Txostenak aurkibide orokorra zein taula, grafiko, mapa edota irudien aurkibideak izan ditzake.

Sarrera: txostenaren hasieran gaiaren aurkezpen gisa egin ohi den azalpena da. Sarreraren ikerketaren helburu orokor zein zehatzak, hipotesi garrantzitsuenak eta txostena behar bezala ulertzeko eta irakurtzeko interesgarriak izan daitezkeen aholkuak aurkeztu behar dira. Sarrera ikerketa egiten lagundu digutenei eskerrak emateko ere erabiliko dugu.

15. ADIBIDEA: txostenaren sarrera

LOS JÓVENES DE SAN SEBASTIÁN: LA CIUDAD Y EL AYUNTAMIENTO

En la investigación que presentamos en este informe se analizan los comportamientos, percepciones, intereses, demandas y actitudes de los ciudadanos de entre 15 y 30 años de San Sebastián, en relación a la calidad de vida de la ciudad y los distintos equipamientos, proyectos y servicios relacionados con su municipio. Al mismo tiempo, se realiza una valoración de la gestión municipal llevada a cabo por el Consistorio donostiarra, así como por su Alcalde.

Somos conscientes de que no es fácil generalizar sobre los jóvenes de San Sebastián ya que, como distintas investigaciones sobre este estrato de población han demostrado, en el País Vasco existen varios tipos de jóvenes; jóvenes que tienen modos de vida, ideas y actitudes diferentes ante la vida y la sociedad en la que viven. De todas formas, creemos que es posible conocer y hablar de los puntos de vista más sobresalientes de los jóvenes donostiarras respecto de la ciudad y su Ayuntamiento.

En el primer capítulo, presentamos las características más importantes de los jóvenes donostiarras. Este acercamiento a su forma de ser nos permitirá interpretar y contextualizar, en toda su riqueza, las opiniones, peticiones e intereses que muestran respecto de su ciudad y su Ayuntamiento.

En un segundo capítulo, nos adentramos en las percepciones que tienen respecto de la ciudad en general, y de los distintos barrios que la componen, en particular. En relación con la calidad de vida, también llevamos a cabo un análisis de los comportamientos y puntos de vista de los jóvenes en relación al tiempo de ocio en la ciudad.

En el tercer capítulo, analizamos las opiniones y actitudes de los jóvenes en lo referente a distintos equipamientos, servicios y proyectos que está organizando, proyectando o llevando a cabo el Ayuntamiento.

Para finalizar, ofrecemos una serie de conclusiones, al mismo tiempo que presentamos una serie de recomendaciones basadas en las generalidades que hemos ido descubriendo a lo largo del análisis realizado.

El informe lleva anexos la ficha técnica de la investigación, el cuestionario utilizado, las frecuencias y cruces entre variables que pueden ser de interés para los que quieran conocer los datos en profundidad, así como el disquete con la base de datos completa de la encuesta para su eventual explotación posterior.

Antes de adentramos en el informe, nos gustaría señalar que a efectos de análisis, hemos dividido la muestra en cinco zonas urbanas. La que llamamos zona A, comprende los distritos 1 y 2, es decir, la Parte Vieja y el Centro. La zona B es el distrito 3, es decir, Amara y Loiola. La Zona C comprende los distritos 4 y 5, es decir, los barrios de Egia, Gros, Sagües, Ulía y Ategorrieta. La Zona D comprende el distrito 6, es decir, Aiete, Miraconcha, Antiguo, Añorga, Ibaeta e Igeldo. La zona E comprende el distrito 7 y los barrios de Altza, Bidebieta, Intxaurreondo y Martutene.

Erabilitako teknika eta erabaki metodologikoei buruzko azalpenak: lan akademikoetan informazioa biltzeko erabilitako teknikak eta teknika horiek aukeratzearen arrazoiei buruzko atal berezi bat sartu behar da. Lagina nola aukeratu den, izan duen tamaina eta kanpo lanaren berezitasunak ere aurkezten dira. Beste hitz batzuekin esanda, atal honetan era honetako galderrei erantzun behar zaie: nondik lortu dira datuak? Zer-nolako teknikak erabili dira? Zergatik? Nolakoa izan da lagina? Nola antolatu da kanpo lana?

16. ADIBIDEA: erabilitako teknikei eta erabaki metodologikoei buruzko azalpenak

INVESTIGACIÓN SOBRE LA SATISFACCIÓN DE LOS PADRES DE LOS ALUMNOS/AS DE LA IKASTOLA BERA KURUTZ RESPECTO DE LAS ACTIVIDADES EXTRAESCOLARES QUE SE OFERTAN EN LA IKASTOLA Y EL TIPO DE ACTIVIDADES QUE LES GUSTARÍA POTENCIAR EN EL FUTURO (2001)

La técnica que se ha utilizado para conocer la valoración que hacen los padres de los alumnos del centro de las actividades extraescolares que actualmente se ofertan en la Ikastola, así como sus preferencias en lo que concierne a las actividades que les gustaría que se promovieran en el futuro, ha sido la encuesta. Es decir, se ha preparado un cuestionario de 15 preguntas que ha sido enviado a todos los padres de los alumnos y alumnas de la Ikastola Bera Kurutz (Ver anexo 2).

La vía que se ha utilizado para hacer llegar los cuestionarios a los padres y, una vez rellenos, recogerlos han sido los propios alumnos y alumnas del centro. Los cuestionarios se han recogido durante la última semana de mayo de 2001. En total se han recogido 173 cuestionarios.

Aurkikuntzen aurkezpena: teknika bakoitzak era bateko datuak ematen dizkigu. Inkesta eta behaketetatik estatistika eta datu kuantitatiboak lortzen ditugu; sakoneko elkarrizketa, bizitza historia eta eztabaida taldeetatik aztergai den fenomenoari buruzko iritzi kualitatiboak.

Datu mota bakoitzak azterketa prozedura bat eskatzen du. Datu kuantitatiboak koefiziente estatistikoen bitartez laburbilduko ditugu. Ikuspuntuei, iritziei eta jarrerei buruzko informazio kualitatiboa dugunean, aldiz, bizi esperientziak berreraiki eta adostasun eta desadostasunak ordenatu beharko ditugu. Berreraikitze hau gai garrantzitsuak, fase erabakigarriak, inflexio puntuak, momentu edo gertaera kritikoak aztertuz egin behar da.

Egindako lana laburbildu eta aurkezteko, erabilgarriak izan daitezkeen baliabide guztiak erabiliko ditugu: taulak, irudiak, grafikoak... Azken helburua da lortutako emaitzak argi eta garbi agertzea.

Aurkezten ditugun taula, grafiko edo mapek zenbakia eta izenburua eraman beharko dute goian, eta azpian oso ondo adierazi beharko da iturria; hots, nondik hartu den erabiltzen den informazioa.

17. ADIBIDEA: taulak nola aurkeztu behar diren

Munduko hizkuntzen txostenetik hartutako taula bat era honetan aurkeztu behar da:

I. Taula

Gutxitutako hizkuntzen heriotza bultzatzen duten arazoak eta bakoitzaren garrantzi erlatiboa munduan zehar

Arazo politiko eta militarrik	21	%5,1
Aldaketa soziokulturalei loturiko arazoak	44	%10,9
Arrazoi ekonomikoekin zerikusia duten arazoak	26	%6,3
Arrazoi demografikoek sortutako arazoak	59	%14,3
Instituzioen laguntza falta	88	%21,4
Jarrereri loturiko arazoak	103	%25,1
Egoera linguistikoari loturiko arazoak	69	%16,8
Aztertutako hizkuntzak guztira	525	%100

Iturria: UNESCOREN Munduko Hizkuntzei Buruzko Txostena

Ondorioak: aurkikuntzak aurkezteaz gain, lortutako emaitzak gaiari buruzko teoria orokorragoekin jarri behar ditugu harremanetan. Era berean, emaitzak hasieran formulatutako hipotesiekin alderatu behar ditugu, hipotesi horiek onartzeko edo alboratzeko.

Bibliografia: lana egiterakoan erabilitako liburu, artikulua eta txostenen berri emango dugu. Era berean, interesgarria izan daiteke erabili ez diren baina gaiarekin estuki loturik dauden liburu eta txostenen berri ematea.

18. ADIBIDEA: bibliografia nola aurkeztu

LIBURUAK ETA EGUNKARI, ALDIZKARI ETA LIBURUETAN ARGITARATUTAKO ARTIKULUAK AIPATZEKO AHOLKU BATZUK

Liburuak aipatzerakoan, autorearen izena, liburuaren argitaratu den urtea, izenburua letra etzanarekin edo azpimarratuta eta edizioaren berezitasunak (argitaletxea eta argitaratu den herria) aipatu behar dira.

Juaristi, P. (2001): *Euskal Herria Globalizazioaren aurrean*. BBK-Euskaltzaindia, Bilbo.

Liburuetan argitaratutako artikulua aipatzerakoan, artikulua idatzi duenaren izena, aldizkaria argitaratu den urtea, artikulua izenburua kakotx artean, liburuaren editatzen dutenen edo biltzaileen izenak, liburuaren izenburua letra etzanarekin edo azpimarratuta, edizioaren berezitasunak (argitaletxea eta argitaratu den herria) eta artikulua agertzen den orrialdeak agertu behar dira.

Juaristi, P. (1995): «El análisis de contenido» in Elzo, J. (Zuzendaria): *Usos del vizcaíno en la administración*. Diputación Foral de Bizkaia, Bilbo.

Artikuluak aipatzerakoan, autorearen izena, aldizkaria argitaratu den urtea, artikulua izenburua kakotx artean, aldizkariaren izenburua letra etzanarekin edo azpimarratuta eta aldizkariaren zenbakia eta artikulua agertzen den orrialdeak agertu behar dira.

Juaristi, P. (2000): «Ondasunekiko harremanak Justo Mokoroaren Repertorio de Locuciones del Habla Popular Vasca esaera bilduman» in *Vasconia*, 28 zkia., 97. orrialdetik 120.era.

Egunkarietan argitaratutako artikuluak aipatzerakoan, autorearen izena, artikulua argitaratu den eguna, hilea eta urtea, artikulua izenburua kakotx artean, egunkariaren izena letra etzanarekin edo azpimarratuta eta artikulua agertzen den orrialdea agertu behar dira.

Juaristi, P. (2000-10-22): «G. Bush eta A. Goren lehia». *Egunkaria*, Andoain.

Eranskinak: eranskinetan, ikerketan erabili ditugun eta berau hobeto ulertzeko lagungarriak izan daitezkeen material guztiak sartuko ditugu; besteak beste, ikerketaren fitxa teknikoa (informazioa bildu deneko datak, laginaren tamaina, laginketa errorea, ikerlarien izenak...), erabilitako inkesta eta informazio biltzeko protokoloak, gidoiak eta erabili ditugun material osagarri guztiak (mapak, inkestak egiteko erabilitako bide sistema...) sartuko ditugu.

19. ADIBIDEA: ikerketaren fitxa teknikoa

FICHA TÉCNICA DE LA INVESTIGACIÓN SOBRE EL ALARDE DE SAN MARCIAL

Dirección: la dirección de la investigación y la redacción de este informe la han realizado los profesores del Departamento de Ciencia Política de la UPV-EHU formado por Arantxa Elizondo, Patxi Juaristi, Alfredo Retortillo y Juan Luis Mokoroa.

Fecha de realización: las encuestas se realizaron entre los días 17 al 22 de febrero de 1997.

Trabajo de Campo: entrevistas individuales mediante cuestionario estructurado. Las entrevistas se han realizado a través de encuestador/a en los domicilios de los encuestados/as.

Tamaño de la muestra: 600 encuestas entre los habitantes mayores de 16 años de Irún seleccionados en base a la edad, sexo y sección censal realizado por el EUSTAT. El error muestral es de $\pm 3,9\%$.

1.10. Ikerketaren fidagarritasuna eta balioa

Ondorioak idazteak ez du esan nahi ikerketa bukatu dugunik. Ikerketa bukatzen da egindako ikerketaren fidagarritasuna eta balioa ezagutzen ditugunean; hau da, honako galdera hauei erantzuten diegunean: fidagarria da

erabilitako neurria? Konsistentea da? Ikerlariak nahi izan duena neurtu du? Baliagarria da egindako ikerketa?

1.10.1. TRESNAREN FIDAGARRITASUNA

Neurtzeko tresna bat fidagarria dela esaten dugu, behin baino gehiagotan erabili ondoren konsistentea denean, hau da, ondorio berdinetara eramaten gaituenean.

Ikerlariarentzat garrantzitsua da, informazioa biltzeko erabili den tresnaren fidagarritasuna ezagutzea. Izan ere, fidagarritasunak ikerketaren kalitatea ezagutzeko aukera ematen digu. Horregatik, hain zuzen ere, ikerlari batzuk ez dituzte teknika kualitatiboak (sakoneko elkarrizketa, bizitza historiak, eztabaida taldeak...) erabiltzen. Hauen ustez, era honetako teknikak ez dute uzten fidagarritasuna neurtzen. Fidagarritasun frogak inkesta, galdera, test edo eskaletan erabili ditzakegu bakarrik.

Neurketarako tresna baten fidagarritasuna ezagutzeko, froga desberdinak daude. Guk hemen test-retest metodoa, forma alternatiboen metodoa, bi erdien metodoa eta Crombach-en Alfa aurkeztuko ditugu:

Test-retest metodoa: talde berari tresna bera aplikatzen zaio bi momentu desberdinetan, eta lortutako ondorioak berdinak diren ikusten da. Pearsonen korrelazio koefizientea erabiliz, bi momentuetan lortutako emaitzen arteko korrelazioa (Pearsonen r -1 -etik $+1$ -era doa) neurtzen da, eta ateratzen den koefizientea tresnaren fidagarritasunaren neurri gisa erabiltzen da.

Metodo honen arazoetariko bat da erabilitako test edo inkesta lehenengoz aplikatzen denetik bigarrenez aplikatzen den arte pasatzen den denboran, taldearen osaketa aldatu daitekeela, eta, ondorioz, metodo honek ezer gutxi-rako balio dezakeela.

Bestalde, metodo honen beste arazo garrantzitsua da talde berari bigarren ikerketa bat egitea garestiegia dela, eta, ia gehienetan, hori egiteko ez dela denborarik izaten.

Forma alternatiboen metodoa (alternative-form method): aurreko metodoan bezala, aztergai den fenomeno bi aldiz neurtzen da, baina kasu honetan tresna desberdinak erabiltzen dira. Hau da, ikergai den fenomeno eskala edo galdeketa desberdin birekin neurtzen da, eta, ondoren, bide desberdin bietatik ondorio berdinetara heldu garen aztertzen da. Dena dela, kontu handiz erabili behar da metodo hau. Izan ere, oinarrian onartzen dena da tresna edo test biek gauza bera neurtzen dela. Zentzu honetan, metodo hau erabilgarriagoa da tresnen homogeneotasuna neurtzeko hauen fidagarritasuna neurtzeko baino. Bestela esanda, metodo egokia da bi tresnek dimentsio bera neurtzen duten jakiteko.

Bi erdien metodoa (split-half method): metodo honen arabera, test, inkesta edo eskala bi zati berdinetan banatzen da, eta zati bakoitzean lortzen diren ondorioen arteko korrelazio koefizientea ateratzen da. Koefi-

ziente honek eskalaren fidagarritasuna neurtzeko balio du. Zentzu honetan, korrelazio txikia lortzen badugu, fidagarritasun gutxiko tresnaren aurrean gaude, eta alderantziz. Eskala banatzerakoan alde batetik item bakoitiak eta bestetik bikoitiak biltzen baditugu, *odd-even* metodoaren aurrean gaude.

20. ADIBIDEA: bi erdien metodoa SPSS programan

Reliability Analysis - Scale (SPLIT)

	Mean	Std Dev	Cases
1. VAR00001	1,7000	,6569	20,0
2. VAR00002	4,4000	,5026	20,0
3. VAR00003	6,4000	,5026	20,0
4. VAR00004	7,4000	,5026	20,0

Reliability Coefficients

N of Cases =	20,0	N of Items =	4
Correlation between forms =	,5581	Equal-length Spearman-Brown =	,7164
Guttman Split-half =	,7029	Unequal-length Spearman-Brown =	,7164
2 Items in part 1		2 Items in part 2	
Alpha for part 1 =	-,2034	Alpha for part 2 =	1,0000

Adibide honetan, «Guttman Split-half» delakoa 0,7029 da. Pearsonen r -letik +1era doala kontuan hartzen badugu, erabilitako eskala fidagarria dela ondorioztatu behar dugu.

Crombachen Alfa: estatistiko honek interpretazio desberdinak ditu, baina oinarrian item guztien arteko batezbesteko korrelazioan oinarritzen da, bateko desbiderapen tipikoa izateko item guztiak estandarizatu ondoren.

Alfak 0 eta 1 arteko balioak hartu ditzake, eta negatiboa da erabiltzen ditugun itemak elkarrekiko harremanetan ez daudenean, eta, beraz, tresnak fidagarritasun gutxi duenean. Zenbat eta gehiago hurbildu batera, are eta fidagarriago da neurketarako erabilitako tresna.

21. ADIBIDEA: Crombach-en Alfa SPSS programan

Reliability Analysis - Scale (ALPHA)

	Mean	Std Dev	Cases
1. VAR00001	1,7000	,6569	20,0
2. VAR00002	4,4000	,5026	20,0
3. VAR00003	6,4000	,5026	20,0
4. VAR00004	7,4000	,5026	20,0

Reliability Coefficients

N of Cases = 20,0 N of Items = 4
Alpha = ,7029

Alfa-k 0 eta 1 arteko balioak hartu ditzakeela kontuan hartzen badugu, test fidagarri baten aurrean gaudela esan behar dugu.

Ikerketarako teknika bakoitzak fidagarritasuna hobetzeko trikimailu desberdinak erabiltzen ditu. Hala ere, honako aholku hauek baliagarriak izan daitezke edozein tresnaren fidagarritasuna hobetzerakoan:

- Galderak edota gaiak modu argian aurkeztu behar dira.
- Mundu guztiak ulertzen dituen hitzak eta kontzeptuak erabili.
- Erreakzio arazoak gutxitu egin behar dira. Elkarrizketagile, modera-tzaile eta inkestatzaileen eragina ahal bezainbeste gutxitu behar da, baita informazioa biltzeko erabiltzen diren gailuen (grabatzeko gailuak, bideo-ak...) eragina ere. Zentzu honetan, aldeztatik ziurtatu behar dugu informazioa biltzeko erabiliko ditugun tresnek behar bezala funtziona-tzen dutela. Horretarako, pre-test edo aurre-test bat egitea da onena.
- Kodifikatzaileek eta informazioa ordenagailuan sartzten dutenek euren lana era egokian egiten dutela ziurtatu behar dugu. Horretarako, ikerke-tan parte hartuko duten guztiei (inkestatzaileei, datuak ordenagailuan sar-tuko dituztenei...) gauzak nola egin behar dituzten erakutsi behar diegu.

1.10.2. IKERKETAREN BALIOA

Neurtzeko tresna bat fidagarria da behin baino gehiagotan erabili ondo-ren ondorio berdinetara eramaten gaituenean. Balioak, bere aldetik, neurke-tarako erabiltzen den tresnaren eta neurtu nahi den kontzeptu edo dimentsio-aren arteko loturarekin zerikusia du. Edo gauza bera dena, erabilitako tresna baliagarria da ikertzaileak neurtu nahi duena neurtzen duenean.

Test, inkesta edo eskala baten balioa neurtzea fidagarritasuna neurtzea baino zailagoa da. Izan ere, ez dago gizakien, taldeen eta erakundeen berezitasunak zein euren arteko harremanak zehatz-mehatz neurtuko dituen tresna perfekturik.

Natur Zientzietan ikerketak egiten dituztenek, hau da, berezitasun fisi-koak neurtzen dituztenek argi dute zer neurtu nahi duten. Gainera, tresna oso zehatzak (eskalak, erregelak, balantzak...) sortu dituzte neurtu nahi duten hori neurtzeko. Gizarte Zientzietan, aldiz, aurreiritzia, boterea edo parte-har-zea neurtzeko tresnak sortzeko gai gara, baina ezin dugu guztiz ziurtatu kon-zeptu horiek neurtzen ari garenik; hau da, ezin dugu guztiz ziurtatu neurtu nahi duguna neurtzen dugunik.

«Validity is a particular difficult problem because there are no direct methods of measuring many human attributes. This is in direct contrast to

the measurement of physical attributes, which can be affected easily with yardsticks and scales. The chief difference is that in defining physical attributes researchers know exactly what key are measuring. This is not true of measuring human attributes like prejudice, power, and participation. There is no direct way to determine how liberal or conservative a person is or how stable or unstable a political system is. Researchers can only observe some human behavior or system attribute and make inferences about the degree of liberalism or conservatism, stability or instability». Garson G. David (1976): *Political Science Methods*. Aip. Lib., 37. orrialdea.

Ikerketaren balioa zehatz-mehatz ezagutzeko dauden arazoak ugariak dira onartuta ere, metodo batzuk badaude gure ikerketen balioa ezagutzeko. Besteak beste, itxurazko balioa edo adituen balioa, edukiaren balioa, barne koherentziaren balioa, balio enpirikoa, talde ezagunaren testa eta aurreikuspen balioa aipatu behar ditugu.

Itxurazko balioa edo adituen balioa (Face Validity edo Expert Validity): aditu talde batek zehazten du zerbait neurtzeko sortu dugun tresna baliagarria den edo ez. Horretarako, aditu talde honek neurtu nahi diren aldagaiak edo kontzeptuak lortutako informazioarekin loturarik duten aztertzen dute. Ikerlariak ikertu nahi denaren eta lortutako datuen artean lotura dagoela adosten badute, erabilitako tresnak itxurazko balioa edo adituen balio du. Metodo hau guztiz subjektiboa da, eta ezin da enpirikoki frogatu.

Edukiaren balioa (Content Validity): ikertu nahi diren aldagaien edo kontzeptuen esanahia zehaztu ondoren, horiek neurtzeko sortu den tresnak aldagai edo kontzeptu horien arlo guztiak kontuan hartzen dituela ziurtatu behar da. Tamalez, Gizarte Zientzietan erabiltzen diren kontzeptu eta aldagai asko oso abstraktuak dira (abertzaletasuna, gizarte mailak...), eta, beraz, arazoak izaten dira euren esanahiak zehazterakoan. Hala, metodo hau gutxi erabiltzen da Gizarte Zientzietan.

Barne koherentziaren balioa (Construct Validity): gure ikerketan neurtu dugun aldagai edo kontzeptu bat beste aldagai edo kontzeptu batekin harreman zuzenean dagoenean, edo, gauza bera dena, aldagai edo kontzeptu baten neurketa bestearen neurketarekin loturik dagoenean, harreman hau gure tresnaren balioa ezagutzeko erabili genezake. Zentzu honetan, aldagai edo kontzeptu bi hauek neurtu ondoren, inolako harremanik ez dutela ikusten badugu, balio gutxiko ikerketaren aurrean gaude, eta, beraz, kontu handiz hartu beharko ditugu ondorioak.

Balio enpirikoa: Gizarte Zientzietan ikerketa baten balioa ezagutzeko gehien erabiltzen den metodoa da. Kontzeptu edo aldagai konplexu bat neurtzeko aldagai desberdinak erabiltzen dira. Adibidez, talde baten liberalismo maila neurtzeko eskola-autobusarekiko jarrera, ongizate estatuarekiko jarrera, atxilotuen eskubideei buruzko jarrera, gastu militarrekiko jarrera... neurtzen dira, eta lortutako emaitzen arteko harremanak neurtzen dira. Hala, neurtutako aldagaien artean korrelazioa badago, eskala baliagarri baten aurrean gaude.

Talde ezagunaren testa (Known groups): sortutako testean balio oso altuak edo oso baxuak dituztenen (Known group) erantzunak aztertzen dira, eta ateratzen diren emaitzak lortutako batezbestekoarekin alderatzen dira. Zenbat eta desberdinagoak izan alderaketan lortutako emaitzak, are eta baliagarriagoa da erabilitako galdeketa edo eskala.

Aurreikuspen balioa (predictive validity): eskala batetik lortutako emaitzetan oinarrituz, inkestatuen portaerari buruzko ondorioak ateratzen dira, eta, ondoren, ustezko portaera horiek pertsona horien benetako portae-rarekin alderatzen dira. Portaera bien artean korrelazioa badago, erabilitako eskala edo galdeketa baliokoa da. Froga honen arazoetariko bat da askotan ez dela harreman zuzenik izaten jarrera eta portaeraren artean. Bestalde, askotan ez da izaten inkestatuen benetako portaerari buruzko informaziorik, edo lortzeko beste ikerketa bat egin behar izaten da, eta hori oso garestia da.

Neurketarako erabilitako tresnen balioa ezagutzeko metodo desberdinak aurkeztu baditugu ere, kontuan izan behar da hauetariko batek ere ez duela ikerketaren balio zehatz-mehatz neurtzen. Aurretik esan bezala, gizakien eta taldeen berezitasunak neurtzen ari garenean, inoiz ere ez gaude ziur nahi duguna neurtzen ari garen.

Ikerketa teknika bakoitzak balioa hobetzeko estrategia desberdinak dituela ahantzi gabe, badaude egiten ditugun ikerketen balioa hobetzeko estrategia orokor batzuk. Besteak beste, honako aholku hauek interesgarriak izan daitezke egiten ditugun ikerketen balioa hobetzeko:

- Aurretik beste ikerketa batzuetan arrakastaz erabili izan diren galdeketa, gidoi, galdera, eskala edo prozedurak erabili.
- Datuak biltzen hasi aurretik, interesgarria da erabiliko ditugun galdeketa, gidoi, galdera edo prozedurak ikerketatik kanpo dauden beste pertsona batzuei erakustea, hauen iritziak ezagutu asmoz.
- Ikerketaren barne konsistentzia kontrolatzeko, lortutako ondorio eta emaitzak beste ikerketa batzuetatik lortutako ondorio eta emaitzekin alderatu.

Ikergaiaren definizioarekin hasi eta ikerketaren balio eta fidagarritasunarekin bukatuz, ikerketa prozesuan hamar pauso eman behar direla esan dugu. Hala ere, ezin da ahantzi, ikerketa bakoitza mundu bat dela, eta kasu bakoitzean diseinu hoberena pentsatu beharko dugula. Hasieran aipatu bezala, ikerketa bakoitzak bere beharrak, oztopoak, helburuak eta, oro har, berezitasunak dituen heinean, ikerlariak erabaki behar du kasu bakoitzean zein den ikerketarako diseinurik onena; hau da, zeintzuk diren erabiliko dituen teknikak eta emango dituen pausoak. Gainera, ikerketa aurrera doan heinean, hasieran aurreikusi diren estrategia eta pausoak zeharo aldatu daitezke. Ondorioz, ikerlaria adi eta prest egon behar da beti aurretik pentsatutako estrategia birplanteatzeko, eta aurrerantzean eman beharreko pausoak berriz zehazteko.

II

Laginketa

«...a través de muestras se puede obtener, en muchos casos, la información requerida con un ahorro sustantivo de recursos humanos, económicos y de tiempo sin que ello implique un alejamiento de la realidad que se desea conocer. Por eso, en las ciencias sociales se recurre, con frecuencia, a esta metodología y porque es la única capaz de reflejar, en el menor tiempo posible, algunos de los continuos cambios que se producen en la compleja urdidumbre social».

Rodriguez Osuna, J. (1991): *Métodos de muestreo*

Ikerketa ia guztien helburua da, populazioari edo unibertsoari buruz informazio lortzea; hau da, ikergai diren elementu guztiei (gizakiak, diskurtso politikoak, estatuak, hiriak...) buruzko informazioa eskuratzea.

Ia gehienetan, populazioari buruzko informazioa lortzea ezinezkoa izaten da populazio osatzen duten elementu guztiak ikertzea oso garestia delako edo, besterik gabe, teknikoki ezinezkoa delako (estatu bateko biztanle guztiak inkestatzea oso zaila da). Hala, bada, ezinbestekoa da laginak erabiltzea; hau da, unibertso osoari buruzko ondorioak ateratzeko, nahitaezkoa da unibertsoaren zati bat ikertzea.

2.1. Zer da lagina?

Lagina populazioaren edo unibertsoaren zati adierazgarria da, eta bere ezaugarriak aztertuz, populazioari dagozkion emaitzak eta ondorioak lortzea ahalbidetzen du. Laginketa, beraz, laginak lortzeko prozedura da.

Laginen berezitasunak aurkezten hasi aurretik, argi utzi nahi dugu laginak eta laginketa prozesuak erabilgarriak direla, batez ere inkestak bezalako zenbaketa onartzen duten teknika kuantitatiboetan. Kontuan izan,

lagina populazioaren zati adierazgarria dela, eta adierazgarritasuna lortzeko modu bakarra dela populazioaren berezitasun guztiak proportzionalki islatuko dituen populazioko elementu batzuk aukeratzea. Zentzu honetan, sakoneko elkarrizketa, bizitza historia edo eztabaida taldeak bezalako teknikekin osotasunari buruzko ondorioak lortu ditzakegu, baina ezin dugu adierazgarritasunik ziurtatu; hain zuzen ere, teknika hauekin ezin delako populazioaren berezitasunak proportzionalki islatu. Hala, sakoneko elkarrizketetan, bizitza historietan, eztabaida taldeetan edo delphyetan laginari buruz hitz egitea baino hobe da aztergai diren kasuei buruz hitz egitea.

2.2. Laginen abantailak eta desabantailak

Datu kuantitatiboetan oinarritzen diren ikerketek tradizio handia dute Gizarte Zientzietan. Izan ere, ikerlari askorentzat balioko ikerketa bakarrak dira laginketa errorea eta fidagarritasuna neurtzea ahalbidetzen dutenak; hau da, laginak aztertuz populazioari buruzko datuak ezagutzea ahalbidetzen dutenak. Dena dela, ikerlariak argi izan behar du, laginen erabilerak abantailekin batera desabantailak ere badituela.

Laginen abantailak

- Laginak ikertzea populazio osoak ikertzea baino merkeagoa da.
- Laginak aztertuz, bizkorrago lortzen dugu informazioa. Laginak neurtzeko populazioak neurtzeko baino denbora gutxiago behar dugu.
- Batzuetan, populazio osoen ikerketetatik baino informazio ulergarriagoa lortzen da laginen azterketatik. Laginketa plan on batek zentsu eta errolden azterketek baino estimazio hobeak eman ditzake; izan ere, era honetako inkesta erraldoiek errore, akats eta soslai ugari izaten dituzte sarri askotan.

Laginen desabantailak

- Desabantailarik handiena da askotan laginen bitartez lortutako ondorioak eta emaitzak populazio osoaren neurketatik lortzen ditugunak baino zehaztasun gutxiago izaten dutela. Ezin dugu ahanzi, laginetan oinarritutako ikerketetan laginketa errorea dagoela, eta laginketa errore hau handitu egiten dela zenbat eta lagina txikiagoa izan.
- Askotan, arazoak izaten dira laginean aukeratuak izan diren elementuak aurkitzeko eta aztertzeko; euren helbideak txarto ditugulako edo azterketan parte hartu nahi ez dutelako, diru eta denbora asko kostatzen da laginerako aukeratu diren elementuak bilatzea.

22. ADIBIDEA: lagina

SITUACIÓN SOCIOLINGÜÍSTICA DE LAS HABLAS DEL ALTO ARAGÓN

En esta investigación, se ha analizado la realidad sociolingüística del Alto Aragón. Concretamente, se ha hecho un estudio del conocimiento, usos y actitudes, opiniones y demandas de la población respecto de las hablas del Alto Aragón.

Para llevar a cabo la investigación, se ha realizado un estudio mediante encuesta. En total se han realizado 1.200 cuestionarios en las 9 zonas que comprenden el Alto Aragón:

- Valles de Ansó, Echo, Aragüés y Aísa (2.310 habitantes): 22 encuestas
- Valle de Bielsa, Tella-Sin, Valle de Gistau, Valle de Benasque (4.090 habitantes): 38 encuestas
- Ribagorza Central y Ribagorza Baja (8.701 habitantes): 81 encuestas
- Comarca de Sobrarbe y la Fueva (5.751 habitantes): 54 encuestas
- Valle de Aragón (13.833 habitantes): 127 encuestas
- Tena y Serrablo (12.501 habitantes): 115 encuestas
- Sotonera, Ayerbe, Agüero (5.796 habitantes): 53 encuestas
- Somontano de Huesca (56.119 habitantes): 518 encuestas
- Somontano de Barbastro (20.863 h habitantes): 192 encuestas

Teniendo en cuenta que en la zona objeto de estudio hay 129.964 habitantes censados, los 1.200 cuestionarios aseguran un margen de error del $\pm 3\%$ a un nivel de confianza del 95% en el conjunto de la muestra. La muestra a sido aleatoria y proporcional según la distribución demográfica y estratificada según criterios de edad, sexo y tipo de hábitat.

2.3. Laginketa motak

Laginak sailkatzerakoan irizpide desberdinak daude. Dena dela, gehien erabiltzen den sailkapena da laginketa probabilitikoen eta laginketa ez probabilitikoen artean desberdintzen duena.

2.3.1. LAGINKETA PROBABILISTIKOA

Laginketa probabilitiko bat egiteko, ezinbestekoa da populazioa osatzen duten elementu guztien zerrenda izatea. Zerrenda horretatik abiatuz, lagina osatuko duten elementuak aukeratuko ditugu zoriz. Honela, bada, populazioa osatzen duten elementu guztiek laginean aukeratuak izateko probabilitatea bera dute. Honekin batera, laginak zer-nolako zehaztasunarekin islatzen dituen populazioaren berezitasunak jakin genezake. Hau da, laginketa errorea ezagutu genezake. Gogoratu, etxez-etxe egindako inkestetan lagin onak direla gutxi gora-behera $\pm 4\%$ edo gutxiagoko laginketa erroreak dituztenak. Telefono birtarte egindako inkestek laginketa errore handiagoak onartzen dituzte ($\pm 8-9\%$).

23. ADIBIDEA: laginketa erroreak

LAGINKETA ERROREAK EUSKAL HERRIARENTZAT (2.906.000 biztanle) LAGIN TAMAINA ETA KONFIANTZA MAILA DESBERDINEN ARABERA

Lagin tamaina desberdinak	%95eko konfiantza mailarentzako laginketa erroreak	%99ko konfiantza mailarentzako laginketa erroreak
600	± %4	± %5,2
700	± %3,7	± %4,8
800	± %3,4	± %4,5
900	± %3,26	± %4,2
1.000	± %3	± %4
1.100	± %2,95	± %3,8
1.200	± %2,8	± %3,7

Oro har, bost eratako laginketa probabilitikoak daude: zorizko laginketa sinplea, laginketa sistematikoa, laginketa estratifikatua, konglomeratu bitartez egiten den laginketa eta laginketa telefonikoa.

Zorizko laginketa sinplea: zorizko laginketa sinplea da laginketa probabilitikoen artean gehien erabiltzen dena. Era honetako laginketa bat egiteko, populazioa osatzen duten elementu guztien zerrenda bat lortu behar dugu. Horrekin batera, lagina osatuko duten elementuak aukeratzeko metodoak ziurtatu behar du populazioa osatzen duten subjektu guztiek aukeratuak izateko probabilitate bera dutela. Metodo desberdinak daude zorizko laginketa sinple bat egiteko:

- Zerrenda osatzen duten elementu guztiak loteria-bonbo batean sartzen ditugu, eta lagina osatzen duten elementuak aukeratzeko dira zoriz.
- Zerrenda osatzen duten elementu guztiei zenbakiak ematen dizkiegu, eta zorizko zenbakien taula erabiliz, lagina osatuko duten elementuen aukeraketa egiten dugu. Metodo hau aplikatzeko, beraz, zorizko zenbakien taula bat prestatu behar dugu alde aurretik, eta taulak ematen dizkigun zenbakiekin lotuta dauden elementuak aukeratzeko ditugu.

24. ADIBIDEA: zorizko zenbakien taula

ZORIZKO ZENBAKIEN TAULA

02	22	34	76	334	84	110	887	347	410	625	30	730	66	634	646	725	830
85	3	23	88	456	73	132	546	234	532	756	29	269	78	556	678	925	729
00	4	94	29	56	14	566	51	447	666	53	94	545	19	756	310	567	694
64	5	42	03	78	12	159	71	878	759	80	142	142	93	87	332	242	842
94	67	09	28	134	109	234	138	557	834	137	09	09	38	134	366	278	709
42	180	54	27	51	154	345	50	899	945	159	154	154	37	951	459	746	454
09	62	25	68	169	105	456	16	416	556	123	25	25	78	769	987	987	325
54	56	28	04	67	8	635	6	65	835	65	28	28	64	24	677	765	328
25	1	64	58	135	145	678	35	356	978	130	164	164	158	735	231	988	364
98	94	61	35	567	77	889	447	477	289	546	161	162	139	267	876	459	461

Laginketa sistematikoa: laginketa sistematikoetan, lagina osatuko duten elementuak ez dira zoriz aukeratzen, baizik eta sistematikoki. Hau da, populazioaren zerrendatik K. elementua aukeratzen da, non K populazioa laginaren kopuruarekin zatitzean lortzen dugun zenbakia delarik. Zerrendaren zein tokitan hasi behar garen jakiteko, lehenengo 50 elementuen artetik bat aukeratzen dugu zoriz. Laginketa sistematikoa oso erabilgarria da populazio oso handiak ditugunean.

Laginketa estratifikatua: laginketa estratifikatuaren abiapuntua zera da: zenbat eta populazioa homogeneoagoa izan, are eta errazagoa dela populazioaren isla izango den lagina lortzea. Zentzu honetan, laginketa estratifikatueta populazioa multzoetan banatzen da, eta, ondoren, zorizko laginketa sinplea edo laginketa sistematikoa egiten da multzo bakoitzaren barnean, lagina osatuko duten elementuak aukeratzeko. Laginketa estratifikatua bi eratakoa izan daiteke:

- Laginketa estratifikatu proportzionala: estratu edo multzo bakoitzean hartzen den elementu kopurua estratuaren edo multzoaren tamainaren araberakoa da.
- Laginketa estratifikatu ez proportzionala: multzo bakoitzak duen elementu kopurua kontuan hartu gabe, multzo bakoitzetik elementu kopuru berdina hartzen da.

Konglomeratu bitartez egindako laginketa: populazioa osatzen duten elementu guztien zerrendarik ez dugunean, edo zerrenda egitea garestiegia denean, eta, bestalde, populazioa konglomeratu edo talde naturaletan banatua dagoenean (eskoletako klaseak, futbol taldeak, lantegiak... konglomeratu edo talde naturalak dira), konglomeratu bitartez egindako laginketa egin genetzake. Metodo honen bitartez, konglomeratu guztien zerrenda prestatzen da, eta, ondoren, konglomeratu batzuk aukeratzen dira zoriz. Ikerketa egiterakoan konglomeratua osatzen duten elementu guztiak hartu ditzakegu, edo konglomeratuaren barnean zorizko laginketa sinplea edo laginketa sistematikoa egin dezakegu. Azken laginketa honi laginketa polietapikoa deitzen zaio, etapa askotan egiten delako.

25. ADIBIDEA: konglomeratu bitartez egindako laginketa

LOS NIÑOS Y LA POLÍTICA EN EUSKAL HERRIA SUR

Con esta investigación, hemos querido conocer lo que es importante y significativo para los niños y niñas de Euskal Herria Sur en relación con la política; es decir, llegar a comprender cómo ven, clasifican e interpretan el mundo de la política.

La investigación se ha basado en información cuantitativa obtenida de 800 encuestas personales que se ha realizado a niños y niñas que están estudiando en diferentes modelos lingüísticos y en escuelas privadas y públicas de Navarra, Bizkaia, Gipuzkoa y Álava.

Las encuestas personales son el tipo de encuestas realizadas por un encuestador/a que realiza las preguntas y anota las respuestas. La elección de este tipo de encuesta se debe a que nos ha permitido utilizar fotografías, diagramas, símbolos, etc. que han sido de gran ayuda en la conceptualización de los puntos de vista de los niños y niñas. No podemos olvidar que hemos trabajado con un universo que tiene unas peculiaridades muy específicas. En este sentido, al existir un encuestador/a nos hemos asegurado, por una parte, que los niños y niñas no tienen problemas en el entendimiento de las preguntas, y, por otra, que éstas se responden en el orden y el modo apropiados. Para ello, hemos preparado un cuestionario atractivo y fácil de responder para los niños.

Para realizar las encuestas se ha obtenido una muestra por conglomerados. Es decir, se ha confeccionado una lista de todas las escuelas tanto privadas como públicas, y, en segundo lugar, del total de aulas en las que hay niños de 6 a 12 años, se ha elegido al azar una muestra de aulas, que nos ha permitido obtener una muestra de 800 niños y niñas. Los criterios que se utilizaron para la obtención de la muestra son: el carácter privado/público de las escuelas así como el modelo de enseñanza (A, B y D). El error muestral ha sido de $\pm 3,3\%$ para el total de la muestra.

Laginketa telefonikoak: laginketa telefonikoak gero eta arruntagoak dira gure artean. Telefonoa duten etxeen kopurua handitzen doan heinean, gero eta gehiago dira telefono bitartez egiten diren inkestak. Gainera, poltsikoko telefonoak zenbat hedatu diren ikusita (Eustatek 2001eko IV. hiruhilekoari buruz plazaratutako datuen arabera, Euskal Autonomia Elkarte 15 urtetik gorako pertsonen %75ak (1.363.000) du sakelako telefonoa), pentsa daiteke etorkizunean ugartu egingo direla era honetako inkestak. Jendeak telefonoa beti gainean eramaten duenez, inkestak eguneko edozein ordutan egin ahal izango dira.

Hala eta guztiz, kontuan izan behar da, lagina aukeratzeko zerrenda telefonikoak erabiltzeak ez dituela, kasu askotan, lagin adierazgarriak ziurtatzen. Arrazoi bi daude hori esateko: alde batetik, pertsona batzuk ez dute telefonorik (jende oso pobreak, adibidez) edo ez dira zerrenda telefonikoetan agertzen (jende oso aberatsa, politikariak...); beraz, ez dute laginean aukeratuak izateko inolako probabilitaterik.

Bestetik, zenbait pertsona behin baino gehiagotan agertzen dira zerrenda telefonikoetan (dendariak edo lanbide liberalak dauzkatena, adibidez), eta, ondorioz, behin agertzen direnek baino aukeratuak izateko probabilitate gehiago dute.

Gaur egun, metodo automatikoak garatu dira telefonoa duten pertsona guztiekin harremanetan jartzeko, zerrenda telefonikoetan agertzen diren edo ez kontuan hartu gabe. Hauetariko metodo bat da, Ameriketako Estatu Batuetan garatu den *Random Digit Dialing* (RDD) metodoa. *Random Digit Dialing* metodoak telefonoen lagin bat aukeratzeko du automatikoki, kontuan hartu gabe telefono zenbakien zerrendetan agertzen diren edo ez.

«An alternative sampling frame that has received a considerable amount of attention is the one generated by the random digit dialing (RDD) procedure, either by itself, or together with the telephone directory. This method of dealing with the problem of unlisted subscribers has been used directly in telephone surveys and as a means of obtaining addresses of unlisted subscribers for mail and personal interview surveys». Tull, D.S. y Albaum, G.S. (1989): «Bias in Random Digit Dialed Surveys» in Singer, E. y Presser, S. (Edit.): *Survey Research Methods*. The University of Chicago Press, Chicago, 11-17. orrialdeak.

Random Digit Dialing bezalako metodoak telefono bitartezko inkestak egiteko aurrerapausoa badira ere, ez dute inola ere konpontzen telefonorik ez duten edo telefono bat baino gehiago dutenen arazoa.

26. ADIBIDEA: laginketa telefonikoa

GALDAKAOKO UDAL EUSKALTEGIARI BURUZKO IKERKETA (1993)

Galdakaoko Udal Euskaltegiko ikasle eta ikasle ohien Euskaltegiarekiko jarrera ezagutzeko egin zen ikerketan, inkesta telefoniko bi egin genituen: bat Euskaltegian ikasten ibili eta utzi zutenen artean, eta bigarrena Euskaltegian inoiz ibili ez zirenen artean. Guztira 400 galdeketa jaso genituen.

Euskaltegian ibili eta utzi zutenek Euskaltegiari buruz zuten iritzia ezagutzeko, 200 pertsonako lagina hartu genuen, Euskaltegiko ikasleen zerrendak eta fitxak erabiliz. Zehatzago esateko, 16-45 urte bitartean zeuden 100 emakume eta 100 gizonezko hartu genituen zoriz, era honetan banatuta: 16-25 urte bitarteko 34 gizon eta 34 emakume, 26-30 bitarteko 34 gizon eta 34 emakume eta 31-45 urte bitarteko 34 gizon eta 34 emakume.

Euskaltegian inoiz ibili ez zirenen iritzia ezagutzeko, beste 200 pertsona aukeratu ziren, Galdakaoko biztanleen telefono zenbakien zerrenda erabiliz. Kasu honetan ere, adin eta sexu desberdinen agerpen orekatua ziurtatu asmoz, adin eta sexu aldagaiak hartu ziren kontuan. Honela, 100 gizonezko eta 100 emakumezko hartu ziren, era honetan banatuta: 16-25 urte bitarteko 34 gizon eta 34 emakume, 26-30 bitarteko 34 gizon eta 34 emakume eta 30-45 urte bitarteko 33 gizon eta 33 emakume.

Laginketa errorea ezagutu daitekeen heinean, laginketa probabilistikoak laginketa ez probabilistikoak baino nahiago izaten dituzte ikerlariek. Dena dela, kasu batzuetan ezin izaten da laginketa probabilistikorik egin. Beraz, populazioaren zerrenda lortzea oso garestia denean, ikergai den populazioa zein den zehaztea zaila denean (alderdi politiko bati bozka ematen dioten guztien zerrendarik ez dago) edo ikerlariek lagin adierazgarria lortu beharrean kasu zehatz batzuk aztertuz informazio gehiago aterako dutela pentsatzen dutenean (lider politiko zehatz batzuekin sakoneko elkarrizketak eginez, adibidez), laginketa ez probabilistikoak egiten dira.

2.3.2. LAGINKETA EZ PROBABILISTIKOA

Gizarte ikerlari batzuentzat, laginketa probabilitistikoa da, balioko laginketa bakarra; beraz, hauen ustez, zerrendatuta ditugun fenomenoak aztertu daitezke bakarrik; alegia, laginketa errorea ezagutzea ahalbidetzen duten fenomenoak.

Ikuspuntu hau goitik behera hartuko bagenu, gai asko eta asko ikertu gabe utzi beharko genituzke. Izan ere, askotan ezin izaten da laginketa probabilitistikorik lortu, populazioa osatzen duten guztien zerrendarik ez dagoelako (drogamenpekotasuna, homosexualitatea...), edo zerrenda lortzea asko kostatzen delako.

Honela, bada, gure ikuspuntua da, zerrendarik ez dugun kasuetan ikerketa oso zehatzak egin daitezkeela, baina probabilitatezkoa ez den laginketetan oinarritu behar garela. Laginketa errorea ezagutzea ezinezkoa bada ere, lagin adierazgarriak lortu ditzakegu.

Era honetako laginketetan ez dakigu populazio osatzen duten elementuek laginean aukeratuak izateko duten probabilitatea. Populazioaren zerrendarik ez dagoenez, lagin mota hau ikerlariaren interesen, nahien edo aukeren arabera osatzen da. Era askotako probabilitatezko laginketak daude:

Iritzi laginketa: ikerlariak gaiari buruz duen ezagutzaren arabera, subjektiboki aukeratzen ditu lagina osatuko duten elementuak. Beraz, talde txiki eta anitza aztertzen da gaiaren inguruan egon daitezkeen iritziak eta ikuspuntuak sakonean ezagutzeko. Egia esan, kasu honetan laginari buruz hitz egitea baino hobea da aztergai diren kasuen multzoari buruz hitz egitea. Arestian esan bezala, laginak populazioaren berezitasun guztiak proportzionalki islatzeaz gain, populazioaren adierazgarri izan behar du, eta iritzi laginketetan, lagin adierazgarria lortu baino gehiago, gai bat sakonean ezagutzea nahi izaten da. Gehien bat, laginketa mota hau sakoneko elkarrizketetan, bizitza historietan, delphyetan eta eztabaida taldeetan erabiltzen da.

27. ADIBIDEA: iritzi laginketa eta elur bolaren bitartez egindako laginketa

EUSKAL ALFABETATZEAREN HISTORIA (1990)

Helduen Euskal Alfabetatzearen Historia aztertzeko, 36 elkarrizketa egin genituen alfabetatzearen munduan sartuta egon ziren, eta prozesu honi buruz zerbait esateko zutenen artean. Hau da, iritzi laginketa bat egin genuen. Geografikoki era honetan banatuta zeuden 36 sakoneko elkarrizketa hauek: 7 Araban, 13 Bizkaian, 6 Gipuzkoan, 6 Iparraldean eta 4 Nafarroan.

36 pertsona hauek aukeratzeko, gai honi buruz idatzirik zeuden aldizkari eta liburuetan oinarritu ginen ia gehienetan, beti ere herrialde desberdinetan.

koak sartzea kontuan hartuz. Literaturaren azterketak gaiari buruzko ezagutza handitzeaz gain, informazioa zuten pertsonen zerrenda egiten lagundu zigun.

Honekin batera, elur bolaren metodoa erabiliz, elkarrizketa bakoitzean alfabetatzearen historian garrantzia izan duten beste pertsona batzuen izenak agertzen zirenez, gure zerrenda osatuz joan zen.

Euskal Alfabetatze prozesuari eta historiari buruz zuten ezagutzaren arabera, subjektiboki aukeratzen genituen elkarrizketarako pertsonak. Gure helburua, hain zuzen ere, lagin adierazgarri bat aztertzea baino gehiago, gaiari buruz ezagutza handia zutenen iritzia ezagutzea zen.

Komenientziako lagina: ikerlariak oso hurbil edo eskuragarri dituen elementuak sartzen ditu laginean. Hau da, berarengandik oso hurbil daudenak edo ikerketan parte hartzeko prest daudenak. Laginketa mota hau ikerketa esploratzaileetan erabiltzen da, edo ikergai den populazioa definitzea edo bilatzea oso zaila denean. Ez ahaztu, era honetako laginekin, gure ikerketaren emaitzak bideratuko dituen lagin soslaitu bat hartzeko arrisku handia dagoela.

28. ADIBIDEA: komenientziako lagina

ENCUESTA SOBRE EL GASTO MEDIO DE LAS PERSONAS QUE VIENEN POR RAZONES DE NEGOCIOS A LA C.A.P.V. (1998)

Con la investigación sobre el gasto medio de las personas que vienen por razones de negocios a la CAPV, hemos analizado el gasto medio diario de los profesionales que visitan por razones de negocios el País Vasco, y se hospedan en hoteles de dos, tres y cuatro estrellas de las tres capitales de la comunidad.

El método seguido para la obtención de los datos pertinentes al objeto de la investigación ha sido la encuesta, realizada a una selección muestral del universo objeto de estudio, que en nuestro caso comprende a todas aquellas personas que vienen por razones de negocios a la CAPV y se hospedan en hoteles de la comunidad.

La encuesta se ha realizado a través de encuestadores/as (doce en total), en los recibidores de los quince hoteles seleccionados. Es decir, los encuestadores han interceptado a las personas que vienen por razones de negocios en los recibidores de los hoteles. En este sentido, ha sido una muestra de conveniencia, ya que los encuestadores, al no tener ninguna relación de la persona que venían por razones de negocios, seleccionaban a todas las personas que una vez preguntadas mostraban esta característica, y accedían a responder al cuestionario.

Los encuestadores han sido, fundamentalmente, estudiantes y licenciados en Ciencia Política por la UPV-EHU, y para facilitar su labor, se ha mandado, con una semana de antelación, una carta del Director del Departamento de Comercio, Consumo y Turismo del Gobierno Vasco a los responsables de los hoteles seleccionados en la muestra.

El tamaño muestral obtenido ha sido de 487 entrevistas. Todas las entrevistas se han realizado en las tres capitales de la CAPV, que es donde se concentra el 70% de los hoteles de la CAPV, y es donde se hospedan, en su mayoría, las personas que vienen por razones de negocios a la CAPV.

Kuota bitartez egindako laginketa: laginketa mota honetan elementuak populazioan duten adierazgarritasunaren arabera aukeratzen dira; beraz, laginketa estratifikatu proportzionalaren antzerakoa da. Kuota bitartez egindako laginketen eta laginketa estratifikatu proportzionalen arteko desberdintasuna da, kuota bitartez aukeratutako lagina ez dela probabilitatez aukeratzen. Kasu honetan, elementuak alde zehatz zehatz diren berezitasunen arabera (sexua, adina, bizitokia...) aukeratzen dira zoriz. Hau da, zoria ziurtatu nahi duen sistema bat jarraituz, berezitasun zehatz batzuk dituzten pertsonak aurkitu eta inkestatu behar izaten dituzte inkestatzailerak.

29. ADIBIDEA: kuota bitartez egindako laginketa

IRUNGO UDALETXEAREN ZAKO SAN MARTZIALEKO ALDARDEARI BURUZKO IKERKETA

Alardearen inguruko ikerketan kuota bitartez egindako laginketa erabili genuen. Guztira 600 inkesta egin genituen 16 urte baino gehiago zituzten irundarren artean. Lagina Eustatek prestatu zuen adina, sexua eta zentsu sekzioak kontuan hartuz. Laginketa errorea $\pm 3,9\%$ koa izan zen.

Bigarren distrituko zazpigarren sekzioan, adibidez, 15 gizon eta 15 andra hartu genituen era honetan banatuta.

	Gizonak	Emakumeak
16-19 URTE	2	1
20-24 URTE	1	2
25-34 URTE	3	3
35-44 URTE	3	4
45-54 URTE	2	2
55-64 URTE	2	2
65 EDO GEHIAGO	2	1

Elur bolaren bitartez egindako laginketa: laginketa mota honetan, laginean parte hartzen duten pertsonak beste pertsona batzuk ezagutzeko informazioa ematen digute.

Elkarrizketatzen den pertsona bakoitzari, ikerketan parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten beste pertsona batzuk ezagutzen dituen galdetzen zaio, eta apurka-apurka lagina handitu eta osatu egiten da. Hau da, elur bola

handitzen doa, behar beste pertsona elkarrizketatzen den arte. Era honetako laginketa oso erabilgarria da populazio oso arraroak aztertzeko, berezitasun oso zehatzak dituztenak lortzeko edo populazio hori osatzen dutenengana hurbiltzeko arazoak ditugunean.

30. ADIBIDEA: elur bolaren bitartez egindako laginketa

MUNDUKO HIZKUNTZEI BURUZKO TXOSTENA (1998-2001)

Munduko hizkuntzei buruzko txostenerako erabili den informazio bilketa galdeketan oinarritzen da.

Txosten honetan izan dugun arazorik handienetakoa hizkuntzei buruz galdeketa bete zezaketen pertsona eta erakundeak lortzea izan da. Informazio hori lortzeko hainbat iturri mota erabili behar izan ditugu: hizkuntzei buruzko direktorioak, gobernuei lotutako zein gobernuz kanpoko erakunde eta instituzioek emandako pertsonen zerrendak, 1998 eta 1999 urteetan zehar UNESCOk antolatu dituen sare, mintegi eta biltzarretan parte hartu dutenen zerrendak eta munduko misiolari eta ordena erlijiosoekin egin ditugun harremanen bitartez lortu ditugun zerrendak.

Azkenik, gure informatzaileak beste informatzaile batzuen iturri ere bada. Elur bolaren eragina deritzana da. Hau da, galdeketari erantzun diotenekin lortzen den harremana (batez ere posta elektronikoz egiten dena), beste informatzaile batzuk ezagutzeko balio du.

Laginketa mota desberdinak agertu ondoren, argi utzi nahi dugu oso arrunta dela laginketa probabilistikoak eta ez probabilistikoak nahastea; hau da, oso arrunta da laginketa mota desberdinetan oinarritutako ikerketak egitea. Adibidez, hiri batean dauden sekzio zentsal guztien zerrendatik sekzio batzuk aukeratzen dira zoriz (konglomeratuetan oinarritutako laginketa), eta, ondoren, aukeratutako sekzioetan kuota sistemaren bitartez aukeratzen dira inkestatuak (kuota bitartez egindako laginketa).

31. ADIBIDEA: laginketa probabilistikoak eta laginketa ez probabilistikoak ikerketa berean

LOS JÓVENES DE SAN SEBASTIÁN: LA CIUDAD Y EL AYUNTAMIENTO

Con la investigación *Los jóvenes de San Sebastián: la ciudad y el ayuntamiento* se han analizado los comportamientos, percepciones, intereses, demandas y actitudes de los ciudadanos de entre 15 y 30 años de San Sebastián, en relación a la calidad de vida de la ciudad y los distintos equipamientos, proyectos y servicios relacionados con su municipio. Al mismo tiempo, se ha realizado una valoración de la gestión municipal llevada a cabo por el Consistorio donostiarra así como por su alcalde.

Dirección: la dirección de la investigación la ha realizado Patxi Juaristi. Profesor del Departamento de Ciencia Política de la Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea.

Fecha de realización: el trabajo de campo se realizó del 15 de febrero de 1999 al 18 de marzo de 1999.

Universo: población de ambos sexos de entre 16 y 30 años.

Tamaño de la muestra: 600 entrevistas. Las entrevistas se han conseguido mediante entrevista personal en los domicilios mediante cuestionario estructurado.

Puntos de muestreo: 30 secciones censales.

Procedimiento de muestreo: muestreo por conglomerados con selección de las secciones de forma aleatoria proporcional y de los encuestados por rutas aleatorias y cuotas de sexo y edad.

Error muestral: con un nivel de confianza del 95,5% (dos sigmas) y $p = q$, el error es de $\pm 4\%$ para el conjunto de la muestra.

III

Saioa

«La necesidad de manipular el estímulo experimental y controlar todos los demás factores habla en favor de la realización de los experimentos en una situación de laboratorio. A este respecto hay que tener en cuenta que para el control del experimento no basta en absoluto con garantizar la igualdad de los diversos grupos de control en relación con todos los atributos de los sujetos del experimento no modificados experimentalmente, sino que también se ha de controlar a todos los factores situacionales relevantes, que han de ser iguales para los grupos de comparación. Esto, si es que acaso es posible, se puede conseguir también mejor en el laboratorio que en las situaciones naturales».

Mayntz, R., Holm, K. eta Hübner, P. (1980): *Introducción a los métodos de la sociología empírica*

Saiakeran oinarritutako diseinuetan ikertzaileak aldagai askea, aztergai diren elementuak edo subjektuak eta aztergai den fenomeno kontrolatzen ditu. Hala, fenomenoen azalpen kausalak lortu daitezke; hau da, talde esperimentalean (estimulua hartzen duena) eta kontrolerako taldean (estimulua hartzen ez duena) menpeko aldagaiaren aldaketak neurtuz, estimulu esperimentalak zenbateraino eragina duen jakin daiteke.

Psikologian saio ugari egiten badira ere, Soziologian, Zientzia Politikoe-tan, Ekonomian edo Antropologian arazoak izaten dira talde esperimentalak eta kontrolerako taldeak osatzeko, eta estimulu esperimentalek portaeretan eta jarreteretan duten eragina neurtzeko. Beraz, Gizarte Zientzietan burutzen diren ikerketa gehienak testuinguru naturaletan egiten dira.

«One of the biggest obstacles to experimentation in social science research is the inability of researchers to control assignment of subjects to experimental and control groups. This is specially true when public policies are involved. Even though the point of conducting an experiment is to test whether a treatment or program has a beneficial effect, it is often politically

difficult to assign subjects to a control group —otherwise the treatment or program would not have been proposed as a response to a public policy problem. In setting up experimental and control groups, social scientists generally lack sufficient authority or incentives to offer subjects»... political scientists seldom use any of these experimental designs. The reason is really quite simple: Political scientists seldom have sufficient control over people's behavior and the introduction of experimental stimuli to conduct experimental research...As a result of the many obstacles to conducting experimental research, political scientists have developed a number of nonexperimental research designs that are more practical. In these designs only a single group is used or the researcher has no control over the application of the test stimulus or independent variable». Jones, F.L. eta Olson, C.E. (1996): *Political Science Research. A Handbook of Scope and Methods*, Aip. Lib. 74. orrialdea

Hala ere, kasu batzuetan interesgarria edota beharrezkoa izan daiteke saioak egitea. Hau da, ezin dugu ikerketak egiterakoan teknika hau baztertu. Izan ere, informazio iturri garrantzitsua izan daiteke.

Demagun, hots edo zaratek ikaskuntza zenbateraino eragozten duten neurtu nahi dugula. Saioa informazio kausalak ateratzeko bide egokiena dela sinesten dutenen arabera, gai hau ezin da behar bezala ikertu inkestaren bidez; hau da, ezin da ikasleengana hurbildu eta ikasten daudenean zaratak zenbat eragozten dien galdetu. Bide honetatik lortuko genituzkeen ondorioek akats ugari izango lituzkete; besteak beste, zaratari buruzko kontrolik ez genukeelako izango.

Honela, bada, hots edo zaratek ikaskuntza prozesuan duten eragina aztertzeko, kontrolpean burutuko den esperimenterua diseinatu behar da, ondorengo prozedura honi jarraituz: ikasleak nortzuk diren definitu ondoren, hau da, ikasleak nortzuk diren zehazten duen adierazle egoki bat hautatu ondoren, zer hartzen den zaratatzat definitzen da, eta ikaskuntza neurtzen duen testa sortzen da. Azkenik, esperimenterua diseinatzen da; hau da, talde esperimenterala eta kontrolerako taldea osatzen dira, eta esperimenterua burutzen da. Beraz, taldeatariko bati zarata desberdinak aplikatzen zaizkio, eta besteari baldintza normaletan ikasten ustean zaio. Denbora bat pasatu ondoren, batzuek eta besteek zenbat ikasi duten neurtzen da testaren bitartez, eta zaratak izan duen eraginari buruzko ondorioak ateratzen dira.

3.1. Saioen berezitasunak

Bost dira saioen berezitasun garrantzitsuenak:

—Taldea bat edo gehiagok estimulu esperimenteraren eragina jasotzen dute, eta kontrolerako taldea bat edo gehiagok ez dute inolako estimulurik jasotzen. Saioa, hain zuzen ere, estimulua jasan dutenen eta jasan ez dutenen arteko desberdintasunen azterketan oinarritzen da.

- Ikertzaileak zehazten du talde esperimentalaren zein kontrolerako taldeen osaketa. Ikertzaileak erabakitzen du nori eragingo dion aldagai askeak eta nori ez. Ikertzaileak neurri zorrotzak hartu behar ditu esperimentuan parte hartuko dutenek talde bateko nahiz besteko kide direla aurretik jakiteak ez ditzan emaitzak okertu.
- Ikertzaileak kontrolatzen du aldagai askearen aplikazioa. Ikertzaileak zehazten du noiz eta nolako baldintzatan aplikatuko zaion estimulua talde esperimentalari.
- Ikertzaileak menpeko aldagaia neurtu dezake estimulu esperimentalak aplikatu aurretik eta ondoren.
- Aztergai diren pertsonen ingurunea kontrolatuz, ikertzaileak aldagai askean eragiteko faktore arrotzak sartu edo ken ditzake.

3.2. Saioen abantailak eta desabantailak

Gizarte Zientzietan saio gutxi egiten dira. Izan ere, ez da erraza estimulu esperimentalaren eragina neurtzeko egoera artifizialak sortzea. Hala ere, kasu batzuetan interesgarria edo beharrezkoa izan daiteke saioak egitea. Horretarako, ezinbestekoa da argi izatea zeintzuk diren saioen abantailak eta desabantailak.

Saioen abantailak

- Sakoneko elkarrizketetan, bizitza historietan, delphyetan, inkestan edo eztabaida taldeetan ez bezala, saioetan ikertzaileak zehazten du zein den azterketarako informazio garrantzitsua eta zein ez. Beraz, ikerketaren beharizanen arabera antolatzen du esperimentua.
- Sakoneko elkarrizketetan, bizitza historietan, delphyetan, inkestan eta eztabaida taldeetan ikertzailea elkarrizketatuaren menpe dago; bestela esanda, informazioa teknikan parte hartzen duten pertsonen borondate onaren eta nahien arabera lortzen da. Esperimentuaren kasuan, aldiz, ikertzaileak aldagai askea kontrolatzen du, baita kontrolerako taldearen zein talde esperimentalaren osaketa; beraz, nahi duen moduan manipulatu du ikerketa.

Saioen desabantailak

- Erabiliko ditugun estimuluak zein talde esperimentalaren eta kontrolerako taldeen osaketa kontrolatzen diren heinean, teknikak eragin zuzena du ikertu nahi den fenomenoan. Saioetan parte hartzen dutenek badakite ikerketan parte hartzen ari direla, eta horrek ikertuen portaerak eta jarrerak baldintzatu ditzake.
- Ez dira benetako portaerak, jarrerak edota fenomenoak aztertzen, baidiz eta artifizialak. Hau da, artifizialki sortu edo manipulatu diren fenomenoak.

- menoak dira; beraz, batzutan ezinezkoa da esperimentuetan oinarritutako generalizazioak egitea.
- Ikerketa burutzeko esperimentu asko egin behar badira, ikerketa luzea eta oso garestia izan daiteke.
 - Askotan, arazo teknikoak edota etiko eta moralak medio, ezin dugu saiorik egin. Adibidez, oso zailak dira emakumeen aurkako erasoen inguruko jarrerei buruzko esperimentuak egitea.

3.3. Saioen balioa eta fidagarritasuna

Beste edozein teknikarekin bezala, saioak egiten ditugunean erabilitako tresnaren fidagarritasuna eta balioa ezagutu behar ditugu.

3.3.1. SAIOEN FIDAGARRITASUNA

Arestian esan bezala, neurketa tresna bat fidagarria da, behin baino gehiagotan erabili ondoren emaitza berdinak ematen ditugunean. Honela, bada, saio bat fidagarria da esperimentu bera talde berdinei birritan aplikatu ondoren ondorio berdinak lortzen ditugunean. Horren esan nahi du esperimentuak kontu handiz prestatu behar direla, gauza txikiak ere ahanzi gabe.

Saioen fidagarritasuna ziurtatzeko, aldagai askearen eragina neurtzeko erabiltzen ditugun testak fidagarriak izan behar dira. Test hauen fidagarritasuna neurtzeko metodo desberdinak erabili ditzakegu. Besteak beste, test-retest metodoa, forma alternatiboen metodoa, bi erdien metodoa eta Crombachen alfa aipatu ditzakegu:

Test-retest metodoa: metodo honen bidez talde berari test bera aplikatzen zaio bi momentu desberdinetan, eta ondorioak berdinak diren ikusten dira. Bi momentuetan lortutako emaitzen artean korrelazioa neurtzen da Pearsonen korrelazio koefizientea erabiliz (Pearsonen r -1 -etik $+1$ -era doa), eta ateratzen den koefizientea testaren fidagarritasunaren neurri gisa erabiltzen da.

Forma alternatiboen metodoa (alternative-form method): aurreko metodoa bezala, aztergai den fenomeno bi aldiz neurtzen da, baina kasu honetan tresna desberdinak erabiltzen dira. Ikergai den fenomeno test desberdin birekin neurtzen da, eta, ondoren, ondorio berdinak lortu diren aztertzen da.

Bi erdien metodoa: metodo honen arabera, testa bi zati berdinetan banatzen da, eta zati bakoitzean lortzen diren ondorioen arteko korrelazio koefizientea ateratzen da. Koefiziente honek eskalaren fidagarritasuna neurtzeko balio du. Zentzu honetan, korrelazio txikiak fidagarritasun txikia duten testekin loturik daude, eta korrelazio handiak fidagarritasun handia duten testekin.

Crombachen Alfa: estatistiko honek testean erabili diren item guztien arteko batezbesteko korrelazioa neurtzen du. Alfa Otik 1era doa, eta negatiboa da erabiltzen ditugun itemak elkarrekiko harremanetan ez daudenean, eta, beraz, tresnak fidagarritasun gutxi duenean. Zenbat eta alfa gehiago hurbildu batera, testak are eta fidagarritasun handiagoa du.

Testaren fidagarritasuna hobetzeko aholku hauek erabilgarriak izan daitezke:

- Test argiak egin. Zalantzak sortzen dituzten edo hitz zailak erabiltzen dituzten galderak ekidin.
- Testa pasatzerakoan ikerlariaren eragina ahal bezain beste gutxitu.
- Testa betetzeko jarraitu behar diren pausoak zehatz-mehatz agertu behar dira bai azalpenak emanez, zein geziak erabiliz.

3.3.2. SAIOEN BALIOA

Esperimentuen fidagarritasuna baino garrantzitsuagoa da, hauen balioa. Balioak neurketarako erabiltzen den tresnaren eta neurtu nahi den kontzeptu edo dimentsioaren arteko loturarekin zerikusia du. Edo gauza bera dena, erabilitako tresna baliagarria da ikertzaileak neurtu nahi duena neurtzen duenean. Saioen kasuan balioa neurtzeko bi metodo aipatu ditzakegu: barne balioa eta kanpo balioa.

Barne balioa: barne balioak aldagai askearen manipulazioak menpeko aldagaian sortzen dituen aldaketekin zerikusia du. Saiakera bateko barne balioa kaltetua gerta daiteke arrazoi desberdinengatik:

- Kontrolatzen ez diren aldagaien eraginagatik: saioen berezitasunetariko bat da ikertzaileak ikergai den fenomeno gertatzen den testuingurua baldintza guztiak kontrolatzen dituela. Hain zuzen ere, saioetan kontrolerako taldearen eta talde esperimentalaren arteko desberdintasun bakarra aldagai askearen eragina izan behar da. Batzutan, dena dela, aldagai askeaz gain kontrolerako taldean eragiten ez duten beste aldagai batzuk ere eragina dute talde esperimentalean, eta horrek ikerketaren emaitzak aldatu ditzake.
- Esperimentuaren hasieratik pasatutako denboraren eragina: denbora pasa ahala, talde esperimentaleko zein kontrolerako taldeko kideen berezitasunak aldatu egin daitezke. Denborarekin, talde esperimentaleko zein kontrolerako taldeko kideak nekatzen, aspertzen edo gosea edukitzen hasi daitezke. Era honetako aldaketek estimuluarekiko erreakzioa aldatu, eta saioan parte hartzen dutenen portaerarengan itxaroten ez ziren erreakzioak sortu ditzakete.
- Esperimentua egin aurretik menpeko aldagaiaren neurketak duen eragina: ikerketa esperimentaletan menpeko aldagaia neurtzen da estimulua aplikatu baino aurretik eta ondoren. Menpeko aldagaia au-

- retik neurtu izanak esperimentuaren emaitzei eragin diezaioke; izan ere, neurketa horietan parte hartu dutenek alerta egoeran jarri daitezke.
- Esperimentuan parte hartzen dutenen egoera pertsonala: askotan, pertsona bat ikerketa esperimentalean parte hartzeko aukeratzen da berezitasun oso zehatzak dituelako (autoritarismo maila oso altuak edo oso baxuak, adibidez). Neurketa hauek pertsona horren benetak berezitasunen desbideraketak izan daitezke, neurketa egin zen momentuan gaixorik, nekatuta edo triste zegoelako. Gerta daitekeena da estimulua aplikatu ondoren, pertsona horren iritzia edo portaera errealtatean den bezalakoa agertzea, eta ikertzaileak pertsonaren portaera edo iritzi aldaketa estimuluaren eraginaren ondorio dela ondorioztatzea.
 - Taldea esperimentalaren eta kontrolerako taldearen artean dagoen kopuru orekatuaren apurketa: ikertzailean nahi izaten du talde esperimentalak eta kontrolerako taldeak antzerako kopurua izatea. Parte-hartzaileetarikoa bat edo batzuek ikerketa bukatu aurretik esperimentua uzten badute, bi taldeak desberdinak bihurtzen dira. Talde esperimentalaren eta kontrolerako taldearen kopurua desberdina izateak zalan-tzan jar ditzake lortutako emaitzak. Bestela esanda, zalantza sortuko da menpeko aldagaian aurkitutako desberdintasunak aldagai askearen manipulazioaren ondorio diren, edo taldearen osaketaren aldaketak sortuak dauden.
 - Menpeko aldagaia neurtzeko arazoak: batzutan ikertzailea nekatuta egon daiteke eta ez du ondo neurtzen menpeko aldagaia. Beste batzuetan, soslai desberdinak dituzten pertsonak egiten dituzte neurketak (ikusmen txarra edo fobia bereziak, adibidez); beraz, menpeko aldagaian nabaritzen diren desberdintasunak neurketaren ondorio dira gehiago, aldagai askearen eraginaren ondorio baino.
 - Arazoak esperimentuan parte hartzen duten pertsonen aukeraketan: talde esperimentaleko pertsonak eta kontrolerako taldekoak antzerakoak ez badira, taldeen arteko desberdintasunak ezin dira azaldu aldagai askearen arabera.
 - Informazioa biltzeko erabiltzen diren gailuen eragina; alegia, ahots eta irudi grabagailuen eragina: jende asko ez da eroso egoten era honetako gailuen aurrean, eta horrek eragin ezkorrak izan ditzake gure emaitzetan; hots, gailuen eraginez saioan parte hartzen dutenek benetakoa ez diren portaerak eta iritziak izan ditzakete.

Kanpo balioa: kanpo balioak ikerketaren ondorioen adierazgarritasunarekin zerikusia du, baita beste egoera batzuetara orokortzeko aukerarekin ere. Esperimentu batek kanpo balioa ez edukitzeko arrazoi asko daude:

- Saioak ez du kanpo baliorik, esperimentuan parte hartu duten berezitasunak dituen beste populazio batzuei aldagai askea aplikatu ondoren, ondorio berdinak lortzen ez ditugunean, edo ikerketarako erabili den lagina ikergai den populazioaren adierazgarria ez denean.
- Esperimentuaren artifizialtasunak zalantzan jarri dezake ikerketaren kanpo balioa. Testuingurua, taldeen osaketa zein erabiliko den estimulua kontrolatzen diren heinean, arazoak egon daitezke esperimentuk ateratako ondorioetan oinarrituz, baldintza naturaletan gertatzen diren portaerei, jarrerei edo egoerei buruz hitz egiteko.

IV

Inkesta

«...el cuestionario o formulario de entrevista tiene dos propósitos fundamentales: primero, debe traducir los objetivos de la investigación en preguntas específicas cuyas respuestas proporcionarán los datos necesarios para comprobar las hipótesis o indagar el área determinada por los objetivos de la investigación. (...) La segunda función del cuestionario es ayudar al entrevistado/a en la tarea de motivar al sujeto para que comunique la información requerida»

Festinger, L. y Katz, D. (Comp.) (1978): *Los métodos de investigación en las Ciencias Sociales*

Ikerketa enpirikoak tradizio handia dauka Gizarte Zientzietan. Datu kuantitatiboetan oinarritzen diren ikerketek nagusitasun osoa izan dute Bigarren Mundu Gudatik gaur eguneraino. Izan ere, ikerlari askorentzat balioko ikerketa bakarrak dira kontaketa onartzen dutenak eta laginketa errorea eta fidagarritasuna neurtzea ahalbidetzen dutenak. Zentzu honetan, inkesta da askorentzat ikerketarako teknikarik zehatzena eta baliagarriena.

4.1. Inkestaren oinarri metodologikoak

Hiru dira inkesten oinarrian dauden auresuposamenduak:

Inkesta galdeketa baten bitartez informazioa jasotzeko teknika da. Zentzu honetan, inkestaren lehen oinarri metodologikoa da, kanpo portaera behatuz ezin dugula gizakiek euren portaerei ematen dioten sakoneko esanahia ezagutu, eta, ondorioz, esanahia hori behar bezala eta bere sakontasunean ezagutzeko biderik onena gizakiei galdetzea dela. Sakoneko elkarrizketan, bizitza historian, eztabaida taldean eta delphyan bezala, inkestarekin informazioa gizakiei galdetuz lortzen dugu.

Bigarren oinarri metodologikoa da, lagin bat aztertuz populazioari buruzko informazio adierazgarria lortu daitekeela. Inkestaren aldekoek diote, aberatsa den informazioa baina adierazgarritasunik ez duena baino hobea dela inkestak ematen duten bezalako informazioa; hau da, azaleko informazio baina populazio baten adierazgarria dena.

Hirugarren auresuposamendua da talde bateko iritzi, portaera, jarrera edo joeren zenbaketa adierazgarria dela. Zenbaketa honek, hain zuzen ere, erabili ditugun tekniken fidagarritasuna eta lortutako emaitzen balio ezagutzeari ahalbidetzen digu.

4.2. Inkestaren abantailak eta desabantailak

Esan bezala, inkestan oinarritutako ikerketak tradizio handia dauka Gizarte Zientzietan. Asko dira inkestaren abantailak azpimarratzen dituztenak, eta ikerketarako teknikarik fidagarriena dela diotenak. Besteak beste, inkestaren aldekoek honako abantaila hauek azpimarratzen dituzte:

Inkestaren abantailak

- Informazio iturri aberatsa da.
- Teknika oso egokia da, erraz zenbatu daitezkeen fenomenoak aztertzeko. Inkestaren bitartez iritzi publikoa zein gizartearen jarrera eta balioak oso erraz ezagutu daitezke.
- Lortutako datuen balioa eta erabili den galdeketa fidagarritasuna, beste teknika batzuetan baino errazago ezagutu daitezke.
- Lagin bat aztertuz populazio handiei buruzko generalizazioak beste teknika batzuetan baino errazago egin daitezke. Gainera, populazioaren tamaina dakigunean, laginketa errorea zenbatekoa den jakin daiteke. Hots, lagina aztertuz lortzen diren ehunekoak eta koefizienteak populazioan zer-nolako tartetan egon daitezkeen jakin daiteke.

Inkestaren desabantailak

Abantaila hauen aurrean, asko dira inkestaren desabantailak azpimarratzen dituztenak. Bereziki ikerketa kualitatiboak aldarrikatzen dituztenek honako desabantaila hauek azpimarratzen dituzte:

- Elkarrizketatuek arazoak izan ditzakete galderak erantzuteko, inkestaren bitartez gai zehatz batzuei buruzko informaziorik ez dutelako, informazioa ematea zaila egiten zaielako (sexu portaerak, etxeko arazoak...) edo aztergai diren pertsonen galderak ulertzea eta erantzutea kostatu egiten zaielako (umeak, zoroak, pertsona zaharregiak...). Zentzu honetan, inkestaren bitartez informazioa lortzeko arazoak izan ditzakegu, gizakien barneko edo ezkutuko gaiak aztertu nahi

- baditugu, edo hitz egiteko arazoak dituztenengandik informazioa lortu nahi badugu.
- Galderak egiten dituen inkestatzaile bat dagoen heinean, teknikak eragina izan dezake aztergaietan. Elkarrizketagilearen jarrera, ahots tonu, janzkera eta inkesta aurkezteko erak elkarrizketatuaren erantzunak baldintzatu ditzake. Hots, ikerketaren emaitzen kalitatea zalantzan jarri dezaketen erreakzio arazoak egon daitezke.
 - Inkesten kasuan, elkarrizketatuak zehazten du zer jaso nahi duen eta zer ez. Zentzu honetan, elkarrizketagilea elkarrizketatuaren menpe dago. Beraz, gerta daitekeena da, laginean aukeratuak izan direnek galdeketa erantzuteari uko egitea, garrantzitsuak diren galderei erantzun nahi ez izatea edo galderak erdizka betetzea.
 - Fenomeno asko ezin dira inkestaren bitartez ikertu; hain zuzen ere, zailak direlako kuantifikatzen. Erakundeek eta lider politikoek erabakiak nola, zergatik eta noiz hartzen dituzten behar bezala aztertzeke, adibidez, ezinbestekoak dira sakoneko elkarrizketak edo eztabaida taldeak egitea.
 - Autore batzuk diote, inkestak ematen duen azaleko informazioak ezer gutxirako balio duela. Hauen ustez, benetan balioa duena da, zenbakiak azpian ezkutatzan den sakoneko informazioa, eta informazio hori ezagutzeko, hobe da sakoneko elkarrizketak, bizitza historiak eta eztabaida taldeak egitea; alegia, adierazgarritasuna ziurtatzen ez duten baina aztergai diren fenomenoak ezaugarriak sakonean ezagutzea ahalbidetzen duten teknikak.

«Las características del entrevistador van a jugar un papel fundamental en el éxito de la entrevista. 1. El volumen de voz debe ser medio. Una voz débil dificulta el entendimiento del mensaje, inspira más compasión que credibilidad y el entrevistado pierde interés. Una voz torrente intimida a la persona entrevistada y da la apariencia de estar ante un vendedor agresivo de algún producto. 2. La actitud del encuestador ha de ser neutral. Han de evitarse los comentarios sobre las respuestas de las personas encuestadas, ya sean favorables o desfavorables (por ejemplo, “pienso lo mismo”, “no estaría tan seguro de eso”, “creía que”, etc.). 3. Escuchar a la persona encuestada es fundamental. Es el encuestado el que tiene que responder. Pensemos que nos expresamos mejor cuanto mayor es la sensación que tenemos de ser escuchados (Harvatopoulos, Livan y Sarnin, 1992). 4. Se puede incentivar al entrevistado mediante asentimientos de cabeza y susurros del tipo “¡ajá!”, “mm”, “sí”, pero no se debe exagerar en este comportamiento, pues la persona entrevistada puede molestarse y reaccionar negativamente, al pensar que el encuestador le considera poco menos que tonto. El encuestador tampoco debe dirigir las respuestas del encuestado hacia sus propios deseos o convicciones. 5. Leer siempre las preguntas, aunque se sepan de memoria. Lo ideal es leer como un presentador de un telediario: con breves vistazos al texto, de forma que el encuestador no permanezca con la mirada fija en la encuesta, durante el proceso de lectura de la pregunta. 6. Si la persona en-

cuestada hace signos de no entender alguna pregunta, utilizar la repetición o reformulaciones de estas preguntas. 7. Evitar los sesgos que se puedan dar en la entrevista, y evitar, en la medida de lo posible, dar la imagen de superioridad cultural, adivinar las respuestas, o intentar causar una buena imagen de sí mismo (no aprovechar esta ocasión para establecer relaciones no profesionales), etc». Manzano, V.G., Rojas, A.J. eta Fernández, J.S. (1996): *Manual para encuestadores*. Ariel, Bartzelona, 99-100. orrialdeak.

4.3. Inkesta bat prestatzeko eman beharreko pausoak

Inkesta bat egiteko ikerketaren helburuak zehaztu, gaiari buruzko literatura aztertu eta hipotesiak idatzi direnean (ikusi 1. atala), aldagaiak operazionalizatu behar ditugu, galdeketa diseinatu, datuen azterketa egin, emaitzak interpretatu, txostena idatzi eta emaitzen balioa eta inkestaren fidagarritasun frogatu. Informazioa biltzerakoan erabiltzen den teknika erabiltzen dela, lehen hiru pausoak berdinak direnez (ikusi 1. atala), inkestak egiterakoan aldagaien operazionalizazioa nola egiten den azalduz hasiko gara.

4.3.1. ALDAGAIEN OPERAZIONALIZAZIOA

Aldagaien operazionalizazioarekin, galdeketa erabiliko ditugun galderak idatziko ditugu, baita galdeketa izango duen formatua zehaztu eta galderekin batera erantzuteko estimulu gisa erabiliko diren fitxa, txartel edota irudiak prestatu ere.

Egiten den inkesta mota egiten dela (esploratzailea, deskribatzailea edo esplikatzailea, transbertsala edo longitudinala edo inkesta telefonikoa, pertsonala edo posta bidezkoa), ikertzaileak galdera batzuk idatzi behar ditu, eta, horretarako, garrantzitsua da honako aholku hauek kontuan hartzea:

a. **Galderen edukia:** galderak gure helburuak, dauzkagun hipotesiak eta gaiari buruzko teoriak kontuan hartuz prestatu behar dira. Oro har, galdeketez galdera zehatzak eta galdera orokorrak edo identifikazio galderak izaten dituzte.

- Galdera zehatzek** ikertu nahi den gaiarekin zerikusi zuzena dute, eta desberdinak dira ikerketa bakoitzean. Ikerketaren muina dira. Galdera hauek aztertzen ari garen gaiaren teoria orokorretatik, gaiarekin harremana duten pertsonen iritzietatik, sakoneko elkarrizketa edota eztabaida taldeetan lortutako informaziotik, aldizkarietatik edota liburuen eduki azterketatik eta ikertzaileen intuiziotik atera daitezke.
- Galdera orokorrak** talde eta pertsona desberdinen arteko desberdintasunak aurkitzeko sartzen dira galdeketa, eta berdin antzerakoak

dira ikerketa guztietan. Identifikazio galderak ere deitzen zaie. Gehien erabiltzen diren identifikazio galderak honako hauek dira: sexua, adina, diru sarrerak, hezkuntza maila, lanbidea, egoera zibila, etxebizitzaren propietatea, etxean bizi direnen kopuru eta ordena, alderdi politikoekiko atxikimendua, inkestaturen zein euren gurasoen jatorria (bezeziki Euskal Herrian asko diskriminatzen duten identifikazio galderak dira), inkestatuak toki batean bizitzen daraman denbora, elkarte eta taldeetan duen partaidetza...

Sartzen ditugun galdera zehatzak eta orokorrak sartzen ditugula, galdeketa ahal bezain laburrak egin behar ditugu. Arau zehatzik ez badago ere, gomendagarria da inkestatzaile bitartez egiten diren inkestek 45 minutu baino gehiagokoak ez izatea eta telefonikoak inoiz ere ez 20 minututik goragoak. Posta bitartez bidaltzen diren galdeketak ezin dituzte 10 orrialde baino gehiago izan.

Galdeketa luzeegiak ekiditeko, oso argi zehaztu behar da zeintzuk diren ikertu nahi diren aldagaiak eta gaiak, eta galderak horien arabera prestatu behar dira. Honekin batera, garrantzitsuak ez diren edo gure helburuetarako bigarren mailan gelditzen diren aldagai eta galderak alboratzen jakin behar dugu. Badaezpada sartzen ditugun galdera guztiak bi aldiz pentsatu behar dira galdeketa sartu aurretik. Ez ahaztu galdera luzeegiak erantzun kopurua murriztu dezaketela.

b. **Galderen forma:** galderen formak zerikusia du galdeketa erabiliko diren galderak irekiak edo zarratuak direnarekin.

Galdera irekiak: galdera irekietan ez zaio erantzun aukerarik ematen inkestatuari. Inkestatuak nahi duena erantzuten du.

Galdera irekien abantaila garrantzitsuenak lau dira:

- Aurreikusten ez ditugun erantzunak jasotzen ditugu sarri askotan; hau da, galdera itxiekin lortuko ez genituzkeen erantzunak.
- Inkestatuak nahi duena erantzuten duenez, erantzun sakonagoak, zehaztuagoak eta, azken finean, aberatsagoak lortzen ditugu.
- Era honetako galderak oso erabilgarriak dira alde aurretik ezin ditugunean zehaztu galderen balizko erantzunak. Zentzu honetan, galdera irekiak oso erabilgarriak dira, gaiari buruz ezagutza gutxi ditugunean edo ikerketa esploratorioetan.
- Galdera irekiak oso erabilgarriak dira, inkestaturen ezagutza maila eza gutu nahi denean. Politikarien zerrenda bat erakutsi eta horietariko zeintzuk ezagutzen diren galdetzen badugu, hots, erantzun aukerak alde aurretik erakusten baditugu, askok eta askok erantzun egingo diote galderari, nahiz eta zerrendako inor ez ezagutu. Aldiz, galdera irekia egiten badugu, alegia, politikarien izenak erakutsi gabe ezagutzen dituzten politikariei buruz modu irekian galdetzen badugu, inkestatuen benetako ezagutza zein den jakin genezake.

Galdera irekiek desabantailak ere badituzte:

- Galdera hauei erantzuteko denbora asko behar da.
- Kodifikazio arazoak dituzte. Denbora eta diru asko kostatzen da galderak irakurri, kodifikatu eta ordenagailuan sartzeari. Horregatik, iker-tzaile askok galdera irekiak ekiditen dituzte, edo oso galdera ireki gu-txi sartzen dituzte euren galdeketetan.
- Nahiz eta galdera irekiak erabilgarriak izan ezagutza maila neurtzeko, kontuan izan behar da ezin dugula inkestak konpromisozko egoeran jarri. Zentzu honetan, galdera irekien arriskuatariko bat da inkestak pentsatzea euren ezjakintasuna agerian utzi nahi dugula; egoera horrek galdeketa alboratzea edo galdera guztiei ez erantzutea ekar dezake.
- Inkestak erantzun oso luzeak edo oso laburrak eman ditzakete. Erantzun oso luzeak kodifikazio arazoak dituzte. Erantzun laburren arazoa da zaila dela informazio hori beste galdeketa batzuetatik lortutako informazioarekin alderatzea. Inkestak bakoitzak zenbat idatzi edo zenbat hitz egiten duen kontrolatzen ez denez, desoreka handiak egon daitezke batzuen eta besteen erantzunen artean, eta horrek alderaketa zailtzen du.
- Postaz egindako inkestetan galdera ireki asko badaude, idaztera ohi-tuak ez daudenek arazoak izan ditzakete galderei erantzuteko, eta, ondorioz, gerta daitekeena da galdera batzuk ez erantzutea, edo egoera-rik txarrean, galdeketa erantzun gabe uztea. Zentzu honetan, galdera irekiak erabiltzerakoan oso kontuan izan behar da galdeketa zuzentzen zaien pertsonen berezitasunak. Pertsona nagusiekin, adibidez, hobe da galdera itxiak erabiltzea.
- Galdera itxiak edo zarratuak erabiltzerakoan, kontuan izan behar da zer-nolako inkesta egingo dugun. Ezin dugu ahortzi galdera irekiek posta bidez egindako galdeketetan baino hobeto funtzionatzen dutela inkesta-tzaile bitartez egiten direnean. Inkestatzaileak erantzunak idazten dituen heinean, errazagoa da jendearentzat galdera irekiei erantzutea.
- Azkenik, galdera irekiekin ezin dugu ziurtatu galdera erantzun duten guztiek abiapuntu berean oinarrituta erantzun dutenik. Gerta daiteke-ena da inkestak galdera bera modu askotara ulertzea eta erantzuna ere horren arabera izatea. Beraz, mota askotako erantzunekin aurkitzeko arriskua dago, eta honek alderaketa oztopatzen du.

32. ADIBIDEA: galdera irekiak

MUNDUKO HIZKUNTZEI BURUZKO TXOSTENA (1998-2002)

Munduko Hizkuntzei Buruzko Txostenean erabili den galdeketa 40 galdera ditu. Galdera gehienak irekiak dira, hau da, ez da mugarik jartzen informatzaileen erantzunei. Gauza jakina da teknika honen bitartez lortu-tako datuen tratamenduan eragozpen gehiago sortzen direla, erantzunak ko-difikatu eta ordenagailuan sartzeko arazo gehiago agertzen direlako. Hala

ere, munduko hizkuntzek bizi dituzten errealitate, testuinguru eta egoera aniztasuna kontuan hartuz, egokitzen jo da galdera irekiak egitea ez-ohiko eta ustekabeko erantzunak jasotzeko. Galdeketa honetan erabilitako hiru galderen adibideak aurkezten ditugu ondoren:

16. Hizkuntza honen hiztunak sakabanatuta edo bilduta daude?

.....
.....
.....

17. Zer-nolako bilakaera (hasi, gutxitu edo mantendu) izan du hizkuntza honen hiztunen kopuruak?

.....
.....
.....

18. Transmititzen da hizkuntza hau gurasoengandik seme-alabengana? Transmititzen ez bada, zergatik gertatzen da hori? Zein hizkuntzak ordezkatzeko du?

.....
.....
.....

Galdera itxiak: galdera itxietan aurkezten zaizkion erantzun aukera desberdinen artean aukeratzeko eskatzen zaio inkestatuari. Erantzun aukera hauek exhaustiboak (egon daitezkeen erantzun aukera posible guztiak aurkeztu behar dira) eta elkarrekiko ezeztatzaileak izan behar dute (galdera baikoitzak erantzun bakar bat sortarazi behar du).

Era askotakoak izan daitezke galdera itxiak. Batzuetan, aztertzen ari garen iritziaren, joeraren edo portaeraren intentsitate maila desberdinak agertzen dituzte. Alde edo aurka, bai edo ez bezalako erantzun aukera dikotomikoak eskaini beharrean, aukeren abaniko osoa aurkezten da gaiaren inguruan egon daitezkeen iritzi, joera edo portaeren intentsitate maila desberdinak neurtzeko. Besteak beste, *guztiz ados*, *ados*, *ez ados ez aurka*, *aurka*, *guztiz aurka* edo *ondo*, *nahiko ondo*, *nekez eta ezer ez bezalako* aukerak erabiltzen dira.

33. ADIBIDEA: iritziaren intentsitate maila desberdinak neurtzen dituzten galdera itxiak

LEA ARTIBAI ESKUALDEKO LANGILEEN EUSKARAREKIKO JARRERARI BURUZKO IKERKETA

Lea Artibai Eskualdeko lantegietako langileek euskara ikasi edota hobetzeko dituzten gogo eta jarrerak ikertzeko erabili genuen galdeketa, honako galdera erabiltzen genuen ezagutza mailaren intentsitate maila desberdinak neurtzeko:

2. Zenbateraino dakizu euskaraz hitz egiten?

Ondo	1
Nahikoa ondo	2
Nekez	3
Ezer ez	4

Beste batzuetan, gai baten inguruan egon daitezkeen ohitura, iritzi, joera, jarrera edo portaera guztiak agertzen dira, eta bat edo batzuk (erantzun anitzak onartzen dituen galdera bada) aukeratzeko eskatzen zaie inkestatuei. Adibidez, egunean zehar zein hizkuntzatan hitz egiten duten gehien ezagutzeko, honako aukera hauek aurkeztu ditzakegu: beti gazteleraz, gazteleraz gehiago euskaraz baino, euskaraz gehiago gazteleraz baino eta beti euskaraz.

34. ADIBIDEA: jarrerak neurtzen dituzten galdera itxiak

LEA ARTIBAI ESKUALDEKO LANGILEEN EUSKARAREKIKO JARRERARI BURUZKO IKERKETA

5. Prest egongo zinateke euskara ikasi, hobetu edota alfabetatzeko?

—EZ	1 (6. galderara pasatu)
—BAI	2

Nolako ikastaroa egiteko prest egongo zinateke?

—Astean 2-3 ordukoa	1
—Astean 5 ordukoa	2
—Astean 10 ordukoa	3
—Aste bateko ikastaro trinkoa	4
—Hile bateko ikastaro trinkoa	5
—Beste era bateko ikastaroa	6

Galdera itxien abantailak

- Inkestatu guztiak erantzuteko abiapuntu berberak erabiltzen dituzten heinean, oso erraz alderatu daitezke batzuen eta besteen erantzunak.
- Beste ikerketa batzuetan erabili diren galderak erabiltzen badira, gure ikerketa aberastuko duten alderaketak egin ditzakegu.
- Erraz eta bizkor erantzuten dira.
- Erantzunak alde aurretik kodifikatu daitezke; hau da, erantzun aukera bakoitzari zenbaki bat egokitu diezaiokegu, eta erantzunak zuzenean sar ditzakegu ordenagailuan. Ondorioz, galdera irekiekin baino bizkorrago sartzen dira datuak ordenagailuan, eta emaitza estatistikoak bizkorrago lortzen dira.

- Galdera itxietan aurkezten diren erantzun aukerek galdera argitzeko balio dute, eta horrek txarto ulertuak eta zentzu gabeko erantzunak ekiditen ditu.

Galdera itxien desabantailak

- Era honetako galderak inkestatua erantzuna ematera behartzen dute; askotan, bere iritziarekin guztiz bat ez datorren erantzuna aukeratzera bultzatzen dute, alegia.
- Galdera itxiei emandako erantzunek galdera irekietakoek baino sakontasun eta zehaztasun gutxiago dute. Batzuen ustez, azaleko erantzunak dira.
- Galdera itxien bitartez, iritzi publikoa zein gizataldeen iritziak gehiegi sinplifikatzeko edota distortsionatzeko arriskua dago. Ehunekoek erakusten dutena baino aberatsagoa eta anitzagoa izaten da, ia beti, erreallitatea.
- Erabiltzen ditugun hitzek eta kontzeptuek, galderen izaerak zein hauek egiteko moduak erantzunak zuzendu ditzaketen bezala, inkestatuari ematen zaizkion erantzun aukerek ere bere erantzunetan eragin dezakete. Inkestatua aurkezten zaizkion erantzun aukeren artean aukeratzera bultzatzen denez, ezkutuan egon daitezkeen edo iker-tzaileak kontuan hartu ez dituen erantzunen agerpena oztopatzen edo ezkututzen da.

Galdera irekiak edo itxiak erabiltzeko erabakia, ikerketa egiteko daukagun diru kopuruaren (galdera irekiak garestiagoak dira, denbora gehiago kostatzen delako kodifikatzen eta erantzunak ordenagailuan sartzen), daukagun denboraren eta gaiari buruz dugun ezagutza teoriko eta enpirikoaren arabera dago. Diru asko, denbora asko eta gaiari buruzko ezagutza txikia dugunean, are eta galdera ireki gehiago erabili ahal izango ditugu.

c. **Galderen formatua:** galderen formatuak erantzunak jasotzeko erabiliko dugun teknikarekin zerikusia du. Erantzunak jasotzeko erabiliko ditugun estimuluekin, alegia.

Formatu erabiliarena da idatziz zein ahoz aho inkestatuei era zuzenean galdetzea. Inkesta pertsonaletan, zein postaz edo telefonoz egiten diren inkestetan galderak dira erantzuna jasotzeko estimulua. Inkesta pertsonaletan eta telefonoz egiten direnetan, inkestatzaileak egiten ditu galderak. Hau da, inkestatzaileak garrantzi asko dauka galdeketari erantzutera bultzatzerakoan. Postaz egindako ikerketetan, inkestatuak berak irakurtzen ditu galderak. Hala, kasu honetan galdeketa bera da erantzuteko estimulua. Horrek esan nahi du galdeketa erakargarriak sortu behar direla. Erantzutera bultzatuko duten galdeketak diseinatu behar ditugu.

Inkestatuek euren iritziak eta ikuspuntuak kontzeptualizatu ditzaten, beste formatu batzuk ere badaude:

- a. Alde batetik, diagramak, argazkiak eta txartelak erabili daitezke; zenbat eta erantzuna zailagoa izan, are eta erabilgarriagoak izango dira era honetako materialak eta baliabideak. Umeei egin behar zen ikerketa batean, adibidez, galderak komiki gisa egiten ziren. Hots, erantzuna jasotzeko estimulua galderak eta irudiak ziren.
- b. Bestetik, galderak erabili orde, baieztapenak erabili ditzakegu. Izan ere, batzuetan, zerbaitekiko iritzia galderekin baino errazago neurtu daiteke baieztapenak aurkeztuz eta baieztapen horiekiko iritzia eskatuz.

35. ADIBIDEA: iritzien azterketa baieztapenen bitartez

INVESTIGACIÓN SOBRE EL ALARDE DE SAN MARCIAL PARA EL AYUNTAMIENTO DE IRUN

Irungo San Martzial jaietako Alardeari buruz egin genuen ikerketarekin, Alardean emakumeen parte hartzeak sortzen zituen liskarren nondik norakoa ezagutu, eta gatazkari irtenbideak aurkitzeko alternatibak aurkitu nahi genituen. Emakumeen parte hartzearen inguruan dauden iritziak neurtzeko, baieztapen desberdinak aurkezten genien inkestuei, eta euren iritziarekin bat egiten zuen baieztapena aukeratzeko eskatzen genien:

6. Dígame cuál de estas frases que le voy a leer a continuación está mas cerca de lo que usted piensa (mostrar tarjeta):

- Las mujeres deberían participar de la misma forma que los hombres en el Alarde de este año. 1
- Las mujeres deberían participar en una compañía específica creada para ellas en el Alarde de este año 2
- Las mujeres deberían participar en una compañía mixta en el Alarde de este año. 3
- Las mujeres deberían participar en el Alarde de la misma forma que los hombres, pero dentro de unos años, cuando se calmen los ánimos. . . 4
- El alarde debería mantenerse como hasta ahora 5
- No Contesta 9

Baieztapenak egiterakoan kontuan izan behar dira aholku hauek:

- Lehenaldiari buruz hitz egiten duten baieztapenak ekidin. Orain dela asko gertatutako gauzak galdetzen baditugu, inkestatuak pentsa dezake galdera zailak direla edo ez dakiela era horretako galderari erantzuten, eta, ondorioz, galdeketa alboratu dezake.
- Gertaerei buruz gehiegizko informazioa ematen duten baieztapenak ekidin. Erantzunak bideratu ditzakete.
- Esanahi biko baieztapenak ekidin. Esanahi biko baieztapenei emandako erantzunak fidagarritasun gutxi dute. Izan ere, pertsona desberdinek modu desberdinetan ulertzen dituzte.

- Aztertu nahi den jarrerarekin harreman gutxi duten baieztapenak ekidin. Galdeketa ahal bezain laburrena izan behar da. Beraz, badaezpada sartzen ditugun baieztapenak zalantzan jarri behar dira.
- Mundu guztia ados edo mundu guztia aurka dauden baieztapenak ekidin; hau da, inkestatuen artean inolako bereizketa edo diskriminaziorik eragiten ez duten baieztapenak saihestu egin behar dira.
- Baieztapenak era argian egon behar dira idatzita. Beraz, esaldi laburrak egin. Ahal bada esaldi bakunak eta ez konposatuak egin, ulertzen diren hitzak erabili eta ukazioak ekidin; batez ere ukazio bikoitzak (ukazio bi dituen baieztapen baten adibidea da: ez dut uste emakumeak Alardean parte hartu behar ez dutenik)
- Dena, beti, inoiz ez, inor ez e.a. bezalako hitzak ekidin. Ez ahaztu, gauza gutxi daudela gutziz absolutuak direnak, eta jendeari ez zaiola gustatzen horrelako erantzunak ematea.
- Item erdiak aztertzen ari garen gaiarekiko baikorrak eta beste erdia ezkorrak izan behar dira, eta nahastuta aurkeztu behar dizkiogu inkestatuari. Horrekin nahi duguna da jendeak ondo pentsatu dezala baieztapen bakoitzaren aurrean eman behar duen erantzuna.

Baieztapenak erabiltzeak badauzka **abantaila** batzuk:

- Gai bati buruzko iritziak erraz neurtu daitezke.
- Inkestatu guztiak abiapuntu bera dute. Horrek esan nahi du erantzun guztiek oinarri bera dutela, eta, beraz, inkestaren fidagarritasuna eta balioa handitzen dela.
- Aldagai bat galdera bakarraren bitartez neurtzen denean, ondorio soslaituak lortu ditzakegu. Zentzu honetan, baieztapen desberdinen bitartez neurtzen badugu, neurketa zehatzagoak lor ditzakegu.

Baieztapenak erabiltzearen **desabantailak**:

- Baieztapenen desabantaila handiena da, jendeak baieztapenekin ados egoteko joera izaten duela. Hala, gomendagarria da aztertzen ari garen gaiari buruzko jarrera baikorrak eta ezkorrak adierazten dituzten baieztapenak nahastea, jendeak item bakoitzaren aurrean erantzuna pentsatu dezan.
- c. Azkenik, ez dugu ahanzi behar posta elektronikoak eta internetek galderak egin eta erantzunak jasotzeko aukera berriak eskaintzen ditzutela. Teknologia berriak gizartean hedatzen doazen heinean, gero eta errazagoa izango da era askotako formatuak erabiltzea. Besteak beste, galderak idatziz eta ahoz aho aurkezteaz gain, argazkiak, filmak, irudiak eta abar erabili ahal izango dira erantzunak bultzatzeko.

d. **Galderen idazketa**: galderen idazketak eragin handia dauka galdeketa baten arrakastan. Ondo idatzitako galderak ondo ulertzen dira, erraz bul-

tzatzen dituzte erantzunak, eta, ondorioz, balioko emaitzak eta ikerketak ematen dituzte. Txarto idatzitako galderek, aldiz, zalantzak sortzen dituzte, eta balio gutxiko erantzunak ematen dituzte. Gauzak horrela, interesgarria da galderak idazterakoan honako aholku hauek kontuan hartzea:

- Ezin dira sartu galdera bi galdera berean. Horrela eginez gero, erantzun behar duen pertsona nahasteaz gain, ikerlariak ez du jakiten zein galderari dagokion emandako erantzuna. Bere baitan galdera bi dituen galdera baten adibidea honako hau da: zein da PP alderdiak bultzatu dituen LOUren eta errebalidaren legeari buruz duzun iritzia? Ez genuke jakingo galdera honi *gutziz ados* erantzuten duenak LOUarekin edo errebalidaren legearekin guttiz ados dagoen.
- Ezin da egin inkestatuaren erantzuna bideratuko duen galderarik. Halo efektua edo galderarekin ados egoteko joera saihestu behar da. Halo efektua duen galdera baten adibidea da: ez duzu uzte PP alderdiak gobernuan sartu zenetik hartu dituen erabakiak txirotasunean bizi direnen kopurua igo dutela? Era honetako galderek bere baitan dute erantzuna; izan ere, badirudi ez dela zuzena aurkako iritzia ematea.
- Galderaren ardatza pertsonaren bat ez bada, hau da, galdera pertsona horri buruzkoa ez bada, hobe da pertsona horren izena ekidin. Egiaz, gaiari buruzko iritziaren arabera baino gehiago aipatu den pertsonarekiko jarrera edota iritziaren arabera erantzuteko arriskua dago. Zein da zure iritzia Aznarren alderdiak bultzatu duen LOU legeari buruz? Baliteke galdera honi gehiago erantzutea Aznarrekiko jendeak duen iritziaren arabera, legeari buruz duen iritziaren arabera baino.
- Oso ondo aukeratu behar dira galderetan erabiliko diren hitzak. Hitz teknikoegiak, informalegiak edota gutxi erabiltzen direnak saihestu egin behar dira. Izan ere, inkestatuak nahasteko arriskua dago. Galderak egiterakoan oso kontuan izan behar da zer-nolako jendearen artean pasatuko den galdeketa. Euren ezagutza eta maila intelektuallari egokitzen diren hitzak eta kontzeptuak erabiltzen saiatu beharko gara.
- Ikerketaren helburuak ahanzi gabe, interesgarria da gaiari buruzko beste ikerketa batzuetan erabili diren galderak erabiltzea. Ona da ondo funtzionatu duten eta fidagarritasuna eta balioa frogatu duten galderak erabiltzea. Horrekin, dirua eta denbora aurrezteaz gain, beste ikerketa batzuetan lortutako emaitzekin alderaketak egiteko aukera dugu.
- Ziur egon behar gara inkestatuak galderari erantzuteko gai direla. Ez da egokia inkestatuaren memoriari gehiegi eskatzen dioten galderak egitea, ezta euren ezagutza maila gaunditzen duten galderak egitea ere. Horrela eginez gero, egoera deserosoan jarriko genuke inkestatua, erantzuna ez dakielako, eta hori arriskutsua izan daiteke inkesta bete gabe utzi dezakeelako. Galderaren batek arazoak emango dituela pentsatzen badugu, hobe da galdera filtroak erabiltzea. Hau da, aldez au-

rretik gai bati buruzko ezagutza neurtzen duen galdera egiten da (filtro galdera), eta, ondoren, gaiari buruzko ezagutza ziurtatu dutenei galdetzen zaie bakarrik gai horri buruzko iritzia. Honekin, ezagutzen ez dituzten gaiei buruz jendeak erantzunak ematea ekiditen dugu.

36. ADIBIDEA: galdera filtroa

Ondoren aurkezten dugun adibidean, lehenengo, euren seme-alabak ikastolak antolatzen dituen estraeskolarretan parte hatzen duten galdetzen zaie gurasoei, eta, ondoren, baietz erantzun dutenei galdetzen zaie bakarrik hauen kalitateari buruzko iritzia.

Cuestionario sobre la satisfacción de los padres de los alumnos/as de la ikastola respecto de las actividades extraescolares que se ofertan en la ikastola y el tipo de actividades que les gustaría potenciar en el futuro

1. De las siguientes actividades extraescolares que se organizan en la Ikastola, ¿me podría decir cuál o cuáles de ellas realizan sus hijos e hijas? (*Haga un círculo en todos los números que correspondan a las actividades que realizan sus hijos e hijas*)

Eskupilota	1
Multideporte-Eibar (Fútbol, balonmano, rugby...)	2
Natación.	3
Baloncesto	4
Educación física	5
Mecanografía.	6
Técnicas de estudio	7
Inglés	8
Teatro.	9
Bertsolaritza.	10
Aunque mis hijos e hijas realizan actividad extraescolar no estoy muy seguro de cuáles son	11
Mis hijos/as no realizan actividades extraescolares	12

(Pasar a la pregunta 6)

2. En su opinión, ¿Cómo es la calidad de las actividades *extraescolares* que se realizan en la Ikastola?

—Muy buena.	1
—Buena.	2
—Mala.	3
—Muy mala.	4
—Aunque mis hijos/as participan en actividades extraescolares no tengo opinión al respecto	5

Adibide honetan galdera filtroarekin eskolaz kanpoko ekintzak egiten ez dituztenek hauen kalitateari buruz iritzia ematea ekiditen dugu.

e. **Galderen ordena:** galderen ordenak eragina izan dezake, kasu askotan, erantzunen fidagarritasunean zein balioan. Hain zuzen ere, hasierako galderak ondoren datozen galderen erantzunak bideratu ditzakete.

Hala, ondo ordenatuko galdeketek lau atal izaten dituzte: aurkezpena, hasierako galderak, ikerketarekin zuzenean loturiko galderak eta identifikazio galderak edo galdera demografikoak.

Aurkezpena: aurkezpenak ikerketari buruzko informazio eman behar dio inkestatuari; zehazki, ikerketaren helburuak agertu, anonimatua ziurtatu eta galdeketari erantzutea oso garrantzitsua dela azpimarratu behar du. Honako aholku hauek baliagarriak izan daitezke aurkezpenak egiterakoan:

- Ikerketa ordaintzen duen erakunde edo taldearen izena ona denean, egokia izan daiteke erakunde edo talde horren izena aipatzea, jendea galderei erantzutera bultzatzeko. Ordaintzen duen taldearen izena txarra denean, edo bere izenaren agerpena galdeketa betetzeko oztopoa izan daitekeela sumatzen dugunean, hobe da erakundearen izena ekidin.
- Garrantzitsua da hitz edo kontzeptu arraroak, esanahi bikoak edo ulergaitzak saihestea. Kontuan izan behar da kontzeptu eta hitz zailak erabiltzen dituen sarrerak galdeketari erantzutea oztopatu dezakeela; hain zuzen ere, jendeak ezjakintasunean harrapatuko ditugula edo eurek erantzun ahal dutena baino gehiago eskatzen diegula pentsatu dezaketelako.
- Ezin dira inkestatuen iritziak zuzenduko dituzten sarrerak egin. Sarre-
rak egiterakoan ezin dira gure hipotesiak edo aurreiritziak erabili.
- Aurkezpenak harreman egokia sortu nahi du hasieratik inkestatuarekin. Hain zuzen ere, galdeketa galdera guztiei erantzutera bultzatzeko. Zentzu honetan, aurkezpenak argi eta garbi adierazi behar du ez dagoela ezkutuko helbururik, eta inkestatuari adierazi behar dio galdeketa betetzeak onurak ekarriko dizkiola berari zein gizarte osoari.

37. ADIBIDEA: galdeketaren aurkezpena

BERA KURUTZ IKASTOLAKO GURASOEN ATSEGIN MAILARI BURUZKO IKERKETA

Aurkezpena: inkesta honen bitartez, Markina-Xemeingo Bera Kurutz Ikastolako irakasle eta arduradunok, gure ikasleen gurasoek Ikastolarekiko duten atsegin maila neurtu nahi dugu. Horrekin, Ikastolak ematen duen zerbitzuan egon daitezkeen akats eta arazoei buruzko informazio bildu nahi da, hartu beharreko erabakiak hartzeko eta, azken finean, zerbitzua hobetzeko. Horretarako, ondoren aurkezten dizkizugun galderak behar bezala erantzuteko eskatzen dizugu, zure erantzunen anonimatua alde zuzenetik ziurtatzen dizugarik. ESKERRIK ASKO ZURE LA-GUNTZAGATIK.

Hasierako galderak: hasieran erabiltzen diren galderak beroketarako balio behar dute. Inkestatuarekin harreman egokia garatu, aztergaian apurka-apurka sartu eta bere adiera erakarri behar dute. Hona hemen hasierako galderako egiteko aholku batzuk:

- Hasieran galdera errazak egin behar dira; jendeak inolako arazorik gabe ulertuko eta erantzungo dituenak.
- Hitz zailak ekiditu behar dira. Ez ditugu erabiliko galdeketa zaila dela pentsaraziko duten hitzak edo kontzeptuak, ezta erantzunak bideratuko dituzten galderak ere.
- Galdera pertsonalak (adina, estatus soziala, jaioterria...) edo gai konprometituegiak (soldata, bozka politikoa...) azkenerako utzi behar dira. Izan ere, horrelako galderekin hasten bagara, jendeak pentsa dezake ikerketarekin euren portaerak kontrolatu edota euren barne bizitza ezagutu nahi dugula, eta horrek galdeketa alboratzera bultzatzen dezake.

Kasu batzuetan, dena dela, ezinbestekoa da informazio demografikoa hasieran galdetzea. Galdeketa parte hartu behar duten pertsonen berezitasun zehatz batzuk bete behar badituzte, kuotetan oinarritutako laginketan egiten den bezala, ezinbestekoa da galdera pertsonalak hasieran egitea (adina edo ikerketarako garrantzitsua den berezitasunen bat). Hots, inkestatzaileek berezitasun zehatzak dituzten pertsonak behar dituztenean, identifikazio galdera batzuk ikerketaren hasieran eta ez bukaeran egiten dira.

Oinarrizko galderak: oinarrizko galderak galdeketa muina dira; ikerketaren helburu eta hipotesiekin harreman estuena duten galderak dira, alegia. Honako aholku hauek baliagarriak izan daitezke era honetako galderak prestatzerakoan:

- Galdera irekiak eta zarratuak egin behar badira, hobe da galdera irekiak galdera zarratuak baino aurretik egitea. Izan ere, galdera zarratuetan ematen diren erantzun aukerak eragina izan dezakete galdera irekietan eman behar diren erantzunengan.
- Zenbat eta galdera konprometituagoa izan (bozka politikoa, adibidez), are eta beranduago edo atzerago egingo dugu. Era honetako galderak hasieran jarrita beldurtu egin genezake inkestatua, eta horrek ondorio txarrak izan ditzake galdeketa guztia erantzuteko. Galdeketa ordenatzerakoan galdera orokorretatik hasi behar gara, eta, apurka-apurka, gero eta galdera zehatzagoetara pasatu.
- Galderen ordenak erantzunengan eragin dezakeela pentsatzen badugu, edo ordenari buruzko zalantzak badauzkagu, test pilotua, pretesta edo aurretesta egin genezake. Lortzen ditugun emaitzen arabera erabakiko dugu zein den galderak ordenatzeko modurik egokiena.
- Erantzun aukera berdina dituzten galdera asko badaude bata bestearen atzetik, gerta daitekeena da inkestatuak galdera guztiei erantzun bera ematea, bakoitzean galdetzen dena behar bezala pentsatu gabe.

Hau da, gai berari buruzko galdera asko dauzkagunean, gerta daitekeena da lehen galderekin ados dagoen pertsona beste galdera guztiakin ere ados agertzea. Arazo hau ekiditeko, erantzun baikorrak eta ezkorrak dituzten galderak nahastu behar dira, jendeak galdera eta erantzun bakoitza pentsatzera bultzatzeko.

- Galdera soslaituak ekidin behar dira; alegia, erantzuna daramaten galderak. Galdera soslaitu baten adibidea honako hau da: zer iruditzen zaizu Eusko Jaurlaritzak izan duen jarrera Guggenheim Museoa sortzeko bilbotarren baimenik gabe? Galdera honek bere baitan darama erantzuna.

«Lee Sigelman has explored the effects of question in presidential popularity polls. He found that placing the presidential popularity item early in the survey elicited more 'no opinion' answers than occurred when it was asked toward the end of the interview. This is explained by the tendency of respondents to respond in a safe or socially desirable way early in an interview before their critical faculties have been fully engaged and before they begin to trust the interviewer. Since presidential popularity is measured in terms of all Gallup Poll respondents, including those with no opinions, the percentage of people approving or disapproving of a president will be deflated by early placement of the question». Jones, F.L. eta Olson, C.E. (1996): *Political Science Research. A handbook of Scope and Methods*, Aip. Lib., 181. orrialdea.

Galdera demografikoak edo identifikazio galderak: era honetako galderen bitartez inkestatuei buruzko informazio pertsonala lortu nahi da. Ia beti, galdeketa azkenean joaten dira. Lehen esan bezala, hasieran jartzen baditugu jendeak pentsa dezake euren portaerak edota barne bizitza kontrolatu nahi ditugula, eta horrek galdeketa ez betetzera bultzatu dezake.

Gehienetan, behin aurreko galdera guztiak erantzun direnean, jendeak ez du inolako arazorik izaten galdera demografikoei erantzuteko. Era honetako galderei buruz eman daitezkeen aholkuak bi dira:

- Galdera pertsonalak direnez (adina, jaioterria, lanbidea, ikasketak...), garrantzitsua da errespetu handiz eta modu egokian egitea.
- Errutinazko galderak diren heinean, aspergarriak izan daitezke inkestatu askorentzat. Beraz, hobe da azkenean egitea. Inkestatuarentzat interesgarriagoa da gaiari buruzko bere iritzia ematea, bere bizitza pertsonalari buruzko galderak erantzutea baino.

38. ADIBIDEA: galdera demografikoak edo identifikazio galderak

INVESTIGACIÓN SOBRE EL GASTO MEDIO DE LAS PERSONAS QUE VIENEN POR RAZONES DE NEGOCIOS A LA C.A.P.V.

Con la investigación sobre el gasto medio de las personas que vienen por razones de negocios a la CAPV, hemos analizado el gasto medio diario de los profesionales que visitan por razones de negocios el País Vasco y se

hospedan en hoteles de dos, tres y cuatro estrellas de las tres capitales de la comunidad.

El método seguido para la obtención de los datos pertinentes al objeto de la investigación ha sido la encuesta, realizada a una selección muestral del universo objeto de estudio, que en nuestro caso comprende a todas aquellas personas que vienen por razones de negocios a la CAPV y se hospedan en hoteles de las tres capitales de la comunidad.

18. ¿Cuál es su lugar de procedencia?

- Comunidad Autónoma del País Vasco 1
- Comunidad Autónoma de Madrid 2
- Comunidad Autónoma de Catalunya 3
- Castilla-León. 4
- La Comunidad Valenciana 5
- Galicia. 6
- Otra comunidad del Estado ¿Cual?_____ 7
- Extranjero ¿Qué país?_____ 8
- NS/NC. 9

19. ¿Me podría decir cuántos años tiene?

años

20. ¿Me podría decir qué estudios completados tiene?

- Menos de estudios primarios 1
- Estudios primarios completos. 2
- Formación Profesional 3
- Estudios Secundarios 4
- Estudios Medios 5
- Estudios Superiores 6
- Postgrados. 7
- NS/NC. 9

21. Sexo

- Varón 1
- Mujer. 2

f. **Galdeketaren formatua:** behin galdeketa osatuko duten galderak zeintzuk diren erabaki denean, paperean nola jarriko ditugun zehaztu behar dugu. Oso ondo pentsatu behar da galdeketaren formatua. Ez da ahanzi behar, formatu txar batek galdeketa betetzea oztopatu dezakeela, galderak eta erantzunak nahasten direlako.

Galdeketa prestatzerakoan beharrezkoa da honako aholku hauek kontuan hartzea:

- Inkestatuarentzat erakargarria izango den eta inkestatazaileek erraz jarraituko dituzten galdeketak egin behar dira. Kontuan izan, formatu txukun eta erakargarri batek erantzunak handitzen dituela, eta, aldiz,

- diseinu txar batek lehendik ere inkestak betetzeko dauden gogo urriak murrizten dituela.
- Ezin dira galderak elkarren gainean pilatu. Toki gutxian galdera asko sartzen direnean, inkestatuak zein inkestatzaileak nahasteko eta galderak erantzun gabe uzteko arriskua dago.
 - Beharrezkoa da galderen artean tarte zuriak uztea. Galderen arteko tarteek galderen ordena hobeto jarraitzen laguntzen dute, baita eman beharreko pausoak hobeto ematen ere. Gainera, tarteak dauzkaten galdeketez errazago bete daitezkeela pentsatzen da. Elkarren gainean eta inolako tarterik gabe diseinatzen diren galdeketez betetzea asko kostatzen dela edota erantzuteko zailak direla pentsatzeko joera dago.
 - Askoz hobeto da orri kopurua apur bat handitzea, orri berean galdera gehiegi jartzea baino. Dena dela, esan gabe doa oreka bat lortu behar dela orri kopuruaren eta orrialde bakoitzean jarri behar diren galdera kopuruaren artean. Izan ere, orri gehiegi sartzen baditugu, galdeketa luzeegia dela pentsatu daiteke, eta horrek galdeketa ez betetzea eragin dezake. Esperientziak erakusten duenaren arabera, 10 orri dituen galdeketa bat betetzeko 30 minutu behar dira, eta, ia gehienetan, 30 minutu dira inkestatzaileak inkestatuaren adiera mantentzeko duen denbora. 30 minutu pasatu ondoren, inkestatua nekatzen hasten da, eta, ondorioz, lortzen ditugun erantzunen kalitatea ere txarragoa da.
 - Galdeketez ordenagailuan sartu behar dituztenen lana errazteko, ia gehienetan galderak aurretik kodifikatuak ematen dira. Hau da, galderen erantzun aukera guztiei zenbakiak atxikitzen zaizkie, eta kodifikazio zenbaki hauek dira ordenagailuan sartzen direnak.

39. ADIBIDEA: galderen aurrekodifikazioa

USANSOLON DAUDEN BEHARRIZAN ETA ARAZOAK NEURTZEKO IKERKETA

4. Hirugarren adinari dagokionez, zeintzuk arlo bultzatu behar dira Usansolon? (guztiak irakurri eta bi aukeratu)

—Ekintza kulturalak.	1 (7)
—Kirol ekintzak.	2
—Dauden barrera arkitektonikoak gutxitzea	3
—Etxeko lanetan laguntzeko jende gehiago jartzea.	4
—Egoitza (hobetu?) bat eraikitzea.	5
—Jubilatuena lokala hobetzea (?)	6
—Era desberdinetako ikastaroak (eskulanak, kirola, aisialdia...)	7
—Era desberdinetako hitzaldiak	8
—Diru laguntzak	9
—Beste batzuk	10
—Ez daki/ez du erantzuten.	11

Aurrekodifikazioak abantaila argiak ditu:

- Inkestatzailearen lana errazten da. Izan ere, errazagoa da zenbaki bat borobildu edo azpimarratzea, erantzuna idaztea baino. Era berean, erantzunak jasotzerakoan sortu daitezkeen erroreak gutxitzen dira.
- Datuak ordenagailuan sartu behar dituztenen lana errazten da; izan ere, datuak zuzenean sartzen dira ordenagailura, tarteko protokolo edo fitxarik erabili gabe.
- Erantzun aukerak ez ezik, galderak ere aurrekodifikatu daitezke. Hau da, ordenagailuan izango duten zenbakia jarri dezakegu galdera bakoitzaren alboan. Dena dela, era honetako zenbakiak gero eta gutxiago erabiltzen dira, inkestatzaileengan zein inkestatuengan nahasteak sortzen dituztelako, bereziki postaz egindako inkestetan. Beraz, galderak aurrekodifikatzea pentsatzen bada, hasieratik azaldu beharko da zertarako diren galdera bakoitzaren alboan agertzen diren zenbaki txiki horiek.
- Garrantzitsua da galdeketak identifikatuta izatea. Horretarako, zenbaki bat eman behar zaio galdeketa bakoitzari. Zenbaki hau ordenagailuan sartuko den lehen aldagaia izango da. Zenbaki honen bitartez, oso erraz bilatu, aldatu edota kendu ahal izango ditugu arazoak dituzten galdeketak.
- Azkenik, galdeketa diseinatzen denean, garrantzitsua da galderak dago-kien ordenan erantzuteko azalpenak argi eta garbi agertzea. Horretarako, azalpenak idatziz agertzeaz gain, gezi eta zenbakien laguntzaz baliatuko gara galderen artean saltoak egiteko; alegia, galdera filtroak erabiliko ditugu inkestatzaileek zein inkestatuek galderak orden egokian bete ditzaten.

40. ADIBIDEA: galdera filtroak

INVESTIGACIÓN SOBRE ESTRATEGIAS DE EMPLEO

Con esta investigación se quieren conocer las estrategias de empleo de las empresas de la CAPV que tienen más de 100 trabajadores.

Pregunta 6. ¿Subcontrata parte de su producción a otras empresas?

Sí	1	(Pasar a la pregunta 7)	(64)	
No	2	(Pasar a la pregunta 8)		→
No sabe	3	(Pasar a la pregunta 8)		→
NC	0	(Pasar a la pregunta 8)		→

Pregunta 7. Si su empresa subcontrata parte de su producción a otras empresas, ¿dónde están radicadas esas empresas?

Básicamente en la Comunidad Autónoma Vasca	1	(65)
Básicamente fuera de la Comunidad Autónoma Vasca	2	
Tanto en la Comunidad Autónoma Vasca como fuera de ella	3	
No sabe	4	
NC	0	

Pregunta 8. ¿Durante los últimos cinco años ha innovado en

	Sí	No	No sabe	NC	
Reorganización del tiempo de trabajo?	1	2	3	0	(66)
Tecnologías de producción?	1	2	3	0	(67)
Los productos?	1	2	3	0	(68)

4.3.2. GALDEKETAREN DISEINUA

Inkestaren diseinuak dauzkagun helburuak lortzeko erabiliko dugun estrategia eta planarekin zerikusia du; ikertzaileak dauzkan hipotesiak onartzeko edo alboratzeko egingo den planarekin edota erabiliko diren teknikak zehaztearekin, alegia.

Ikerketa bakoitzak bere beharrak, oztopoak, helburuak eta, oro har, berezitasunak dituen heinean, ikerlariak erabaki behar du kasu bakoitzean zein den bere ikerketarako diseinurik onena. Erabaki honetan zerikusi asko dute daukagun diruak eta egin nahi den ikerketa motak.

Zenbat eta diru gehiago izan, giza baliabide zein baliabide material gehiago erabili ahal izango ditugu. Diru askorekin lagin handiagoak hartu, inkesta gehiago bildu eta azterketa estatistiko eta metodologiko sofistikatua egin ahal izango ditugu.

Ikerketa motak ere garrantzi handia dauka erabiliko dugun inkesta mota zehazterakoan. Ikerketatik lortu nahi ditugun datuen arabera, datuak inkestatuengandik zenbat aldiz hartuko direnaren arabera eta datuak biltzeko erabiliko den prozeduraren arabera, inkesta mota desberdinak daukagu:

- Ikerketatik lortu nahi ditugun emaitzen arabera, inkesta esploratzaileak, deskribatzaileak eta esplikatzaileak izan daitezke.
- Inkestatuengandik datuak zenbat aldiz hartuko direnaren arabera, inkesta transbertsalak eta longitudinalak ditugu.
- Datuak biltzeko erabiliko den prozeduraren arabera, inkesta pertsonalak, posta bitartez egindakoak eta inkesta telefonikoak ditugu.

a. *Ikerketatik lortu nahi ditugun emaitzen arabera, inkesta esploratzaileak, deskribatzaileak eta esplikatzaileak izan daitezke:*

- Inkesta esploratzaileak:** gehiegi ezagutzen ez den gai bati buruzko informazioa lortzeko erabiltzen dira; gaiari buruzko lehen hurbilpena egiteko, alegia. Era honetako inkestetan galdera ireki asko erabiltzen da.
- Inkesta deskribatzaileak:** teoria bat osatzeko oso garrantzitsuak izan daitezkeen aldagaiak aztertzen dira, zehaztasun osoz. Hemendik lortzen dugun informazioarekin populazioen deskribapenak egin ditza-kegu, baina ezin dugu inferentzia kausalik egin.
- Inkesta esplikatzaileak:** hipotesi kausalak baieztatzeko edo ezeztatzeko balio dute, baita maila teorikoan aztertu diren teoriak ikus-

teko ere. Era honetako inkestak egiteko ezinbestekoa da teoria sendo bat edukitzea.

b. *Inkestatuengandik datuak zenbat aldiz hartuko direnaren arabera, inkesta transbertsalak eta longitudinalak dauzkagu:*

- Inkesta transbertsaletan, baten bakarrik hartzen da informazioa inkestatuengandik. Era honetako inkesten bitartez, populazioaren berezitasunak deskribatu ditzakegu momentu batean, baina ezin dugu ezer esan populazio horren bilakaerari buruz. Egokienak dira ikerketa esploratzaileak eta deskribatzaileak egiteko. Gure ingurunean gehien erabiltzen den inkesta mota da.
- Inkesta longitudinalatan, datuak baten baino gehiagotan biltzen dira inkestatuengandik. Horrela, gai baten inguruan dagoen bilakaera ezagutu daiteke. Hiru eratako inkesta longitudinalak daude: tendentzia inkestak, kohorte inkestak eta panel inkestak:
 - Tendentzia inkestetan, populazio berean bi ikerketa egiten dira, bi momentu desberdinetan. Era honetako ikerketetan, lagin desberdinak hartzen dira momentu bakoitzean.
 - Kohorte inkestetan, populazio bereko lagin bera aztertzen da, bi momentutan. Tendentzia inkestetan lagina aldatu egiten da lehen ikerketatik bigarenera. Kohorte ikerketetan, aldiz, lagin bera aztertzen da bi momentuetan. Dena dela, honek ez du esan nahi pertsona berdinei galdetzen zaienik. Kohorte ikerketetan, nahiz eta lagina bera izan (aurretik erabili den laginaren banaketa eta laginaren kopurua errespetatzen dira), aukeratu diren pertsonak desberdinak dira.
 - Panel inkestetan, lagin eta pertsona berdinei galdetzen zaie momentu desberdinetan. Horrela, lagina osatzen duten pertsonen arteko nortzuk aldatzen diren eta zergatik jakin daiteke. Panel inkestek informazio aberatsa ematen dute. Informazio zehatzak biltzen den heinean, oso egokiak dira ikerketa esplikatzaileak egiteko. Dena dela, asko dira era honetako inkestek dauzkaten arazoak:
 - Ia gehienetan, garestiak dira. Panelean parte hartzen dutenei ordaindu edo opari bat egin behar zaien heinean, teknika oso garestia izan daiteke.
 - Ezin dugu ahantzi erreakzio arazoak egon daitezkeela. Noizbehinka galdeketa bat bete behar izateak panelean parte hartzen dutenen portaera alda dezake; hau da, kontuz ibili behar gara test efektuarekin.
 - Gerta daitekeena da, aurretik inkestari erantzun diotenek aurretik erantzun nahi ez izatea. Egoera honek adierazgarritasun arazoak sor ditzake.

c. *Datuak biltzeko erabiliko den prozeduraren arabera, inkesta pertsonalak, posta bitartez egindakoak eta inkesta telefonikoak ditugu*

Inkesta pertsonalen, posta bitartez egindakoen eta inkesta telefonikoen artean aukeratzekoan, zer esan asko dauka ikerketarako daukagun diruak eta ikerketaren berezitasunek. Zentzu honetan, oso kontuan izan behar da inkesta telefonikoak direla merkeenak. Postaz egindakoak telefonikoak baino garestiagoak dira. Hiruretatik garestienak inkesta pertsonalak dira. Dena dela, azken inkesta mota honek erantzun kopuru handienak ematen ditu. Autore batzuen arabera, postaz egindako inkesten erantzun tasak %10era heltzen dira bakarrik. Aldiz, telefonoz egindako inkesten erantzun tasa %70ekoa da, eta inkesta pertsonalena % 90ekoa. Azter ditzagun hiru inkesta mota hauen berezitasunak.

Inkesta pertsonalak: inkestatzaile bitartez egiten diren inkestak dira. Bigarren Mundu Gudatik gaur eguneraino, Gizarte Zientzietan gehien erabili diren inkesta motak dira.

Inkesta pertsonalen abantailak

- Malgutasun handia eskaintzen dute, ikus-entzunezko bitartekoak (fitxak, grafikoak, irudiak, ahotsak...), zein beste era bateko material eta baliabide osagarriak erabiltzeko gaitasuna ematen dutelako.
- Inkestatzaile bat dagoen heinean, galderak behar bezala ulertuko direla eta dagokien orden eta moduan erantzungo direla ziurtatzen dugu.
- Informazio gehien ematen duten inkestak dira. Hain zuzen ere, inkestatzailearen adiera postaz edo telefono bitartez egindako inkestek baino hobeto eta denbora gehiagoan lortzeko eta mantentzeko gai direlako, eta, ondorioz, inkesta luzeagoak egin daitezkeelako.
- Era honetako inkestek lortzen duten erantzun kopurua beste inkesta mota batzuen baino handiagoa da; hain zuzen ere, inkesta postaz bidaltzen duen norbaiti edo telefonoaren beste aldean dagoenari baino zailagoa delako inkestatzaile bati erantzuna ukatzea. Lehen aipa bezala, postaz egindako inkesten erantzun tasak %10era heltzen dira, telefonoz egindako inkesten erantzun tasak %70era eta inkesta pertsonalen erantzun tasak % 90era.

Inkesta pertsonalen desabantailak

- Inkestatzaileak ordaindu behar diren heinean, postaz edo telefonoz egindako inkestak telefonoz egindakoak baino garestiagoak dira. Gainera, inkestari erantzuteko aukeratu direnak etxean ez daudenean, inkestatzaileak behin baino gehiagotan joan behar izaten du aukeratua izan den pertsonaren bila, eta hori oso garestia izan daiteke.
- Inkestatzailearen janzkerak, portaerak, galderak egiteko moduak, ahots tonuak e.a. eragin izugarria izan dezakete inkestatuen erantzunetan.
- Azken urteotan, inkesta pertsonalei erantzuten dioten biztanleen kopurua gutxitzen joan da, jendea galdeketak erantzuten aspertuta dagoe-

lako edo laginean aukeratua izan den pertsonarekin harremanetan jar-tzea ezinezkoa delako (ate-zainak, ate-zain automatikoak...). Orain dela gutxi arte, inkesta pertsonalekin postaz egindakoekin eta telefo-noz egindakoekin baino erantzun kopuru handiagoa lortzen bazen ere, gaur egun desberdintasunak txikitzen doaz. Emakume zein gizonez-koek etxetik kanpo lan egiteak, etxe zein auzoetako ziurtasun sistemek eta hirietan bizi diren askok sumatzen duten segurtasun faltak zaildu egiten dute inkesta pertsonalak lortzea.

Posta bitartez egindako inkestak: era honetako inkestetan, galdeketak postaz bidaltzen dira, eta inkestatuek euren kasa erantzuten diote galderei. Behin galdeketa bete ondoren, zigilua jarrita bidali zaion kartazal batean sar-tzen dute, eta ikerlariari bidaltzen diote.

41. ADIBIDEA: postaz bitartez egindako inkesta baten berezitasunak

INVESTIGACIÓN SOBRE ESTRATEGIAS DE EMPLEO

Esta investigación se basa en los datos obtenidos a través de una encuesta por correo realizada a empresas de la CAPV que tienen más de 100 trabajadores. La encuesta se ha realizado durante la segunda quincena de Junio y durante todo el mes de Julio de 1996.

El cuestionario utilizado (ver anexo 3.3) ha sido diseñado por el Departamento de Economía Aplicada I de la Facultad de Ciencias Económicas y Empresariales de la UPV-EHU, y ha sido enviado a todas las empresas de más de 100 trabajadores de la CAPV, basándonos en el directorio de actividades económicas de 1994 facilitado por el EUSTAT. En total se han enviado 465 encuestas, obteniendo respuesta de 116 empresas; es decir, ha contestado el 25% de las empresas de más de 100 trabajadores de la CAPV.

En las 116 encuestas contestadas hay información suficiente, tanto cuantitativa como cualitativamente, para realizar una investigación explorativa que nos permita conocer las tendencias generales respecto de las estrategias de empleo de las grandes empresas de la CAPV. No podemos olvidar que las 116 empresas que nos han contestado emplean un total de 49.815 trabajadores (43.403 con contratos fijos (36.926 hombres y 6.477 mujeres) y 6.412 con contratos temporales (5.561 hombres y 851 mujeres)).

Ficha técnica de la investigación

Dirección: la dirección del trabajo de campo y la redacción de la investigación la ha realizado Patxi Juaristi Profesor del Departamento de Ciencia Política y de la Administración de la UPV-EHU. El seguimiento y posterior control de las encuestas la ha realizado Idoia Aguado, Licenciada en Ciencias Políticas y becaria de la Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación de la UPV-EHU.

Fecha de realización: 2.^a quincena de Junio y durante el mes de Julio de 1995.

Trabajo de Campo: entrevistas individuales enviadas a cada empresa por correo mediante cuestionario estructurado. Se han enviado cuestionarios a todas y cada una de las empresas de más de 100 trabajadores de la CAPV basándonos en el directorio de actividades económicas de 1994. En total se han enviado 465 cuestionarios.

Tamaño de la muestra: 116 encuestas entre las empresas de más de 100 trabajadores de la CAPV.

Posta bitartez egindako inkesten abantailak

- Kanpo lana errazago prestatzen da. Beraz, inkesta pertsonalak baino merkeagoak dira, eta informazioa bizkorrago biltzen da.
- Merkeagoak direnez, lagin handiagoak hartu daitezke; baita eremu zabalagoak ikertu ere.
- Askotan, beste era batera ikertu ezingo genituzkeen pertsonengana heltzeko aukera ematen digu; era berean, inkestatzaileek, beldurra ematen diotelako, joan nahi ez duten auzoak ikertzeko aukera ematen du.
- Inkesta pertsonaletan dagoen inkestatzailearen eragina murrizten da.
- Inkestatzailerik aurrean ez dagoenez, anonimatu handia duen inkesta mota da. Are gehiago, jendeak erantzuteko beldurra izan dezakeela edo gairen bati buruz hitz egiten lotsatu egin daitekeela pentsatzen dugunean, postaz bitartez egindako inkesta irtenbide egokia izan daiteke.
- Inkestatuek denbora gehiago dute erantzunak prestatzeko, beraz, inkestatzaile bitartez lortutako erantzunak baino balio gehiago izan dezakete.

«El éxito de una encuesta por correo depende de la meticulosidad en el diseño del cuestionario y cartas, así como del seguimiento. Los detalles pequeños son importantes cuando no existe más estímulo a la respuesta que unos papeles. El cuestionario es el producto que se ‘vende’; la redacción de las preguntas, su orden y el formato deben ser excelentes. La encuesta por correo es un intercambio en un contexto social. En cada investigación es necesario profundizar en los significados asociados y realizar una llamada a la respuesta adecuada. Hay que invertir dinero y tiempo en convencer a los entrevistados que no responden. Cada decisión va orientada a reducir la sensación de coste e incrementar la de beneficio de constestar. En las encuestas por correo el metanálisis de la técnica es importante para conocer los resortes de la respuesta». Bosch, J.L.C. eta Torrente, D. (1993): *Encuestas telefónicas y por correo*. Cuadernos Metodológicos (n.º 9), C.I.S., Madril, 23-64 orrialdeak.

Posta bitartez egindako inkesten desabantailak

- Laginketa probabilistikoa egin nahi badugu, ezinbestekoa da ikertu nahi den populazioa osatzen duten guztien helbideak izatea. Arazoa da askotan ezinezkoa izaten dela informazio hori lortzea.

- Jendeak erantzutea nahi badugu, ezin da galdeketa luzea prestatu. Galdera asko egin nahi baditugu, teknika hau ez da egokiena.
- Galdeketa anonimoki betetzen den heinean, ezin da kontrolatu nork betetzen duen; hau da, ezin dugu ziurtatu galdeketa erantzun behar zuen pertsonak erantzun duenik.
- Erantzunak inork ez dituenek kontrolatzen, gerta daitekeena da jendeak galderei ez erantzutea edo txarto erantzutea.
- Ezin dugu inkestatuen ezagutza maila kontrolatu; izan ere, inkestatuak zerbait ez badaki, nahi haina denbora dauka erantzuna beste nonbaiten begiratzeko, eta, gaiari buruz ezer jakin gabe, ezagutza handia duen norbaitek bezala erantzuteko.
- Era honetako inkestetan, hobe da galdera irekiak ez erabiltzea; hain zuzen ere, idaztera ohituak ez dauden pertsonak ez dutelako erantzungo.
- Era honetako inkestetan, ez dago inor inkestari buruz edo galdera zaileri buruz informazioa emateko. Gai zailak aztertzen ditugunean, informazio gabezia hau arazo bat izan daiteke galderak betetzeko.
- Erantzun kopurua handitzeko mota askotako sariak eskaini daitezke: opariren bat, zerbaiten zozketan parte hartzea... Aurrez egindako telefono dei batek ere asko handitzen ditu erantzunak. Kontua da erantzunak handitzeko erabiltzen diren estrategia hauek guztiak ikerketa garestitzen dutela.

42. ADIBIDEA: posta bitartez egindako inkesta batean erabilitako aurkezpen eskutitza

LA FORMACIÓN DEL CAPITAL SOCIAL EN ESPAÑA: ORGANIZACIONES Y ACTIVISTAS EN 6 MUNICIPIOS

Estimado amigo o amiga:

Un equipo de investigadores de la Universidad Autónoma de Barcelona (UAB), de la Universidad Autónoma de Madrid y de la Universidad del País Vasco está realizando una investigación sobre el asociacionismo en diferentes municipios del país. El estudio está financiado con fondos públicos y forma parte de una investigación comparada en la que participan 15 países europeos. Su asociación, en una fase anterior de la investigación dedicada a las organizaciones en general, aceptó colaborar en una segunda fase, más centrada en el estudio de sus miembros. De esta forma, su nombre ha sido seleccionado de forma aleatoria entre la totalidad de las personas asociadas a su organización.

Durante el proceso de selección de las personas a las que enviamos este cuestionario la protección y la confidencialidad de sus datos personales ha estado garantizada en todo momento, ya que el personal que participa en la investigación no los ha tenido en su poder.

El cuestionario que le enviamos nos ayudará a conocer mejor el fenómeno del asociacionismo. Le agradeceríamos que respondiera a las pregun-

tas que en él se incluyen, y que lo remita en el sobre franqueado que le adjuntamos.

Si tiene alguna duda sobre el cuestionario o desea algún tipo de aclaración, puede ponerse en contacto con Josep Martín por teléfono o escribir a la siguiente dirección de correo electrónico: telf. 936413447 / Josep.martin@campus.uab.es

Le agradecemos de antemano su colaboración.

Reciba un cordial saludo,

Firmado: Patxi Juaristi

Inkesta telefonikoak: telefono bitartez egiten diren inkestak dira. Bestela esanda, alde zuzenetik aukeratutako telefonora zerbaitetara deitzen da, eta informazioa galdeketa baten laguntzarekin biltzen da.

«Entre las ventajas de la encuesta telefónica está la privacidad en la entrevista. Este medio de comunicación opera dentro de la casa del entrevistado, evita puertas, porteros y vecinos/as. Sólo interviene una persona en la respuesta a las preguntas. No es necesario que nadie más sepa con quién habla, ni siquiera de qué se está hablando. Puede utilizarse incluso para concertar la hora de entrevista según la disponibilidad del entrevistado/a, disminuyendo las situaciones violentas y los costes. Estas características hacen atractiva esta técnica frente a cualquier otra. Los factores que determinan la posibilidad de realizar una encuesta telefónica son: la cobertura telefónica de la población, el objetivo del estudio, el presupuesto, el calendario de entrega y el tema estudiado». Bosch, J.L.C. eta Torrente, D. (1993): *Encuestas telefónicas y por correo*. Aip. Lib, 65. orrialdea.

Laginei buruz aritu garenan esan bezala, kontuan izan behar da lagina aukeratzeko zerrenda telefonikoak erabiltzeak ez dituela, kasu askotan, lagin adierazgarriak ziurtatzen. Pertsona batzuk ez dute telefonorik (jende oso txi-roak, adibidez) edo ez dira zerrenda telefonikoetan agertzen (jende oso aberatsa, politikariak...); beraz, ez dute laginean aukeratuak izateko inolako probabilitaterik. Bestetik, zenbait pertsona behin baino gehiagotan agertzen da zerrenda telefonikoetan (dendariak edo lanbide liberalak dauzkatenak, adibidez), eta, ondorioz, behin agertzen direnek baino laginean aukeratuak izateko probabilitate gehiago dute.

«La historia narra el fiasco obtenido por las encuestas realizadas por el *Literary Digest*, en 1936, para predecir el resultado de las elecciones a la presidencia de los EE.UU. y el éxito que, por otra parte, tuvo George Gallup. La diferencia estuvo en la elección de la muestra. En el primer caso la muestra era sesgada (desequilibrada) pues se utilizó la guía telefónica (¡en 1936!) y listados de miembros pertenecientes a determinados clubes de élite. Es evidente que no era una muestra representativa de la población y por ello condujo a un error en las predicciones, en las que auguraba la victoria al candidato del partido republicano, Alfred M. Landon. La victoria

fue, por mayoría aplastante, para el candidato demócrata Franklin D. Roosevelt, hecho que predijo George Gallup, utilizando en sus estudios una muestra equilibrada y representativa de la población norteamericana». Jau-set, A.J. (2000): *La investigación de audiencias en televisión. Fundamentos estadísticos*. Paidós, Bartzelona, 104. orrialdea.

Inkesta telefonikoen abantailak

- Oso bizkor egiten dira.
- Teorian behintzat, postaz egindakoekin baino erantzun gehiago lortzen ditugu.
- Galdeketa erantzuten dutenengan nolabaiteko kontrola dago, eta, beraz, postaz egindako inkestetan baino gutxiago dira txarto ulertuak, hutsik utzitako galderak eta erroreak.
- Oro har, telefonoarekin daukagun harreman bereziak eragin baikorra dauka era honetako inkesten arrakastan: gizaki gehienok telefonoa erantzuteko joera dugu txirrinak jotzen duenean. Lehenengo pentsatzen duguna da, telefono deiak zerbait ona ekarriko digula; ondorioz, jaso egiten dugu aurikularra.
- Psikologikoki, onartu egiten dugu deia egin duenak bukatu behar duela solasaldia. Jarrera honek aukera ematen dio inkestatzaileari aurkezpenak egin eta inkesta hasteko. Hala, bada, garrantzitsua da aurkezpen on bat egitea. Inkestatuak inkestatzaileari buruz ezer ez dakenez, aurkezpen on bat ezinbestekoa da jendea galdeketa erantzutera bultzatzeko.

Inkesta telefonikoen desabantailak

- Telefono inkestak aztertu nahi den populazioan telefono kopuru handi bat dagoenean egin daitezke bakarrik. Autore batzuen arabera, era honetako inkestak egiteko telefonoa izan behar du gutxienez etxebizitzaren %90ak.
- Kasu askotan, lagin egoki bat lortzeko arazoak egon daitezke, pertsona asko ez direlako zerrenda telefonikoetan agertzen (jende aberatsa, politikariak...) edo ez dutelako telefonorik (jende oso pobrea, adibidez). Beraz, gerta daitekeena da inkesta telefonikoaren bitartez lortu den laginean gizarte maila guztien iritzia islatuta ez egotea.
- Inkesta telefonikoekin inkesta pertsonalekin baino erantzun gutxiago lortzen ditugu. Hala ere, erantzun kopurua asko handitzen da deiak egiten hasi aurretik laginean aukeratuak izan direnei eskutitz bat bidaltzen badiegu. Estrategia honen arazoa da ikerketa garestitzen duela.

4.3.3. DATUEN BILKETA

Inkesta bitartez datuak biltzerakoan pauso desberdinak eman behar dira: lehenengo lagina aukeratu behar da. Ondoren, inkestatzaileak, kodifikatzaileak

leak eta ikerketan parte hartuko duten pertsonak hezi behar dira, euren lana behar bezala egin dezaten. Galdeketa pasatzen hasi aurretik, pretesta egin behar da galdeketak arazoren bat duen ikusteko. Behin galdeketak pasatu ondoren, galdeketen berrikusketa eta egiaztatzea dator. Laginari buruzko azalpenak bigarren atalean aurkeztu ditugunez, inkesta behar bezala aurrera eramateko hezi behar ditugun pertsoneri buruz azalpenak emanez hasiko gara.

Ikerketan parte hartzen duten inkestatzaile, kodifikatzaile eta pertsona guztien heziketa: ikerketaren fase garrantzitsua da. Izan ere, ikerketan parte hartzen duten pertsonak bere lana txarto egiten badute, baliorik ez duten ondorioetara helduko gara. Beraz, garrantzitsua da honako aholku hauek kontuan hartzea:

- Garrantzitsua da galdeketa inkestatzaileekin irakurri eta egon daitezkeen arazo eta zalantzak hasieratik argitzea.
- Gomendagarria da inkestatzaile lana lehenengoz egiten dutenek beste inkestatzaile bati galdeketa pasatzea entrenamendu gisa. Ariketa honek inkestak nola egin behar diren erakutsi, eta konfiantza emango die benetako inkesta bat egiterakoan.
- Inkestatzaileei oso ondo zehaztu behar zaie nola egin behar duten euren lana: zer-nolako jendeari galdetu behar dioten, nola aukeratu behar dituzten etxeak eta inkestatuak eta zein zonaldeetan pasatu behar dituzten galdeketak; hau da, jarraitu behar duten bidea azaldu behar zaie, baita zer egin behar duten aukeratutako pertsona etxean ez dagoenean ere.
- Honekin batera, argi utzi behar da inkesta pertsonalak etxean egin behar direla, eta ez kalean edo tabernetan. Azken finean, inkestatzaileak argi izan behar du inkestatu bat aukeratzeko zoriak, eta ez beste faktore batzuk, parte hartu behar duela, eta, horretarako, oso argi izan behar du nola bilatu inkestatuak, elkarrizketa nola egin eta etxean ez daudenekin zer egin.

Euren lana ondo egiteko interesgarria izan daiteke inkestatzaileei honako material hauek ematea:

- Inkestak egin behar diren zonaldearen mapa, inkesta egin behar zaion pertsona aukeratzeko jarraitu beharreko bidea eta hartu behar dituzten pertsonen berezitasunak.
- Aurkezpen eskutitza edo inkestatzaileak direla adierazten duen txartela.
- Lehen bisitan etxean egon ez diren pertsonen izenak, etxean egongo diren ordua eta interesgarriak izan daitezkeen beste datu batzuk idazteko fitxa.

Pretesta: datuen bilketarekin hasi aurretik, aurretesta egin behar da. Galdeketa aztertu nahi den populazioaren zati txiki batean pasatzen da, jendeak galderak ulertzen dituen eta egon daitezkeen arazoak ikusteko. Pretestarekin denbora eta dirua gastatzen badugu ere, galdeketari erantzuteko dauden ara-

zoak ikusten ditugu. Pretesta bereziki garrantzitsua da ezagutza handia ez dagoen gaiak aztertzerakoan. Egin ditzakegun erroreekiko aseguru bat bezalako da.

Galdeketak pasatzea: pretesta egin ondoren, galdeketa pasatzen hasten gara. Ikerketaren momenturik garrantzitsuenetarikoa da, hain zuzen ere, gure ikerketarako informazioa biltzen dugulako. Fase honetan eman beharreko pausoak aukeratutako inkesta motaren arabera dira. Hau da, inkesta pertsonaletan, postaz egindako inkestetan edo inkesta telefonikoetan pauso desberdinak eman beharko ditugu.

Berrikusketa: erantzundako galdeketak biltzen goazen heinean, behar bezala bete diren ikusten da. Horrela, txarto erantzundako edo galdera guztiak bete gabeko galdeketa asko aurkitzen baditugu, behar bezalako erabakiak hartu beharko ditugu arazoak konpondu, eta, ahal den neurrian, ondorengo galdeketetan erroreak saihesteko.

Berrikusketarekin, bestalde, txarto erantzunda dauden inkestak alboratzen ditugu, eta, ondorioz, datu hobekak lortzen ditugu. Kontuan izan galdeketak kontrolatzea ezinbestekoa dela euren balioa ziurtatzeko. Berrikusketa mota desberdinak daude inkesta motaren arabera:

- Inkesta pertsonaletan, inkestatzaileen lana kontrolatu behar da, baita jazotzen goazen galdeketak ere. Galdeketak ondo beteta dauden ikusi, inkestatzaileek zehaztu zaien bidea jarraitu duten kontrolatu, inkestatu behar zituzten pertsonen galdetu dioten gainbegiratu, galdeketa guztiak entregatu dituzten baieztatu eta galdeketa erantzun duenaren telefonoa eta helbidea agertzen diren ziurtatu behar da. Galdeketa erantzun duenaren izena eta telefonoa eskatzeak, inkestak benetan egin diren ziurtatzeko balio du. Izan ere, beharrezkoa da inkestatzaile bakoitzak emandako galdeketetatik hiruzpalau hartzea, eta erantzun duten pertsonen deitzea, ia galdeketak benetan egin diren ziurtatzeko.
- Posta bidez egindako inkestetan, populazioaren zati batek ez duela erantzun edo txarto erantzun duela ikusten badugu, berriro bidaltzen zaizkie galdeketak, eta galdeketak betetzea oso garrantzitsua dela gogoratzen zaie. Garrantzitsua da galdeketak nola heltzen doazen kontrolatzea, hartu beharreko erabakiak alde aurretik hartzeko.
- Inkesta telefonikoetan, galdeketa erantzuten den momentu berean kontrolatzen da; beraz, arazoren bat, zalantzaren bat edo erroreren bat badago, hobe da berehala deitzea. Kontuan izan denbora pasatzen bada arazoak egon daitezkeela galdeketa bete duen pertsonarekin harremanetan jartzeko.

Galdeketen egiaztatzea: lagina alde aurretik zehaztu den metodologia-rekin aukeratu izan den aztertea da. Horretarako, hartutako inkesta guztien artetik lagin bat hartzen dugu zoriz, eta lagin horretan aukeratuak izan direnei telefonoz deitzen zaie galdeketak behar zen tokian (etxean eta ez kalean edo tabernan, adibidez) erantzun dituzten ziurtatzeko. Ezin dugu ahantzi as-

kotan inkestatzaileak berak betetzen dituela galdeketak, edo ez direla betetzen ikerketak eskatzen duen tokian. Egiaztatzearekin, lortutako galdeketak zoriz lortu direla ziurtatzen dugu; hau da, beste faktore batzuk ez dutela inolako eraginik izan.

Galdeketa egiaztatzeko, inkestatuarekin harremanetan jartzen gara, eta galdeketa noiz egin zioten, non eta zenbat denbora iraun zuen galdetzen diogu. Zalantzaren bat badago, galdeketako galdera erraz biri berriz erantzuteko eskatuko diogu. Galdeketaren batean arazoak ikusten baditugu, galdeketa hori egin duen inkestatzailearen galdeketa guztiak egiaztatu beharko ditugu.

4.3.4. DATUEN AZTERKETA

Behin galdeketak bildu ditugunean, ordenagailuan sartzen eta azterketak egiten hasi behar gara. Galdeketa bitartez lortutako informazioaren azterketa egiteko, datuak deskribatu (ehunekoak, babestekoak, moda, mediana...), dauden harremanak aztertu (taula gurutzatuak, korrelazioak...), informazioa sinplifikatu (teknika aldagai anitzak) eta egiten dugun errorea kalkulatu beharra dago (laginketa errorea).

Esan beharrik ere ez dago ordenagailuek galdeketen bitartez bildutako informazioa aztertzeko laguntza paregabea ematen digutela. Inkestak aztertzekoan agertzen diren lan errepikatzaileak (zenbatu, gurutzaketak egin...) arintzen laguntzen duten heinean, ezinbesteko tresnak dira ikerketarako.

4.3.5. EMAITZEN INTERPRETAZIOA ETA TXOSTENAREN IDAZKETA

Ondorioak idazterakoan, ikerketatik lortutako emaitzak gairi buruz dauden teoriekin alderatu behar ditugu. Honekin batera, egindako aurkikuntzak harremanetan jarri behar ditugu hasierako hipotesiekin. Hitz gutxitan esateko, gure ikerketarekin emandako aurrerapausoak zeintzuk diren agertu behar ditugu.

Txostenaren idazketari dagokionez, ez dago formula magikorik. Hori bai, egiten ditugun txostenak ulergarria izateaz gain, argi adierazi behar dute zeintzuk diren eman diren pausoak eta hartu diren erabakiak (laginaren tamaina, erabilitako teknika...). Txarto idatzitako eta egituraturutako txostenek ikerketarik onena alferrik galtzen dute.

Honela, bada, garrantzitsua da txostenaren atalak zein aurkezten diren ideiak elkarri ondo elkarlotuta agertzea. Horretarako, garrantzitsua da eduki nagusiak behar bezala ordenatzea, eta eduki nagusi horiek xehetasunez garatzea. Beti ere, kontuan izango ditugu azken hartzailearen nahiak eta egoera: zertarako behar duen txostena, non aurkeztuko den, nola...

Bestalde, eta lehenengo atalean esan bezala, txostena sarrera batekin hasi behar da. Erabilitako teknikak aurkeztu behar ditugu ondoren. Atal metodo-

logikoaren atzetik emaitzak eta ondorioak agertuko ditugu. Azkenean, erabilitako bibliografia eta eranskinak joango dira. Eranskinetan, erabilitako galdeketa eta ikerketaren fitxa teknikoak (noiz egin den inkesta, zer-nolako laginarekin, nolako laginketa errorea izan duen...) agertu behar dira.

4.3.6. INKESTAREN FIDAGARRITASUNA ETA BALIOA

Ikerketaren azken pausoa da fidagarritasuna eta balioa ezagutzea. Ikerketa bukatzen da honako galdera hauei erantzuten diegunean: fidagarria da erabilitako neurria? Konsistentea da? Ikerlariak nahi izan duena neurtu du? Baliagarria da egindako ikerketa?

4.3.6.1. Galdeketa fidagarritasuna

Neurtzeko tresna bat fidagarria dela esaten dugu behin baino gehiagotan erabili ondoren konsistentea denean; hau da, ondorio berdinetara eramaten gaituenean.

Ikerlari askorentzat, inkesta da ikerketarako teknika onena, fidagarritasuna zehatz-mehatz ezagutzea ahalbidetzen digulako. Zentzu honetan, ikerlari batzuk ez dituzte teknika kualitatiboak (sakoneko elkarrizketa, eztabaida taldeak...) erabiltzen, hauekin ezin delako fidagarritasuna neurtu.

Fidagarritasuna neurtzeko metodo desberdinak erabili ditzakegu. Besteak beste, test-retest metodoa, forma alternatiboen metodoa, bi erdien metodoa eta Crombachen alfa aipatu ditzakegu.

Test-retest metodoa: metodo honen bidez talde berari teknika bera aplikatzen zaio bi momentu desberdinetan, eta ondorioak berdinak diren ikusten da. Bi momentuetan lortutako emaitzen artean korrelazioa dagoen neurtzeko Pearsonen korrelazio koefiziente erabiltzen da, eta ateratzen den koefiziente tresnaren fidagarritasunaren neurri gisa hartzen da.

Forma alternatiboen metodoa (alternative-form method): aurreko metodoan bezala, aztergai den fenomeno bi aldiz neurtzen da, baina kasu honetan tresna desberdinak erabiltzen dira. Ikergai den fenomeno galdeketa desberdin birekin neurtzen da, eta ondorio berdinetara heltzen garen aztertzen da. Emaitza berdinak lortzen badira galdeketa fidagarria da.

Bi erdien metodoa: metodo honen arabera, galdeketa bi zati berdinetan banatzen da, eta zati bakoitzean lortzen diren ondorioen arteko korrelazio koefiziente ateratzen da. Koefiziente honek fidagarritasuna neurtzeko balio du. Zentzu honetan, korrelazio txikiak fidagarritasun txikia duten inkestekin loturik daude, eta korrelazio handiak fidagarritasun handia duten inkestekin.

Crombachen Alfa: estatistiko honek interpretazio desberdinak ditu, baina oinarrian item guztien arteko batezbesteko korrelazioan oinarritzen da, bateko desbidazio tipikoa izateko item guztiak estandarizatu badira. Alfa Otik

1era doa, eta negatiboa da erabiltzen ditugun itemak elkarrekiko harremanetan ez daudenean, eta, beraz, tresnak fidagarritasun gutxi duenean. Zenbat eta gehiago hurbildu batera are eta fidagarritasun handiagoa du galdeketak.

Galdeketaren fidagarritasuna hobetzeko aholku hauek interesgarriak izan daitezke:

- Galdera argiak egin. Zalantzak sortzen dituzten edo hitz zailak erabiltzen dituzten galderak ekidin.
- Inkestatzailearen eragina ahal bezain beste gutxitu.
- Postaz egindako inkestetan, galderen artean tartea utzi behar dira. Modu berean, galdeketa betetzeko jarraitu behar diren pausoak zehatz-mehatz agertu behar dira, bai azalpenen bitartez bai geziak erabiliz.
- Inkestatzaile, kodifikatzaile eta datuak ordenagailuak sartuko dituzten behar bezalako heziketa ziurtatu behar da. Horrela, erantzunak jasotzerakoan, kodifikatzerakoan edo informazioa ordenagailuan sartzekoan gerta daitezkeen erroreak gutxituko ditugu.

4.3.6.2. *Inkestaren bitartez lortutako informazioaren balioa*

Galdeketa bat baliagarria da ikertzaileak neurtu nahi duena neurtzen duenean.

Metodo desberdinak daude inkesta bitartez lortutako informazioaren balioa ezagutzeko. Besteak beste, itxurazko balioa, eduki balioa, barne koherentziaren balioa, balio enpirikoa, talde ezagunaren balioa eta aurreikuspen balioa aipatu ditzakegu.

Itxurazko balioa edo adituen balioa (Face Validity edo Expert Validity): aditu talde batek zehazten du galdeketa baliagarria den edo ez. Horretarako, neurtu nahi diren aldagaiak edo kontzeptuak lortutako informazioarekin loturarik duten aztertzen da. Metodo guztiz subjektiboa da, eta ezin da enpirikoki frogatu. Adituek ikertu nahi denaren eta lortutako datuen artean lotura dagoela adosten badute, erabilitako tresnak itxurazko balioa edo adituen balio du.

Edukiaren balioa (Content Validity): ikertu nahi diren aldagaien edo kontzeptuen esanahia zehaztu ondoren, sortu den galdeketak aldagai edo kontzeptu horren arlo guztiak kontuan hartzen dituela ziurtatu behar da. Tamalez, Gizarte Zientzietan erabiltzen diren kontzeptu eta aldagai asko oso abstraktuak dira, eta, beraz, arazoak izaten dira euren esanahiak zehazterakoan. Bada, metodo honek erabilgarritasun gutxi dauka Gizarte Zientzietan.

Barne koherentziaren balioa (Construct Validity): galdeketa erabili den aldagai edo kontzeptu bat galdeketa beste aldagai edo kontzeptu batekin harreman zuzenean dagoenean, harreman hau galdeketaren balioa ezagutzeko erabili daiteke. Zentzu honetan, gai bera neurtzeko erabiltzen ditugun aldagai edo kontzeptu biak inolako harremanik ez dutela ikusten badugu, kontu handiz hartu beharko ditugu lortutako ondorioak.

Balio empirikoa: gizarte Zientzietan ikerketa baten balioa ezagutzeko gehien erabiltzen den metodoa da. Ikergai den kontzeptu edo aldagai konplexua neurtzeko, aldagai edo kontzeptu desberdinak erabiltzen dira. Talde baten liberalismo maila neurtzeko eskola-autobusarekiko jarrera, ongizate estatuarekiko jarrera, atxilotuen eskubideei buruzko jarrera, gastu militarrekiko jarrera...neurtzen dira, eta lortutako emaitzen arteko harremanak neurtzen dira. Emaitza desberdinen artean korrelazioa badago eskala baliagarri baten aurrean gaude.

Talde ezagunaren testa (Known groups): sortutako testean balio oso altuak edo oso baxuak dituztenen (Known groups) erantzunak ezagutzen dira, eta ateratzen diren emaitzak batenaz bestearen inguruan dagoen taldearen emaitzekin alderatzen dira. Zenbat eta desberdinagoak izan alderaketan lortutako emaitzak, bildutako informazioa are eta baliagarriagoak izango da.

Aurreikuspen balioa (predictive validity): galdeketa batetik lortutako emaitzetan oinarrituz inkestatuen portaerari buruzko ondorioak ateratzen dira, eta, ondoren, emaitza horiek pertsona horien benetako portaerari buruzko emaitzekin alderatzen dira. Portaera bien artean dagoen korrelazioa galdeketaren balioa ezagutzeko erabili daiteke.

Balioa ezagutzeko metodo desberdinak aurkeztu baditugu ere, kontuan izan behar da hauetariko batek ere ez duela ikerketaren balioa zehatz-mehatz neurtzen. Alegia, hauetariko bat ere ez da perfektua. Aurretik esan bezala, gizakien eta giza taldeen berezitasunak neurtzen ari garenean, inoiz ere ez gaude ziur nahi duguna neurtzen ari garen. Hala ere, gure galdeketen balioa hobetzeko erabilgarriak izan daitezke honako aholku hauek:

- Egiten ditugun galdeketetan eskala luzeagoak erabili. Item gehiago erabiliz, neurtu nahi duguna zehaztasun handiagoarekin neurtuko dugu. Bestela esanda, item gehiago erabiliz, ikertu nahi dugunaren dimentsio gehiago neurtuko ditugu.
- Beste ikerketa batzuetan arrakastaz erabili diren galderak eta galdeketak erabili.
- Galdeketak ikerketatik kanpo dauden pertsoneri pasatu, euren ikuspuntua ezagutzeko.

V

Item asko dituzten neurriak: Indizeak eta eskalak

«...se han desarrollado numerosos tipos de escalas, se han intentado aumentar los niveles de medición y se han perfeccionado e ideado ciertos procedimientos para su construcción y validación, pero el estado de la cuestión continúa sin satisfacer plenamente».

Gómez Bueno C.: «Escalas: problemática subyacente» in Lattiesa M. (1991): *El pluralismo metodológico en la investigación social: ensayos típicos*

Gizarte Zientzietan aztertzen diren aldagai batzuk galdera bakar batekin neurtu daitezke, eta, beraz, ez diote arazo berezirik sortzen ikertzaileari (bozka intentzioa, Lehendakariaren lanaren ebaluaketa, adina, inkestatuaren hezkuntza maila...). Askotan, dena dela, ikertzaileek dimentsio ugari dituzten fenomeno konplexuak neurtu behar izaten dituzte (liberalismo maila, abertzaletasuna, demokrazia maila...).

Galdera bakar batekin neurtu ezin diren fenomeno konplexu hauek neurtzeko, erabilgarriak dira indizeak eta eskalak; hau da, fenomenoak modu ez zuzenean neurtzen dituzten tresnak.

Neurtzea Gizarte Zientzietan ikertzen ari garen gai edo objektuaren dimentsio bati zenbakizko baloreak egokitzea da. Zentzu honetan, indizeak eta eskalak neurtzeko tresnak dira, hain zuzen ere, atributu izeneko berezitasun kualitatiboak aldagai izeneko serie kuantitatiboetan eraldatzen dituztelako. Indizeak eta eskalak gertaerak, portaerak, iritziak edo jarrerak *continuum* kuantitatibo baten arabera neurtzeko teknikak dira.

Hasieratik esan behar da ez dagoela mundu guztiak onartzen dituen indize eta eskalarik. Giza estatusa, liberalismo maila, alderdi politikokoekiko identifikazioa, alienazio maila edo abertzaletasuna bezalako fenomeno konplexuak era askotako eskalen eta indizeen bitartez neurtu daitezke. Ikerketa bakoitzak bere beharrak, oztopoak, helburuak eta, oro har, berezitasunak di-

tuen heinean, ikerlariak erabaki behar du kasu bakoitzean zeintzuk diren ikerketarako indizerik eta eskalarik onenak.

5.1. Eskalen eta indizeen abantailak eta desabantailak

Eskalak eta indizeak oso erabilgarriak dira inkestak egiterakoan. Dena dela, gure galdeketetan indizeak eta eskalak erabiltzerakoan oso argi izan behar ditugu tresna hauen abantailak eta desabantailak.

Eskalen eta indizeen abantailak

- Oso egokiak dira dimentsio ugari dituzten fenomeno konplexuak neurtzeko.
- Indizeek eta eskalek berezitasun kualitatiboek zenbakizko balorea emateko gaitasuna dute; hots, berez kualitatiboak diren iritziak eta jarrerak zenbakitan eraldatzen dituzte. Eta horrek ikertzen ari garenari buruzko iritzi zehatza ematen laguntzen digu.
- Fenomenoak modu ez zuzenean neurtzen diren heinean, oso egokiak dira jarrerak neurtzeko.
- Beste teknika batzuk erabiltzen direnean baino errazago ezagutu daiteke datuen balioa eta fidagarritasuna.

Eskalen eta indizeen desabantailak

- Askotan zaila izaten da indizeetan eta eskaletan parte hartzen duten item eta galderen ponderazioa erabakitzea.
- Batez ere indizeak ikertzailearen subjektibitatearen arabera eraikitzen dira. Hau da, indize bat egiteko aukeratzen diren itemak zein hauetarik bakoitzari ematen zaion puntuazioa ikertzailearen ikuspuntu subjektiboaren arabera zehazten dira.
- Eskalen kasuan, asko kostatzen da neurtu nahi diren dimentsioekin harremanetan dauden baieztapen egokiak formulatzea.
- Fenomeno asko ezin dira ikertu eskala eta indizeen bitartez; hain zuzen ere, zailak direlako kuantifikatzen.

5.2. Indizeak

Indizeak fenomeno konplexuak neurtzeko erabiltzen ditugu. Item desberdinei emandako puntuazioen konbinaziotik lortzen ditugun neurri konposatuak diren heinean, oso erabilgarriak dira jarrerak neurtzeko. Kontuan izan sarri askotan jarrerak fenomeno konplexuak izaten direla eta ezin direla galdera bakar batekin neurtu. Ezin dugu ahortzi, gizarte mailako aldagaien neurketa aldagai fisikoen neurketa baino zailagoa dela. Pertsona ba-

ten pisua eta altuera neurtzea, adibidez, gizarte maila neurtzea baino errazagoa da.

Indizeek galdera sinpleek baino hobeto neurtzen dituzte fenomeno konplexuak. Dena dela, indizeak egiterakoan daukagun arazo larriena da zaila izaten dela erabakitzea indizean parte hartzen duten item guztien ponderazioa. Oso zaila da aztergai den fenomenoaren neurtzeko erabiltzen diren itemen garrantziari buruz ikertzaileen arteko adostasuna lortzea.

Indizeak bide desberdinetatik lortu ditzakegu: batzuetan galdera desberdinei emandako erantzunak erabiltzen dira indize bat lortzeko. Adibidez, aukeratu diren galderen erantzunak bildu ondoren, batezbestekoa ateratzen da, eta batezbesteko hori zerbait neurtzeko indize gisa erabiltzen da.

43. ADIBIDEA: galdera desberdinak erabiliz sortutako indizea

BERA KURUTZ IKASTOLAKO GURASOEN ATSEGIN MAILARI BURUZKO IKERKETA

Ikastolako irakasleak ebaluatzeko, adibidez, hiru galdera egin genituen. Ondoren, galdera bakoitzari emandako erantzunak bildu eta batezbesteko bat ateratzen genuen. Kontuan izan galdera bakoitza batetik laura doala, eta, beraz, irakasleekiko jarrera baikorrena zuenak 3 puntu lortzen zituela eta txarrenak 12 puntu. Hiru galderetatik ateratzen zen batezbestekoa irakasleekiko jarrera orokorra neurtzeko erabili zen.

7. Ikastolako irakasleriari buruz arituko gara orain. Nolakoa da, zure ustez, irakasleek eguneroko harremanetan ikasleei ematen dioten tratua?

Oso Ona	1
Ona	2
Txarra	3
Oso Txarra	4

8. Nolakoa da, zure ustez, Ikastolako irakasleen gaitasun pedagogikoa (irakaskuntzarako gaitasuna)?

Oso Ona	1
Ona	2
Txarra	3
Oso Txarra	4

9. Prestakuntza profesional eta akademikoari dagokionez (ikasgai desberdinak emateko duten ezagutza), zer-nola daude prestatu, zure ustez, Bera Kurutz Ikastolako irakasleak?

Oso Ondo	1
Ondo	2
Txarto	3
Oso txarto	4

Beste batzuetan, galdera baten barnean aurkeztu diren itemetatik lortutako puntuazioak konbinatzen dira, eta neurri konposatu bat lortzen da. Item desberdinei emandako erantzunen batezbestekoa, adibidez, zerbait neurtzeko indize gisa erabiltzen da.

44. ADIBIDEA: itemak erabiliz sortutako indizea

INVESTIGACIÓN SOBRE EL ALARDE DE SAN MARCIAL PARA EL AYUNTAMIENTO DE IRUN

Irungo Alardearen inguruan egin genuen ikerketan jendeak jaietan zuen parte-hartze orokorra ezagutzeko, jaietako ekitaldi desberdinetan parte hartzen zuten galdetzen genuen, eta, ondoren, indize bat ateratzen genuen. Jaietan parte hartze handiena zuenak 8 puntu lortzen zituen eta partehartze txikiena zuenak 16 puntu.

1. Durante las fiestas de San Pedro y San Marcial de Irún se celebran una serie de actos. Dígame, por favor, a cuáles de estos actos suele acudir usted:

	Sí	No	No contesta
Presentación de las cantineras	1	2	9
Misa, aurreku o comitiva municipal del día de San Pedro	1	2	9
Revista de Armas (día de San Pedro)	1	2	9
Alborada	1	2	9
Diana	1	2	9
Arrancada, desfile civico-religioso (desfile matutino)	1	2	9
Subida a la ermita de San Marcial	1	2	9
Alarde de Armas (desfile verpertino)	1	2	9

5.3. Eskalak

Gai konplexuak neurtzeko indizeak galdera sinpleak baino hobeak badira ere, duten arazo nagusia da ikertzailearen subjektibitatearen arabera eraikitzen direla. Indizea egiteko aukeratzen diren itemak zein bakoitzari ematen zaion puntuazioa, ikertzailearen ikuspuntu subjektiboaren arabera zehazten dira.

Indizeek duten arazo hau gainditzeko, eskalak erabili ditzakegu. Izan ere, eskaletan erabiltzen ditugun itemen aukeraketa eta konbinaketa indizeetan baino era sistematikoagoan egiten da.

Neurtzeko beste tresna batzuekin alderatuz, zenbait eskalen berezitasun garrantzitsuena da erabiltzen ditugun itemak aztergai den gaia neurtzeko baliagarriak diren edo ez jakin genezakeela.

5.3.1. ESKALA MOTAK

Eskalak sailkatzerakoan bi irizpide nagusi daude:

Batzuentzat, kanpoko objektuak sailkatzen dituzten eskalen eta inkestatuak bere burua sailkatu behar duen eskalen artean desberdindu behar da. Adibidez: lehen taldeko eskaletan, erakunde bat sailkatzeko eskatzen zaio inkestatuari. Bigarren taldeko eskaletan, bere burua ezkerria eskuma *continuum* kokatzeko eskatzen zaio.

«Coombs y Torgerson apuntan a una importante distinción. Según ésta, existen, de una parte, escalas con cuya ayuda se miden dimensiones en objetos del entorno. Por ejemplo, se puede pedir a los encuestados que ordenen varios bienes según su utilidad o varios políticos según el grado de su actitud conservadora, o valorar la medida de los contenidos realistas y racionalistas en diversos sistemas religiosos. La dimensión en que se procede a verificar la medición no se refiere a los encuestados, sino a objetos de su entorno. Por otra parte, pueden medirse dimensiones de los mismos objetos de investigación, como, por ejemplo, las actitudes patriarcales entre los hombres casados, el grado de participación en la vida política entre estudiantes, el autoritarismo entre profesores, etc. Las escalas de la primera clase proporcionan un continuo numérico en el que se ordenan los objetos; en las segundas, se da otro continuo numérico en el que son las mismas personal las que se ordenan». Mayntz R., Holm K. Hübner P. (1980): *Introducción a los métodos de las sociología empírica*. Madril, Alianza Editorial, (2. edizioa), 63. orrialdea.

Sailkapen onena da, gure ustez, eskalak dauzkaten helburuen arabera sailkatzen dituen. Ikuspuntu honen arabera, hiru eratako eskalak desberdindu ditzakegu:

- Sailkapen eskalak:** inkestatuei ikertzen ari garen dimentsioari edo gaiari buruzko itemak eurek nahi dituzten moduan ordenatzeko eskatzen diegu. Gehien erabiltzen diren sailkapen eskalak hierarkizazioa eta pareoa dira.
- Ebaluazio eskalak:** inkestatuari ebaluatu nahi den gaia *continuum* batean kokatzeko eskatzen zaio. Gehien erabiltzen diren ebaluazio eskalak termometroa eta diferentzial semantikoa dira.
- Jarrera eta irizpide eskalak:** ebaluazio eskalak bezalakoak dira, hots, ebaluatu nahi den gaia *continuum* batean jartzeko eskatzen zaio inkestatuari. Kasu honetan, dena dela, ebaluaketa era ez zuzenean egingen da. Thurstone eta Likert dira iritzi eskala garrantzitsuenak.

5.3.1.1. *Sailkapen eskalak: hierarkizazioa eta pareoa*

Esan bezala, gehien erabiltzen diren sailkapen eskalak hierarkizazioa eta pareoa dira.

Hierarkizazioa: jendearen nahiak era sinplean ezagutzeko bide bat da. Teknika honen bidez, inkestatuei item batzuk euren nahien arabera sailka-

tzeko edo ordenatzeko eskatzen zaie; adibidez, hauteskunde batzuetara aurkezten diren politikariak.

Behin inkestatuak elementuak hierarkizatu dituenean, beheanzko puntuazioa ematen zaio sortutako zerrendari; hots, adierazitako ordenaren arabera ponderatzen dira elementuak. Talde baten nahiak ezagutzeko zerrenda guztiak ponderatu ondoren batezbesteko orokorrak ateratzen dira.

Hierarkizazioa talde baten nahiak ezagutzeko teknika erraza da. Hala ere, sailkapena egiterakoan inkestatu bakoitzak erabili dituen irizpideak ezkutuan gelditzen direnez, autore askok zalantzak dituzte hierarkia guztiak alderagarriak diren.

45. ADIBIDEA: hierarkizazioa

INVESTIGACIÓN SOBRE ESTRATEGIA DE EMPLEO

En la investigación sobre estrategias de empleo de las empresas de la CAPV que tienen más de 100 trabajadores se utilizó la siguiente jerarquización:

Pregunta 30. ¿Podría ordenar de mayor a menor importancia los siguientes factores que pueden dificultar las horas de utilización de su equipo productivo? (numérelos del 1 al 6 empezando por el factor que más dificulta la utilización de su equipo productivo)

- Insuficiencia de demanda —
- Escasez de mano de obra especializada en plantilla —
- Escasez de candidatos cualificados para ocupar puestos de trabajo especializados —
- Regulaciones administrativas —
- Convenios colectivos. —
- Costes de reorganización. —

Ordenatzeko elementu gutxi daudenean, hierarkizazioa oso erabilgarria bada ere, zaildu egiten da zenbat eta elementu gehiago izan. Horregatik, gehiago erabiltzen da pareoa; izan ere, zehatzagoa da, eta inkestatuentzat erantzuteko errazagoa.

Pareoa: pareoa aurkezteko adibide batetan oinarrituko gara. Demagun inkestatu batek hauteskundeetarako aurkezten diren 10 politikari ebaluatu behar dituela. Horretarako, politikariak binaka agertzen dira (bikote aukera guztiak agertzen dira), eta inkestatuari eskatzen zaiona da bikote bakoitzaren aurrean gustukoena den politikaria aukeratzeko. Era honetako tekniketan, inkestatuari ez zaio ez daki/ez du erantzuten erantzuteko aukerarik uzten.

Behin inkestatuek aurkeztu zaizkion bikote bakoitzetik bat aukeratu dituztenean, politikari bakoitza zenbat aldiz aukeratu izan den kontatzen da. Lehenengo pertsona bakoitzaren erantzunen zenbaketa egiten da, eta, ondoren, puntuazio orokorrak ateratzen dira.

Pareoari erantzutea hierarkizazioari erantzutea baino errazagoa da. Bikote batetik bat aukeratzea errazagoa da item batzuk hierarkizatzea baino. Hala ere, kontuan izan kontraesanak eta inkonsistentziak ugaritu egiten direla zenbat eta bikote gehiago izan, eta zenbat eta txikiagoak izan bikote bakoitzean aurkezten diren estimuluen arteko desberdintasunak.

46. ADIBIDEA: pareoa

INVESTIGACIÓN SOBRE LA SATISFACCIÓN DE LOS PADRES DE LOS ALUMNOS/AS DE LA IKASTOLA RESPECTO DE LAS ACTIVIDADES EXTRAESCOLARES QUE SE OFERTAN EN LA IKASTOLA Y EL TIPO DE ACTIVIDADES QUE LES GUSTARÍA POTENCIAR EN EL FUTURO

2. A continuación le presentamos una serie de actividades extraescolares por pares, ¿me podría señalar, en cada uno de los pares que le presentamos, la que más le gustaría que realizaran sus hijos e hijas en el futuro? (*Haga un círculo en la actividad que le gustaría que realizaran sus hijos e hijas*)

Eskupilota- Multideporte (Fútbol, balonmano, rugby...)

Eskupilota-Natación

Eskupilota-Baloncesto

Eskupilota-Educación física

Eskupilota- Mecnografía

Multideporte-Natación

Multideporte-Baloncesto

Multideporte- Educación física

Multideporte- Mecnografía

Natación-Baloncesto

Natación- Educación física

Natación-Mecnografía

Baloncesto-Educación física

Baloncesto-Mecnografía

Educación física-Mecnografía

5.3.1.2. *Ebaluazio eskalak: termometroa eta diferentzial semantikoa edo polaritate Perfila*

Ebaluazio eskalen artean erabilienak dira termometroa eta diferentzial semantikoa edo polaritate perfila.

Termometroa

Inkestuari *continuum* kualitatibo edo kuantitatibo bat aurkezten zaio, eta *continuum* horretan posizio bat hartzeko eskatzen zaio. Bi eratako termome-

troak daude: alde batetik, zenbakiak dituen *continuum* bat aurkeztu ondoren, bere iritziarekin lotzen den zenbakia aukeratzeko eskatzen zaio inkestatuari.

47. ADIBIDEA: zenbakiak dituen termometroa

BERA KURUTZ IKASTOLAKO GURASOEN ATSEGIN MAILARI BURUZKO IKERKETA

14. Orain arte aztertutako arlo guztiak kontuan hartuz, eta 1 puntuazio guztiz ezkorra eta 10 puntuazio guztiz baikorra direla kontuan hartuz, zer nolako nota emango zenioke Ikastolari? (Borobildu zure ustez Ikastolak me-rezi duten nota)

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Puntuazio guztiz ezkorra									Puntuazio guztiz baikorra

Bigarren motako termometroan, zenbakiak agertu ordez erantzun aukera guztiak ematen dira, eta pentsatzen duena adierazteko eskatzen zaio inkestatuari; alegia, bere iritziarekin lotzen den aukera adierazteko eskatzen zaio.

48. ADIBIDEA: idatzizko aukerak dituen termometroa

BERA KURUTZ IKASTOLAKO GURASOEN ATSEGIN MAILARI BURUZKO IKERKETA

5. Nolakoa da, zure ustez, Ikastolak dituen instalazioen (kirola egiteko eta jolasteko tokiak, liburutegia, laborategia, musika gela, informatika gela, bideo gela...) kalitatea?

Oso Ona	1 (6)
Ona	2
Txarra	3
Oso Txarra	4
Ez dakit	9

Polaritate perfila

Termometroarekin bezala, polaritate perfilarekin edo diferentzial semantikoarekin inguruko objektuen dimentsioak neurtzen dira. Polaritate perfila inkestatuengan objektu horiek eragiten duten inpresioa kuantitatiboki neurtzeko prozedura da; hau da, gauza horiei buruz inkestatuek duten imajina atzeman nahi da.

Polaritate perfila egiteko erabiltzen den fitxan, aurkako zentzua duten izenlagunak edo hitzak jartzen dira eta goiko aldean aztertu nahi den estimuluaren izena. Aurkako izenlagunen artean zazpi lauki agertzen dira.

Inkestatuak bere jarrera zehazten du aurkako izenlagun edo hitzen artean dauden laukietan gurutzeak jarritz. Inkestatuak estimuluarekiko duen jarrera adierazi behar du, aurkako izenlagunen artean dauden zazpi laukietariko baten gurutza bat jarritz.

Ondoren aurkezten dugun adibidean, inkestatuak lehendakaria oso txarra dela pentsatzen badu, ezkerreko lehen errenkadan jarriko du gurutza, ez txarra ez ona dela pentsatzen badu erdiko laukian eta ona dela pentsatzen badu eskumako laukian.

49. ADIBIDEA: polaritate perfila

Demagun Ibarretxe Lehendakariaren imajina aztertu nahi dugula; horretarako, ondoren aurkezten dugun bezalako fitxa aurkezten diogu inkestatu bakoitzari eta estimuluarekiko duen jarrera adierazteko eskatzen diogu, aurkako izenlagunen artean dauden zazpi laukietariko baten gurutza bat jarritz.

Ibarretxe Lehendakaria

ona								txarra
egokia								desegokia
orekatua								desorekatua
altua								baxua
gogorra								leuna
astuna								arina
handia								txikia
aktiboa								pasiboa
urduria								lasaia
sutsua								hotza

Kontutan izan aurkeztutako dikotomiek metaforikoki adierazten dituztela objektuaren berezitasunak. Baliteke, zentzu honetan, aztergai den fenomenoarekin harreman asko ez duten metaforak erabiltzea (usoa-otsoa). Dena dela, aurkako metafora hauei emandako erantzunak inkestatuen jarrerak neurtzeko eta hauen artean sailkapenak egiteko balio dute.

«Las dicotomías del perfil de polaridad fueron sometidas por Osgood a un análisis factorial. Osgood quería de esta manera determinar si varias de ellas efectúan la medición en la misma dimensión. La hipótesis resultó ser cierta. Osgood estableció que todas las dicotomías incluidas en su análisis medían preferentemente tres dimensiones a las que denominó: 1.—Valoración, 2.—Fuerza y 3.—Actividad». Mayntz R., Holm K. eta Hübner P.

(1980): *Introducción a los métodos de las sociología empírica*. Madrid, Alianza Editorial, (2. edizioa), 68. orrialdea.

Polaritate perfilean zenbat dikotomi sartu behar direnari buruzko adostasunik ez dago. Erabili beharreko bikote kopurua baino garrantzitsuagoa da aztertu nahi diren dimentsio bakoitzarentzako bikote kopuru berdina erabiltzea.

Emandako erantzunen azterketa egiterakoan, bikote bakoitza zazpi sektoretan banaturik dagoen *continuum* bat bezala hartzen da (zenbaitek «continuum dikotomikoa» kontzeptua erabiltzen dute). Ona-Txarra dikotomiak, adibidez, honako *continuumean* oinarritzen da:

Ona	6	5	4	3	2	1	0	Txarra
	oso	ona	nahiko	ez ona	nahiko	txarra	oso	
	ona		ona	ez txarra	txarra		txarra	

Continuumeko sektore bakoitzari zenbaki bat lotzen zaion heinean, dikotomia bakoitzari emandako erantzunen kontaketa egin dezakegu. Horrekin, pertsona bakoitzak estimuluarekiko duen iritzia jakin genezake. Talde bati buruzko informazioa lortu nahi dugunean, bikote bakoitzean taldekoek emandako erantzunen zenbaketa egin beharra dago, ondoren batezbestekoak ateratzeko.

Polaritate perfil batetik lortutako ondorioak aurkezteko modurik errazena da *perfil grafikoak* irudikatzea. Perfil grafikoa egiteko, lerro baten bitartez inkestatuek bikote guztiei emandako erantzunak edo gurutzeak elkartu behar dira. Gurutzeak elkartuz sortzen den irudia pertsona edo talde horren perfil grafikoa da.

50. ADIBIDEA: Ibarretxe Lehendakariaren perfil grafikoa

Ibarretxe Lehendakaria

Ona	X									Txarra
Egokia			X							Desegokia
Orekatua			X							Orekarik gabea
Altua		X								Baxua
Gogorra		X								Leuna
Astuna						X				Arina
Handia	X									Txikia
Aktiboa		X								Pasiboa
Urduria		X								Lasaia
Sutsua		X								Hotza

Kontuan izan inkestatzaile bakar baten perfilak ez duela informazio askorik ematen. Askoz ere interesgarriagoa da pertsona askoren edo taldeen perfilak elkarrekin irudikatzea, dauden desberdintasunak ikusteko.

Bestalde, era honetako perfiletan oso ondo ikus daiteke zerbaitekiko iritziak izan duen bilakaera. Perfil grafiko berean denbora zehar egindako neurketen irudiak jarri daitezke bilakaera nolakoa izan den erakusteko.

51. ADIBIDEA: Ibarretxe Lehendakariaren perfil grafikoaren bilakaera 2000. urtetik 2001. era

Ibarretxe Lehendakaria

Ona	X	X							<i>Txarra</i>
Egokia	X		X						<i>Desegokia</i>
Orekatua	X		X						<i>Orekarik gabea</i>
Altua	X		XX						<i>Baxua</i>
Gogorra			XX						<i>Leuna</i>
Astuna	X					X			<i>Arina</i>
Handia	X		X						<i>Txikia</i>
Aktiboa	X		X						<i>Pasiboa</i>
Urduria	X		X						<i>Lasaia</i>
Sutsua	X		X						<i>Hotza</i>
		2001	2000						

5.3.1.3. Jarrera eta iritzi eskalak: thursthone-en teknika eta Likert eskala

Jarrerak eta iritziak neurtzeko eskalen artea ezagunenak dira itxuraz baliokide diren interbaloen Thursthone-n Teknika eta Likert eskala.

«El principio es el de una serie de items o estímulos que se van presentando a los sujetos, items relacionados con una actitud determinada (e.g.: actitud patriarcalista del hombre respecto de la mujer (Mayntz), opiniones de universitarios respecto a los problemas actuales de la universidad (Padua), sobre el carácter mixto de la escuela (Díez). Los sujetos deben manifestar su grado de aprobación o desaprobación respecto a esos items». Clemente Díaz, M. (Coord.) (1992): *Psicología Social. Métodos y Técnicas de Investigación*, 302-323 orrialdeak.

Itxuraz baliokide diren interbaloen Thursthone-n Teknika

Thursthonen teknikan, eskala kalera atera aurretik, aditu batzuei zerbairen aldeko eta aurkako baieztapenak aurkezten zaizkie, eta baieztapen hauei buruz duten iritzia emateko eskatzen zaie.

Adituek baieztapen bakoitzak aztertu nahi denarekiko jarrera baikorra edo ezkorra adierazten duen eta zer-nolako indarrarekin adierazi behar dute. Adituek 11 interbalotan banatzen den eskala baten arabera (baikorretik ezkorrrera doan eskala bat) sailkatzen dituzte baieztapenak. Honela, beraz, baieztapen bakoitzarentzat eskala balorea adierazten duen batezbesteko bat eta

baieztapen horrekiko dispertsio neurri bat lortzen ditugu (desbidazio tipikoa, adibidez).

Baieztapen guztietatik dispertsio maila txikiena erakusten dutenak auke-ratzen dira ikerketarako. Hau da, desbidazio tipiko txikiena dutenak.

Adituek emandako erantzunetatik abiatuz eskala prestatu denean, inkes-tatuek baieztapen bakoitza onartzen edo ezeztatzen duten zehaztu behar dute. Baieztapen bakoitzak duen balore eskalarra kontutan hartuz, batezbesteko balore bat ateratzen da. Balore honek inkestatuak objektuarekiko duen ja-rrera adierazten du.

Thursthonen teknika lehen baino gutxiago erabiltzen da jarrerak neur-tzeko. Izan ere, teknika honek duen ahultasunik handiena da: eskalan erabi-liko diren baieztapenak aukeratzeko, adituen ikuspuntu subjektiboetan oina-rritzen dela. Ondoren aurkezten dugun Likert eskalan, adituek ez dituzte eskalan erabiliko diren baieztapenak onartzen edo alboratzen; hau da, baieztapenak ez dira onartzen inoren subjektibitatean oinarrituz, ondorioz, zerbai-tekiko jarrera neurtzeko modu objektiboagoa da.

Likert Eskala

Thursthonen teknikak bezala, Likert teknikak ere jarreran neurtzeko ba-lio du. R.A. Likertek garatu zuen teknika honen bitartez neurketak egiteko zortzi pauso eman behar dira:

1. Pausoa: lehenengo eta behin, neurtu nahi den dimentsioekin harrema-netan dauden baieztapenak idatzi behar dira. Baieztapen hauek neurtu nahi den estimuluarekiko aldeko edo aurkako jarrera adierazi behar dute.

Itemak egiterakoan honako aholku hauek kontutan hartzea beharrezkoa da:

- Lehenaldiari buruzko informazioa ematen duten itemak ekidin. Kon-tuan izan inkestatuen memoriari gehiegi eskatzen dioten baieztapenek ezjakintasun sentsazioa sor dezaketela, eta hori inkestari erantzuteko gaindiezineko oztopoa izan daitekeela.
- Gertaerei buruz gehiegizko informazioa ematen duten itemak ekidin. Era honetako itemak erantzunak bideratu ditzakete.
- Esanahi biko itemak ekidin. Jendea nahastu besterik ez dute egiten.
- Aztartu nahi den jarrerarekin harreman gutxi duten itemak ekidin. Hau da, badaezpada sartzen diren itemak saihestu. Izan ere, ezin dugu es-kala luzeegia egin.
- Baieztapenak aztertu nahi den gaiarekiko jarrera baikor eta ezkor ar-giak adierazi behar dituzte.
- Mundu guztia ados edo mundu guztia aurka dauden itemak ekidin.
- Esaldi luzeegiak ez erabili.
- Esaldi bakunak eta ez konposatuak erabili.
- Ulertzen diren hitzak erabili.

- Ukazioak dituzten, batez ere bi ukazio dituzten, itemak ekidin
- Dena, beti, inoiz ez, inor ez e.a. bezalako hitzak ekidin. Bestela esanda, gauza absolutuak adierazten dituzten baieztapenak saihestu.

Zenbat item jarri behar dira eskalan? Likert eskala batean zenbat item sartu behar direnari buruzko arau zehatzik ez dago. Esan genezakeen gauza bakarra da eskala batean ezin direla 50 item baino gehiago sartu. Izan ere, eskala luzeegia egingo genuke, eta, beraz, oso neketsua izango litzateke item guztiei erantzutea.

Item kopurua baino garrantzitsuagoa da erabiltzen diren item erdiak aztertzen ari garen gaiarekiko aldeko jarrera erakutsi behar dutela eta beste erdiak jarrera ezkorra. Hau da, zerbaitekiko jarrera behar bezala neurtzeko, oreka lortu behar da aldeko eta aurkako item guztien artean.

Nondik ateratzen dira itemak? Aztertzen ari garen gaiaren teoria orokorretatik, gaiarekin harremana duten pertsonen iritzietatik, sakoneko elkarrizketa edota eztabaida taldeetatik lortutako informaziotik, aldizkari edota liburu-erdi eduki azterketatik eta ikertzaileen intuizioetatik.

Behin itemak erabaki ditugunean, inkestatu bakoitzari eskatzen diogu bere iritzia emateko. Batzuetan guztiz ados, ados, ez ados ez aurka, aurka edo guztiz aurka bezalako aukera erantzunak aurkezten dira item bakoitzean. Beste batzuetan, oso garrantzitsua, nahiko garrantzitsua, garrantzi gutxikoa eta garrantzi gabea aukerak agertzen dira.

Eskalan sartuko ditugun item guztiak erantzun aukera berdinak izan behar dituzte. Zentzu honetan, ez dago erantzun aukerei buruzko araurik. Ikerlari batzuk hiru erantzun aukera ematen dituzte eta beste batzuk lau, bost, sei edo zazpi. Esperientziak erakusten digu gehienetan bost aukera ematen direla: guztiz ados, ados, ez ados ez aurka, aurka, guztiz aurka edo guztiz konforme, nahiko konforme, ez alde ez kontra, nahiko kontra eta guztiz kontra.

52. ADIBIDEA: Likert bat egiteko erabilitako eskala

EUSKARARI BURUZKO IKERKETA LEA-ARTIBAICO LANGILEEN ARTEAN

Lea Artibai Eskualdean euskararen ikaskuntza indartzeko eta suspertzeko, eskualde honetako lantegietako langileek euskara ikasi edota hobetzeko dituzten gogo eta jarrerak ikertu, eta, era berean, euskara ikasteko edo alfabetatzeko taldeak sortu daitezkeen ezagutu nahi izan dugu. Azken helburua da lantegietan sortzen diren berezko taldeen artean euskarazko ikastaroak martxan jartzeko dauden aukerak ezagutzea.

Ikerketa egiteko inkestan oinarritu gara. Zehazki, langile bakoitzak bete duen inkesta egituratua erabili dugu. Honela, bada, enpresetako langileen artean inkesta banatu dugu, eta aste baten buruan erantzunda ekartzeko eskatu diegu. Inkestak 1996.eko Abenduko hirugarren astearen hasieran banatu dira.

Inkesta horretan honako likert bat sartu genuen:
 57.G. Segidako esaldiokin nola zaude: guztiz konforme, nahiko konforme, ez alde ez kontra, nahiko kontra ala guztiz kontra?

	Guztiz konforme	Nahiko konforme	Ez alde/ ez kontra	Nahiko kontra	Guztiz kontra	Ed/ee
Hemendik 50 urtera Euskal Herrian denok jakin beharko genuke euskaraz hitz egiten	1	2	3	4	5	6
Benetan euskaldun izateko euskaraz hitz egiten jakin behar da	1	2	3	4	5	6
Euskararekiko interesa moda besterik ez da	1	2	3	4	5	6
Euskara dakitenek beti erabili beharko lukete beren artean, nahiz eta inguruko den-denek ez jakin	1	2	3	4	5	6
Beharrezkoa da Euskal Herrian euskara hutsean egindako egunkaria izatea	1	2	3	4	5	6
Euskal Herriko Administrazio Publikoan sartzeko beharrezkoa izan beharko litzateke euskara jakitea	1	2	3	4	5	6
Ezinbestekoa da haur guztiak euskara ikastea	1	2	3	4	5	6
Ondo iruditzen zait udaletxe batzuk euskara bakarrik erabiltzeko hartu duten erabakia	1	2	3	4	5	6
Euskal Herrian ikusi eta entzuten diren telebista eta irratiak programa askoz gehiago izan beharko litzukete euskaraz	1	2	3	4	5	6
Nahiago dut ingelesa ikasi euskara ikasi edo hobetu baino	1	2	3	4	5	6
Euskaldun gutxi dauden lekuetan, beren artean elkartu eta euskaraz hitz egiteko ekintzak antolatu beharko litzuzke	1	2	3	4	5	6
Euskararekiko benetako interesa dutenek lau zoro besterik ez dira	1	2	3	4	5	6
Haurrek euskaraz ikas dezaten beharrezkoa da aitak edota amak etxean berarekin euskaraz hitz egitea	1	2	3	4	5	6
Jaiotzez euskaldun direnek nahiago dute gerora euskara ikasi dutenekin erdaraz hitz egitea	1	2	3	4	5	6
Euskara jakitea edo ikastea ez da aski, eguneroko bizitzan erabili behar da	1	2	3	4	5	6

Behin baieztapenak ditugunean, inkestatu batzuen artean aurreikerketa bat egin daiteke balio ez duten baieztapenak eskalatik kentzeko; alegia, gaiarekiko jarrera behar bezala neurtzen ez duten baieztapenak

kentzeko. Horrela, ikerketa kaltetu edo distortsionatu dezaketen itemak kentzen dira, eta, bestalde, item kopurua murriztu denez eskala bizkorrago betetzen da.

Dena dela, Likertaren berezitasunetarik adierazgarriena da ez dela beharrezkoa horrelako aurreikerketa bat egitea. Aurreikerketarik egin gabe ere teknikak berak alboratzen ditu balio ez duten baieztapenak, eta ez dira kontutan hartzen azken kontaktetan.

2. Pausoa: baieztapen bakoitzarentzako prestatu ditugun erantzun aukerei zenbakiak egokitzea.

Zenbakiak egokitzea eskala egin aurretik zein ondoren egin daiteke (ia beti eskala egin aurretik egiten da). Dena dela, kontutan izan behar da zenbakiak jarreraren zentzu berean jarri behar direla beti. Baieztapenak esaten duena esaten duela, zenbat eta zerbaitekiko aldeko jarrera handiagoa izan, gora egingo dute zenbakiak. Aldiz, zenbat eta zerbaitekiko aurkako jarrera indartsuagoa izan, behera egingo dute zenbakiak.

Ondoren, inkestatu bakoitzak item guztiei emandako erantzunak zenbatu eta batu egiten dira. Itemak 1etik 4ra zenbatuta baditugu eta 40 item badaude, puntuazio gorena, edo berdin dena, jarrera baikorrena 160 puntu dira eta txikiena edo jarrera ezkorrena 40 puntu.

3. Pausoa: dimentsio bakarraren froga. Pauso garrantzitsuena da. Izan ere, baieztapen guztiak aztertzen ari garen dimentsioarekin edo gaiarekin loturik dauden egiaztatzen da. Hau da, item horiek aztertzen ari garen jarrera aztertzeko balio duten edo ez aztertzen dugu. Honekin, ikerketarako balio ez duten itemak kenduko ditugu. Ikerketarako balio ez duten baieztapenak bilatzeko eta kentzeko hiru pauso eman behar dira:

- Baieztapen bakoitzari emandako puntuazioaren batuketa eginez, inkestatu bakoitzaren puntuazio totala ezagutu behar da. Ondoren, inkestatu guztien artetik puntuazio gorena izan duen %25 eta puntuazio txikiena izan duen %25 aukeratzen dira. Hots, lehen eta laugarren kuartila aukeratzen dira. Talde bi hauek balio duten itemak ezagutzeko alderatuko diren goiko eta beheko taldea izango dira.
- Hau egin ondoren, lehen eta laugarren kuartilak baieztapen bakoitzari emandako erantzunak aztertzen dira. Aztertzen ari garen dimentsioa neurtzeko balio duen baieztapena bada, «goiko taldeak» baieztapen horri eman dion batezbesteko puntuazioa, «beheko taldeak» eman dion batezbesteko puntuazioa baino askoz altuagoa izan behar da. Hau da, goiko eta beheko taldeen erantzunen batezbestekoak oso desberdinak izan behar dira. Honela, bada, baieztapen bakoitzaren batezbesteko balorea ezagutu behar da beheko zein goiko taldearentzat.
- Ondoren, test estatistiko baten bitartez, batezbesteko balore bi hauen artean desberdintasun adierazgarririk dagoen egiaztatzen da. Horretara

rako, ia gehienetan t *student* froga erabiltzen da. Zentzu honetan, baieztapen bakoitzarentzako t balore bat lortu behar dugu.

Demagun, azken eskala egiteko 20 baieztapen hartu behar direla baka-
rrik. Horretarako bi irizpide erabili ditzakegu:

- Alde batetik, t balio handienak dituzten baieztapenak hartu ditzakegu. Hau da, populazioa hobekien diskriminatzen duten baieztapenak.
- Beste irizpide bat da maila bat gainditzen duten t *student* koefizien-
teak dituzten baieztapenak hartzea. Maila hau faktore bik zehazten
dute: libertate graduak (d.f.) eta adierazgarritasun edo konfiantza mai-
lak. Adierazgarritasun maila ikerlariak berak zehazten du. Ia gehienu-
tan %95eko edota %99ko konfiantza mailarekin lan egiten da.

4. Pausoa: inkestaturen puntuazioen kalkulua. Azken pauso oso bizkor egiten da. Izan ere, onartu diren baieztapenetatik abiatuz inkestatu bakoitzak atera dituen puntuazioak biltzen dira, eta, ondoren, puntuazio orokorrak ateratzen dira. Horrela, jarreraren adierazle kuantitatiboa ateratzen da.

5.4. Eskalen fidagarritasuna eta balioa

Edozein ikerketan bezala, indizeak eta bereziki eskalak erabiltzen ditu-
gunean ere, galdera hauei erantzun behar diegu: fidagarria da erabilitako es-
kala? Konsistentea da? Ikerlariak nahi izan duena neurtu du? Baliagarria da
eskalaren bitartez lortutako informazioa?

5.4.1. TRESNAREN FIDAGARRITASUNA

Eskala bat fidagarria da behin baino gehiagotan erabili ondoren kon-
sistentea denean; hots, ondorio berdinetara eramaten gaituenean.

Eskalaren fidagarritasuna ezagutzeko metodo desberdinak daude. Guk
hemen test-retest metodoa, forma alternatiboen metodoa, bi erdien metodoa
eta Crombachen Alfa aurkeztuko ditugu:

Test-retest metodoa: metodo honen bidez, talde berari eskala bera
aplikatzen zaio bi momentu desberdinetan, eta lortutako ondorioak berdi-
nak diren ikusten da. Pearsonen korrelazio koefizientea erabiliz, bi mo-
mentuetan lortutako emaitzen artean korrelazioa (-1 -etik $+1$ -era doana)
neurtzen da, eta ateratzen den koefizientea tresnaren fidagarritasunaren
neurri gisa erabiltzen da.

Metodo honen arazoetariko bat da erabilitako eskala aplikatzen dene-
tik bigarrenez aplikatzen den arte pasatzen den denboran taldearen osa-
keta aldatu daitekeela, eta, ondorioz, metodo honek ezer gutxirako balio
dezakeela.

Bestalde, metodo honen beste arazo garrantzitsua da talde berari bigarren ikerketa bat egitea garestiegia dela, eta, ia gehienetan, hori egiteko ez dela denborarik izaten.

Forma alternatiboen metodoa (alternative-form method): aurreko metodoan bezala, aztergai den fenomeno bi aldiz neurtzen da, baina kasu honetan eskala desberdinak erabiltzen dira. Ikergai den fenomeno eskala desberdin birekin neurtzen da, eta, ondoren, bide desberdin bietatik ondorio berdinetara heldu garen aztertzen da. Dena dela, kontu handiz ibili behar da metodo honekin. Izan ere, oinarrian onartzen dena da eskala biek gauza bera neurtzen dela. Zentzu honetan, metodo hau erabilgarriagoa da eskalen homogeneotasuna neurtzeko hauen fidagarritasuna neurtzeko baino. Hau da, metodo egokia da bi eskalek dimentsio bera neurtzen duten jakiteko.

Bi erdien metodoa (split-half metod): metodo honen arabera, eskala bi zati berdinetan zatitzen da, eta zati bakoitzean lortzen diren ondorioen arteko korrelazio koefizientea ateratzen da. Koefiziente honek eskalaren fidagarritasuna neurtzeko balio du. Zentzu honetan, korrelazio txikiak lortzen baditugu fidagarritasun gutxiko tresnaren aurrean gaude, eta alderantziz. Eskala banatzerakoan alde batetik item bakoitiak eta bestetik bikoitiak biltzen baditugu, odd-even metodoaren aurrean gaudela.

53. ADIBIDEA: bi erdien metodoa SPSS programan

Reliability Analysis - Scale (SPLIT)

Reliability Coefficients

N of Cases =	20,0	N of Items =	4
Correlation between forms =	,2538	Equal-length Spearman-Brown =	,4049
Guttman Split-half =	,3736	Unequal-length Spearman-Brown =	,4049
2 Items in part 1		2 Items in part 2	
Alpha for part 1 =	-,2133	Alpha for part 2 =	,2267

Adibide honetan, «Guttman Split-half» delakoa 0,3736 da. Pearsonen r -1etik +1era doala kontuan hartzen badugu, erabilitako eskala ez dela oso fidagarria ondorioztatu behar dugu.

Crombachen Alfa: estatistiko honek interpretazio desberdinak ditu, baina oinarrian item guztien arteko batezbesteko korrelazioan oinarritzen da, bateko desbidazio tipikoa izateko item guztiak estandarizatu ondoren.

Alfa-k 0 eta 1 arteko balioak hartu ditzake, eta negatiboa da erabiltzen ditugun itemak elkarrekiko harremanetan ez daudenean, eta, beraz, eskalak fidagarritasun gutxi duenean. Zenbat eta gehiago hurbildu batera are eta fidagarriagoa da erabilitako eskala.

54. ADIBIDEA: Crombachen Alfa SPSS programan

Reliability Analysis - Scale (ALPHA)

Reliability Coefficients

N of Cases =	20,0	N of Items =	3
Alpha =	-,2115		

Alfa negatiboa dela kontuan hartzen badugu (-0,2115), eskala honek fidagarritasun gutxi duela ondorioztatu beharrean gaude.

Teknika bakoitzak fidagarritasuna hobetzeko trikimailu desberdinak erabili behar ditu. Hala ere, honako aholku hauek baliagarriak izan daitezke eskalen fidagarritasuna hobetzeko:

- Itemak modu argian aurkeztu behar dira. Zentzu honetan, aldez aurretik ziurtatu behar dugu informazioa biltzeko erabiliko ditugun eskalek behar bezala funtzionatzen dutela, eta, horretarako, onena pretest bat egitea da.
- Mundu guztiak ulertzen dituen hitzak eta kontzeptuak erabili behar dira.
- Erreakzio arazoak gutxitu egin behar dira. Elkarrizketatzaileen eragina ahal bezainbeste gutxitu behar da.
- Kodifikatzaileek eta informazioa ordenagailuan sartzen dutenek euren lana era egokian egiten dutela ziurtatu behar dugu. Horretarako, ikerketan parte hartuko duten guztiei (inkestatzaileei, datuak ordenagailuan sartuko dituztenei...) gauzak nola egin behar dituzten erakutsi behar diegu.

5.4.2. ESKALEN BALIOA

Eskala bat fidagarria da behin baino gehiagotan erabili ondoren ondorio berdinetara eramaten gaituenean. Balioak, bere aldetik, neurketarako erabiltzen den eskalaren eta neurtu nahi den kontzeptuaren arteko loturarekin zerikusia du. Edo gauza bera dena, eskala bat baliagarria da ikertzaileak neurtu nahi duena neurtzen duenean.

Eskalen balioa neurtzea fidagarritasuna neurtzea baino zailagoa da. Hala ere, metodo batzuk daude eskaletatik lortutako informazioaren balioa ezagutzeko. Besteak beste, itxurazko balioa edo adituen balioa, edukiaren balioa, barne koherentziaren balioa, balio enpirikoa, talde ezagunaren testa eta aurreikuspen balioa aipatu behar ditugu.

Itxurazko balioa edo adituen balioa (Face Validity edo Expert Validity): aditu talde batek zehazten du prestatu dugun eskala baliagarria den edo ez. Horretarako, aditu talde honek neurtu nahi diren aldagaiek edo kon-

tzeptuek lortutako informazioarekin loturarik duten aztertzen dute. Ikerlariak ikertu nahi denaren eta lortutako datuen artean lotura dagoela adosten badute, erabilitako eskalak itxurazko balioa edo adituen balio du. Metodo hau guztiz subjektiboa da, eta ezin da enpirikoki frogatu.

Edukiaren balioa (Content Validity): ikertu nahi diren aldagaien edo kontzeptuen esanahia zehaztu ondoren, horiek neurtzeko sortu den eskalak aldagai edo kontzeptu horren arlo guztiak kontuan hartzen dituela ziurtatu behar da. Tamalez, Gizarte Zientzietan erabiltzen diren kontzeptu eta aldagai asko oso abstraktuak dira (abertzaletasuna, gizarte mailak...), eta, beraz, arazoak izaten dira euren esanahiak zehazterakoan. Hala, metodo hau gutxi erabiltzen da Gizarte Zientzietan.

Barne koherentziaren balioa (Construct Validity): gure ikerketan neurtu dugun aldagai edo kontzeptu bat beste aldagai edo kontzeptu batekin harreman zuzenean dagoenean, edo, gauza bera dena, aldagai edo kontzeptu baten neurketa bestearen neurketarekin loturik dagoenean, harreman hau guk prestatutako eskalaren balioa ezagutzeko erabili genezake. Zentzu honetan, aldagai edo kontzeptu bi hauek neurtu ondoren inolako harremanik ez dutela ikusten badugu, balio gutxiko eskalaren aurrean gaude, eta, beraz, kontu handiz hartu beharko ditugu ondorioak.

Balio enpirikoa: eskalen balioa ezagutzeko gehien erabiltzen den metodoa da. Ikergai den kontzeptu edo aldagai konplexua neurtzeko aldagai edo kontzeptu desberdinak erabiltzen dira. Talde baten liberalismo maila neurtzeko eskola-autobusarekiko jarrera, ongizate estatuarekiko jarrera, atxilotuen eskubideei buruzko jarrera, gastu militararekiko jarrera...neurtzen dira, eta lortutako emaitzen arteko harremanak aztertzen dira. Neurketa desberdinen artean korrelazioa badago eskala baliagarri baten aurrean gaude.

Talde ezagunaren testa (Known groups): sortutako testean balio oso altuak edo oso baxuak dituztenen (Known group) erantzunak aztertzen dira, eta ateratzen diren emaitzak lortutako batezbestekoarekin alderatzen dira. Zenbat eta desberdinagoak izan alderaketan lortutako emaitzak are eta eskala baliagarriagoa da.

Aurreikuspen balioa (predictive validity): eskala batetik lortutako emaitzetan oinarrituz inkestatuen portaerari buruzko ondorioak ateratzen dira, eta, ondoren, ustezko portaera horiek pertsona horien benetako portaerarekin alderatzen dira. Erabilitako eskala baliokoa da portaera bien artean korrelazioa badago. Froga honen arazoetariko bat da askotan ez dagoela harreman zuzenik jarrera eta portaeraren artean. Bestalde, askotan ez da izaten inkestatuen benetako portaerari buruzko informaziorik, edo lortzeko beste ikerketa bat egin behar izaten da, eta hori oso garestia da.

Eskalatik lortutako informazioaren balioa ezagutzeko metodo desberdinak aurkeztu baditugu ere, kontuan izan behar da hauetariko batek ere ez duela balioa zehatz-mehatz neurtzen. Aurretik esan bezala, gizakien eta taldeen berezitasunak neurtzen ari garenean, inoiz ere ez gaude ziur nahi duguna neurtzen ari garen.

Eskaletatik lortutako balioa hobetzeko badaude estrategia batzuk. Besteak beste, honako aholku hauek interesgarriak izan daitezke egiten ditugun ikerketen balioa hobetzeko:

- Aurretik beste ikerketa batzuetan arrakastaz erabili izan diren eskalak erabili.
- Datuak biltzen hasi aurretik, interesgarria da erabiliko ditugun eskalak ikerketatik kanpo dauden beste pertsona batzuei erakustea.
- Ikerketaren barne konsistentzia ezagutzeko, lortutako ondorioak eta emaitzak beste ikerketa batzuetatik lortutako ondorioekin eta emaitzeekin alderatu behar dira.

VI

Sakoneko elkarrizketa

«La entrevista nace de una ignorancia consciente por parte del entrevistador quien, lejos de suponer que conoce, a través de su comportamiento exterior, el sentido que los individuos dan a sus actos, se compromete a preguntárselo a los interesados, de tal modo que éstos puedan expresarlo en sus propios términos y con la suficiente profundidad para captar toda la riqueza de su significado».

Ruiz Olabuenaga, J.I. (1996): *Metodología de la investigación cualitativa*

Zenbakietan, koefizienteetan eta estatistiketan oinarritzen diren ikerketa tekniken aurrean, fenomenoek esanahiak sakonean aztertzen dituzten teknikak ditugu; alegia, adierazgarritasuna ziurtatu ezin duten baina zenbakien azpian ezkutatzen den informazio konplexu eta aberatsa sakonean ezagutzen laguntzen diguten teknikak.

Horrelako teknika bat da sakoneko elkarrizketa. Izan ere, teknika honen bidez elkarrizketatuarentzat garrantzitsua eta adierazgarria dena ezagutu daiteke. Elkarrizketa oinarritzat hartuz, elkarrizketatuak bere mundua, bizitza zein ondo ezagutzen duen arlo edo gai bat nola ikusten, sailkatzen eta bizitzen duen ezagutu daiteke.

6.1. Zer da sakoneko elkarrizketa?

Sakoneko elkarrizketa informazioa lortu asmoz elkarrizketatu baten eta elkarrizketagile baten artean egiten den elkarrizketa profesionala da.

Pertsona biren eta bakarrik biren artean egiten den elkarrizketa da. Sakoneko elkarrizketak eskatzen duen lasaitasun eta etxekotasun egoera apurto egingo litzateke elkarrizketan elkarrizketagile batek baino gehiagok parte hartuko balukete; izan ere, elkarrizketagile biren aurrean elkarrizketatuaren

segurtasun falta edota mendetasun egoera areagotu egingo lirateke. Elkarrizketagile birekin elkarrizketak itaunketa polizialaren itxura hartu dezake, eta hori txarra da elkarrizketa baliagarriak lortzeko.

Era berean, elkarrizketagile bakar batek ezingo lituzke pertsona bat baino gehiago aldi berean behar bezala elkarrizketatu. Galderekin eta erantzunekin nahastea sortzeaz gain, teknikak eskatzen duen anonimataua kaltetua geldituko litzateke, eta hori baliorik gabeko informazio eta datuen sorrera izan daiteke.

«Taylor y Bogdan definen la entrevista en profundidad como “encuentros reiterados, cara a cara, entre el investigador y los informantes, encuentros éstos dirigidos hacia la comprensión de las perspectivas que tienen los informantes respecto de sus vidas, experiencias y situaciones, tal como las expresan con sus propias vidas (1984, p. 101), en las cuales el entrevistador, lejos de asimilarse a un robot recolector de datos, es el instrumento de la investigación y no lo es un protocolo o formulario de entrevista”». Ruiz Olabuenaga, J.I. eta Ispizua, M.A. (1989): *La descodificación de la vida cotidiana*. Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 126. orrialdea.

Sakoneko elkarrizketetan etxekotasun edo lagunarteko harremana lortu behar da; alegia, konfiantzazko harremana. Zentzu honetan, elkarrizketa ez da ondo aterako elkarrizketatuaren eta elkarrizketagileren artean mesfidantza badago, mendetasun harremana sortzen bada edo elkarrizketa susmo txarrekin hasten bada. Era berean, kontuan izan gogo gabe eta konpromisoz egiten diren elkarrizketek informazio gutxi ematen dutela. Beraz, behar bezalako elkarrizketek elkarrizketatua lasai eta motibatuta egotea eskatzen dute.

Lagunarteko edo etxekotasun harremanak ez du esan nahi, dena dela, elkarrizketa profesionala izan behar ez duenik. Sentimenak eta iritzi pertsonalak ahal den informazio zehatz eta fidelenarekin nahastu behar ditugu. Hots, lortutako informazioa kontrolatu egin behar da.

Elkarrizketa era kontrolatuan eta ez era inprobisatuan egin behar da. Horrek esan nahi du aztertu nahi ditugun gaiak biltzen dituen gidoi bat erabili behar dugula. Gidoia elkarrizketan zehar ez galtzeko eta hitz egin beharreko gai guztiei buruz hitz egiteko erabiliko dugun tresna da. Dena dela, gidoia ez dugu era zurrunean jarraituko. Elkarrizketak hartzen duen norabidearen arabera, aldatu egin daitezke gidoian aurreikusten genuen ordena. Hori bai, gidoian agertzen diren gai guztiei buruz hitz egiten saiatu beharko gara.

Gizarte Zientzietan, askotan erabiltzen da sakoneko elkarrizketa. Teknika honen baitan sortzen den konplizitatea edo etxekotasun egoera oso egokiak dira anonimataua edo intimitatea eskatzen duten gaiak aztertzeko.

6.2. Sakoneko elkarrizketen abantailak eta desabantailak

Antzerakotasun asko daude sakoneko elkarrizketen eta inkesten artean. Biek ere gizakien ikuspuntu, jarrera edota portaerei buruz era sistematiko eta

kontrolatuan galdetzean oinarritzen dira. Dena dela, sakoneko elkarrizketek badituzte inkestek ez dituzten abantaila eta desabantaila batzuk.

Sakoneko elkarrizketen abantailak

- Sakoneko elkarrizketetan sortzen den konplizitatea edo etxekotasun egoera oso egokia da anonimata edo intimitatea eskatzen duten gaiak aztertzeko. Oso teknika ona da, adibidez, erakunde baten barne egitura (nork hartzen ditu erabakiak?), oso pertsonalak diren gaiak (persona baten sozializazio politikoa), tabuekin loturiko gaiak (prostituzioa) edo klandestinitatearekin loturiko gaiak aztertzeko (muturreko eskumari edo joera faxistak dituzten taldeen portaera aztertzeko). Esku artean daukagun gaia modu agerian aztertzeko zentzuzkoa eta arazo gehiago izan, are eta gomendagarriagoa da sakoneko elkarrizketa erabiltzea.
- Aztertzeko diren gaien arrazoiak, zergatiak edota ondorioak sakonean ezagutzeko, eta informazio aberatsa lortzeko aukera ematen du. Sakoneko elkarrizketak zenbakien azpian ezkutatuak diren informazio konplexua hobeto ezagutzen laguntzen du.
- Teknika oso ona da gai bati buruz informazio gutxi daukagunean edo ikerketa esploratorio bat egin nahi dugunean. Gaiari lehen hurbilpena egiteko, oso ona da gaiari buruz dakitenekin edo adituekin sakoneko elkarrizketak egitea.
- Elkarrizketak ikerlariak berak egin ditzakeen heinean, beste teknika batzuk baino merkeagoa izan daiteke.

Sakoneko elkarrizketen desabantailak

- Elkarrizketan oinarritzen den teknika izanik, elkarrizketatuek arazoak izan ditzakete euren iritziak behar bezala egituratzeko eta azaltzeko. Jende oso nagusiak edo umeeak, adibidez, arazoak izan ditzakete euren iritziak adierazteko.
- Nahiz eta etxekotasun edota lagunarteko egoera sortu behar dela esan, ikerlaria elkarrizketatuaren menpe dago, ia gehienetan. Gerta daitekeena da, beraz, elkarrizketatuak ez duela eman nahi ikerlariarentzako garrantzitsua den informazioa, edo ez dakiela garrantzitsua den informazio hori nola adierazi; beraz, informazio gabe gelditzeko arriskua dago. Era berean, gogoratu elkarrizketatuak zehazten duela zer den garrantzitsua eta zer ez, eta ematen digun informazioa berak nahi duenaren arabera dagoela.
- Elkarrizketagile bat dagoen heinean, erabiltzen den teknikak eragina izan dezake elkarrizketatuarengan. Elkarrizketagilearen itxurak, galderak egiteko moduak, ahotsak e.a. eragina izan dezakete elkarrizketatuaren erantzunengan, eta hori balio gabeko datuen sorrera izan daiteke.

6.3. Sakoneko elkarrizketa motak

Sakoneko elkarrizketak era askotara sailkatu daitezke. Alde batetik, gai asko aztertu nahi dituzten elkarrizketen eta gai zehatz bat aztertu nahi duten elkarrizketen artean desberdindu behar da; alegia, sakoneko elkarrizketa holistikoen eta fokatuaren artean (Mertonen arabera azken hauek *focused interview* dira). Elkarrizketa holistikoetan gai desberdinei buruz hitz egiten da. Fokatutako elkarrizketan gai bakar bat aztertzen da sakonean.

Bestalde, elkarrizketa zuzenduen eta ez zuzenduen artean desberdindu dezakegu. Elkarrizketa zuzenduetan elkarrizketatuak elkarrizketaren ekimen guztia zuzentzen, erabakitzen edota zehazten du. Gidoitik inola ere atara gabe, elkarrizketagileak galderen gai, ordenu eta agerpen eskema zehatz eta zurrana jarraitzen du. Ia gehienetan, kazetariak egiten dituzten erako elkarrizketak dira.

Elkarrizketa ez zuzenduetan, aldiz, elkarrizketatuak zehazten du elkarrizketak eramango duen abiadura, hitz egingo diren gaien ordena eta, oro har, elkarrizketaren norabide orokorra. Nahiz eta gidoi bat egon, elkarrizketatuak agintzen du.

Irizpide bi hauen arabera lau eratako elkarrizketa tipoekin aurkitzen gara: elkarrizketa holistikoa eta zuzendua, elkarrizketa holistikoa eta ez zuzendua, elkarrizketa fokatua eta zuzendua eta elkarrizketa fokatua eta ez zuzendua. Kontuan izan lau elkarrizketa hauek tipo idealak direla, eta errealitatean egiten ditugunak elkarrizketa mota hauen guztien berezitasunak dituztela.

		Elkarrizketaren orokortasun mailaren arabera	
		Holistikoa	Fokatua
Elkarrizketagileak zuzentzen duen mailaren arabera	Zuzenduak	Elkarrizketa holistikoa eta zuzendua	Elkarrizketa fokatua eta duen kontrol
	Ez zuzenduak	Elkarrizketa holistikoa eta ez zuzendua	Elkarrizketa fokatua eta ez zuzendua

6.4. Sakoneko elkarrizketa egiteko zenbait arau

Sakoneko elkarrizketen oinarritzko abiapuntua zera da: kanpo portaeraren bitartez ezin dugula gizakiek euren portaerei ematen dioten sakoneko esanahia ezagutu, eta, ondorioz, esanahia hori behar bezala eta bere sakontasunean ezagutzeko biderik onena gizakiei galdetzea dela.

Dena dela, sakoneko elkarrizketan galderak behar bezala egin eta balioko informazioa ateratzeko, arau batzuk jarraitu behar dira. Besteak beste,

gidoi egoki bat prestatzen, elkarrizketatuarekin etxekotasun eta lasaitasun harremana garatzen, elkarrizketa egiteko toki egoki bat bilatzen eta informazioa ondo gordetzen jakin behar dugu.

6.4.1. SAKONEKO ELKARRIZKETAREN GIDOIA

Sakoneko elkarrizketetan ezin ditugu elkarrizketaren eduki zehatzak, erritmoa eta ordena aldez aurretik zehaztu; izan ere, elkarrizketa egin aurretik, ez ditugu elkarrizketatuaren esanahiak, ideiak, balore hierarkia e.a. eza-gutzen. Hala ere, beharrezkoa da sakoneko elkarrizketa gidatuko duen gidoia prestatzea. Gidoi hau ikertzaileen intuiziotik, dauzkagun hipotesietatik, gaiarekin harremana duten pertsonen iritzietatik, irakurritako teorietatik eta aurretik egindako elkarrizketetatik aterako dugu.

Gidoian aztertuko diren gaiak edota egingo diren galderak agertzen dira, baita gai edo galdera multzo bakoitzari emango zaion denbora ere. Izan ere, gidoiak denbora kontrolatzen eta garrantzitsua dena eta ez dena desberdintzen laguntzen digu. Gidoiarekin elkarrizketaren egitura, erritmoa eta gai bakoitzaren luzera zehazten dira. Denbora zehatz-mehatz kontrolatzea zaila dela onartuta ere, ezinbestekoa da gutxi gorabehera gai bakoitzarekin zenbat denbora eongo garen zehaztea.

Gidoia elkarrizketan zehar norabidea ez galtzeko erabiliko dugun tresna da. Dena dela, elkarrizketatuak beste norabide bat hartzen badu (gidoian agertzen diren gaien barnean beti ere), edota gai baten inguruan guk aurreratu genuen baina denbora gehiago pasatzen badu, errespetatu egin beharko dugu.

Gidoia sarrera edo aurkezpenarekin hasi behar da. Bertan, elkarrizketagilearen aurkezpena egin eta emandako informazioaren anonimotua ziurtatu ondoren, ikerketaren helburuak, datuei emango zaion erabilera, ikerketa egiteko sakoneko elkarrizketa aukeratzearen arrazoia, ikerketa ordaintzen edo laguntzen duen erakundearen izena, elkarrizketak iraungo duen denbora eta, oro har, elkarrizketatuari konfiantza eman diezaioketen informazio guztiak agertu behar dira. Ez ahaztu etxekotasun eta lasaitasun egoera ezinbestekoak direla sakoneko elkarrizketak behar bezala egiteko, eta, horretarako, hasiera on bat beste ezer baino garrantzitsuagoa dela.

Honekin batera, kontuan izan sarrera honetan hobe dela beste pertsona batzuen izenak ekiditea. Horrela eginez gero, aurreiritziak sortu ditzakegu edota elkarrizketa bideratu dezakegu. Hau da, gaiari buruzko iritziaren arabera baino gehiago pertsona horrekiko iritziaren arabera erantzuteko arriskua dago.

Oso ondo aukeratu behar dira sarreran eta, oro har, elkarrizketan zehar erabiliko diren hitzak. Hitz teknikoegiak, informalegiak edota gutxi erabiltzen direnak saihestu behar dira. Izan ere, elkarrizketatua nahasteko arriskua dago. Oso kontuan izan behar da zer-nolako jendeari egingo zaion elkarriz-

keta, eta, ahal den neurrian, euren ezagutza eta maila intelektualari egokitzen zaien hitzak eta kontzeptuak erabiltzen saiatu beharko gara.

Behin sarrera egin ondoren, gaiak, galderak edo aztertu nahi diren arloak aurkezten hasiko gara, kontuan izanik arlo bakoitza aztertzeko denbora mugatua daukagula. Gai batean denbora gehiegi pasatzen badugu, beste gai batzuk aztertzeko denbora faltako zaigu. Ez da ahantzi behar ordu bat eta bi arteko denbora daukagula elkarrizketa egiteko. Ordu bi pasatu ondoren, elkarrizketatua nekatuegi egoten da gauzak behar bezala azaltzeko eta informazio egokia emateko.

Gidoia da elkarrizketan zehar ez galtzeko erabiliko dugun tresna. Dena dela, onartu egin behar dugu elkarrizketatuak gure gidoia jarraitzen ez badu. Libre utzi behar da elkarrizketatua, galderak berak nahi duen ordenan erantzun ditzan, berak nahi dituen gaiei buruz hitz egin dezan eta berak nahi duen denbora erabili dezan. Hori bai, galderen erritmoa eta ordena aldatuta ere, gidoian aurreikusi ditugun gai guztiei buruz hitz egin beharko dugu. Beraz, gaitik desbideratzen garen bakoitzean era sotil batean hitz egin ez diren gaientara ekarri beharko dugu elkarrizketatua.

Gidoiaren laguntzarekin, elkarrizketatuaren mundu sinbolikora apurka-apurka hurbilduko gara. Hasieran, galdera orokorrak egingo ditugu, eta elkarrizketa aurrera doan heinean, aztertu nahi dugun esperientziaren gunea, edota aztertu nahi den portaera eta esperientziei ematen zaion sakoneko esanahia ezagutuko ditugu; beste hitz batzuekin esanda, elkarrizketatuaren mundu sinbolikora hurbilduko gara. Inbutu baten antzera, galdera orokorretatik gero eta zehatzagoetara pasatuko gara. Apurka-apurka, elkarrizketa zehazten joango da, eta elkarrizketatuaren erantzunak ere aberatsagoak eta sakonagoak izango dira. Era orokorrean hasi den elkarrizketa zehaztuz joango da.

Sakoneko elkarrizketak elkarrizketatuaren subjektibotasuna bilatzen du; beraz, elkarrizketagileak alde batera utzi behar du jarrera objektibo edota neutrala, eta elkarrizketatuarekiko enpatia jarrera hartu behar du. Areago, elkarrizketatuak elkarrizketagilearen iritzia eskatzen badio elkarrizketatuari eman egin behar dio.

Enpatia jarrera honek ez du esan nahi elkarrizketagileak elkarrizketatuak esan dituenak egiaztatu behar ez dituenik. Sentimendu eta iritzi pertsonalentzako tokia egon behar bada ere, ahal bezain informazio zehatzena eta egiazkoena lortzen ahalegindu behar du elkarrizketatuak. Alegia, lortzen goazen informazioa kontrolatu egin behar da denbora guztian.

Bestalde, elkarrizketagileak ezin du nahi duena nahi duenean galdetu. Horrela egingo balu, elkarrizketaren erritmoa era bortitzean aldatuko luke, baita sakoneko elkarrizketak eskatzen duen egoera lasaia apurtu ere. Gogoratu, etxekotasun eta lagunarteko egoera ezinbestekoak direla informazio ona lortzeko.

55. ADIBIDEA: sakoneko elkarrizketa egiteko gidoi baten adibidea

EFFECTOS Y ACTITUDES DE LA INFANCIA Y DE LA JUVENTUD ANTE LAS NUEVAS TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN: GUIÓN PARA ENTREVISTAS EN PROFUNDIDAD CON PADRES

El entrevistador guiará el discurso de los padres fundamentalmente hacia los aspectos de los hijos relacionados con su vida en el hogar aunque también nos interesa que nos den su opinión, aunque sea de forma vicaria, de lo que ocurre en el ámbito escolar.

Introducción

- Presentación del entrevistador.
- Explicaciones sobre el proyecto: objetivos, razones de la técnica que se utiliza, financiación a cargo de la UPV-EHU...
- Garantía de anonimato de las respuestas
- Permiso para grabar la entrevista.

1. Equipamiento tecnológico en el hogar (10 minutos)

- ¿Qué equipamiento hay en casa: televisión (normal, parabólica, individual o colectiva, por cable), vídeo, videojuegos, ordenador, internet, juegos electrónicos, etc.?
- Ubicación de cada uno de ellos
- Uso de cada uno de ellos: ocio-estudio
- Función que cumplen cada uno de ellos
- Tiempo de utilización
- Personas que acompañan en el uso de los diferentes equipamientos
- Actitud de los miembros familiares ante el equipamiento tecnológico

2. Información sobre el tiempo de ocio de los hijos/as en el hogar (35 minutos)

- ¿Qué hacen los niños en el tiempo de ocio?
- Lugar que ocupan tareas como clases de idiomas, música, parroquia, etc.
- Cuáles son los pasatiempos favoritos de los niños.
- ¿Qué soportes tecnológicos utilizan y consumen? televisión, video casero, video de tienda, videojuegos caseros, videojuegos de salas de juegos, ordenadores, juegos electrónicos, etc.
- ¿Qué días de la semana?
- ¿A qué horas?

3. Equipamientos para estudio en el hogar y en el colegio (15 minutos)

- ¿Qué equipamientos usan para los estudios en el hogar y en el colegio: televisión, vídeo, ordenador, internet?
- ¿Por qué los utilizan?
- ¿Cuánto tiempo los utilizan?
- ¿Quién les ha enseñado a utilizarlos?
- ¿Cómo se valoran? Aportan algo, son útiles, son complicados, etc.
- ¿Con quién los utilizan?

4. Creencias, valores y actitudes (20 minutos)

- Creencias, valores y actitudes generales que imperan en la juventud actual (6-17 años)
 - Diferencias por grupos de jóvenes: edad, extracción, sexo, hábitat, estatus, etc.
 - Creencias, valores y actitudes que imperan en los hogares vs. aquellos que imperan en los colegios, ¿son los mismos?
 - Héroes y heroínas de los jóvenes
 - Utilidad de los nuevos medias
 - Para qué sirven los nuevos y viejos media
 - Cómo se valoran: aportan algo, son útiles, son complicados
 - ¿Cómo los perciben?
 - ¿Qué utilidades tienen para ellos?
 - ¿Ayudan a relacionarse?
 - ¿Sirven de refugio?
 - ¿Se les puede considerar de la familia?
 - ¿Son amigos?
 - ¿Con quién asocian los jóvenes/chavales los nuevos y los viejos medias?
 - ¿Cómo ven estos jóvenes a sus iguales (compañeros y hermanos), a los padres, a los educadores y a la sociedad en general?
 - ¿Cómo se relacionan con ellos?
 - ¿Cómo son los jóvenes en relación a:
 - Actividad-pasividad
 - Creatividad-rutinización
 - Tolerancia-intolerancia
 - Espiritualidad-materialismo
 - Violencia-pacifismo?
 - ¿Hay cambio en la vigencia de estos valores? ¿hay tendencias?
 - Papel que juegan las nuevas tecnologías, los nuevos «medias» en los valores, creencias y actitudes del conjunto de los jóvenes.
 - Conversaciones con padres, hermanos o amigos en relación a contenidos de televisión, cambio de programas de video, comentarios de juegos, etc.
 - Regalan objetos tecnológicos: cintas de vídeo, videojuegos, juegos electrónicos, etc.
 - Escriben a programas, concursos de televisión, llamamos por teléfono, acudimos a programas...
-

6.4.2. SAKONEKO ELKARRIZKETAKO PROZESUAK

Ruiz Olabuenagak eta Ispizuak dioten bezala (1989), hiru dira sakoneko elkarrizketetan agertzen diren prozesu garrantzitsuenak: elkarrekintza prozesua, informazioa ateratze prozesua eta informazioa gordetze prozesua. Elkarrekintza prozesuak harreman egokia lortu nahi du elkarrizketatuarekin.

Egoera lasai horrek informazioa ateratzen lagunduko digu. Azkenik, ateratzen dugun informazioa gordetzen jakin behar dugu.

6.4.2.1. *Elkarrekintza prozesua*

Sakoneko elkarrizketa informazio trukatzeko asmoz pertsona bi harremanetan jartzen dituen prozesua da. Elkarrizketagileak jakin nahia, erantzuteko motibazioa, konfiantza eta emandako datuak behar bezala erabiliko direlako bermea eskaintzen dio elkarrizketatuari. Horren guztiaren truke, elkarrizketatuak informazioa eskainiko dio elkarrizketagileari.

«La entrevista es, por definición, un acto de interacción personal, espontáneo o inducido, libre o forzado, entre dos personas, entrevistador y entrevistado, en el cual se efectúa un intercambio de comunicación cruzada, a través de la cual, el entrevistador transmite interés, motivación, confianza, garantía y el entrevistado devuelve, a cambio, información personal en forma de descripción, interpretación y evaluación». Ruiz Olabuenaga, J.I. eta Ispizua, M.A. (1989): *La descodificación de la vida cotidiana*, Aip. Lib. 131. orrialdea

Sakoneko elkarrizketetan, elkarrizketatuaren eta elkarrizketagilearen artean enpatia edo etxekotasun harremana ezinbestekoak dira behar bezalako harremana garatzeko, eta, beraz, ikerketarako informazioa lortzeko. Enpatia hau lortzeko lagungarriak dira honako aholku hauek:

- Elkarrizketagileak bere burua aurkeztu ondoren, elkarrizketaren helburuak zehaztu, eta bildutako informazioa nola erabiliko den argitu behar du. Anonimatua ziurtatzeaz gain, elkarrizketatuak jakin nahi dezakeen edozein informazio eskaini behar du (ikerketa norik ordaintzen duen, ikerketarako teknika gisa sakoneko elkarrizketa erabiltzearen arrazoia, elkarrizketatu gisa bera aukeratzearen arrazoia...). Era berean, elkarrizketa grabatzeko baimena eskatu, eta gutxi gora behera elkarrizketak iraungo duen denbora argitu behar dira. Aurkezpenarekin egon daitezkeen susmo txar guztiak uxatu, eta elkarrizketatuaren konfiantza eta interesa ziurtatu behar dira.
- Elkarrizketatuak elkarrizketaren baldintzak onartzen dituen hasten da elkarrizketa. Kontuan izan, behartuta hasten diren elkarrizketak emaitza kaxkarrak ematen dituztela ia gehienetan. Zentzu honetan, elkarrizketatuak elkarrizketa motibaziorik gabe, behartuta, konpromiso hutsagatik edota haserre hasi duela ikusten bada, hobe da beste egun baterako utzi elkarrizketa. Egoera jasanezina bada, hobe da elkarrizketa hasieratik bukatu.
- Elkarrizketatuak ikerketaren balio, erabilgarritasuna eta interesa adierazi behar dio elkarrizketatuari. Honek ez du esan nahi, dena dela, elkarrizketagileak elkarrizketatuarekiko mendekotasun egoera onartu behar duenik. Elkarrizketatuak elkarrizketa ez duela seriotasunez har-

- tzen ikusten bada, ezer gutxirako balio du bi ordutan berarekin hitz egiten egotea, eta hobe da elkarrizketa hasieratik bukatutzat ematea.
- Elkarrizketatuak jartzen ditu elkarrizketaren baldintzak. Berak erabakitzen du non, nola, zein egunetan eta zein ordutan egingo den elkarrizketa. Elkarrizketatua eroso sentitu behar da; bestela, baliteke elkarrizketa egin nahi ez izatea, edo hasi ondoren bertan behera uztea.
 - Elkarrizketak hartzen duen norabidearen arabera, elkarrizketatzailea elkarrizketa bertan behera uzteko, atzeratzeko edota elkarrizketatuari min egingo dioten gaietan gehiegi ez sakontzeko prest egon behar da. Informazioa edonola eskuratzeari uko egin behar zaio.
 - Elkarrizketagilea ez da gaien sakontzen bizkorregi hasi behar. Galdera zuzenegiak edo zirikatzaileegiak ekidin behar ditu. Bestalde, ezin da elkarrizketatuaren jarreraren eta portaeren aurka agertu, ezta bera kritikatu ere. Horrela egingo balu, elkarrizketak fiskalaren edo poliziaaren itaunketaren itxura hartuko luke, eta hori sakoneko elkarrizketetan ezinbestekoa den enpatiaren aurka joango litzateke. Behin eta berriz esan den bezala, errespetuan oinarritutako harremana beharrezkoa da komunikazio ona sortzeko, eta informazioa emango digun elkarrizketa egiteko.
 - Elkarrizkatuaren galdera zein komentarioak errespetu osoz egin behar dira. Kritikatu gabe baina lausengatu gabe ere. Zentzu honetan, komentarioak egiterakoan, ez dugu elkarrizketaren norabidea zein diskurtsua aldatu behar.
 - Ez ahozko komunikazioak garrantzi handia dauka sakoneko elkarrizketetan. Ez ahozko komunikazioaren bitartez, elkarrizketatuak esaten diguna interesatzen zaigula edota ulertzen diogula adierazten diogu. Ikertzailea oso kontuz ibili behar da bere keinuekin, ahots tonuarekin eta bere ezarrerarekin; izan ere, hauen bitartez interesa, asperdura, nekea, e.a. adierazten du. Besteak beste, elkarrizketagileak ez ahozko komunikazioarekin loturiko taktika hauek erabili ditzake komunikazioa bultzatzeko:
 - Elkarrizketatuari modu natural, zuzen eta iraunkorrean begiratu behar zaio. Elkarrizketatua hitz egiten dagoenean beste nonbaitera begiratzen badugu, begiekin egiten den komunikazioa oztopatzen da, eta horrek komunikazio orokorra mugatu dezake.
 - Garrantzitsua da keinuetan eta mugimenduetan naturaltasuna erakustea. Gure keinu eta mugimenduek elkarrizketa interesarekin jarraitzen dugula adierazi behar dute.
 - Elkarrizketagileak isilik egoten jakin behar du. Isiltasuna komunikatzeko modu bat den heinean, elkarrizketatuaren isiluneak errespetatzen jakin behar da.
 - Elkarrizketatuak ematen duen informazioarekiko interesa erakustez gain, elkarrizketagileak eskaintzen den informazio gutzia ulertzen saiatu

behar da. Elkarrizketagileak elkarrizketatuaren barnean sartzen jakin behar du. Max Weber-ek dioen bezala, elkarrizketatua interpretatuz ulertu behar da, eta, beraz, ezinbestekoa da etxekotasun eta lasaitasun egoera lortzea. Horretarako, baliagarriak izan daitezke aholku hauek:

- Elkarrizketatua esandakoarekin edo gogoratu duenarekin hunkituta edo triste agertzen bada, elkarrizketatuak sentimendu berdinak adierazi behar ditu. Lehen esan bezala, elkarrizketagilea ez da ispilu hotz eta neutrala, baizik eta elkarrizketan guztiz inplikatzeko den pertsona.
- Elkarrizketagileak elkarrizketatuaren sentimenduak laburbiltzen jakin behar du; hartzen ari den informazioa ulertzen duela adierazi behar du, alegia.
- Elkarrizketagileak ez du elkarrizketatuak hitz egin nahi ez dituen gaietaz hitz egitera behartu behar.

«Para que la comprensión interpretativa sea una comprensión explicativa, requiere conocer los motivos de la acción, entendiendo por tal un complejo de significado subjetivo que le parece al actor mismo o al observador, una causa adecuada para la conducta en cuestión». Weber, M. (1979): *Economía y Sociedad*. FCE, México, 11. orrialdea.

6.4.2.2. Informazioa ateratze prozesua

Elkarrizketatuaren eta elkarrizketagilearen artean sortzen den harremana ezinbesteko oinarria da informazioa lortzeko. Alegia, elkarrizketatuaren sakoneko esperientzia eta esanahiak ezagutzeko balioko duen bitartekoa da.

Informazioa ateratze prozesuan hiru dimentsio dituen estrategia jarraitu behar da: galderak edo gaiak aurkeztu behar dira, elkarrizketa gainbehera hasien den bakoitzean berriz suspertu behar da, eta, azkenik, elkarrizketaren bitartez lortutako informazioaren kontrola eta fidagarritasuna ziurtatu behar dira.

Galdera edo gaien aurkezpena

Galdera eta gaien aurkezpena desberdina da elkarrizketaren hasieran edo elkarrizketaren erdian.

Hasieran, galdera edota gai orokorrak aurkeztuko dira konfiantza eta etxekotasun egoera sortzeko. Beroketa galderak dira, eta elkarrizketatua apurka-apurka elkarrizketan sartzen lagundu behar dute. Honek eskatzen duena da ondo pentsatzea zein izango den hasieran aurkeztuko den galdera edo gaia. Honako aholku hauek interesgarriak izan daitezke lehen galdera hori egiterakoan:

- Erantzun zehatzak ematen dituzten edota elkarrizketarekin aurrera egiten oztopatzen duten galderak ekidin. Besteak beste, bai edo ez, datak, toki zehatzak bezalako erantzunak bultzatzen dituzten galderak, eta,

- oro har, hitz jariora edo elkarrizketaren garapena oztopatu dezaketen galderak ez dira sartu behar hasieran.
- Ez ditugu zergatik, nola edo noiz partikulekin hasten diren galderarik egingo; izan ere, elkarrizketa blokeatu dezakete.
 - Aurkezten den lehen galderak edo gaiak ez du inolako arazorik sortu behar; izan ere, ezin da elkarrizketatua modu bortitzean sartu elkarrizketan.
 - Lehen galdera edo gaia guztiz irekia izan behar da. Dena dela, esanahi biko galderak edo nahastea sortu dezaketen galderak ekidingo ditugu; izan ere, era honetako galderak elkarrizketa oztopatu dezakete.
 - Galdera soslaituak ekiditu behar dira. Hau da, elkarrizketatuari zer erantzun behar duen adierazten dioten galderak saihestu.

Behin beroketa galderak bukatu ondoren, galdera zehatzagoak egiten hasiko gara. Galdera eta gai orokorretatik zehatzetara pasatuko gara, azaletik barnera, objektibotasunetik subjektibotasunera, gai inpersonaletatik pertsonaletara. Eta gai bat bukatzen den bakoitzean, beste gai edo galdera bat aurkeztuko dugu, gidoian dauzkagun gai guztiak bukatu arte.

Informazioa ateratze prozesu honetan, elkarrizketagileak elkarrizketatuak ematen duen informazioa ulertzen, garrantzia berezia duten arloak detektatzen eta sakontzen, eta blokeatutako gaiak aurrera ateratzen jakin behar du. Elkarrizketagileak elkarrizketatuaren mezu guztiak biltzeko, aberastasun handiagoko gaiak aukeratzeko eta eurretan sakontzeko, eta blokeatutako gaietatik ateratzeko gaitasuna izan behar du; baita balio ez duten galderak ekiditeko eta elkarrizketa aurrera doan heinean informazio zehatzagoa bilatzeko ere.

Noizean behin, elkarrizketatuak ideia garrantzitsuenak errepikatu egin behar ditu informazioa ulertzen ari dela erakusteko, baita laburpenak egin ere. Laburpen hauek txarto ulertuak konpondu, edo argi gelditu ez diren arloak argitzen laguntzen dute. Era berean, bere esperientziak egituratzen eta behar bezala baloratzen lagunduko diote elkarrizketatuari. Laburpen hauek ispilu bat dira elkarrizketatuarentzat. Mezua egituratzen eta kontatzen ari den esperientziaren esanahia eta zentzua ezagutzen laguntzen diote.

Honekin batera, laburpenek gaiak bukatzeko eta beste bat hasteko aukera ematen diote elkarrizketagileari.

Elkarrizketaren bukaeran, zerbait gehiago gaineratu nahi duen eskatu ondoren, elkarrizketa guztiaren laburpena egin behar du elkarrizketagileak. Laburpen honekin txarto ulertutakoak konpondu, eta elkarrizketan hitz egin gabe utzi diren edo gaineratik hitz egin diren gaiak plazaratzen dira.

Elkarrizketaren susperdura

Nahiz eta elkarrizketagileak bere lana ondo egin, eta elkarrizketatua informazio emateko prest egon, elkarrizketa gelditu edo blokeatu egin daiteke. Besteak beste, aurkeztuko gaia bukatu delako, elkarrizketatua nekatuta dago-

elako, gai zehatz bati buruz hitz egin nahi ez duelako, edo bere iritziak eta ikuspuntuak aurkezteko arazoak dituelako.

Blokeo egoera hauetan ezinbestekoa da elkarrizketa suspertzea. Ruiz Ola-buenaga eta Izpizuaeren arabera teknika desberdinak daude horretarako (1989):

- Isilik egotea: gehiago jakin nahi dugunean erabiltzen da; hau da, jakin nahia adierazteko. Elkarrizketagilea isiltzen denean atsedena hartu, ideiak ordenatu edota elkarrizketarako gai berriak bilatu ditzake elkarrizketatuak. Lehen esan bezala, elkarrizketagileak isilik egoten jakin behar du. Isiltasuna komunikatzeko modu bat den heinean, elkarrizketatzaileak elkarrizketatuaren isiluneak errespetatzen jakin behar du.
- Oihartzuna: elkarrizketatuaren azken hitz, esaldi edo ideia errepikatzean datza. Oihartzunarekin, gai horrekin jarraitzeko eskatzen diogu elkarrizketatuari.
- Laburpena: kontatu dizkigun gauzen laburpenak eginez, elkarrizketatuak esan dizkigunak ulertzen ari garela adierazten diogu. Era berean, egin ditzakegun laburpenekin, kontatu ez dizkigun edota txarto ulertu ditugun gauzetaz ohartzen da elkarrizketatua, edo datu berriak gogoratzten zaizkio.
- Bilakaera: elkarrizketatuak esan dituenak zehaztu, argitu edo sakontzen ditu elkarrizketagileak. Horrekin, elkarrizketarekin aurrera egiten laguntzen diogu elkarrizketatuari.
- Ekitea: gehiegizko jakin-mina agertu gabe (gehiegizko jakin-mina txarto ulertua izan daiteke), aztergai den gaia aurkezterakoan erabili den lehen galdera errepikatzea da. Horrekin, gai horretan gehiago sakontzeko eskatzen diogu elkarrizketatuari.
- Aipamen aukeratua: azpimarragarria edo garrantzitsua iruditzen zai-gulako, elkarrizketatuak esan duen datu, ideia, aipamen... berezi bat aukeratzen eta aipatzen dugu. Horrela, ideia hori garatzeko aukera ematen dugu, eta informazio gehiago lortzeko bidea irekitzen dugu.
- Hozkailua: elkarrizketagileak aurretik prestatu dituen gaiak ditu hozkailuan, eta gaia bukatu edo elkarrizketatua blokeatuta gelditzen den bakoitzean erabiltzen ditu. Hozkailua, azken finean, elkarrizketa egi-teko prestatu dugun gidoia da.
- Atsedendia: momentu larrietan edo blokeo egoeretan kafetxea, gozoki batzuk edo aurretik prestatu den anekdota edo gertaera kontatzen da, egoera lasaitu edo desblokeatzeko asmoz. Nahikoak dira minutu batzuk egoera lasaitzeko, eta elkarrizketa oztoporik gabe berriz hasteko.
- Lekoratzea: elkarrizketatua gai batetik irten ezinda, nahigabetuta eta larri ikusten bada, gaia aldatu edo arindu egin behar da, egoera lasaitu asmoz.
- Estimulazioa: elkarrizketatuaren memoria estimulatzeko dugu anekdotak, gertaerak edo datuak aipatuz. Honek elkarrizketa suspertzeko eta elkarrizketarekin jarraitzeko gogo pizten du.

—Atzerapena: elkarrizketatuaren blokeoa larria bada, hau da, gainditu ezineko blokeoa bada, beste egun batetarako uzten da elkarrizketa. Beti ere, beste egun hau aurrez pentsatua eraman behar du elkarrizketagileak.

Teknika hauen guztien helburua da indarra galtzen doan elkarrizketa berpiztea. Garrantzitsuena da momentu bakoitzean suspertze teknika egokiena aukeratzen jakitea. Ezin dugu ahantzi isiluneak eta blokeo momentuak ezin ditugula bortxatu; hain zuzen ere, elkarrizketaren garapena are eta gehiago oztopatzeke arriskua dagoelako.

6.4.2.3. *Informazioa gordetze prozesua*

Hirugarren prozesua sakoneko elkarrizketan da informazio gordetze prozesua. Era honetako elkarrizketek elkarrizketatu zein elkarrizketagilearen kontzentrazioa eskatzen dute. Honek esan nahi du kontzentrazio hau ahal den gutxien oztopatu behar dela. Beraz, elkarrizketa egiteko toki egokia bilatzeaz gain, informazioa gordetzeko inolako arazorik sortuko ez duen sistemaren bat aukeratu behar dugu.

Informazioa biltzeko teknika: informazioa biltzeko bideokamerak zein ahots grabagailuak erabili daitezke. Dena dela, kontuan izan behar da era honetako gailuek elkarrizketatuaren bat-batekotasuna oztopatu dezaketela. Elkarrizketatu asko ez dira eroso egoten era honetako aparatuen aurrean, eta hori baliorik gabeko datuen sorrera izan daiteke.

Blokeo arazo bera gerta daiteke elkarrizketagileak notak hartzen baditu. Kasu honetan, elkarrizketagileak ez du astirik izaten esaten den guztia apuntatzeko eta elkarrizketatuari behar bezala kasu egiteko, eta horrek komunikazioa oztopatzen du. Kontuan izan behar da idazten den baino bizkorrago hitz egiten dela, eta, ondorioz, elkarrizketatuak ematen dituen ideia guztiak apuntatzeko, ezinbestekoa dela elkarrizketa behin eta berriz gelditzea.

Honela, bada, gure ustez notak hartzea baino askoz hobe da grabagailuak erabiltzea. Elkarrizketa hobeto kontrolatzen da (hitz egin dena eta ez dena hobeto kontrolatzen da, eta ez ahozko komunikazioa hobeto erabiltzen da, begiekin egiten komunikazioa, adibidez) eta, oro har, elkarrizketa hobeak lortzen dira. Hala ere, era honetako gailuek elkarrizketatuengan gainditu ezinezko blokeoa sor dezaketela pentsatzen badugu, ezkutuko grabagailuak erabili daitezke.

Dena dela, egoera oso berezietan kenduta, ezkutuko grabagailuak erabiltzea ez da oso gomendagarria. Izan ere, elkarrizketatua konturatzen bada, elkarrizketarekin bukatu eta aurrerantzean berarekin zein bere ingurukoekin elkarrizketa gehiago egiteko aukerak murrizten ditugu. Bestalde, ezin da ahantzi ezkutuko kamerak erabiltzeak inplikazio etiko garrantzitsuak dituela. Arestian ezan bezala, gure ikuspuntua da uko egin behar diogula informazioa edonola lortzeari.

Society of Profesional Journalists elkarte estatubatuarrak kamera ezkutua noiz erabili daitekeen eta noiz ez ezarri zuen, eztabaida luze baten ondoren. Hiru ezaugarri hartu behar dira kontuan ezkutuko kamerak erabiltzerakoan:

- Lortutako informazioa interes publikoarentzat oso garrantzizkoa bada, jende askori eragiten badio eta informazio horrek ondorio handiak izan badezake, zilegi da ezkutuko kamerak erabiltzea.
- Informazioa lortzeko beste aukera guztiak amaitu direnean, eta kazetariak publikoari kamera ezkoa zergatik erabili duten azaltzeko prest daudenean, zilegi da ezkutuko kamerak erabiltzea.
- Albistegietako arduradunek onartu egin behar dute kazetariak tresna hori erabiltzea, eta lortutako informazioaren garrantziak gainditu egin behar du gizabanakoen intimitatea haustea.

Bestalde, AEBetako elkartearen arabera, ezin da justifikatu kamera ezkutuen erabilera gai arinak jorratzeko. Ezin da grabatu beharrezko neurriak hartu gabe eta intimitatea eta bizitza pribatua errespetatu gabe. Eta audientziari grabazioaren testuingurua azaldu behar zaio.

Kazetariari egindako aholku eta iritzi hauek guztiak baliagarriak dira ikerketak egiterakoan. Hala, bada, ikerketa interes publikoarentzat oso garrantzitsua bada, ikerketa horren emaitzek jende askori eragiten badiete, informazio lortzeko beste aukera guztiak amaitu badira, eta lortutako informazioaren garrantziak gizabanakoen intimitatea haustea gainditzeko badu, zilegi da ezkutuko kamerak erabiltzea.

Sakoneko elkarrizketa egiteko tokirik aproposena: erregistroarekin lotuta, garrantzitsua da sakoneko elkarrizketa egingo den tokiari buruz hiruzpalau hitz esatea. Izan ere, tokiaren berezitasunek elkarrizketa erraztu edo zaildu egin dezakete.

Elkarrizketa grabatu behar den heinean (grabagailuen bitartez, bideoameren bitartez...), zarata gehiegirik ez dagoen tokia aukeratu dugu. Taberna, kafetegi eta hantzerako tokiak ez dira oso gomendagarriak, askotan musika altuegi dagoelako edo gehiegizko zaratak izaten direlako, eta hori ezertarako balio ez duten grabaketen sortzaile delako, sarri askotan.

Kalean edo parke publikoetan egitea ere ez da gomendagarria, elkarrizketa oztopatu edota elkarrizketatuaren kontzentrazioa gutxitu dezaketen gauza ugari gerta daitekeelako. Zentzu honetan, elkarrizketatua oharkabetuko ez den eta grabaketa erraz egin ahal izango dugun toki bat aukeratu behar dugu. Dena dela, inoiz ere ez dugu elkarrizketatua berak joan nahi ez duen tokira eramango.

6.5. Datuen azterketa eta interpretazioa

Informazioa bildu ondoren, azterketa eta interpretazio prozesua hasten da. Hasieratik izan behar dugu argi, ezinezkoa dela elkarrizketatuaren esperientzia berak bizi izan duen modu berean ulertzea. Zeharka hurbiltzen gara,

era bikarioan, elkarrizketatuaren esperientziara. Beraz, informazioa aztertzerakoan apaltasun zientifiko handienarekin hasi behar gara.

Muga hau kontuan hartuz, azterketak helburu zehatza du: elkarrizketatuak mundua edo ikerketarako interesatzen zaigun gaia ulertzen duen bezala ulertzea. Helburu hau hiru pauso emanez lortzen da:

- Elkarrizketa behin eta berriz irakurri (edo entzun) beharra dago elkarrizketatuak emandako informazioa edota berak bizi izandako esperientzia ahal bezain egokien ezagutzeko eta ulertzeko.
- Behin irakurketak edota entzuketak egin ondoren, elkarrizketatuaren mundua edo bizi izan duen esperientzia berreraikitzen hasten gara. Horretarako, ezinbestekoa da kontatutako guztia behar bezala testuinguratzea.
- Behin testuingurua behar bezala agertu ondoren, elkarrizketatuarentzat garrantzitsuak diren elementuak, gertaerak edota momentuak aurkitu eta aztertu behar dira. Argi eta garbi agertu behar dira elkarrizketan zehar garrantzi gehien izan duten arloak (esperientzia deskronologizatu bada) edo faseak, momentuak eta gertaera kritikoak (esperientzia kronologizatu bada). Azterketarekin, elkarrizketatuaren bizitza edo esperientzia berreraiki behar dugu. Horretarako, agertu diren momentu, gai edo gertaera kritikoen arteko harremanak behar bezala aztertu behar dira. Hitz gutxitan esateko, aztertzen ari garen gaia elkarrizketatuek nola ikusten duen edo bizi duten berreraiki behar da.

«A estas alturas es posible ya ir elaborando un diseño tentativo del construct personal del entrevistado, en el cual quedan señalados los núcleos de interés (conceptos, eventos, momentos críticos) central, cada uno de ellos enriquecido con una serie de categorías, dentro de las cuales, se han ido codificando las frases o párrafos del relato que, a su vez, comienzan a entrelazarse en su influjo, sucesión, equivalencia, oposición, parentesco, jerarquía de importancia, centralidad...» Ruiz Olabuenga, J.I. eta Ispizua, M.A. (1989): *La descodificación de la vida cotidiana*, Aip. Lib., 150. orrialdea.

6.6. Azken txostenaren idazketa

Behin elkarrizketak aztertu eta interpretatu ondoren, azken txostena idatzi behar dugu. Beste edozein teknikan oinarritzen diren ikerketetan bezala, sarrerarekin hasi behar dugu txostena. Sarrera honetan ikerketaren hipotesiak, azterketarako sakoneko elkarrizketa aukeratzearen arrazoiak eta ikerketaren helburu orokorrak aurkeztuko ditugu. Ondoren, lortutako emaitzen aurkezpena, ondorio orokorrak eta erabilitako bibliografia agertuko ditugu. Kontuan izan, emaitzen aurkezpena egiterakoan elkarrizketatuaren aipamen zehatzak tartekatu behar ditugula txostenean, gure baieztapenei zentzua eman edota egindako interpretazioak sendotzeko.

Bukatzeko, aurkeztutako ondorio eta emaitzak hobeto ulertzen lagun dezaketen eranskinak sartuko ditugu. Sakoneko elkarrizketetan oinarrituta egin diren ikerketen txostenetako eranskinak zera eskaini behar diote irakurleari:

- Hasteko, garrantzitsua da elkarrizketatu bakoitzari buruzko informazioa emango digun fitxa teknikoa sartzea. Fitxa tekniko honetan emaitzak ulertzeko garrantzitsuak izan daitezkeen elkarrizketatuaren berezitasun guztiak sartuko ditugu: adina, sexua, ikasketa maila eta, oro har, ikerketarako garrantzitsuak izan daitezkeen datu guztiak. Elkarrizketaren data, tokia eta testuingurua ere zehaztuko ditugu. Informazio honek elkarrizketatua hobeto ezagutzen eta informazioa testuinguruan kokatzen lagunduko digu.

56. ADIBIDEA: elkarrizketaren fitxa teknikoa

EUSKAL ALFABETATZEAREN HISTORIA ZENBAIT SORTZAILEREN AHOTAN (1960-1990)

Helduen Euskal Alfabetatzearen Historia aztertzeko 36 elkarrizketa egin genituen. Elkarrizketak 1960 eta 1990. urte bitartean Euskal Herriko alfabetatzearen munduan sartuta egon ziren eta prozesu honi buruz zerbait esateko zutenen artean egin genituen. Geografikoki, era honetan banatuta zeuden 36 sakoneko elkarrizketa hauek: 7 Araban, 13 Bizkaian, 6 Gipuzkoan, 6 Iparraldean eta 4 Nafarroan.

ELKARRIZKETATUAREN FITXA TEKNIKOA

IZEN ABIZENAK:

TELEFONOA:

SEXUA:

ADINA: 20-30 30-40 40-50

HERRIA:

ELKARRIZKETA EGIN ZEN LEKUA:

EGUNA ETA ORDUA:

ELKARRIZKETAREN IRAUPENA:

ELKARRIZKETATUAREN BIOGRAFIA LABURRA:

.....

.....

EUSKALDUNTZE ALFABETATZE PROZESUAN LAN EGINDAKO

GARAIA:

.....

.....

ELKARRIZKETA ULERTZEKO INTERESGARRIAK IZAN DAITEZ-

KEN DATUAK ETA AIPAMENAK:

.....

.....

.....

- Fitxa teknikoaren ondoren, aipamen zehatzak zein elkarrizketen transkripzio guztiak sartu ditzakegu. Aipamenak zein transkripzioak aztertutako gaien gehiago sakondu zein zalantzak argitu nahi dituztenentzat dira. Kontuan izan transkripzio osoak lan akademikoetan sartzen direla bakarrik.
- Azkenik, elkarrizketak egiteko erabilitako gidoia sartuko dugu.

57. ADIBIDEA: sakoneko elkarrizketa egiteko gidoia

EUSKAL ALFABETATZEAREN HISTORIA ZENBAIT SORTZAILEREN AHOTAN (1990-1990)

Helduen Euskal Alfabetatzearen Historia aztertzeko egin genituen 36 elkarrizketak gidoi honekin egin genituen:

- Sarrera
- Aurkezpena
- Ikerketaren helburuak
- Nork ordaintzen duen

1. Alfabetatzearen munduan sartu zinenean, zein zen garai hartako euskal munduaren giroa eta egoera? (20 minutu)

- politika (klandestinitatea, askatasuna...)
- ideologia
- jarrera
- euskara

2. Alfabetatzearen sorreraren zergatia (20 minutu)

- kontzeptua
- helburua
- zer eratako jendea bildu zineten?
- zer talde desberdin sortu zen eta zeintzuk ziren elkarren arteko harremanak?

3. Antolaketa, azpiegitura... (30 minutu)

- alfabetatzearen kontzeptua
- taldearen helburuak
- bilakaera, aldaketak, moldaketak...
- metodologia
- mailakatzea
- materialak
- ordu kopurua eta ordutegiak
- arazoak
- lokalak
- diru iturriak
- propaganda
- irakasleak: kopurua, prestakuntza eta titulazioa, soldatak eta aukeraketa

- ikasleak: kopurua, motibazioa, ikasle mota
- kokapena eta koordinazioa: herriak, taldeak, metodoak, irakasleak...
- berriztapenak

4. Balorazioa eta azken gogoeta (20 minutu)

- alfabetizazioari buruz izan diren ikuspuntu desberdinak
 - istiluak, apurketak, konponketak
 - ondo eginak eta txarto eginak
 - egin behar ziren gauzak (eta egin ez direnak)
 - etapak, bilakaera
 - gaur egungo alfabetatzearen definizioa
-

6.7. Sakoneko elkarrizketaren kalitatearen kontrola

Autore batzuen arabera, ezinezkoa da sakoneko elkarrizketen eta, oro har, zenbaketa onartzen ez duten tekniken fidagarritasun eta balioari buruz hitz egitea. Autore horien arabera, hobe da sakoneko elkarrizketen kalitatearen kontrolari buruz hitz egin.

Neurtzeko tresna bat fidagarria da, behin baino gehiagotan erabili ondoren konsistentea denean; hau da, ondorio berdinetara eramaten gaituenean. Sakoneko elkarrizketetan, konsistentzia ezin da frogatu elkarrizketagile bat dagoelako. Gai beraren inguruko sakoneko elkarrizketa bi ezin dira inoiz ere berdinak izan; hain zuzen ere, elkarrizketagilearen portaera desberdina delako aurrean duen pertsonaren arabera. Kontuan izan elkarrizketagilearen galdetzeko era, ez ahozko komunikazioa erabiltzeko modua edo portaera ez dela konsistentea elkarrizketa guztietan.

Hala ere, sakoneko elkarrizketen fidagarritasuna, edo nahiago bada, kalitatea hobetzeko neurri batzuk hartu ditzakegu. Besteak beste, honako aholku hauek baliagarriak izan daitezke kalitatezko sakoneko elkarrizketak lortzeko:

- Aurkezten diren gaiak edota egiten diren galderak argiak izan behar dira. Ondo ulertzen ez diren galderak edo esanahi bi dituzten hitzak ekiditu egin behar dira.
- Ahots tonua, galderak egiteko modua, gaiak aurkezteko era edota elkarrizketaren jarrera orokorra ahal bezain egokienak izan behar dira.
- Informazioa grabatzeko erabiltzen ditugun gailuen eragina ahal bezainbeste murriztu behar da.
- Elkarriztetatuen adiera eta, oro har, elkarrizketa oztopatu dezaketen inguruneak ekidin.
- Gidoi berbera erabili eztabaida guztiak egiteko.

Balioak neurketarako erabiltzen den tresnaren eta neurtu nahi den kontzeptuaren artean dagoen loturarekin zerikusia du. Hots, tresna batetik lortutako informazioa baliagarria da ikertzaileak neurtu nahi duena neurtzen duenean.

Sakoneko elkarrizketen balioa lortutako informazioaren kontrolarekin loturik dago. Hau da, bildu dugun informazioaren egitasuna ziurtatu behar dugu. Ez dugu ahantzi behar sakoneko elkarrizketan elkarrizketatuaren ahotik lortzen dela informazioa; ondorioz, nahiz eta elkarrizketatuak borondate ona erakutsi eta informazioa emateko gogoia izan, beharrezkoa da lortutako informazioa kontrolatzea. Zehazki honako arlo hauek kontrolatu beharko ditugu:

- Datu eta aipamen deskribatzaileak: elkarrizketatuak arazoak izan ditzake gauza guztiak gogoratzeko. Ondorioz, okerrak diren datu, data eta informazioak eman ditzake. Hauek denak beste iturri batzuk (liburuak, artikulua, beste elkarrizketatu batek emandako informazioa...) erabiliz zehaztu eta kontrolatu behar dira.
- Inkoherentziak: nahita edo nahi gabe elkarrizketatuak agertzen dituen inkoherentziak kontrolatu behar dira. Argi gelditu ez diren gaiak argitzerakoan kontu handiz arituko gara. Ez dugu inola ere aurrean daukaguna iraindu behar.
- Idealizazioak eta ihesak: askotan, bere pertsonalitatearen alde itsusiak ezkututzen edota aldatzen ditu elkarrizketatuak. Beste batzuetan, beste gai batzuetara pasatzen da, bere alde itsusienei buruz ez hitz egiteagatik. Ahal den neurrian idealizazio eta ihes hauek kontrolatu egin behar dira.
- Interes falta eta nekea: nekeak edo interes faltak garrantzitsuak diren gaiak albo batera uztera edota gehiegi laburbiltzera eramaten du. Nekeak azalean gelditzea eta gaian behar bezala ez sartzea ekar dezake. Aurretik esan bezala, honelako kasuetan elkarrizketa suspertzen ahalegindu beharko gara, eta elkarrizketa suspertzea ezinezkoa dela ikusten badugu, beste egun baterako utziko dugu elkarrizketa.
- Sen ona: Sen ona delakoak interpretazio errazetara eramaten du ikertzailea. Ikertzailearen balore hierarkia elkarrizketatuaren esperientzia aztertzeke eta interpretatzeko erabiltzen da, eta horrek ondorio okerrera eraman dezake. Ikertzaileak bere eskema soziokulturalak ahal duen beste alboratzen, eta ahal duen neutraltasun handienarekin sartzen jakin behar du elkarrizketagileak emandako informazioan. Interpretazioak egiterakoan, era eszeptikoan lan egin behar da. Norbere ikuspuntuak, aurreiritziak eta sineskerak zalantzan jarriz, interpretazio errazak saihestuz eta azalpen errazegiak eztabaidan jarriz. Horretarako, beharrezkoa da oinarri teoriko on bat izatea.
- Azkenik, elkarrizketaren barne konsistentzia kontrolatu behar da. Horretarako, lortutako informazioa ikerketarako bildu ditugun beste elkarrizketetan lortutako informazioarekin alderatu behar da.

VII

Bizitza historiak

«De todos los métodos de investigación cualitativa tal vez sea éste el que mejor permita a un investigador acceder a ver cómo los individuos crean y reflejan el mundo social que les rodea. La metodología de las Historias de vida ofrece un marco interpretativo a través del cual el sentido de la experiencia humana se revela en relatos personales en un modo que da prioridad a las explicaciones individuales de las acciones más que a los métodos que filtran y ordenan las respuestas en categorías conceptuales predeterminadas».

Jones, G.R. (1983): «Life History Methodology», en Morgan G., *Beyond Methods*

Sarreran esan bezala, ikertzeko bide bat da gizakiei euren ikuspuntu, jarrera edota portaerei buruz era sistematiko eta kontrolatuan galdetzea. Bizitza historietan, hain zuzen ere, pertsona bat edo batzuk aukeratzen dira eta euren bizitzari buruz galdetzen zaie. Elkarrizketa bat edo batzuen bidez, gizakiek euren bizitzari ematen dion zentzua ezagutu nahi da; alegia, euren bizitza nola eraikitzen duten ulertu. Sakoneko elkarrizketetan bezala, elkarrizketatuarentzat garrantzitsua eta adierazgarria dena ezagutu nahi da. Bizitza historietan, dena dela, elkarrizketatuak arlo edo gai zehatz bat nola ikusten, sailkatzen eta bizitzen duen ezagutu beharrean, bere mundua edota bizitza nola ulertzen duen ezagutu nahi dira.

7.1. Zer dira bizitza historiak?

Bizitza historietan, elkarrizketatuek euren bizitza kontatzen dute. Elkarrizketatzaile baten laguntzarekin, elkarrizketatuek euren bizitzako etapak, gertaerak edo momentu garrantzitsuak, pozgarriak edo tristeak kontatzen dituzte. Batzuetan, elkarrizketatuak idatzitako idazkiak, bizi izandako tokietara

egindako bisitak, argazkiak, eskutitzak edo lagun eta senitartekoei egindako elkarrizketak... erabiltzen dira azterketarako material gisa.

Bizitza historia asko egiten dira pertsona berezien edo nolabaiteko garrantzia izan dutenen bizitza ulertzeko. Teknika hau askotan erabiltzen da, izen handidun politikarien, artisten edo idazleen bizitzak eta ekintzak ulertzeko eta aztertzeko.

Kontaketa guztiz subjektiboa da. Areago, askotan akats eta oker asko dituen kontaketa lortzen da. Ikerketarako bizitza historietan oinarritzen den ikertzaileak ez du kontaketa objektiboa bilatzen, baizik eta elkarrizketatuaren ikuspuntu subjektiboa.

Bizitza Historiak lau helburutarako erabili ditzakegu:

- Norbaiten esperientzia biografikoa ulertzeko: umetatik gaur egunera arte emandako pausoak ezagutzeko, alegia. Horretarako, hartutako erabakiak, senitartea, lagunartea, egoeraren definizio pertsonala, aldaketa pertsonalak zein testuinguruan gertatutako aldaketak, momentu kritikoak, lasaitasunekoaldiak, momentu tristeak eta abar ikertu behar dira.
- Anbiguetateak eta aldaketak ulertzeko: bizitza historien bitartez, pertsona batek bere bizitzan zehar izan dituen aldaketa momentuak ezagutu nahi dira; baita anbiguetateak, logikarik gabeko momentuak, zalantzak edota kontraesanak ere.
- Ikuspuntu subjektiboa ulertzeko: bizitza historien bidez, elkarrizketatuak bere buruari eta munduari buruz duen ikuspuntu subjektiboa ulertu nahi da; baita bere portaerari buruz eta besteen portaerari buruz duen ikuspuntua ere.
- Fenomeno sozialak ulertzeko: fenomeno sozial asko pertsona zehatz batzuen bizi-esperientziatik ulertu daitezke bakarrik.

...el método biográfico puede, y tal vez debe, constituirse en un método nuclear dentro de las aproximaciones cualitativas en las ciencias sociales, haciendo la salvedad de que puede ser incluso útil para determinados tipos de survey cuantitativos. Su interés reside en que permite a los investigadores sociales situarse en ese punto crucial de convergencia entre: 1. el testimonio subjetivo de un individuo a la luz de su trayectoria vital, de sus experiencias, de su visión particular, y 2. la plasmación de una vida que es el reflejo de una época, de unas normas sociales y de unos valores esencialmente compartidos con la comunidad de la que el sujeto forma parte. Pujadas Muñoz, J.J. (1992): *El método biográfico: El uso de las historias de vida en ciencias sociales*. Cuadernos metodológicos, CIS, Centro de Investigación Sociológicas, Madrid.

7.2. Nola egin bizitza historiak?

Arestian esan bezala, bizitza historietan oinarrian dauden elkarrizketetan elkarrizketatuek euren bizitza kontatzen dute. Elkarrizketa baten laguntzarekin elkarrizketatuak bere esperientzia biografikoa agertzen du, aldaketa mo-

mentuak aurkezten ditu, eta bere buruari eta munduari buruz duen ikuspuntu subjektiboa ematen du.

Informazio hau osatzeko, baliteke ikerlariak ikertuaren inguruan dauden pertsonak elkarrizketatzea, edota elkarrizketatuak idatzitako idazkiak edo sortutako materialak erabiltzea.

Honela, bada, bizitza historia egiteko hiru bide nagusi daude:

- Lehen bidea da, ikertu nahi den pertsonak idatzitako dokumentuak (autobiografia, memoriak, egunerokoa...) aztertzea. Horrekin batera, pertsona horren argazkiak, idatzitako eta jasotako eskutitzak...azertu ditzakegu. Bizitza Historiak egiteko bide hau erabiltzen badugu, iturri ez zuzenen azterketara hurbiltzen gara; alegia, beste pertsona edo erakunde batzuk (erakunde publiko zein pribatuak, ikerlariak, gobernuz kanpoko erakundeak...) bildu, sortu edota gorde dituzten estatistika, dokumentu, grabaketa eta material pertsonalen (biografiak, egunerokoak, memoriak, eskutitzak, argazkiak edo edozein erregistro ikonografiko edo ondasun pertsonal) azterketan oinarritzen den ikerketa teknikara.
- Bigarren bidea da elkarrizketak egitea, eta elkarrizketatzaileak kontaktan partehartze zuzena izatea. Kasu honetan, pertsona biren eta batak biren artean egiten den elkarrizketa da. Sakoneko elkarrizketak agertzerakoan esan dugun bezala, bizitza historien oinarrian dauden elkarrizketak eskatzen duten lasaitasun eta etxekotasun egoera apurtua legoke elkarrizketan elkarrizketagile batek baino gehiagok parte hartuko balukete; izan ere, elkarrizketagile biren aurrean elkarrizketatuaren dependentzia, segurtasun falta edota mendetasun egoera areagotu egingo lirake. Elkarrizketagile birekin elkarrizketak itaunketa polizia-laren itxura hartu dezake, eta hori txarra da elkarrizketa baliagarriak lortzeko.
- Hirugarren bidea da inguruko pertsonak elkarrizketatzea. Ingurukoek edo pertsona hori ondo ezagutzen dutenek aztergai den pertsona ulertzeko informazio ugari eman dezakete.

Aukeratzen den bidea aukeratzen dela, bizitza historiak egiterakoan, etxekotasuna edo lagunarteko harremana ziurtatu behar da; alegia, konfiantzazko harremana lortu behar da. Zentzu honetan, egin behar diren elkarrizketak ez dira ondo aterako, elkarrizketatuaren eta elkarrizketagileren artean mesfidantza badago, mendetasun harremana sortzen bada edo elkarrizketa susmo txarrekin hasten bada. Era berean, kontuan izan gogo gabe eta konpromisoz egiten diren elkarrizketak informazio gutxi ematen dutela. Beraz, behar bezalako bizitza historiek elkarrizketatua lasai eta motibatuta egotea eskatzen dute.

Elkarrizketa era kontrolatuan eta ez era inprobisatuan egin behar da. Horrek esan nahi du azertu nahi ditugun gaiak biltzen dituen gidoi bat erabili behar dugula. Gidoia elkarrizketan zehar ez galtzeko eta hitz egin beharreko gai guztiei buruz hitz egiteko erabiliko dugun tresna da. Sakoneko elkarrizketetan

bezala, gidoia ez dugu era zurrunean jarraituko. Elkarrizketak hartzen duen norabidearen arabera gidoiaren ordena aldatzeko prest egon behar gara.

Gidoian aztertuko diren gaiak edota egingo diren galderak agertzen dira, baita gai edo galdera multzo bakoitzari emango zaion denbora ere. Gidoiak denbora kontrolatzen eta garrantzitsua dena eta ez dena desberdintzen laguntzen digu. Gidoiarekin elkarrizketaren egitura, erritmoa eta gai bakoitzaren luzera zehazten dira.

Gidoia sarrera edo aurkezpenarekin hasi behar da. Bertan, elkarrizketagilearen aurkezpena egin eta emandako informazioaren anonimata ziuertatu ondoren, ikerketaren helburuak, datuei emango zaien erabilera, ikerketa ordaintzen edo laguntzen duen erakundearen izena, elkarrizketak iraungo duen denbora eta, oro har, elkarrizketatuari konfiantza eman diezaioketen informazio guztiak agertu behar dira. Ez ahaztu etxekotasun eta lasaitasun egoera ezinbestekoak direla bizitza historiak behar bezala egiteko, eta, horretarako, hasiera on bat dela beste ezer baino garrantzitsuagoa.

Behin sarrera egin ondoren, gaiak, galderak edo aztertu nahi diren arloak aurkezten hasiko gara, kontuan izanik arlo bakoitza aztertzeko denbora mugatua daukagula; hau da, gai batean denbora gehiegi pasatuz gero, beste gai batzuk aztertzeko denbora faltako zaigula. Ez da ahantzi behar ordu bat eta bi arteko denbora daukagula elkarrizketa bakoitza egiteko. Ordu bi pasatu ondoren, elkarrizketatua nekatuegi egoten da gauzak behar bezala azaldu eta informazio egokia emateko.

Gidoiaren laguntzarekin, elkarrizketatuaren mundu sinbolikora apurka-apurka hurbilduko gara. Hasieran, galdera orokorrak egingo ditugu, eta elkarrizketa aurrera doan heinean, aztergai den pertsonaren bizitzari eta bere esperientziei ematen zaion sakoneko esanahia ezagutuko ditugu; beste hitz batzuekin esanda, elkarrizketatuaren mundu sinbolikora hurbilduko gara. Inbutu baten antzera, galdera orokorretatik gero eta zehatzagoetara pasatuko gara. Apurka-apurka elkarrizketa zehazten joango da, eta elkarrizketatuaren erantzunak ere aberatsagoak eta sakonagoak izango dira. Gai orokorrak aztertuz hasi den elkarrizketa zehaztuz joango da.

Sakoneko elkarrizketetan bezala, bizitza historiak egiterakoan ere elkarrizketagileak alde batera utzi behar du jarrera objektibo edota neutrala, eta elkarrizketatuarekiko enpatia jarrera hartu behar du. Areago, elkarrizketatuak elkarrizketagilearen iritzia eskatzen badu eman egin behar da.

Enpatia jarrera honek ez du esan nahi elkarrizketagileak elkarrizketatuak esan dituenak egiaztatu behar ez dituenik. Sentimendu eta iritzi pertsonalentzako tokia egon behar bada ere, ahal bezain informazio zehatzena eta egiazkoena lortzen ahalegindu behar du elkarrizketatuak. Alegia, lortzen goazen informazioa kontrolatu egin behar dugu.

Bestalde, elkarrizketagileak ezin du nahi duena nahi duenean galdetu. Horrela egingo balu, elkarrizketaren erritmoa era bortitzean aldatu, eta bizitza historiak eskatzen duen harremana apurtuko litzateke. Gogoratu, etxekotasun eta lagunarteko egoera ezinbestekoak direla informazio ona lortzeko.

Bizitza historiek elkarrizketatu zein elkarrizketagilearen kontzentrazioa eskatzen dute. Honek esan nahi du, kontzentrazio hau ahal den gutxien oztopatu behar dela. Beraz, elkarrizketa egiteko toki egokia bilatzeaz gain, informazioa gordetzeko inolako arazorik sortuko ez duen sistemaren bat erabili beharko dugu.

Informazioa biltzeko bideokamerak zein ahots grabagailuak erabili daitezke. Dena dela, kontuan izan behar da era honetako gailuek elkarrizketatuaren bat-batekotasuna oztopatu dezaketela. Elkarrizketatu asko ez dira eroso egoten era honetako gailuen aurrean, eta hori baliorik gabeko datuen sorrera izan daiteke.

Blokeo arazo bera gerta daiteke elkarrizketagileak notak hartzen baditu. Kasu honetan, elkarrizketagileak ez du astirik izaten esaten den guztia apuntatzeko eta elkarrizketatuari behar bezala kasu egiteko, eta horrek komunikazioa oztopatzen du. Kontuan izan behar da idazten den baino bizkorrago hitz egiten dela, eta, ondorioz, elkarrizketatuak ematen dituen ideia guztiak apuntatzeko ezinbestekoa dela elkarrizketa gelditzea.

Honela, bada, gure ustez notak hartzea baino askoz hobe da grabagailuak erabiltzea. Elkarrizketa hobeto kontrolatzen da (hitz egin dena eta ez dena hobeto kontrolatzen da, eta ez ahozko komunikazioa hobeto erabiltzen da, begiekin egiten komunikazioa, adibidez) eta, oro har, kalitateko hobeko elkarrizketak lortzen dira. Hala ere, era honetako gailuek elkarrizketatuengan gainditu ezinezko blokeoa sortzen dutela ikusten badugu, ezkutuko grabagailuak erabili daitezke.

Dena dela, egoera oso bereziak kenduta, ezkutuko grabagailuak erabiltzea ez da oso gomendagarria, gure ustez; izan ere, elkarrizketatua konturatu bada elkarrizketarekin bukatu eta aurrerantzean berarekin zein bere ingurukoekin elkarrizketak egiteko aukerak murrizten ditugu. Bestalde, ezin da ahantzi ezkutuko kamerak erabiltzeak inplikazio etiko garrantzitsuak dituela. Arestian ezan bezala, gure ikuspuntua da, informazioa edonola lortzeari uko egin behar diogula.

7.3. Bizitza historien abantailak eta desabantailak

Antzerakotasun asko daude sakoneko elkarrizketen eta bizitza historien artean. Biek ere elkarrizketaren bidez gizakien ikuspuntu, jarrera edota portaerak ezagutu nahi dituzte. Dena dela, bizitza historiek badituzte sakoneko elkarrizketek ez dituzten abantaila eta desabantaila batzuk.

Bizitza historien abantailak

- Bizitza historietan sortzen den konplizitatea edo etxekotasun egoera oso egokia da pertsona batek bere bizitzari ematen dion zentzua edota bere bizitzaren gora beherak ezagutzeko. Elkarrizketen bidez, pertsona

horren bizitzako dimentsio garrantzitsuenak, inflexio puntuak, gertaera garrantzitsuenak edo aldaketak sakonean ezagutu ditzakegu, eta informazio aberatsa lortu dezakegu. Sakoneko elkarrizketekin bezala, zenbakien azpian ezkutatzen den informazio konplexua hobeto ezagutu genezake.

- Elkarrizketak ikerlariak berak egin ditzakeen heinean, beste teknika batzuk baino merkeagoa izan daiteke.

Bizitza historien desabantailak

- Elkarrizketan oinarritzen den teknika izanik, elkarrizketatuek arazoak izan ditzakete euren iritziak behar bezala egituratzeko eta azaltzeko. Bereziki, ikertzen ari garen pertsona oso nagusia bada, arazoak izan ditzake bere iritziak adierazteko.
- Nahiz eta etxekotasun edota lagunarteko egoera sortu behar dela esan, ikerlaria elkarrizketatuaren menpe dago, ia gehienetan. Gerta daitekeena da, beraz, elkarrizketatuak ez duela eman nahi ikerlariarentzako garrantzitsua den informazioa, edo ez dakiela garrantzitsua den informazio hori nola adierazi; beraz, informaziorik gabe gelditzeko arriskua dago. Era berean, gogoratu elkarrizketatuak zehazten duela zer den garrantzitsua eta zer ez, eta ematen digun informazioa berak nahi duenaren arabera dela.
- Elkarrizketagile bat dagoen heinean, erabiltzen den teknikak eragina izan dezake elkarrizketatuarengan. Elkarrizketagilearen itxurak, galderak egiteko moduak, ahotsak e.a. eragina izan dezakete elkarrizketatuaren erantzunengan, eta hori balio gabeko datuen sorrera izan daiteke.

7.4. Zer da bizitza historia batean ikertu behar dena?

Honako hauek dira bizitza historia bat egiterakoan aztertu beharreko arloak:

- Alde batetik, aztertzen ari garen pertsonaren bizitzaren oinarriko dimentsioak aztertu behar dira. Ikerlariak testuinguru soziokultural zehatz batean kokatu behar du aztergai den pertsona, eta testuinguru horren arabera ulertzen saiatu behar da. Pertsonaren berezitasun soziodemografikoak zehatz-mehatz ezagutzeaz gain, bere ingurunekekin izan dituen edota gaur egun dituen harremanak aztertu behar dira.
- Inflexio puntuak eta gertaera garrantzitsuak ere aztertu behar dira. Era batera edo bestera bere bizimodua aldatu duten momentuak ezagutu behar dira. Inflexio puntuak ezagututa, bizitzako une desberdinek edo faseek zenbat iraun duten ezagutu genezake.
- Bizitzan zehar aldaketen aurrean hartutako erabakiak, egindako adaptazio prozesuak eta bilakaera prozesuak aztertu behar dira.

7.5. Historia baten eraikuntza

Informazioa bildu ondoren, azterketa eta interpretazio prozesua hasten da. Horretarako, baliagarriak dira sakoneko elkarrizketan emandako aholku guztiak. Izan ere, bizitza historiaren berreraiketa modu berean egiten da. Dena dela, kasu honetan ikergai den pertsonaren bizitza osoa interesatzen zaigu.

Bestalde, kontuan izan ezinezkoa dela elkarrizketatuaren bizitza berak bizi izan duen modu berean ulertzea. Zeharka hurbiltzen gara, era bikarioan, elkarrizketatuaren esperientziara. Beraz, informazioa ordenatzerakoan eta aztertzeko apaltasun zientifiko handienarekin hasi behar gara.

Muga hau kontuan hartuz, azterketak helburu zehatza du: elkarrizketatuak bere bizitza nola ulertzen duen ezagutzea. Helburu hau hiru pauso emanez lortzen da:

- Elkarrizketak eta esku artean dauzkagun dokumentuak behin eta berri irakurri (edo entzun) behar dira, elkarrizketatuak emandako informazioa edota berak bizi izandako esperientzia ahal bezain egokien ezagutzeko eta ulertzeko.
- Behin irakurketa edota entzuketak egin ondoren, elkarrizketatuaren mundua edo bizitza berreraikitzen hasi behar gara. Horretarako, beharrezkoa da kontatutako guztia behar bezala testuinguratzea.
- Behin testuingurua behar bezala agertu ondoren, elkarrizketatuarentzat garrantzitsuak diren elementu, gertaerak edota momentuak aurkitu eta aztertu behar dira. Argi eta garbi agertu beharko dira elkarrizketan zehar garrantzi gehien izan duten arloak (esperientzia deskronologizatu bada) edo faseak, momentu eta gertaera kritikoak (esperientzia kronologizatu bada). Azterketarekin, elkarrizketatuaren bizitza edo esperientzia berreraiki behar dugu, eta, horretarako, agertu diren momentu, gai edo gertaera kritikoen arteko harremanak behar bezala aztertu behar dira. Hitz gutxitan esateko, elkarrizketatuek euren bizitza nola ikusten duten berreraiki behar da.

7.6. Azken txostenaren idazketa

Behin elkarrizketak aztertu eta interpretatu ondoren, azken txostena idatzi behar dugu. Beste edozein teknikan oinarritzen diren ikerketetan bezala, sarrerarekin hasi behar dugu txostena. Sarrera horretan, ikerketaren hipotesiak, azterketarako bizitza historien teknika aukeratzearen arrazoia eta ikerketaren helburu orokorrak aurkeztuko ditugu. Ondoren, lortutako emaitzen aurkezpena, ondorio orokorrak eta erabilitako bibliografia agertuko ditugu. Kontuan izan emaitzen aurkezpena egiterakoan elkarrizketatuaren aipamen zehatzak tartekatu behar ditugula; horrekin, gure baieztapenei zentzua ematen diegu edota egindako interpretazioak sendotzen ditugu.

Bukatzeke, aurkeztutako ondorio eta emaitzak hobeto ulertzen lagun dezaketen eranskinak sartuko ditugu. Bizitza historietan oinarrituta egiten diren ikerketen txostenen eranskinak zera eskaini behar diote irakurleari:

Hasteko, garrantzitsua da elkarrizketatu bakoitzari buruzko informazioa emango digun fitxa teknikoa sartzea. Fitxa tekniko honetan emaitzak ulertzeko garrantzitsuak izan daitezkeen elkarrizketatuaren berezitasuna guztiak sartuko ditugu: adina, sexua, ikasketa maila eta, oro har, ikerketarako garrantzitsuak izan daitezkeen datu guztiak. Elkarrizketaren data, tokia eta testuingurua ere zehaztuko ditugu. Informazio honek elkarrizketatua hobeto ezagutzen eta informazioa testuinguruan kokatzen lagunduko digu.

Fitxa teknikoaren ondoren, aipamen zehatzak zein elkarrizketen transkripzio guztiak sartu ditzakegu. Aipamenak zein transkripzioak, aztertutako gaiari gehiago sakondu zein zalantzak argitu nahi dituztenentzat dira. Kontuan izan, transkripzio osoak lan akademikoetan sartzen direla bakarrik.

Azkenik, elkarrizketak egiteko erabilitako gidoia sartuko dugu.

7.7. Bizitza historien kalitatearen kontrola

Bizitza historien kalitatea hobetzeko neurri batzuk hartu ditzakegu. Honako aholku hauek baliagarriak izan daitezke kalitatezko bizitza historiak lortzeko:

- Elkarrizketetan aurkezten diren gaiak edota egiten diren galderak argiak izan behar dira. Hau da, ondo ulertzen ez diren galderak, esanahi bi dituzten hitzak edo hitz eta kontzeptu zailak ekiditu egin behar dira.
- Ahots tonua, galderak egiteko modua, gaiak aurkezteko era edota elkarrizketaren jarrera orokorra ahal bezain egokienak izan beharko dira.
- Informazio grabatzeko erabiltzen ditugun gailuen eragina ahal bezainbeste murriztu behar da.
- Elkarrizketatuen adiera eta, oro har, elkarrizketa oztopatu dezaketen inguruneak ekidin.

Bizitza historien balioa lortutako informazioaren kontrolarekin loturik dago. Hau da, bildu dugun informazioaren egitasuna ziurtatu behar dugu. Honela, bada, nahiz eta elkarrizketatuek borondate ona erakutsi eta informazioa emateko gogoia izan, beharrezkoa da lortutako informazioa kontrolatzea. Zehazki, honako arlo hauek kontrolatu behar ditugu:

- Datu eta aipamen deskribatzaileak: elkarrizketatuak arazoak izan ditzake gauza guztiak gogoratzeko. Ondorioz, okerrak diren datu, data eta informazioak eman ditzakete. Hauek denak beste iturri batzuk (liburuak, artikuluak, beste elkarrizketatu batek emandako informazioa...) erabiliz zehaztu eta kontrolatu behar dira.

- Inkoherentziak: nahita edo nahi gabe elkarrizketatuak agertzen dituen inkoherentziak kontrolatu behar dira. Argi gelditu ez diren gaiak argitzerakoan kontu handiz arituko gara. Ez dugu inola ere aurrean daukaguna iraindu behar.
- Idealizazioak eta ihesak: askotan, bere pertsonalitatearen alde itsusiak ezkututzen edota aldatzen ditu elkarrizketatuak. Beste batzuetan, beste gai batzuetara pasatzen da, bere alde itsusienei buruz ez hitz egi-teagatik. Ahal den neurrian idealizazio eta ihes hauek kontrolatu beharko dira.
- Interes falta eta nekea: nekeak edo interes faltak garrantzitsuak diren gaiak albo batera uztera eramaten du edota arlo garrantzitsuak gehiegi laburbiltzera. Nekeak azalean gelditzea eta gaien behar bezala ez sar-tzea ekar dezake. Aurretik esan bezala, honelako kasuetan elkarrizketa suspertzen ahalegindu beharko gara, eta elkarrizketa suspertzea ezi-nezkoa dela ikusten badugu, beste egun baterako utziko dugu elkarriz-keta.
- Sen ona: Sen ona delakoak interpretazio errazetara eramaten du iker-tzailea. Ikertzailearen balore hierarkia elkarrizketatuaren esperientzia aztertzeke eta interpretatzeko erabiltzen da, eta horrek ondorio okerretara eraman dezake. Ikertzaileak bere eskema soziokulturalak ahal duen beste alboratzen, eta ahal duen neutraltasun handienarekin sar-tzen jakin behar du elkarrizketagileak emandako informazioan. Inter-pretazioak egiterakoan, era eszeptikoan lan egin behar da. Norbere ikuspuntuak, aurreiritziak eta sineskerak zalantzan jarritz, interpretazio errazak saihestuz eta azalpen errazegiak eztabaidan jarritz. Horretar-ako, beharrezkoa da oinarri teoriko on bat izatea.
- Azkenik, elkarrizketaren barne konsistentzia kontrolatu behar da. Ho-rretarako, lortutako informazioa ikerketarako bildu ditugun beste elka-rrizketetan lortutako informazioarekin alderatu behar da.

VIII

Eztabaida taldeak

«El “grupo de discusión” es un grupo simulado y manipulable. Simulado porque es un grupo sólo imaginario, un grupo que sólo llega a ser grupo como esperanza. Sobre el deseo de regresión a la madre pesa la urgencia del trabajo: el trabajo —producción de un discurso— es, a la vez, la única vía de acceso al grupo y la única vía de salida del grupo. La única vía de acceso al grupo, pues sólo podrán estar reunidos mientras hablen; sólo les estará asignado el espacio de la reunión mientras dure el tiempo de la discusión; para ser en el espacio —y el grupo es del espacio— tendrán que agarrarse al tiempo, apurarlo hasta las heces. La única vía de salida del grupo, pues la amenaza de la fusión y del ensarte —cuya posibilidad se manifiesta en los silencios y discontinuidades de la discusión, como grietas por las que podrían caer al abismo— sólo puede ser conjurada hablando; el discurso es un modo de tapar esos silencios y esas discontinuidades. Emparedados entre la angustia que produce la posibilidad de entrar en y de salir del grupo: entrada en el grupo para no salir de él, salida de él para no caer en él, ambas posibilidades sólo se dan en el discurso.

Manipulable, porque el “preceptor” tiene en la mano todos los hilos que mueven el grupo. Tiene poder para asignarles el espacio y, controlando el tiempo de esa asignación, controlar su tiempo. Pero también poder para determinar el grupo: él prescribe cuántos y quiénes van a venir. El grupo nace y muere dónde y cuando quiere el “preceptor”».

Ibañez, J. (1992): *Más allá de la sociología. El grupo de discusión: técnicas y crítica*

Sakoneko elkarrizketetan edo bizitza historietan bezala, eztabaida taldeen abiapuntu metodologikoa da zerbait aztertzeke eta ezagutzeko biderik onena gizakiei galdetzea dela. Hala ere, kasu honetan, galderak gizaki bakarri egin beharrean talde bati egiten dizkiogu. Alegia, gai baten inguruan dauden ikuspuntuak eta iritziak ezagutzeko talde eztabaida bat sortzen dugu.

8.1. Zer da eztabaida taldea?

Eztabaida taldea informazioa lortzeko moderatzailearen eta taldekide batzuen artean egiten den eztabaida da. Eztabaida honen bitartez, taldekideentzat garrantzitsua eta adierazgarria dena ezagutu nahi du moderatzaileak. Azken helburua da gai baten arlo garrantzitsuenak ezagutu, gai horren inguruan taldekideen artean egon daitezkeen ikuspuntuak ikertu edo adostasun eta desadostasunak aztertu. Moderatzailearen lana da, beraz, taldekideen artean eztabaida eta iritzien trukaketa ahalbidetuko duen giro lasaia sortzea.

Taldea kasu honetan, gai bati buruz eztabaidan parte hartzen dutenen irizkiak ezagutzeko bitartekoa da. Interes, balio, egoera edo esperientzia berdinak dituzten pertsonak elkartzen ditugu, eta euren arteko eztabaidatik ateratzen diren ideien azterketa egiten dugu.

(El grupo de discusión es un) «...colectivo de personas que participan por poseer los mismos intereses, los mismos valores, la misma situación social o una misma experiencia, y son analizadas tras haber sido puestas de algún modo u otro en contacto entre sí». Ruiz Olabuenaga, J.I. (1996): *Metodología de la investigación cualitativa*. Aip. Lib., 247. orrialdea

Giro lasaia sortzeak ez du esan nahi eztabaidak profesionala izan behar ez duenik. Hau da, ikertzaileak lortutako informazioa kontrolatu egin behar du.

Honekin batera, eztabaida ondo antolatu beharra dago. Horretarako, aztertu nahi ditugun gaiak biltzen dituen gidoia erabili behar da. Gidoia eztabaidan zehar ez galtzeko eta hitz egin beharreko gai guztiei buruz hitz egiteko erabiliko dugun tresna da.

Sakoneko elkarrizketan edo bizitza historietan bezala, gidoia ez dugu era zurrunean jarraitu behar. Eztabaidak hartzen duen norabidearen arabera, aldatu egin daiteke gidoian aurreikusten zen ordena. Hori bai, gidoian agertzen diren gai guztiei buruz hitz egiten saiatu beharko gara.

Gizarte Zientzietan askotan erabiltzen da eztabaida taldea. Izan ere, informazio iturri garrantzitsua da pertsona, iritzi edota ikuspuntu asko inplikaturik dauden prozesuen eta gaien arlo guztiak ezagutzeko.

8.2. Eztabaida taldeen abantailak eta desabantailak

Antzerakotasun asko daude sakoneko elkarrizketa eta eztabaida taldeen artean. Biak ere gizakien ikuspuntu, jarrera edota portaerei buruzko galdereetan oinarritzen dira. Dena dela, eztabaida taldeek badituzte sakoneko elkarrizketek ez dituzten abantailak eta desabantailak.

Eztabaida taldeen abantailak

—Taldeak zirikatzaila lana egiten du. Pertsona batzuk pentsatzen dutena egituratzeko eta adierazteko arazoak dituzten heinean, eztabaida tal-

deak ideiak ordenatzen eta azaleratzen laguntzen die. Taldean sortzen den eztabaidak beste era batera ahanzi daitezkeen xehetasunak gogoratzea eta adieraztea ahalbidetzen du. Taldeak, kasu honetan, sakoneko elkarrizketetan elkarrizketagileak egiten duen zirikatzaile edota motibatzaile lana egiten du.

- Eztabaida taldea oso teknika egokia da pertsona, iritzi edota ikuspuntu asko inplikatura dauden prozesuen arlo guztiak ezagutzeko. Besteak beste, teknika ona da, adibidez, taldean hartzen diren erabakiak nola hartzen diren aztertzeko, greba baten azterketa egiteko edo talde txikietan dauden gora beherak ezagutzeko.

Eztabaida taldeen desabantailak

- Gai batzuk ezin dira taldean aztertu. Gizakien barruko gaietan (esperientzia politiko pertsonalak, sozializazio politiko prozesuak...) edo tabuekin loturikoetan (talde eta gai klandestinoak...), adibidez, taldea iritzien oztopatzailea da gehiago zirikatzailea baino. Liburu honetan zehar askotan esan dugun bezala, erabili beharreko teknika ikergaiaren arabera aukeratu behar da. Zentzu honetan, zenbat eta ikergaia arlo pertsonaletara gehiago hurbildu, are eta gomendagarriagoa da sakoneko elkarrizketa erabiltzea. Aldiz, taldeen dinamikekin loturiko gaiak (alderdi politiko baten erabakitze prozesuak, taldeen barne egitura...) aztertzeko, askoz ere gomendagarriagoa da eztabaida taldeak egitea.
- Eztabaida moderatzaileak zuzentzen duen heinean, teknikak eragina izan dezake ikergaian. Moderatzailearen galderak egiteko moduak, janzkerak... eragina izan dezakete partehartzaileengan, eta hori baliorik gabeko datuen sorrera izan daiteke.
- Informazioa eztabaida taldean parte hartzen dutenen ahotik lortzen dugun heinean, ikertzailea taldekideen menpe dago. Gerta daitekeena da, beraz, eztabaidan parte hartzen dutenek ikerketarako garrantzitsua den informazioa eman nahi ez izatea, edo informazio hori nola adierazi behar den ez jakitea. Nahiz eta moderatzailea izan gaiak azaleratzen dituen, taldeko partaideen esku dago zer esan eta zer ez.

«En lo que se refiere a las ciencias sociales, Webb y otros (1966) han enumerado las diversas maneras en que los sujetos reaccionan cuando se les somete a observación científica, introduciendo así errores en los datos que se analizan; algunas de esas maneras son: la conciencia de ser observado o sometido a prueba. El rol que el sujeto asume o que le es asignado como entrevistado/a o informante. Las influencias que el proceso de medición ejerce sobre el sujeto. Los estereotipos y preferencias en la formulación de las respuestas. Los efectos de la interacción del experimentador-entrevistador/a sobre el sujeto. Krippendorff, K. (1990): *Metodología del análisis de contenido. Teoría y Práctica*. Ediciones Paidós, Barcelona, 40-41. orrialdeak.

8.3. Eztabaida taldeak egiteko aholku batzuk

Eztabaida taldeak antolatzerakoan, garrantzitsua da honako arlo hauek kontuan hartzea: moderatzailearen lana, eztabaidan parte hartuko dutenen aukeraketa, gidoiaren berezitasunak, nola egingo den eztabaidarako deialdia, nolakoak izan behar diren eztabaidako lehen 15 minutuak eta, azkenik, eztabaidaren bilakaera eta bukaera.

Moderatzailea: moderatzaile lana egin behar duenak oso ondo menperatu behar du eztabaida taldeen teknika. Argi izan behar du zertarako den talde eztabaida, eta ondo ezagutu behar ditu eztabaida bultzatzeko erabilgarriak izan daitezkeen baliabideak, baita teknika hori erabiliz lortu nahi diren helburuak ere.

Bestalde, taldeak izan ditzakeen aldaketa eta egoeretara egokitzen, eta taldea jarduera gabeko egoeretatik eztabaidara pasarazten jakin behar du. Besteak beste, moderatzaileak honako gaitasun hauek izan behar ditu:

- Eztabaida era egokian hasten jakin behar du. Sakoneko elkarrizketetan eta bizitza historietan bezala, garrantzitsua da egon daitezkeen zalan-tzak eta susmo txarrak hasieratik ekidin, eta taldekideen konfiantza eta interesa ziurtatzea. Honela, bada, eztabaidaren anonimotua ziurtatzeaz gain, taldekideek jakin nahi dezaketen edozein informazio eman behar da (ikerketa nork ordaintzen duen, ikerketarako teknika gisa eztabaida taldea erabiltzearen arrazoia, eztabaidarako aukeratzearren arrazoia, eztabaidak iraungo duen denbora...). Era berean, eztabaida grabatzeko baimena eskatu eta gutxi gora behera eztabaidak iraungo duen denbora argitu behar dira.
- Partehartzaileak eztabaidara bultzatzeko gai izan behar da.
- Taldearen kezka, nahi, arazo eta beharrekiko sentsibilitatea adierazten jakin behar du. Taldean gertatzen diren gauzetaz eta egoerez konturatzeko eta hauei egokitzeko gaitasuna izan behar du. Taldeak eztabaidan zehar egiten duen ibilbide bera egin behar du moderatzaileak.
- Eztabaidaren aria aldatu, mantendu edo geldiarazteko gai izan behar da.
- Pazientzia izan behar du taldekideekin, eta jendeari tratu ona ematen ere jakin behar du; batez ere egoera gatazkatsuak sortzen direnean.
- Nork, zenbat denbora eta noiz parte hartuko duen erabakitzeko gai izan behar da. Hitzak ematen eta kentzen jakin behar du.
- Neutrala izan behar da. Guztiei errespetuz hitz egiten jakin behar du, baita denei berdintasunezko tratua ematen ere.
- Parte-hartzeak edota eztabaidatzen diren gaiak bultzatzeko, oztapatzeko eta bizkortzeko gai izan behar da. Garrantzitsua dena eta ez dena eta sakondu behar dena eta ez dena desberdintzen jakin behar du.
- Moderatzaileak galderak egin behar ditu, baina galdera horiek ez dute epaiketa edo azterketa baten itxura hartu behar. Bere helburua eztabaida gidatzea edo zuzentzea da, ez polizi lana egitea.

Taldean parte hartuko dutenen aukeraketa: moderatzaileak egin behar duen lehen gauza da eztabaida taldean parte hartuko dutenen aukeraketa. Honek esan nahi du eztabaidan nortzuk eta zenbatek parte hartuko duten erabaki behar duela:

Nortzuk parte hartuko duten aukeratzekoan, partehartzaileek gaiarekiko duten ezagutzaren arabera, adituen taldeak edo talde adierazgarriak osatu ditzakegu. Hau da, ikertzen ari garen gaiarekin zerikusia duten pertsona guztien artean batzuk hartzen baditugu, aztertzen ari garen unibertsoaren talde adierazgarria dugu. Aldiz, gai horren inguruko adituak hartzen baditugu iritzi taldea dugu. Honela, bada, ikasleen arazoei buruzko eztabaida taldea osatzeko, zoriz ikasleen artean batzuk aukeratu ditzakegu, edo ikasleen arazoetaz ezagutza handia duten zenbait iritzi lider hartu ditzakegu. Talde motaren aukeraketa gaiaren eta dauden helburuen arabera egiten da. Beti ere, kontuan izan aukeratuko direnen fidagarritasuna ziurtatu behar dela.

Taldearen osaketari dagokionez, talde homogeenak edo heterogeenak osatu ditzakegu. Talde homogeenetan, berezitasun soziodemografiko berdina edo gaiarekiko harreman edo iritzi berdina antzekoak dituzte partehartzaileak. Era honetako taldeak egiten direnean, gaiaren iritziaeren arabera talde eztabaida desberdinak antolatzen dira, talde batetik bestera desberdintasun adierazgarriak dagoen aztertzeko.

Talde heterogeenetan berezitasun soziodemografiko edo gaiarekiko harreman edo iritzi desberdinak dituzte taldekideak. Kasu honetan, talde berean berezitasun soziodemografikoen eta gaiarekiko harreman desberdina dutenen artean desberdintasun adierazgarriak dagoen ezagutu nahi da.

Honela bada, lau eratako eztabaida taldeak ditugu:

- Adituen talde heterogeenoa: gaiaren inguruan posizio edo ikuspuntu desberdinak dituzten adituen taldea da.
- Adituen talde homogeenoa: gaiaren inguruan antzerako posizio edo ikuspuntuak dituzten adituen taldea da.
- Talde adierazgarria heterogeenoa: gaiaren inguruan posizio edo ikuspuntu desberdinak dituzten, eta ikertzen ari garen gaiarekin zerikusia duten pertsona mota guztien isla den taldea.
- Talde adierazgarria homogeenoa: gaiaren inguruan posizio edo ikuspuntu berdina dituzten, eta ikertzen ari garen gaiarekin zerikusia duten pertsona mota guztien isla den taldea

Talde naturalen barne dinamikak ezagutu nahi diren kasuetan kenduta, partehartzaileak ez dira elkar ezagutu behar. Elkar ezagutzeak bat-batekotasuna eta hitz egiteko askatasuna oztokatzen ditu. Ezezagunen artean dagoen anonimatuak testuinguru egokiagoa sortzen du ezkutuen dauden iritziak azalertzeko.

Zenbat: ez dago adostasunik eztabaida taldean zenbat pertsonak parte hartu behar dutenari buruz. Batzuentzat, talde txikiena bi pertsonakoa da eta handiena hamabikoa. Beste batzuentzat, aldiz, eztabaida taldeak bost eta hamar pertsona artean izan behar ditu.

Eztabaidak eztabaida, taldea osatuko dutenen kopurua taldea kontrolatzeko moderatzaileak duen gaitasunaren, aztergai den gaian dauden iritzi desberdinen eta jende kopurua gehituz lortzen dugun informazio gehigarriaren arabera dago.

Kontuan izan taldekideen kopurua handitzean, taldekideen arteko elkarrekintza gaitasuna eta eztabaidaren aberastasuna handitzen dugula (taldeki-deak asko badira, ikuspuntu eta iritzi gehiago agertuko dira). Hala ere, talde handiegiak ditugunean (12 pertsonako edo gehiagoko taldeak) oso zaila da eztabaida kontrolatzen, eta moderatzaileak arazoak izango ditu honako egoera hauek ekiditeko:

- Taldean dauden pertsonalitate sendoenek euren ikuspuntuak, iritziak eta ideiak inposatzen dituzte. Hau da, lotsatiagoek edo euren ideiak egituratzeko eta azaleratzeko arazoak dituztenek ez dituzte euren ikuspuntuak agertzen, eta bat egiten dute gehien hitz egiten dutenen iritziekin.
- Norbaitek edo norbaitzuek besteei hitz egiteko aukerak kentzea, gehiegi hitz egiten dutelako edo besteei hitza kentzen dietelako.
- Norbaitek edo norbaitzuek eztabaida interesgarriak ez diren gaietara eramatea.
- Denboraren banaketa txarra egitea, taldeko partaide guztiek euren ikuspuntua lasaitasunez eta askatasunez eman dezaten oztopatuz.
- Taldea azpitaldeetan apurtuz, taldekideen artean eztabaida bat baino gehiago sortzea moderatzailearen kontroletik kanpo.

Gure ustez, talde eztabaida onenak dira zazpi edo zortzi pertsonen osatuta daudenak. Izan ere, hitz egiteko eta iritziak azaleratzeko kopuru egokia izateaz gain, moderatzeko errazena da. Dena dela, partehartzaileen datu pertsonalak edo hauen esperientziak sakonean ezagutzea nahi badira, hiru edo lau pertsonako eztabaida taldeak ere osatu daitezke.

Gidoia: moderatzaileak gidoi baten arabera eta ez inkesta baten arabera, zuzentzen du eztabaida taldea. Dena dela, sakoneko elkarrizketak eta bizitza historiak aztertzerakoan esan dugun bezala, gidioia ez da era zurrunean jarraitu behar. Zentzu honetan, eztabaidak hartzen duen norabidearen arabera gai batzuk sartuko ditugu eta beste batzuei garrantzia kenduko diegu.

Gidoia zehatza izan behar da, operatiboa izatea nahi bada. Ondo zehaztu behar dira gai nagusiak eta bigarren mailakoak zeintzuk diren, eta gaien edo galderen ordena zein den (gai orokorrenetatik zehatzenetara). Hala ere, ez aiantzi eztabaidak daraman norabidearen arabera galderen ordena aldatu egin daitekeela.

Moderatzaileak gidioia buruz ikastea komeni da; horrela, malgutasuna handiagoarekin zuzendu ahal izango du eztabaida. Kontuan izan ez ahozko komunikazio oso garrantzitsua dela eztabaida taldeetan, eta gidoiari gehiegi begiratzeak ez ahozko komunikazio hau oztopatu dezake-

ela. Hala ere, gidoia aurrean izatea garrantzitsua da, zein gai aztertu den eta zein ez kontrolatzeko.

Moderatzaileak eztabaidaren momentu edota fase bakoitzean galdera egokiak egiten jakin behar du. Ezin du eztabaidak daraman bilakaera apurtu; ezta nahi duena galdetu ere. Galderak egiterakoan interesgarria izan daitezke honako aholku hauek kontuan hartzea:

- Galdera guztiek erantzuna sortarazi behar dute. Ez egin erantzunik ez duten edo erantzun zaila duten galderarik.
- Eztabaida bultzatzen duten galderak egin behar dira.
- Ez da komeni taldekideen ezjakintasuna begi bistan utziko duten galderarik egitea. Izan ere, horrelako galderekin parte-hartzeko eta iritziak emateko beldurra areagotu daiteke taldekideen artean.
- Taldekideek erantzuteko moduko galderak egin behar dira. Ezin dira egin galdera zailegiak edo abstraktuegiak. Galdera errazak eta ulerkorrak egin behar dira.
- Galderek pentsamendua estimulatu behar dute.
- Galderak modu naturalean egin behar dira, taldekideek ulertuko duten hizkuntza erabiliz, eta konfiantza adierazten duten tonuan.
- Galderek helburu zehatza izan behar dute; alegia, informazioa lortu, gai bati buruzko zenbait puntu azaleratu edota eztabaida sortzeko pentsamendua piztu behar dute.
- Eztabaidan zehar egiten diren galderek ez dute taldekiderik baztertuko, ezta inor goraiapatuko ere; galdera guztiak ondo pentsatuta egin behar dira.

Eztabaidarako deialdia: behin gidoia prestatu eta eztabaidan parte hartuko dutenak aukeratu ondoren, eztabaidarako deialdia egin behar dugu. Deialdi hau eskutitz bitartez edota telefonoz egin genezake. Dena dela, deialdia egiterakoan, aztertu behar den gaia, ikerketaren helburua, eztabaida egingo den eguna, ordua eta tokia (mapa edo krokis txiki batek asko laguntzen du) eta eztabaidak iraungo duen denbora zehaztu behar dira.

Deialdia ondo egitea garrantzitsua da, jendea eztabaidara etortzea nahi badugu. Kontuan izan zalantza edo susmo txarrek eztabaida taldean parte ez hartzera eramán dezaketela. Beraz, deialdian, eztabaidan parte hartzeko taldekideek izan dezaketen edozein beldur uxatzen saiatu behar gara.

Hasierako hamabost minutuak: eztabaida ezagutzen ez diren pertsonen eta moderatzailearen artean egiten da. Honek esan nahi du hasierako hamabost minutuak oso garrantzitsuak direla. Honela, bada, hasierako momentu hauetan aholku hauek garrantzitsuak izan daitezke:

- Moderatzailea behin taldea elkartuta dagoenean elkartzen da taldekideekin. Honek azalpenak behin eta berriz ematen ez ibiltzea dakar, eta, era berean, azken etorri direnen txarto ulertuak edota susmo txarrek ekiditen laguntzen du.

- Taldekideak behar bezala jarrita daudenean hasten da eztabaida. Hau da, eztabaida ez da hasi behar gauza guztiak (argia, aulkiak, zaratak, grabagailua...) eta taldekide guztiak prest egon arte.
- Jendea lasaitu asmoz, gomendagarria da informalitate pixka batekin hastea. Eztabaida taldeari hasiera eman aurretik, taldekideen artean garrantzi gabeko gaietara buruz solasaldi txiki bat (eguraldia, aparkatzeko arazoak...) izatea ona da, jendearen arteko harremanak modu egokian hasteko.
- Moderatzaileak bere buruaren, ordezkatzeko duen erakundearen eta gaiaren aurkezpena egin behar du, lehenengo eta behin. Baita lanaren zergatia eta teknika gisa eztabaida taldea aukeratzeko arrazoia azaldu ere.
- Behin aurkezpena egin ondoren, eztabaida grabatzearen zergatia azaldu, eta eztabaidan zehar esango diren guztien anonimatua ziurtatu behar dira.
- Moderatzaileak eztabaidari buruzko arauak ezarri behar ditu hasieratik: elkarrekiko errespetua gordeko da, eta ez da irainik edota kritika pertsonalik onartuko.
- Azkenik, moderatzaileak aurkezpen labur bat egiteko eskatzen die taldekideei. Aurkezpenarekin elkar ezagutu, besteak kokatu, hasieran izaten den hitz egiteko latsa gainditu eta jendea hitz egitera bultzatu nahi da.

Behin erositasuna, konfiantza eta motibazioa ziurtatu direnean, moderatzaileak beroketa galdera bat botatzen du, eztabaidari hasiera emateko. Galdera honek honako berezitasun hauek izan behar ditu:

- Orokorra eta jendeak erraz erantzuteko modukoa izan behar da. Zentzu honetan, bai, ez edo zenbakiak bezalako erantzunak sortarazten dituzten galderak ekidin. Zer, nola, noiz eta zergatik bezalako galderak erabiltzea ere ez da komeni; izan ere, taldekideek gauza zehatz bat erantzun dezakete, eta horrek euren hitz jarria blokeatu dezake.
- Ez da galdera konprometitua izan behar. Galdera konprometituek iritziak emateko eta parte hartzeko beldurrak areagotu ditzakete.
- Guztiak erantzun behar diote, nahitaez, lehen galdera honi. Bata bestearen atzetik, txanda jarraituz, erantzun behar diote taldekideek galderari. Horrekin, iritziak emateko hasieran izaten den latsa edota beldurra gainditu nahi dira.

Lehen galdera hau beste bi edo hiru galdera orokorrekin batera joan daiteke. Kontuan izan, lehen hamabost minutuetan partehartzaileen lasaitasuna eta motibazioa ziurtatu behar ditugula.

Eztabaidaren bilakaera: beroketarako lehen 15 minutuak bukatu ondoren, gaiaren arlo zehatz bat aurkezten da. Oinarrizko gai honetatik hasita, eztabaida fokatzeko, egituratzen eta dinamika propio bat hartzen hasten da. Mo-

deratzailea eztabaidaren gidaria da, ez bultzatzailea. Bere parte-hartzearekin zera ekidin behar du:

- Pertsona batek edo bik eztabaida monopolizatzea.
- Isiltasuna nagusitzea
- Taldea moderatzaileak kontrolatu ezin dituen talde txikietan banatzea.
- Eztabaida gai bakar batean finkatzea, eta hortik ez ateratzea.
- Eztabaida emozioen (amorrua, haserrea, zoramena, pesimismoa...) eta ez deskripzio eta informazio zehatzen arabera zuzentzea.

Moderatzaileak eztabaida gidatzen dagoela erakutsi behar du, batzutan ahozko komunikazioaren bitartez (hitza emanez edo kenduz...) eta beste batzuetan ez ahozko komunikazioaren laguntzarekin (hitz egiten duen pertsonaren begietara begiratzuz, eskuekin hitza emanez edo kenduz, buruaren mugimenduekin ulertzen ari denaren itxura emanez...). Dena dela, ez du ebaluaketarik egin behar. Bere lana eztabaida bultzatzea eta aztertzen ari den gaiari buruzko informazio eta iritziak azaleratzea da, ez taldekideen iritzien ebaluaketak egitea.

Eztabaidaren amaiera: eztabaida bi ordu baino gutxiagokoa izatea gomendatzen da. Izan ere, parte-hartzaileak nekatu egiten dira, eta behin ordu bi pasatu ondoren eztabaidak emaitza on gutxi ematen ditu. Gainera, jendea nekatuta dagoenez, errespetu faltak eta irainak errazago azaleratzen dira, eta hori arazo larria izan daiteke eztabaidari bukaera egokia emateko.

«El tiempo que puede transcurrir entre el inicio y el término —la longitud del vector temporal asignado— puede variar. Los límites de la variación están comprendidos entre dos urgencias prácticas: el hueco que pueden hacer los actuantes en su vida real y la envergadura del trabajo que tienen que cumplir en el grupo. La duración “normal” suele ser de una a dos horas. Pero se ensayan técnicas en las que la reunión dura días enteros (hasta un fin de semana)». Ibañez, J. (1992): *Más allá de la sociología. El grupo de discusión: técnicas y crítica*. Aip. Lib. 274. orrialdea.

Behin eztabaida bukatu denean, moderatzaileak zerbait gehiago gaineratu, argitu edo komentatu nahi duten galdetu behar die taldekideei. Era berean, esandako gauza garrantzitsuenen eta adostasun eta desadostasunen laburpena egin beharko du, taldekideen parte-hartzea eskertu aurretik.

58. ADIBIDEA: eztabaida taldeak

GALDAKAOKO UDAL EUSKALTEGIARI BURUZKO IKERKETA (1993)

Galdakaoko Udal Euskaltegiko jarrerak ezagutzeko, lau talde eztabaida egin genituen:

1. Lehen talde eztabaida euskararen irakaskuntzan inplikaturik zeuden galdakaotarrekin egin genuen: aek-ko hiru irakasle, Udal Euskalte-

- giko hiru irakasle eta Galdakaoko Institutuko euskara irakasle bi elkartu genituen. Zortzi pertsonako eztabaida talde honekin euskararen irakaskuntzak Galdakaon dituen arazoak aztertu nahi genituen.
2. Bigarren eztabaida taldea Udal Euskaltegiko ikasleekin egin genuen. Euskaltegian une horretan ikasten ari ziren ikasleak hartu genituen, Euskaltegiaren alde on eta txarrak aztertzeko.
 3. Hirugarren talde eztabaida iraganean Euskaltegian ibili eta utzi dutenekin egin genuen. Eztabaida talde honekin, euskaltegia uzteko izan zituzten arrazoiak aztertu nahi genituen.
 4. Azken eztabaidan, Euskaltegian inoiz ibili ez diren galdakaotarrak hartu genituen, Euskaltegiari buruz zuten iritzia ezagutzeko.

Lau eztabaida hauetatik lortutako informazioarekin, Galdakaoko Udal Euskaltegiari buruzko jarrerak, ikasleria gutxitzearen arrazoiak eta arazo honen aurrean hartu behar diren erabakiak edo martxan jarri behar ziren estrategiak ezagutu nahi genituen.

8.4. Prozesuak eztabaida taldean

Sakoneko elkarrizketetan bezala, eztabaida taldeetan hiru prozesu dauzagu: elkarrekintza prozesua, informazioa ateratze prozesua eta informazioa gordetze prozesua. Beraz, sakoneko elkarrizketan esan ditugun gauza asko baliokoak dira hemen ere.

8.4.1. ELKARREKINTZA PROZESUA

Moderatzaileak harreman ona lortu behar du taldekideekin. Guztiei tratua bera emanez, konfiantza egoera sortu behar du. Dena dela, gai izan behar da protagonismo agerpen guztiak edota batzuen gehiegizko parte-hartzeak mozteko. Era berean, guztiei hitz egiteko aukera berdinarik eman behar dizkie. Hori dena, inor mindu, iraindu edota baztertu gabe.

Moderatzailearen lana ez da taldekideek esandakoaren aurka agertzea, ezta taldekoek esandakoa zuzentzea edota isiltasuna ezartzea ere. Bere lana da baldintza egokiak sortzea, guztiek euren iritzia emateko eta gaiari buruz eztabaidatzeko aukera berdinarik izan ditzaten. Dauden desberdintasunak azaleratzeko, errespetuzko eta lasaitasunezko egoera sortzen jakin behar du.

8.4.2. INFORMAZIOA ATERATZE PROZESUA

Moderatzailearen helburua da informazioa lortzea, eta, horretarako, animatzaile lana egiten du. Ez ahozko komunikazioa zein ahozko komunikazioa erabiliz, eztabaida bide onetik doala ziurtatu, taldekideak euren iritzia ematera bultzatu eta, oro har, eztabaida kontrolatu behar du.

Ez dago eztabaida taldea zuzentzeko arau zehatzik. Izan ere, talde bakoitza desberdina da. Gainera, baldintzak aldatu egiten dira eztabaida batek bestera. Beraz, arau onena da taldearen dinamika eta bilakaera hurbiletik jarraitzea. Moderatzaileak taldearen bilakaera kontrolatu behar du, taldekideekiko harreman ona eta enpatia galdu gabe. Taldea osatzen duten denek bere menpe egon behar dute: asko hitz egiten dutenak zein gutxi hitz egiten dutenak.

Informazioa ateratze prozesuan, garrantzi berezia dute galderen aurkezpenak eta eztabaidaren susperdurak:

Galderen aurkezpena: moderatzaileak galdera orokorrak botatzen hasiko da, konfiantzazko egoera sortzeko.

Hemendik aurrera, eztabaida zehazten joango da, eta moderatzaileak gero eta galdera zehatzagoak aurkeztuko ditu. Azaletik sakonera eramango du eztabaida; hau da, deskribapen orokorretatik hasi ondoren, gauden sakoneko esanahiak ezagutzera pasatuko da. Gai bat bukatzen den bakoitzean, beste galdera edo gai bat izango du prestatuta eztabaidarekin jarraitzeko.

Informazioa ateratze prozesu honetan, moderatzaileak taldekideek ematen duten informazio ulertu, blokeatutako gai eta eztabaidak aurrera atera eta garrantzi berezia duten gaiak detektatzen jakin behar du.

Behin eztabaida martxan jarri denean, moderatzaileak desagertzen jakin behar du. Dinamika propioa hartu duen taldetik apartatu egiten behar da, eta eztabaidari bere bidea egiten utzi behar dio.

Noizean behin, moderatzaileak biltzen ari den informazioaren laburpenak egin behar ditu, taldekideei jasotzen ari den informazioa ulertzen ari dela erakusteko. Laburpen hauek argi gelditu ez diren arloak argitzen lagunduko diote moderatzaileari. Era berean, laburpenek euren iritziak eta esperientziak hobeto egituratzen laguntzen diote taldekideei, eta horrek eztabaidan sakontzen laguntzen die.

Eztabaidaren susperdura: taldearen dinamika gelditu edo blokeatu egin daiteke. Besteak beste, gaia bukatu delako, taldekideak nekatuta daudelako edo gai batzuen inguruan ez dutelako eztabaidatu nahi.

Blokeo egoera hauetan, moderatzailearen lana da eztabaida suspertzea. Horretarako, lehenengo eta behin, eztabaida blokeatzen duen arrazoa ezagutu behar da, hartu beharreko erabakia hartzeko. Eztabaida suspertzeko mekanismo desberdinak daude:

- Gai baten inguruko eztabaida bukatu bada, gai berri bat atera behar da. Gai berri hori aldeztu aurretik prestatu den gidoitik aterako dugu.
- Taldekideak nekatuta daudela ikusten badugu, atsedendalditxiki bat, kafetxo bat edo lasaitzeko beste edozein aitzakia erabili genezake.
- Taldekideek eztabaidarekin jarraitzeko gogo gutxi erakusten badute, eztabaidarekin lortzen ari den informazioaren garrantzia eta, oro har, ikerketaren garrantzia azpimarratu beharko dira.

—Taldekideek euren iritziak emateko arazoak badituzte, euren ideia eta pentsamenduak ordenatzen edota egituratzen lagundu, eta gaien pisua kendu beharko zaie. Horrek, eztabaidarekin jarraitzen lagunduko die taldekideei.

Eztabaida suspertuz eztabaidarekin jarraitu nahi da. Zentzu honetan, sakoneko elkarrizketa suspertzeko aurkezten genituen teknika askok eztabaida taldea suspertzeko ere balio dute. Zehazki, oihartzuna, laburpena, bilakaera, ekitea, aukeratutako aipamena, hozkailua, atsedena, lekoratzea, estimulazio eta atzerapena eztabaida taldeetan ere erabili daitezke (ikus sakoneko elkarrizketei buruzko atala).

8.4.3. INFORMAZIOA GORDETZE PROZESUA

Sakoneko elkarrizketan bezala, eztabaida taldeen hirugarren prozesua informazioa gordetzearekin loturik dago. Kontuan izan informazioa gordetzerakoan taldekideen kontzentrazioa oztopatzen duten elementu guztiak (zaratak, toki desegokiak...) ekidin behar ditugula. Zentzu honetan, oso ondo pentsatu behar da nola gordeko dugun informazioa eta non egingo dugun eztabaida taldea.

Nola gorde informazioa: eztabaida gordetzeko bideokamerak zein ahots grabagailuak erabili daitezke; ahantzi gabe era honetako gailuek eztabaidaren bat-batekotasuna oztopatu dezaketela.

Gure ikuspuntua da paperean notak hartzea baino egokiagoa dela grabaketak egitea; izan ere, eztabaida hobeto kontrolatzen da, eta taldearen dinamika hobeto suspertzen da. Beraz, notak hartzen baditugu, eztabaida zein taldearen dinamika blokeatu ditzakegu; ezin dugu ahantzi idazten den baino bizkorrago hitz egiten dela.

Informazioa biltzeko teknirik egokiena grabagailuak (bideokamerak ezin ahots grabagailuak) dira. Dena dela, era honelako gailuek sor ditzaketen blokeoak saihesteko, ezkutuko kamerak erabili daitezke. Hala ere, teknika hau ez da oso gomendagarria. Izan ere, era honetako estrategiek dituzten arazo etikoez gain, gure ikerketa hankazkora jarri dezakete. Taldekideak ezkutuko grabagailuak erabiltzen ari garela ohartzen badira eztabaida bertan bera utzi dezakete, eta, txarragoa dena, beste eztabaida batzuk egiteko aukerak murriztuko genituzke.

Sakoneko elkarrizketa egiteko tokirik onena: garrantzitsua da eztabaida egiteko toki egokia bilatzea. Tokiak eragin handia dauka taldearen dinamikan, eta, ondorioz, eztabaidan. Beraz, eztabaida taldea egingo dugun tokiak taldekideen lasaitasuna eta kontzentrazioa erraztu behar du, guztiak ondo eserita egongo direla ziurtatu behar du, eta eztabaida inolako arazorik gabe grabatzea ahalbidetu behar du. Inoiz ere ez ditugu taldekideak joan nahi ez duten toki batera eramango. Susmo txar guztiak ekidin behar direnez, taldekideak lasai egongo diren tokiren batera eramango ditugu.

8.5. Informazioaren azterketa

Behin informazioa bildu denean, azterketa eta interpretazio fasea hasten da. Sakoneko elkarrizketan bezala, behin eta berriz irakurri edota entzun behar dira eztabaidak.

Ondoren, esandakoak ordenatzen eta aztertzen hasten da ikerlaria. Garrantzitsuak diren gaiak eta arloak ezagutu ondoren, taldekideak zertan dauden ados eta zertan ez aztertu behar da; kontzientzia eta ditzientzia ezagutzea eta interpretatzea da, hain zuzen ere, eztabaida taldearen originaltasuna.

Ikerlariak ezin du taldekideen iritzi, balorazio edo adierazpenen deskribapen hutsa egin. Azterketak aurrerago joan behar du; hau da, ikerlariak interpretazioak egiten jakin behar du. Laburbilduz, eztabaida taldetatik lortutako informazioa aztertzeko hiru pauso eman behar dira:

- Eztabaida behin eta berriz irakurri (edo entzun) behar da, taldekideek emandako informazioa ulertzeko.
- Taldekideentzat garrantzitsuak diren elementuak, gertaerak edota momentuak aurkitu eta aztertu behar dira.
- Dauden adostasun eta desadostasunak aztertu behar dira.

8.6. Azken txostenaren idazketa

Txostena idazteko formula magikorik ez dago. Hori bai, egiten ditugun txostenak ulergarria izateaz gain, argi adierazi behar dute zeintzuk diren eman diren pausoak eta hartu diren erabakiak.

Era berean, edozein txostenek gutxieneko atal batzuk izan behar ditu. Txosten guztiek aurkibideak, sarrera, erabilitako teknika eta erabaki metodologikoei buruzko azalpenak, aurkikuntzen aurkezpen atala eta ondorioak izan behar dituzte. Azkenik, hiru gauza sartuko dira eranskinetan:

Eztabaida talde bakoitzarentzako fitxa tekniko bat egin behar da. Fitxa tekniko honetan, eztabaidan parte hartu duten guztien berezitasun garrantzitsuenak agertuko ditugu: adina, sexua eta, oro har, ikerketarako garrantzitsuak izan daitezkeen datu guztiak. Eztabaidaren data, tokia eta testuingurua ere zehaztuko ditugu, baita eztabaida ulertzeko eta testuinguratzeko interesgarriak izan daitezkeen komentario edota aipamenak ere.

59. ADIBIDEA: eztabaida taldearen fitxa teknikoa

GALDAKAOKO UDAL EUSKALTEGIARI BURUZKO IKERKETA (1993)

Galdakaoko Udal Euskaltegiko jarrerak ezagutzeko euskarako irakasleekin egindako eztabaidaren berezitasunak honako fitxa tekniko honetan agertzen dira:

Irakasleekin egindako eztabaidaren fitxa teknikoa

Eztabaidan parte hartu dutenen berezitasunak: aek-ko hiru irakasle, Udal Euskaltegiko hiru irakasle eta Galdakaoko Institutuko euskarako irakasle bi.

Sexua: bost emakumezko eta hiru gizonezko

Adina: zortziak 25 eta 50 urte bitarteko irakasleak dira. Denek zazpi urte baino gehiago daramatzate euskararen irakaskuntzan.

Jatorria: guztiak Galdakaoko biztanleak dira nahiz eta bat Galizian jaioa izan.

Eztabaida egin zen tokia: Galdakaoko Udal Euskaltegia

Eguna eta ordua: 1993. urteko apirilaren 25ean

Eztabaidaren iraupena: ordu bi

Eztabaidatik lortutako ideia garrantzitsuenak: euskararen irakaskuntzaren munduan lanean dihardutenen arabera aldatu egin dira euskara ikas-tera hurbiltzen direnen motibazioak. Euskara ikasten duten asko eta asko etxeokak bidalita edo eskolan euskara ikasgaia gainditzeko etortzen dira euskaltegira.

Bestalde, aditu hauentzat jendeak ez du euskara ikastearen beharrik sentitzen. Euskaltegian ikasleria gutxitzearen arrazoiatariko bat da, euskara jakitea ez dela beharrezkoa.

Fitxa teknikoaren ondoren, aipamen zehatzak zein elkarrizketen transkripzioak sartu ditzakegu. Aipamenak zein transkripzioak, aztertutako gaien gehiago sakondu zein zalantzak argitu nahi dituztenentzat dira. Kontuan izan eztabaida guztiaren transkripzioak lan akademikoetan sartzan direla bakarrik.

Azkenik, elkarrizketak egiteko erabilitako gidoia sartu behar da.

8.7. Eztabaida taldeen kalitatearen kontrola

Sakoneko elkarrizketekin bezala, autore batzuen arabera ezinezkoa da eztabaida taldeen fidagarritasun eta balioari buruz hitz egitea. Autore horien arabera, hobe da kalitatearen kontrolari buruz hitz egitea. Hala ere, gure ustez, badaude eztabaida taldeen fidagarritasuna eta balioa hobetzeko estrategia batzuk.

Neurtzeko tresna bat fidagarria da behin baino gehiagotan erabili ondoren konsistentea denean, hau da, ondorio berdinetara eramaten gaituenean. Eztabaida taldeetan konsistentzia ezin da, inola ere, frogatu. Izan ere, moderatzaileak ezin ditu talde eztabaida bi modu berean moderatu; hain zuzen ere, talde eztabaida bi ezin direlako inoiz ere berdinak izan. Moderatzaileak gaiak aurkezteko duen modua, erabiltzen duen ez ahozko komunikazioa eta, oro har, bere jarrera ezin dira konsistenteak izan.

Hala ere, eztabaida taldeen fidagarritasuna, edo, nahiago bada, kalitatea hobetzeko neurri batzuk hartu ditzakegu. Besteak beste, honako aholku hauek baliagarriak izan daitezke kalitatezko eztabaida taldeak egiteko:

- Gidoi berbera erabili eztabaida guztietan.
- Galdera argiak egin.
- Mundu guztiak ulertzen dituen hitzak erabili.
- Grabagailuen eragin ezkorrak ahal bezainbeste ekidin.
- Eztabaidak toki lasaietan egin behar dira, hau da, partehartzaileen adiera oztopatuko ez duten tokiak aukeratu.
- Ahots tonua, galderak egiteko modua, gaiak aurkezteko era edota el-karrizketaren jarrera orokorra ahal bezain egokienak izan behar dira.

Neurtzeko tresna bat baliokoa da neurtu behar duena neurtzen duenean. Sakoneko elkarrizketan edo bizitza historian bezala, eztabaida taldeetatik lortutako informazioaren balioa, informazio honen kontrolarekin loturik dago. Zentzu honetan, garrantzitsua da honako arlo hauek kontrolatzea:

- Datu eta aipamen deskribatzaileak: taldekideek arazoak izan ditzakete gauza guztiak gogoratzeko; ondorioz, okerrak diren datuak eta informazioak eman ditzakete. Datu eta aipamen hauek beste iturri batzuk (liburuak, artikulua, beste elkarrizketatu batek emandako informazioa...) erabiliz zehaztu eta kontrolatu beharko dira.
- Inkonsistentzia eta zalantza informazioak: nahita edo nahi gabe taldekideek agertzen dituzten inkoherentziak kontrolatu egin behar dira.
- Idealizazioak eta ihesak: askotan, euren pertsonalitatearen alde itsusi- enak ezkututzen edota euren izaera aldatzen dituzte taldekideek. Beste batzuetan, beste gai batzuetara pasatzen dira euren alde itsusienei bu-ruz ez hitz egiteagatik. Ahal den neurrian idealizazio eta ihes hauek kontrolatu beharko dira.
- Interes falta eta nekea: nekeak edo interes faltak garrantzitsuak diren gaiak albo batera uztera edota gehiegi laburbiltzera eramaten du. Ne-keak azalean gelditzera eta gaian behar bezala ez sartzera eramaten de- zake. Aurretik esan bezala, honelako kasuetan, eztabaida suspertzen ahalegindu beharko gara, eta eztabaida suspertzea ezinezkoa dela ikusten badugu, beste egun baterako utziko dugu eztabaida.
- Sen ona: Sen onak interpretazio errazetara eramaten du askotan iker- tzailea. Ikertzailearen balore hierarkia taldekideen esperientzia azter- tzeko eta interpretatzeko erabiltzen da, eta horrek ondorio okerretara eramaten gintzake.
- Azkenik, elkarrizketaren barne konsistentzia kontrolatu behar da. Ho- rretarako, lortutako informazioa ikerketarako bildu ditugun beste elka- rrizketetan lortutako informazioarekin alderatu behar da.

IX

Delphy

Delphy es una técnica de análisis del estado de opinión. Dentro de este marco de opinión, Delphy parte de un supuesto fundamental tan vulgar como el que afirma que «dos ojos ven más que uno» y que la opinión de un individuo solo es menos fiable que la opinión de un grupo de personas en igualdad de condiciones. Delphy recurre a la opinión de un grupo de individuos para averiguar cuál es el dato que mejor garantiza el acierto en la toma de decisiones sin fiarse de una sola opinión individual.

Ruiz Olabuenaga J.I. eta Ispizua M.^a A. (1989): *La descodificación de la vida cotidiana. Métodos de investigación cualitativa*

Askotan, erakunde publiko zein pribatuek erabakiak hartzeko edo egitasmo bat aurrera eramateko informazioa behar izaten dute. Era berean, oso arrunta izaten da erabakien erantzukizuna duenak arazoak edo zalantzak izatea erabaki horiek hartzerakoan, informaziorik ez duelako edo daukan informazioa balio gutxikoa delako.

Delphy teknikarekin informazioa eskatzen zaie adituei, eta informazio horretan oinarrituz hartzen dira erabakiak. Alegia, gai baten inguruko erabakiak hartzerakoan edo jarraitu beharreko bidea zehazterakoan, iritzi liderrek galdeketa bati emandako erantzunak hartzen dira oinarritzat.

9.1. Delphy teknikaren berezitasunak

Oro har, lau dira delphy teknikaren berezitasun garrantzitsuenak:

—Delphy teknikarekin fase desberdinetan iritzi liderrek edo adituek galdeketa bati eman dizkieten erantzunak aztertzen dira, zertan dauden ados eta zertan ez ikusteko. Ondoren, aurkitutako adostasunetan oinarrituz, erabakiak hartzen dira.

- Sakoneko elkarrizketan, bizitza historian edo eztabaida taldeetan bezala, delphy teknikaren abiapuntua da zerbait aztertzeko eta ezagutzeko biderik onena gizakiei galdetzea dela.
- Eztabaida taldean bezala, talde batetik lortzen da informazioa. Azken finean, ikerlariak harremanetan jartzen dituen adituen arteko elkarrizketa bat da. Dena dela, kasu honetan taldekoak ez dira elkarrekin biltzen eztabaidatzeko. Delphyaren berezitasunetariko bat da taldekideen anonimotua gordetzen dela. Hau da, delphyan parte hartzen dutenek ez dakite informazioa ematen ari diren besteak nortzuk diren.
- Delphy bat egiteko galdera irekiak dituen galdeketa prestatzen da, eta posta arruntez edo posta elektronikoz bidaltzen zaie adituei. Zentzu honetan, delphy teknika asko hurbiltzen da postaz egindako inkestei. Izan ere, adituek behin galdeketa bete ondoren, zigilua jarrita bidali zaien kartazal batean sartzen dute erantzundako galdeketa, eta ikerlariari bidaltzen diote.

Elkarrizketa bete duten guztiei lortutako emaitzak, beste adituek esan dutena edota dauden adostasunak edo desadostasunak aurkezten zaizkie hiru, lau edo bost alditan; fase bakoitzean, zerbait gaineratu, zehaztu edo aldatu nahi duten galdetuz. Esan bezala, azken helburua da zerbaiten inguruan erabakiak hartzeko adostasunak bilatzea.

60. ADIBIDEA: delphy

EFFECTOS Y ACTITUDES DE LA INFANCIA Y DE LA JUVENTUD ANTE LAS NUEVAS TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN

Efectos y actitudes de la infancia y de la juventud ante las nuevas tecnologías de la información ikerketan, ikus-entzunezko teknologia zahar (telebista, irratia, musika aparatua...) eta berriek Europako 6 eta 16 urte bitarteko umeen portaera eta jarrerengan zuten eragina aztertu genuen 1997 eta 1998. urteetan.

Eskolan dauden ikus-entzunezko teknologiekiko umeek zuten harremana ezagutzeko, eta euren erabileraren irakaskuntza hobetzeko plana egiteko hartu behar ziren erabakiak ezagutzeko helburuarekin Delphy bat egin genuen ordenagailuaren erabilera erakusten zuten irakasleekin.

Ordenagailuaren erabilerari buruz eskoletan klaseak ematen zituzten irakasleen zerrenda osatu ondoren (20 irakasle guztira), gaiari buruzko galdeketa bat prestatu genuen euren iritzia ezagutzeko. Galdeketa 10 galdera zituen.

Hiru fasetan umeek eskolan dituzten ikus-entzunezko teknologiekiko iritzia, jarrera eta, oro har, harremanak aztertu genituen, baita tresna hauen irakaskuntza hobetzeko hartu behar diren erabakiei buruz irakasleen artean dauden adostasun eta desadostasunak ikertu ere.

9.2. Delphy teknikaren abantailak eta desabantailak

Delphyak itxura handia dauka eztabaida taldearekin; izan ere, delphya ere taldean egiten den eztabaida da. Dena dela, badauzka talde eztabaidak ez dituen abantailak eta desabantailak:

Delphyaren abantailak

- Denbora gutxi duten pertsonengandik informazioa lortzeko bide erraza da. Lanagatik edo denbora gutxi dutelako, sakoneko elkarrizketa, inkesta edo eztabaida taldeetan parte hartu ezin duten pertsonengana heltzeko aukera ematen du.
- Informazio iturri aberatsa izan daiteke, erabakiak hartzeko zalantzak dauzkagunean edo gai bati buruz informazio gutxi daukagunean. Zentzu honetan, teknika ona da azterketa esploratzaileetan.
- Kanpo lana beste teknika batzuetan baino errazago prestatzen da. Gainera, jende gutxiago behar da lanerako, beraz, dirua eta denbora aurrezten dira.
- Inkesta pertsonaletan, sakoneko elkarrizketetan, bizitza historietan edo eztabaida taldeetan dagoen inkestatzailearen, elkarrizketagilearen edo moderatzailearen eragina murrizten da. Delphya teknika ez erreaktiboa da.
- Inkestatzailerik edo ikerlaririk aurrean ez dagoenez, anonimatu handia eskaintzen duen teknika mota da. Iritzia ematen parte hartzen dutenek ez dakite nortzuk gehiago eman duten iritzia. Honekin, adituek euren iritziak askatasun osoz ematea lortzen da.
- Inkestatuek denbora gehiago dute erantzunak prestatzeko, eta, beraz, lortutako informazioek inkestatzaile bitartez lortutakoek baino balio gehiago izan dezakete.
- Eztabaida taldeetan askotan pertsona batek edo bik eztabaida monopolizatzen dute, eztabaida talde txikietan banatzen da edo gai bakarren inguruan bakarrik eztabaidatzen da. Delphyaren bitartez arazo hauek guztiak ekiditen dira. Izan ere, aditu guztiak euren iritzia emateko aukera berdinak dituzte.

Delphyaren desabantailak

- Elkarrizketan oinarritzen den teknika izanik, elkarrizketatuek arazoak izan ditzakete euren iritziak behar bezala azaltzeko.
- Ikerlaria delphyan parte hartzen duten adituen menpe dago. Elkarrizketatuek zehazten dute zer erantzun nahi duten eta zer ez. Zentzu honetan, gerta daitekeena da elkarrizketatuek ez dutela eman nahi ikerlariarentzako garrantzitsua den informazioa, edo ez dakitela garrantzitsua den informazio hori nola adierazi. Adituek galdeketari erantzuteari uko egin dezakete, garrantzitsuak diren galderak erantzun gabe utzi ditzakete edo galderak erdizka bete ditzakete.

- Delphy bat egiteko ezinbestekoa da adituen helbideak (etxekoa edo elektronikoa) izatea, eta askotan ezinezkoa izaten da edo asko kostatzen da informazio hori lortzea.
- Inkesta anonimoki betetzen den heinean, ezin da kontrolatu egiatan nork betetzen duen; hau da, ezin dugu ziurtatu galdeketa erantzun behar zuen pertsonak erantzun duenik.
- Erantzun kopurua handitzeko mota askotako sariak eskaini daitezke: opariren bat, zerbaiten zozketan parte hartzea... Aurretik egindako telefono dei batek ere asko handitzen ditu erantzunak. Kontua da erantzunak handitzeko erabiltzen diren estrategia hauek guztiak ikerketa garestitzen dutela.

9.3. Delphy bat egiteko eman beharreko pausoak

Ikerketa bakoitzak bere beharrak, oztopoak, helburuak eta, oro har, berezitasunak baditu ere, badaude ikerlari guztiek delphy bat egiterakoan aurre-rago edo atzerako eman behar dituzten pauso orokor batzuk. Oro har, hamar pauso eman behar dira delphy bat egiterakoan:

1. Ikerketa behar bezala definitu ondoren, esku artean dugun gaia delphy teknikaren bitartez aztertu daitekeela edota gaiari buruz erabakiak hartzen laguntzeko teknika egokia dela ziurtatu behar dugu.
2. Ondoren, adituen edo iritzi liderren zerrenda prestatu behar da. Adituak dira euren lanaren edo ezagutzaren ondorioz aztertzen ari garen gaiari buruz dakitenak.
Adituak aukeratzeko, gaiari buruz informazioa edota iritzia dutela ziurtatu behar dugu, baita galdeketa erantzuteko prest daudela ere. Hau da, gaiari buruz jakin eta galdeketa betetzen denbora pasatzeko prest daudenen zerrenda osatu behar dugu.
10 eta 30 arteko aditu taldea osatu behar dugu. Ahal den neurrian gaiari buruz ikuspuntu desberdinak dituzten pertsonak aukeratu dira. Horrela, egoera hobean egongo gara gaiaren alde guztiak ikusteko, hartu beharreko erabakien alde onak eta txarrak ezagutzeko eta esku artean dugun gaiari buruz erabaki egokiak hartzeko.
3. Galdeketa prestatuta: adituek askatasun osoz erantzutea nahi dugun heinean, erabiliko dugun galdeketa galdera irekiak izan behar ditu. Hau da, ez da erantzun aukerarik ematen, eta adituei nahi dutena erantzuteko aukera ematen zaie. Hala, erantzun sakonagoak, zehaztuagoak eta, azken finean, aberatsagoak lortzen ditugu. Honekin batera, aurreikusten ez ditugun erantzunak jasotzen ditugu sarri askotan; hots, galdera itxiek lortzen ez ditugun erantzunak lortzen ditugu.
Dena dela, ezin dugu ahanzi galdera irekiekin osatutako galderak desabantailak era badituztela. Besteak beste, galdera hauek betetzeko

denbora asko behar da. Honekin batera, kodifikazio arazoak dituzte. Denbora eta diru asko behar da galderak irakurtzeko, kodifikatzeko eta ordenagailuan sartzeko. Hirugarren desabantaila da ez dela kontrolatzen delphyan parte hartzen dutenek zenbat idazten duten. Beraz, desoreka handiak egon daitezke batzuen eta besteen erantzunen artean, eta horrek alderaketa zaildu dezake. Hau da, batzuen erantzunak besteenak baino hobeagoak dira. Azkenik, galdera irekiekin ezin dugu ziurtatu galdera erantzun duten guztiek abiapuntu berean oinarrituz erantzun dutenik. Gerta daitekeena da inkestatuek galderak modu desberdinean ulertzea, eta erantzunak ere horren arabera izatea. Beraz, mota askotako erantzunekin aurkitzeko arriskua dago, eta honek ere alderaketa oztopatu dezake.

4. Lehen galdeketaren azterketa: behin adituek bete dituzten galdeketak bildu ondoren, erantzunen kodifikazioa eta azterketa egin behar da. Emandako erantzun guztiak egituratu edota ordenatu egin behar dira, gaiaren inguruan dauden iritzi eta ikuspuntu guztiak agertzeko. Lortutako emaitza eta bildutako material guztiak ordenatu ondoren, adituei agertuko zaizkie berriro ere.
5. Bigarren galdeketa: adituek emandako informazioak galdera modura aurkezten dituen bigarren galdeketa bat prestatzen da. Galdeketa hau adituei bidaltzen zaie berriro ere, eta ados dauden eta ados ez dauden arloak zehazteko eskatzen zaie. Era berean, zerbait gaineratu, zehaztu edo aldatu nahi duten ere galdetzen zaie.
6. Hirugarren galdeketa: momentu honetan delphyan parte hartu duten adituen arteko elkarrizketa hasten da. Behin bigarren galdeketaren erantzunak jaso ondoren, ikerlariak ordenatu egiten ditu adostasunak eta desadostasunak. Horrela, gehiengoak zer pentsatzen duen ezagutzen da, baita galdeketa bete dutenen sailkapena egin ere. Iritzi guztiak ordenatu ondoren, hirugarren galdeketa bat prestatzen da, eta adituei bidaltzen zaie, euren jarrera eta iritziak arrazoitzeko, zerbait gaineratzeko, zehazteko edo aldatzeko aukera eskainiz.
7. Laugarren galdeketa: adituek euren jarrera eta iritziak arrazoitu, aldatu, zehaztu edo gaineratu ondoren, ikerlariak erantzunak ordenatzen ditu eta dauden adostasun eta desadostasunak aztertzen ditu. Bildutako informazioan oinarrituz, laugarren galdeketa bat prestatzen du. Galdeketa honekin batera, gehiengoaren iritzien aurka izan ditzaketen iritziak arrazoitzeko eskatzen zaie adituei.
8. Azken galdeketa: behin laugarren galdeketari emandako erantzunak jaso eta erantzunak ordenatzen direnean, galdeketa berri bat sortzen da. Dauden adostasunak eta desadostasunak eta desadostasun horiek erakusteko adituek eman dituzten arrazoiak aurkezten zaizkie adituei, eta azken iritzia emateko eskatzen zaie.
9. Emaitzen azterketa: behin azken galdeketari emandako erantzunak jaso ondoren, gehiengoak pentsatzen duena ezagutu nahi du ikerla-

riak, hau da, adostasunak bilatzen ditu. Arestian esan bezala, emaitzen azterketa egin aurretik hiru, lau edo bost aldiz bidali daitezke galdeketak adituei.

Ikerlariak adostasunak zeintzuk diren ezagutu behar ditu; baita guxtiengo akordio batera heldu ezin daitekeen gaiak zeintzuk diren ere.

10. Azken txostenaren idazketa: behin informazioa aztertu ondoren, azken txostena idatzi behar dugu. Txosten honetan adostasunak, adi-tuentzat gai desberdinek duten garrantzia eta iritzi desberdinen aurrean aldeko eta aurkako arrazoiak agertu behar dira. Horrekin batera, hartu behar diren erabakiak edo jarraitu beharreko bidea zehazten dira.

61. ADIBIDEA: delphy

KONTSEILUA BULTZATZEN ARI DEN EUSKALGINTZAREN PLAN ESTRATEGIKOA

Euskalgintzaren plan estrategikoa egiteko, egun euskalgintza non da-
goen eta bost bat urteko epean non egon nahi duen ezagutu nahi da. Gogo-
eta eta Plangintza prozesu honen bitartez, euskalgintzak zer ekintza burutu
behar dituen zehaztu nahi dira.

Hausnarketarako bide gisa, gidoi bat aurkezten da ondorengo orrietan.
Gidoi honek informazio kualitatiboa, hau da, euskalgintzaren alorrean hain-
bat adituk duen ikuspuntua biltzea du xede.

Gidoi honen helburua zure iritzia jasotzea eta, bide batez, prozesuan ze-
har edozein momentutan parte hartzeko gonbidapena luzatzea da.

Galderak zabalak direnez egoki iruditzen zaizuna erantzuteko bide ematen
dizute. Erantzunak ematean kritiko eta autokritiko izan zaitezten eska-
tzen dizugu.

Ahal baduzu, maiatzaren 10a baino lehen igortzea eskatzen dizugu.

Gogoeta eta plangintza prozesua luzea denez, edozein momentutan ha-
rremanetan jartzeko aukera izango duzu iradokizunak, proposamenak,
ideiak edo iritziak luzatzeko.

Emandako informazio guztia konfidentziala izango da. Zure izena era-
bili beharra sortuko balitz, aldeztu aurretik eskatuko genizuke baimena.

Elkarrizketa-gidoia

Adituaren oinarritzko datuak

Izena:

Helbidea:

Telefonoa:

e-posta:

Galdetegi osoan zehar, hutsuneen ondoren, galdera orokorrari erantzuten lagunduko dizuten hainbat galdera eskaintzen dira. Ez da derrigorrezkoa galdera bakoitzari banan-banan erantzutea, hausnarketarako lagungarri izatea da galderen helburua.

Aparteko dokumentu batean erantzun nahi baduzu, ez ahaztu erantzunen aurretik galderei dagozkien zenbakiak jartzea.

1. GAIA: azken urte hauetan egindakoa

1.1. Euskararen egoera

.....
.....

Lagungarriak:

Zein da euskararen egungo egoeraren zure balorazioa?
Egiten dituzun komentarioak Euskal Herri osorako aplikagarriak iruditzen al zaizkizu? Geografikoki edo sektorialki bereizketarik egingo al zenuke?

1.2. Euskararen normalizazio prozesuan euskalgintzak egindakoa eta lortutakoa.

.....
.....

Lagungarriak:

Zertan aurreratu da azken urteotan? Zergatik? Zertan ez da aurreratu? Zergatik? Zertan galdu da? Zergatik?
Egindakoa nahikoa iruditzen zaizu? Zer egin da ondo benetan?
Zer egin behar genuen eta ez dugu egin?
Zeintzuk izan dira benetako oztopoak edo galgak?
Zer zegoen euskararen gizarte erakundeen eskuetan eta ez da nahikoa landu?
Euskalgintzak egun betetzen dituen esparruak kontutan hartuta zein izan dira lorpenak eta zein porrotak, eta zein hauen arrazoi edo gakoak?
Zer zegoen instituzioen eskuetan eta ez da nahikoa landu?
Erabili diren estrategiak eraginkorrak izan al dira?
Erabakiren bat ez al da egokia izan?
Zein eragile bota duzu faltan?
Etorkizunari begira, zer ikasi dugu iragan honetatik?

1.3. Euskalgintzaren gaurko egoera

.....
.....

Lagungarriak:

Zer da zure ustez euskalgintza?
Zerk definitzen du euskalgintza? Zeintzuk dira kideen ezaugarri komunak?
Zeintzuk dira euskalgintzaren helburuak?
Euskalgintzaren indar-guneak?
Ahulezia edo hobetze beharrak?

2. GAIA: Etorkizuna

2.1. Nola irudikatu nahiko zenuke euskalgintzaren egoera hemendik 10 urtetara? (euskararen egoera desiragarria baina lorgarria zure ustez).

.....
.....

2.2. Jauzi kualitatibo garrantzitsu bat emateko zein izan liteke giltzarria? Euskalgintzatik egitekoa? Administrazioetik egitekoa? Gizartetik egitekoa?

.....
.....

2.3. Hori lortzeko zeintzuk dira edo izan daitezke gairak beharrezko oztupoak (gaurkoak edo ager daitezkeenak, euskalgintzako erakundeak edo bestelakoak)? Kontrako joerarik agertuko ote da?

.....
.....

2.4. Nahi duzun egoerara heltzeko zertan oinarri gaitzake? Non daude edo egon daitezke prozesu honen euskarriak? Aldeko joerarik agertuko ote da?

.....
.....

2.5. Orain arte Euskalgintzak egin duenetik zer mantenduko zenuke? Zer gehitu? Zer kendu? Zer aldatu? Eta gizarte eta administrazioek egin dutenetik? Nola lortu euskararen berreskurapenerako joera edo erritmoa aldaraztea? Zein izan daiteke benetako aldaketa baten eragilea?

.....
.....

2.6. Lortu nahi duzun egoerara heltzeko, oztupoak gairak, lagungarri direnez baliatuaz, aldaketa eraginez, non daude giltzarriak? Zeintzuk dira zure ustez sakondu eta landu behar ditugun EUSKARAREN ERROKAK?

.....
.....

2.7. Erroka horietan euskararen gizarte erakundeei zer dagokie?

.....
.....

3. GAIA: beste komentariarik?

.....
.....

Eskerrik asko zure denbora eta ekarpenak eskaintzeagatik.

9.4. Delphyen kalitatearen kontrola

Sakoneko elkarriketekin, bizitza historiekin eta eztabaida taldeekin bezala, autore batzuen arabera, ezin da delphyen fidagarritasunari eta balioari buruz hitz egin. Autore horien arabera, hobe da kalitatearen kontrolari buruz hitz egin.

Neurtzeko tresna bat fidagarria da, behin baino gehiagotan erabili ondoren konsistentea denean, hau da, ondorio berdinetara eramaten gaituenean. Delphyetan, galderak irekiak diren heinean, konsistentzia ezin da, inola ere, frogatu. Izan ere, zaila da pertsona talde bati galdera irekiak dituen galdeketa bi aldiz pasatzea eta emaitza berdinak lortzea.

Hala ere, delphyen kalitatea hobetzeko neurri batzuk hartu ditzakegu. Besteak beste, honako aholku hauek baliagarriak izan daitezke:

- Galdeketa berbera erabili ikerketa osoan zehar.
- Galdera argiak egin.
- Zalantzak sortzen dituzten galderak edo hitz zailak ekiditu.
- Galderen artean tartea utzi behar dira, erantzuterakoan nahasketak ez sortzeko.
- Galdeketa betetzeko jarraitu behar diren pausoak zehatz-mehatz agertu behar dira.
- Kodifikatzaileen eta datuak ordenagailuak sartuko dituztenen behar bezalako heziketa ziurtatu behar da. Horrela, erantzunak jasotzerakoan, kodifikatzerakoan edo informazioa ordenagailuan sartzerakoan gerta daitezkeen erroreak gutxituko ditugu.

Neurtzeko tresna bat baliokoa da neurtu behar duena neurtzen duenean. Sakoneko elkarrizketa, bizitza historia edo eztabaida taldeetan bezala, delphyen balioa lortutako informazioaren kontrolarekin loturik dago. Zentzu honetan, garrantzitsua da honako arlo hauek kontrolatzea:

- Datu eta aipamen deskribatzaileak: delphyan parte hartzen dutenek okerrak diren datuak eta informazioak eman ditzakete. Datu eta informazio hauek beste iturri batzuk (liburuak, artikulak...) erabiliz zehaztu eta kontrolatu behar dira.
- Inkonsistentzia eta zalantza informazioak: nahita edo nahi gabe, galdeketa erantzun dutenek agertzen dituzten inkoherentziak kontrolatu behar dira.
- Ihesak: askotan, gaiaren alde ezkorrenak edo itsusienak ezkutatzeko joera izaten da. Ahal den neurrian ihes hauek kontrolatu egin behar dira.
- Sen ona: Sen onak interpretazio errazetara eramaten du askotan ikertzaileak. Ikertzailearen balore hierarkia ikertuen iritziak aztertzeko eta interpretatzeko erabiltzen da, eta horrek ondorio okerretara eramaten gintzake.

Era berean, egiten ditugun delphyen balioa hobetzeko honako aholku hauek erabilgarriak izan daitezke:

- Beste ikerketa batzuetan arrakastaz erabili diren galdera eta galdeketa erabili.
- Ikerketatik kanpo dauden pertsonen pasatu galdeketa, euren ikuspuntua ezagutzeko.

X

Behaketa zuzena

«Sometimes researchers have no choice but to observe political phenomena as they occur in their natural setting. Written records of events may not exist, or the records may not cover the behavior of interest to the researcher. Relying on personal accounts of participants may be unsatisfactory because of participants' distorted views of events, incomplete memories, or failure to observe what is of interest to the researcher».

Buttolph, J. y Joslyn, A.R. (1995): *Political Science Research Methods*

Behaketa Zuzena izenarekin ezagutzen dugun teknikaren helburua da gizakien portaerak inolako manipulaziorik gabe era sistematiko eta kontrolatua begiratzea, eta hortik ikerketarako garrantzitsua den informazioa eskuratzea. Bitartekorik gabe, hau da, zuzenean egiten den behaketa delako hartzen du teknika honek behaketa zuzena izena.

Nahiz eta gutxiago erabiltzen diren, kontuan izan behaketa ez zuenak ere egin daitezkeela. Adibidez, ikasleek unibertsitatean erabiltzen dituzten edo gustukoak dituzten tokiak ezagutzeko, aukera bat da erabiltzen dituzten tokietara joan eta behaketak egitea (behaketa zuzena). Beste aukera bat da ikasleak etxera joan arte itxarotea, eta unibertsitateko txoko desberdinetan utzi duten zaborra aztertzea. Zaborra behatuz ikasleek gustukoak dituzten tokiak zeintzuk diren ezagutu genezake (behaketa ez zuzena).

Inkestetan, sakoneko elkarrizketetan, bizitza historietan, delphyetan edo eztabaida taldeetan ez bezala, behaketa zuzenean ez gara hitzezko, idatzizko edo ikus-entzunezko estimulu (galdeketa, gidoia...) eragina jaso duten pertsonen erantzunetan oinarritzen ikerketa egiterakoan, baizik eta euren portaerak begiratzen ditugu.

Saiakerara hurbiltzen den teknika dela esan genezake. Saiakeran, hain zuzen ere, estimulu esperimentalak zenbaterainoko eragina duen ikertuen

portaeran aztertzen da. Behaketa zuzenetan, dena dela, ez dago estimulu esperimentalik, eta behaketak baldintzan naturaletan egiten dira; hots, behatuen portaera gertatzen den testuinguruan, zein behatuek jasotzen dituzten estimuluengan ez da inolako kontrolik edo manipulaziorik egiten.

10.1. Behaketaren berezitasunak

Behaketa egunero egiten dugun zerbait da. Izan ere, beti gaude besteen portaerei, elkarriketei, mugimenduei... begiratzen. Denok gara apur bat begirazoleak.

Dena dela, egunero egiten den behaketa arrunt eta orokor hau tresna baliagarria izan daiteke ikerketa sozialean, helburuak behar bezala zehaztu, pausoak sistematikoki planifikatu, behatzen ari garena teoria orokorragoekin harremanetan jarri, eta behaketa modu kontrolatuan egiten bada; hau da, behaketaren fidagarritasuna eta balioa kontrolatzen badira.

Behaketa era orokorrean hasten da, eta, apurka-apurka, zehazten joaten da. Behin hurbilpen orokor bat egin ondoren, benetan interesatzen zaizkigun arloak behatzera pasatzen gara. Sakoneko elkarrizketan, bizitza historian eta eztabaida taldean aurkeztu dugun inbutuaren teoria erabilgarria da hemen ere. Hau da, gauza orokorretatik zehatzetara pasatzen gara. Adibidez, auzo batean harremanak egiteko eta elkartzeko dauden guneak aztertu nahi badi-tugu, hasteko auzoko txoko guztiak behatu beharko ditugu: dendak, kirola egiteko tokiak, kaleak, enparantzak..., eta, apurka-apurka, auzo horretan harremanak egiten diren tokiak zeintzuk diren zehazten joango gara, hau da, behaketa zehazten joango da.

Behaketa zientifikoa era sistematikoan egiten da; behatzen ari garen fenomeno edo egoeraren alde guztiak ordenatuz, ikusten ditugun gauza desberdinak erlazionatuz, eta, batez ere, behatzen ari garenaren esanahiak behar bezala interpretatuz. Horretarako, ikertzaileak bere eskema soziokulturalak eta balore hierarkia ahal duen beste alboratzen jakin behar du, baita aztertu nahi duen portaeran edo fenomenoan ahal duen neutraltasun handienarekin sartzten ere.

Behaketa behatzen ari denarekiko distantzia eta jarrera kritikoa galdu gabe egin behar du. Horretarako, beharrezkoa da oinarri teoriko on bat izatea, baita behaketa ondo planifikatzea ere. Argi izan behar dugu zer nahi dugun ikertu, zeintzuk diren helburuak eta jarraitu beharreko prozedura, beti ere gauza txikienak ere kontuan hartuz. Ez da ahaztu behar anekdotan gelditzeko, edo, bestela esanda, aztertu nahi den horretan behar bezala ez barnera-tzeko arrisku handiak ditugula.

Interpretazioak egiterakoan era eszeptikoan lan egin behar da. Norbere ikuspuntuak, aurreiritziak eta sineskerak zalantzan jarriz, interpretazio errazak saihestuz, ikusten denaren arrazoi errazegiak eztabaidan jarriz, eta lortzen ditugun datuak beste ikerketa batzuetatik lortutako datuekin kontrastatuz edota beste ikertzaile batzuekin eztabaidatuz.

Behaketa zuzena oso teknika egokia da kanpaina politikoak, manifestazioak eta edozein motatako agerraldiak aztertzeko; alegia, modu agerian egiten diren ekimen eta portaerak aztertzeko. Adibidez, SEI Institutuak euskarren erabileraren kale neurketak behaketaren bitartez egiten ditu. Teknika honen bitartez, hiztunak ez daki behatua denik, eta neurtzaileak hiztunaren joera naturala jasotzen du. Neurketa, beraz, ez da inkesta edo elkarrizketa bidez leku publikoetan hizkuntza erabiltzen duen galderari jendeak eman dion erantzunaren ondorioa, hots, autoebaluaketa subjektiboa, datu objektiboa baizik.

Behaketa hauetan, behin neurketa-azterguneak markatu eta gero, datu bilketa egiteko bi modu erabiltzen dira: batetik, puntu jakin batean jarri eta bertatik mugitu gabe, aurretik igarotzen direnek darabilten hizkuntza jasotzen da. Hau batez ere jende ibilian dabilen lekuetan egiten da. Bestetik, abiatoki bateatik heltoki batera dagoen bidea ibilian eginez, topatzen den jendeak zein hizkuntza erabiltzen den jasotzen da. Hori plaza edo parkeen kasuan egiten da.

10.2. Behaketaren abantailak eta desabantailak

Behaketak eztabaida ugari sortzen ditu ikerlari eta metodologoen artean. Teknika honen aldekoek esaten dute beste teknika batzuk baino informazio zuzenagoa, aberatsagoa eta sakonagoa ematen duela. Hauen ustez, informazioa inolako bitartekorik gabe biltzen den heinean, informazio hobea lortzen da. Aurkakoei diote, aldiz, teknika subjektiboa dela, eta fenomenoak ezin direla aztertu errealitatean diren bezala. Gauzak horrela, interesgarria da teknika honek dituen abantailak eta desabantailak aztertzea.

BEHAKETAREN ABANTAILAK

- Inkesta, sakoneko elkarrizketa, bizitza historia, eztabaida talde eta saiakuntzetan baino ikertzailearen eragin txikiagoa dago ikertzen ari garen pertsonengan eta, oro har, aztergai den fenomenoarengan. Ikerlariak gutxiago baldintzatzen ditu aztertu nahi diren portaera eta adierazpenak, eta horrek datu hobekiak lortzen laguntzen du.
- Baldintza naturaletan egindako behaketetan errealitatea den bezala ikertzen da; inolako aldaketa, eragin edo manipulaziorik gabe (esperimentuan, esaterako, baldintza artifizialak sortzen dira).
- Inkestan, delphyan, sakoneko elkarrizketan, bizitza historietan edo eztabaida taldeetan ikertzailea elkarrizketatuaren menpe dago; izan ere, berak erabakitzen du nola, noiz eta zein informazioa emango duen. Behaketa zuzenean ikertzaileak erabakitzen du zer den garrantzitsua ikerketarako, eta, ondorioz, berak nahi duena behatzen du. Ikertu nahi den fenomenoaren eta ikerlariaren artean bitartekaririk ez egotea garrantzitsua da, kalitatezko datuak lortzeko.

- Elkarrizketatu batzuk dituzten berezitasunengatik (umeak, zoroak, pertsona oso nagusiak...) edo muturreko egoeretan edo momentuetan (tentsio uneak, gerrak, estatu kolpeak, kale istiluak...) behaketa da ikerketarako erabili daitekeen teknika bakarra.
- Behaketaren bitartez inkestak betetzeko edo elkarrizketa eta talde ez-tabaidetan parte hartzeko egon daitezkeen jarrera ezkorrak gainditu ditzakegu. Izan ere, behaketarekin informazioa biltzen dugu, bakean utziz aztergai diren pertsonak.
- Ondo egindako behaketa informazioa biltzeko teknika indartsua da. Talde politiko baten batzar batera joan, eta partaideen rolak eta erabakiak hartzeko moduak behatzea, alderdi politikoaren barne egiturari buruzko galdeketa batek baino informazio gehiago eman dezake.

BEHAKETAREN DESABANTAILAK

Abantaila hauen aurrean, behaketaren aurkakoek desabantaila hauek azpimarratzen dituzte:

- Momentuko gertakizun bat ikertu nahi ez bada, teknika honetan oinarritutako ikerketak garestiegiak eta luzeegiak dira, ia gehienetan.
- Teknika honekin, orainaldian gertatzen diren fenomeno eta portaerak aztertu daitezke bakarrik. Teknika honek ez du balio iraganean gertatuko fenomenoak aztertzeko, ezta etorkizunean gertatuko denari buruzko aurreikuspenak egiteko ere.
- Askotan, ezin dugu egon fenomeno edo portaera bat gertatzen den momentu berean (liskar politiko bat legebiltzarrean, adibidez) edo gugandik urrunegi gertatzen da (erabakitze prozesuak AEBetako kongresuan) behaketaren bitartez ikertu ahal izateko; beraz, ezin dugu teknika hau erabili.
- Fenomeno eta portaera asko ezin dira era zuzenean behatu, gizakien intimitatearekin loturik daudelako edo ezkutuan gertatzen direlako (alderdi politiko baten zuzendaritzaren kohesio maila, adibidez).
- Fenomeno batzuk ezin dira era zuzenean behatu, bata bestearengandik aldenturik edo banaturik daudelako eta ikerketa egiteko guztiak elkartzea beharrezkoa dugulako (momentu berean zerbaiten aurka toki desberdinetan gertatzen diren manifestazioak, adibidez).
- Ikerlariak bere lana modu agerian egiten badu (edo ezkutuan dagoela behatuak eurei buruzko ikerketa bat egiten ari dela konturatzen badira), ikertuen portaera alda dezake, eta hori datu kutsatuen sorrera izan daiteke.
- Askotan, ikertzen ari garen fenomenoarekiko harreman afektiboak garatu ditzakegu, eta horrek eragin ezkorrak izan ditzake behaketa on bat egiteko. Fenomenoarekin dugun harreman afektiboaren ondorioz, askotan gertatzen dena ez da ikusten eta ez dauden gauzak ikusten dira.

—Azkenik, ezin dugu ahantzi ikerlariaren balore hierarkiak eta kulturak eragin izugarria izan dezaketela behaketak egiterakoan. Gure kulturak eta baloreek gauzak era batera edo bestera ikustera eta ulertzera eramaten gaituzte, eta hori datu kutsatuen sorrera izan daiteke.

10.3. Behaketa zuzen mota desberdinak

Behaketa mota desberdinak daude. Antropologia Sozialean eta Kultura-lean erabiltzen diren behaketa partehartzaileak ditugu mutur batean. Era honetako behaketetan, behatzaileak modu agerian edo ezkutuan ikertzen ari diren pertsonekin bizitzen dira, gertatzen dena ikusten, esaten dena entzuten eta galderak egiten.

Beste muturrean egoera kontrolatuetan egiten diren behaketak daude; hau da, laborategietan egiten diren esperimentuak. Era honetako behaketetan, ikertzaileak kontrolatzen ditu behatuen portaera gertatzen den testuingurua zein behatuek jasotzen dituzten estimuluak. Hirugarren gaian aztertu bezala, saiakeran oinarritutako diseinuetan ikertzaileak aldagai askea, aztergai diren subjektuak eta aztergai den fenomenoak kontrolatzen ditu. Hala, fenomenoak azalpen kausalak lortu daitezke; hau da, talde esperimentalean (estimulua hartzen duena) eta kontrolerako taldean (estimulua hartzen ez duena) menpeko aldagaiaren aldaketak neurtuz, estimulu esperimentalak zenbateraino eragina duen jakin genezake.

Muturreko behaketa mota bi hauen artean era askotako behaketak ditugu. Egia esan, ikerketa beste behaketa mota daude. Zentzu honetan, ikerlariak zehaztu behar du kasu bakoitzean eman behar dituen pausoak eta hartu behar dituen erabakiak.

Behaketa bakoitza mundu bat bada ere, komunean dituzten berezitasun asko dituzte. Beraz, posible da behaketen arteko sailkapen orokor batzuk egitea. Hobe esanda, lau irizpideren arabera sailkatu ditzakegu behaketak: behaketaren helburuen arabera, egituraketa mailaren arabera, behaketa egiten den baldintzen naturaltasunaren edo artifizialtasunaren arabera eta behatzaileak hartzen duen paperaren arabera.

Behaketaren helburuen arabera, behaketa esploratzaileak, deskribatzaileak eta behaketa esplikatzaileak ditugu:

- Behaketa esploratzaileak:** gehiegi ezagutzen ez den gai bati buruzko informazioa lortzeko egiten dira. Era honetako behaketak aurrean daukagunari buruzko lehen ideia bat lortzeko erabiltzen dira; hau da, gaiari buruzko lehen hurbilpena egiteko; beraz, ez da informazio biltzeko protokolorik erabiltzen. Kasu honetan, informazio jasotzeko modu bakarra da aurrean dugun guztia begiratzea eta notak hartzea.
- Behaketa deskribatzaileak:** portaera edo fenomeno sozialak deskribatzen dituzte. Era honetako behaketetan fenomeno baten arlo desber-

dinen ezagupen zehatza egin nahi da, baina ez da harreman kausalik aztertzen. Era honetako behaketetan, aurrez kodifikatuta dugun protokolo edo fitxa erabili dezakegu. Protokolo horretan, zehatz-mehatz daude adierazita behatu behar diren portaerak eta fenomenoak, baita portaera horiek neurtzeko erabiltzen ditugun kategoriak ere. Beraz, informazioa biltzeko nahikoa da protokoloan gurutzeak egin edo apunte gutxi batzuk hartzea

- Behaketa esplikatzaileak:** deskribatzeaz gain, aztergai diren fenomenoak eta portaerak aztertu eta azaldu nahi dira. Ikerketa esplikatzaileetan hipotesi kausalak frogatu nahi dira. Besteak beste, behatzen ari garen pertsonak aztertzen ari garen fenomeno edo portaerari ematen dioten esanahia ezagutu nahi da, baita behatzen dugun hori kokatzen den testuinguruan daudenean ematen dioten esanahia ere. Era honetako ikerketek diseinu oso sofistikatuak eskatzen dituzte, eta, beraz, ezinbestekoa da teoria sendo bat edukitzea

Behaketaren egituraketa mailaren arabera behaketa egituratuak eta egituratu gabeak ditugu:

- Egituratu gabeko behaketetan** kategoria oso orokorrak erabiltzen dira informazio jasotzeko. Behaketa egin aurretik zer aurkituko dugun ez dakigunez, ezin dugu zehaztu zer begiratu behar dugun; beraz, ezin dugu informazioa jasotzeko protokolo edo fitxa zehatz bat erabili. Kasu honetan informazio jasotzeko modu bakarra da aurrean daukagun guztiari buruz notak hartzea. Era honetako behaketak oso erabilgarriak dira aztertu behar den gaiaren inguruan informazio gutxi daukagunean edota gaiari buruz informazio gehiago izateko azterketa esploratzaile bat egin nahi dugunean. Gaiari buruz informazio gutxi edo ezagutza maila txikia dugunez, ikusten den guztia izan daiteke garrantzitsua; beraz, ahal den informazio gehien biltzen saiatu behar gara.
- Behaketa egituratuetan,** bestalde, datuak biltzeko protokolo edo fitxa batekin lan egiten dugu. Protokolo horretan, zehatz-mehatz daude adierazita behatu behar diren portaerak eta fenomenoak, baita portaera horiek neurtzeko erabiltzen ditugun kategoriak ere. Beraz, informazioa biltzeko nahikoa da protokoloan gurutzeak egin edo apunte gutxi batzuk hartzea. Behaketa mota hau aztergai den gaiari buruz ezagutza maila handia dagoenean erabiltzen da.

Behaketa sailkatzeko hirugarren irizpideak behaketa testuinguru naturalan edo artifizialetan egin denarekin zerikusia du:

- Baldintza artifizialetan egindako behaketak:** era honetako behaketek aurretik aurkeztu ditugun diseinu esperimentalekin zerikusia dute. Zehaztasun handiarekin prestatzen eta kontrolatzen da behaketa egingo den testuingurua, zein behaketan parte hartuko dutenek jasoko

duten estimulua. Era honetako behaketen alde ezkorra da, errealak ez diren egoerak sortzen direla. Artifizialki sortu diren fenomenoak aztertzen dira; beraz, batzutan ezinezkoa da honelako behaketetan oinarritutako generalizazioak egitea.

Behaketa mota hau talde txikiekin eta gaiari buruz ezagutza handia dagoenean erabiltzen da. Era honetako behaketak psikologian egiten dira, batez ere.

- Baldintza naturaletan egindako behaketak:** kasu honetan, ez dago talde esperimentalik, eta errealitatea den bezala, inolako manipulaziorik gabe, aztertzen da; hau da, egoera errealak aztertzen dira. Baldintza naturaletan egiten den behaketa izanik, behaketa luzeagoak egin ditzakegu. Soziologian, Antropologian eta Zientzia Politikoetan gehien erabiltzen diren behaketa motak dira.

Behaketa zuzenak sailkatzeko laugarren irizpideak behatzaileak hartzen duen paperarekin zerikusia du. Zentzu honetan, behaketa partehartzaileak eta ez partehartzaileak bereizi behar ditugu:

- Behaketa partehartzaileak:** behatzaileak aztergai den portaera edo fenomenoan parte hartzen du. Behatzen duen bitartean, portaera edo fenomenoaren parte da. Adibidez, kanpaina politikoak aztertzeko edozein militantek bezala parte hartzen du alderdiaren mitinetan.
- Behaketa ez partehartzaileak:** behatzaileak ez du parte hartzen aztergai den fenomenoan edo portaeran. Pertsonen portaerak aztertzen ditu fenomenoan parte hartu gabe.

10.4. Behaketa bat egiterakoan erantzun behar diren hiru galderak

Edozein behaketa egiterakoan hiru dira erantzun behar diren galderak:

- Zer da behatu behar dena?
- Nola laburbildu behatzen dugun hori?
- Zer-nolako harremanak izan behar ditugu behatuekin?

10.4.1. ZER DA BEHATU BEHAR DENA?

Ikerketaren helburuek eta ditugun hipotesiek zehazten dute behatu behar dena. Zentzu honetan, kontuan izan behar da ezinezkoa dela gure begien aurrean ditugun gauza guztiak behatzea. Beraz, garrantzitsua da zer behatu behar den hasieratik argi izatea.

Behin ikerketaren helburuak eta hipotesiak zehaztu ondoren, aztertzen ari garen portaeran parte hartzen dutenak nortzuk diren argitu, portaera geratzen den ingurunea deskribatu eta partehartzaileen helburuak, portaerak, portaeraren maiztasuna eta iraupena aztertu behar dira:

- Parte-hartzaileak aztertzerakoan, hauen berezitasun soziodemografi-koak, euren arteko harremanak eta portaera bera nola interpretatzen du-ten aztertu behar da. Horretarako, honako informazio hauek bildu behar dira: partehartzaileen adina, sexua eta behatzen ari garen portaeran di-tuzten rolak. Honekin batera, euren arteko harremanak aztertu behar dira. Horretarako, honako galdera hauei erantzun behar diegu: partehar-tzaileak ezagunak edo ezezagunak dira euren artean? Elkarte, erakunde edo talde bateko partaideak dira? Zer-nolako egiturak edo taldeak daude parte-hartzaileen artean? Garrantzi berezia duten pertsonak daude? Gal-derak egitea eta behatuekin harremanetan sartzea posible den kasuetan, gainera, partehartzaileen interpretazio subjektiboak aztertuko ditugu. Alegia, portaera nola ulertzen duten aztertu beharko dugu.
- Behaketa gertatzen den ingurunea: portaera bat toki eta ingurune des-berdinetan gerta daiteke: tabernan, kalean, fabrika batean, eskolan... Honela, bada, partehartzaileen berezitasunak aztertzeaz gain, inguru-nea ere aztertu beharko dugu. Ikerlariak behatzen ari den portaera tes-tuinguru soziokultural zehatz batean kokatu behar du, eta testuinguru horren arabera ulertu behar du behatzen dagoena. Besteak beste, ho-nako galderai erantzun behar zaie: zer nolako portaerak ahalbidetzen, onartzen, bultzatzen edo ekiditen ditu ingurune horrek? Zer-nolako eragina du inguruak portaeran?
- Parte-hartzaileen helburua: parte-hartzaileak helburu ofizial batek bultzatuta (hileta batengatik, lasterketa bat dagoelako, ekitaldi erli-jioso batean parte hartzen ari direlako, talde politiko batetakoak di-relako, parrandan doazelako...) edo kasualitatez elkartu dira? Zer-nola erreakzionatzen dute partehartzaileek helburu ofizial horren aurrean? Helburu ofizial horrez gain, zein beste helburu dituzte parte-hartzaileek? Bateragarriak edota bateraezinak dira parte-har-tzaile guztien helburuak?
- Parte-hartzaileen portaera: behaketa egiterakoan zer gertatzen den ja-kin behar dugu. Honela, bada, beharrezkoa da honako galdera hauei erantzutea: zer egiten dute partehartzaileek? Nola egiten dute? Nore-kin egiten dute? Zerekin egiten dute? Zerk sortu du portaera hori? Zein da bere helburua? Norengana edo zerengana zuzentzen da porta-era hori? Zer-nolako jarduera dago portaera horretan? Zer-nolako be-rezitasunak ditu portaerak? Zer-nolako ondorioak ditu portaera horrek parte-hartzaileentzat zein ingurukoentzat? Parte-hartzaileen portaera aztertzeaz gain, beharrezkoa da portaera hori ingurukoek nola ikusten duten edo ematen dioten erantzuna azter-tzea; hau da, ingurukoek zer-nola ikusten duten portaera ezagutzea.
- Portaeraren maiztasuna eta iraupena: noiz gertatu zen aztertutako por-taera? Zenbat denbora iraun zuen? Ohiko portaera edo berezia da? Ohikoa bada, noiz gertatzen da? Berezia bada, zer-nolako egoerek sor-tzen dute?

Kontuan izan behar da galdera edo arlo hauek guztiak ezin direla aztertu egoera eta behaketa mota guztietan. Askotan, ezinezkoa da galdera hauei guztiei erantzutea, informazio hori ezin dugulako lortu edo aztertzen ari garen portaerarekin zerikusi gutxi dutelako. Hala ere, galdera hauek guztiak kontuan hartzea garrantzitsua da egiten ari garen behaketa egituratzeko.

«El sentido subjetivo de un comportamiento observable, o sea: lo que el agente pretende con ello o lo que quiere expresar, el “por qué” de su comportamiento, se presentan al observador, incluso en el mejor de los casos, como accesibles sólo de una manera incompleta (a través, por ejemplo, de manifestaciones del actor), y lo mismo sucede con la interpretación subjetiva de la situación por parte del propio actor. Ahora bien, si éste se orienta por las expectativas sociales, específicas de cada situación e institucionalizadas, esto es: se comporta en consonancia con los roles sociales, entonces se puede interpretar su comportamiento en el sentido de la significación conferida por el acuerdo general del entorno». Mayntz R., Holm K. Hübner P. (1980): *Introducción a los métodos de las sociología empírica*. Madril, Alianza Editorial, (2. argitarapena), 114. orrialdea.

10.4.2. NOLA LABURBILDU BEHATZEN DUGUN HORI?

Behatzen ari garena laburbiltzerakoan, arlo bi izan behar ditugu kontuan: zein momentutan hartu behatzen ari garenari buruzko notak eta nola.

Zein momentutan hartu behar dira notak? Behaketa zuzenetan gomendatzen dena da notak portaera gertatzen den momentu berean hartzea. Dena dela, kontuan izan behar da behaketa parte-hartzaileetan, hau da, behatzailea aztertzen ari den portaeraren parte den behaketetan, behatzailea han egoteak portaera aldatu dezakeela, batez ere mesfidantza sortuko duelako. Era berean, behatzen ari den momentu berean notak hartzen baditu, aztertzen ari den egoeraren xehetasunak galtzeko arriskua dago, notak hartzen dituen momentuan ezin duelako ikusi aurrean gertatzen dena.

Honela, beraz, notak zuhurtasunez hartzeko aukera bikainik ez badago (inork ikusten ez gaituen leiho bat, adibidez), buruz lan egitea gomendatzen da. Hori bai, ahal dugun lasterren jaso beharko dugu ikusitakoa.

Behaketa luzea denean, inork ikusiko ez gaituen toki batera joan gaitetzke noizean behin notak hartzera. Horrela, behatutakoaren alde garrantzitsuak ez ahaztea ekidingo dugu. Dena dela, notak hartzera ezkutuko tokiren batera goazenean, ziurtatu egin behar dugu ez dugula galtzen gertaera garrantzitsuren bat.

Nola hartu notak? Oinarri teoriko ona duen behaketa egiten ari bagara; hau da, aztergai den gaiari buruz informazio asko dugunean, aurrez kodifikatutako protokoloa erabili dezakegu. Kasu honetan, informazioa oso erraz jasotzen da. Protokoloan gurutzeak jartzea nahikoa da informazioa jasotzeko.

62. ADIBIDEA: behaketa informazioa biltzeko protokoloa

USANSOLOKO HERRITARREK IKUSTEN DITUZTEN BEHARRIZAN ETA ARAZOEI BURUZKO IKERKETA (1999)

Usansoloko herritarrek dituzten arazoei buruzko ikerketan, behaketa bat egin genuen, zerbitzu publikoak zer-nolako hiritarrek eta zenbat denboran erabiltzen zituzten aztertzeko. Behaketa horretan, sexua, adina, zerbitzu publikoak norekin erabiltzen dituzten eta zenbat denboran aztertu genituen, informazioa biltzeko protokolo baten laguntzarekin.

	Erabiltzailearen sexua		Erabiltzailearen adina			Norekin daude zerbitzuak erabiltzerakoan			Zenbat minutu erabiltzen		
	Gizona	Emakumea	-30	31-50	51+	Bakarrik	Beste norbaitekin	Taldean	30	30-60	61+
1											
2											
3											
4											
5											
6											
7											
8											
N											

Beste batzuetan, galdeketa bezalako protokoloak erabili ditzakegu informazioa biltzeko. Kasu honetan, inkesta batean bezala biltzen da informazioa; hau da, inkestetan bezala behatzaileak portaera aukera desberdinen artean bat aukeratzen du.

63. ADIBIDEA: behaketa erabilitako protokoloa

BIZKAIERAREN ERABILERAK ADMINISTRAZIOAN

Bizkaieraren Erabilera Administrazioan ikerketaren baitan, Bizkaiko Aldundiak eta udalek zein hizkuntzatan egiten dieten harrera bizkaieradun hiritarrei, hau da, zelan erabiltzen den bizkaiera aztertu nahi genuen. Horretarako, hiru behatzaile bidali ziren lehendik aukeratuta zeuden udalerriri zein siletara, eta itxurazko zeregin bana eman zitzaion.

Behatzaileek, leihatiletan elkarrizketan hasteko, itxurazko zeregin hauek erabili dituzte:

1. Behatzailea umeen eskaut talde batekoa da, eta Aste Santuan udalerriri horretako inguruetan kanpaleku bat egiteko asmoa azaltzen du. On-

doko gauzok itaundu ziren: zeintzuk lur erabil zitezkeen akanpalekua egiteko, zeintzuk ziren lurren ezaugarriak (erreka, iturria...), ze baimen behar zen...

2. Behatzailea jubilatuen etxe bateko astialdiko begiralea da, eta egun bateko txangoa azaltzen du, inguruak ezagutzeko. Udalerrian zer ikus zitekeen, zein tokitan jan zitekeen merke... itaundu zuen.
3. Behatzailea Deustuko Unibertsitateko ikaslea da, eta lan bat egiten dihardu udalerriko gizarte zerbitzuen gainean.

Itxurazko zeregin horiek oinarritzat harturik, behatzaileek erregistratu behar izan dute zein euskara mota erabiltzen duten leihatilako pertsonak, euren solaskidea bizkaieraduna denean (bizkaiera hutsa, bizkaiera gehiago batua baino, batua gehiago bizkaiera baino, batu hutsa, beste euskara mota bat edo gaztelania).

Asmatuak zeuden egoerak direla-eta, behatzaileek euren buruaren berri eman ez dutenez, saihestu egin da behatu nahi zen pertsonak ohikoa ez den portaera izatea. Hau da, jendeak erabiltzen duen hizkuntza aztertzeke rol bat hartu dute behatzaileek.

Behatzaileak hiru egun eta hiru une desberdinetan joan dira, zoriak edo ikerketarekin zerikusia ez duten gertaerek bizkaieraren erabileraren neurketan izan dezaketen eraginak saihesteko.

Azkenik, behatzaileek (12 behatzaile guztira) bizkaieradunak izan dira eta Deustuko Unibertsitateko Euskal Filologiako ikasle eta lizentziadunak. Zalantzarik gabe, pertsona horiek gaiturik zeuden euren solaskidearen euskara mota neurtzeko.

Bizkaiko Aldundiak eta Udaletxeek egiten duten Bizkaieraren erabileraren azterketa

Galdeketa zenbakia:

Erakunde mota:

—Udaletxea	1	Zein herri?
—Foru Aldundia	2	Zein Sail?

1. Behatzen ari garen pertsonaren adina:

—29 edo gutxiago	1
—30-40 artean	2
—41-50 artean	3
—51 edo gehiago	4

2. Behatu den pertsonaren sexua

—Gizona	1
—Emakumea	2

3. Lekura iritsi eta:

—Aurreneko hitza behatuak berak ematen du (agurra edo lehenengo harremana: kaixo, zer nahi duzu, e.a.	1
—Aurreneko hitza zuk eman behar izan diozu (agurra...)	2

4. Zein hizkuntza erabili du behatuak?

- Euskara 1
- Gaztelera 2

5. Agurraren ondoren (zuk bizkaiera erabiliz) nola erantzun duzu berak?

- Euskaraz 1
- Gaztelera 2

6. Euskaraz hitz egin ez badizu:

- Zuk eskatu behar izan duzu euskara dakien norbait 1
- Behatuak euskaraz entzun dizunean euskara dakien norbait topatu dizu . 2

7. Behatuak hitz egiten dizu:

- Bizkaiera garbia 1
- Bizkaiera gehiago batua baino 2
- Batua gehiago bizkaiera baino 3
- Batua garbia 4
- Besteak 5

8. 1-etik 10-erako eskala bat erabiliz, nolako erraztasunez hitz egiten du euskaraz?

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Erraztasun gutxi									Erraztasun asko

9. Lankideak dauden kasuan, zein hizkuntza erabili dute?

- Gaztelera 1
- Bizkaiera garbia 2
- Bizkaiera gehiago batua baino 3
- Batua gehiago bizkaiera baino 4
- Batua garbia 5
- Besteak 6

Behatzailearen izena:

Behaketa egin deneko data:

10. Oharrak:

1. Bizkaiera erabili badu, bizkaiera erabiltzen duela esateko zer-nolako adibideetan oinarritu zara? (Hitza, aditzak, esamesak, joskerak...)
2. Bizkaiera erabili badu eta bizkaiera landua edo bateratua edo alfabetatua dela uste baduzu, azaldu zure ikuspuntua:
3. Beste oharren bat baduzu, orain duzu idazteko aukera:

Informazio jasotzeko beste modu bat da ikusten eta entzuten dugunari buruzko notak hartzea. Arestian esan dugun bezala, behaketa esploratzaileetan ez da informazio biltzeko protokolorik erabiltzen. Gaiari buruzko lehen hurbilpena egin nahi denez, informazio jasotzeko modu bakarrak da aurrean

dugun guztia begiratzea eta notak hartzea. Kasu honetan, esandako esaldi eta hitzen literaltasuna errespetatu beharra dago. Errealitatea den bezala jaso behar dugu.

Azkenik, kontuan izan behaketa momentu askotan egin bada (igandero lau hiletan, adibidez), gehiegizko materiala izan genezakeela esku artean eta, azkenean, galduta egon gaitzakeela. Honela, bada, garrantzitsua da egiten dugun behaketa bakoitzarentzako laburpen bat egitea.

10.4.3. ZER-NOLAKO HARREMANAK EGON BEHAR DIRA BEHATZAILE ETA BEHATUEN ARTEAN?

Behaketak harremanetan jartzen ditu behatzailea eta behatua den fenomeno edo portaera. Ez ahozko mailan ematen den harremana da; izan ere, ikusten duen horretatik abiatuz, gertatzen dena interpretatzen du behatzaileak.

Beste tekniketarik ez bezala, ikerlariak ikertzen ari denekin harreman zuzenean egiten du lana (ikertzen ari den horien aurrean jartzen da inolako bitartekorik gabe). Behar beharrezkoa da, beraz, ikertuen aurrean bere burua behar bezala kokatzea. Kontuan izan behatuen aurrean nola kokatzen denaren arabera dagoela egin ahal dituen galderak, lortuko dituen erantzunak eta behatu ahal dituen portaerak. Taldearekiko duen portaera zein taldekoek berarekiko duten portaera ikertzailea testuinguruan nola kokatu denaren arabera dago. Oro har, behatzailea lau modu desberdinetan ager daiteke behatuen aurrera:

- a. **Behatzailea ezezaguna da ikertzen ari den taldearentzat, eta era natural batean parte hartzen du behaketa egiten duen bitartean.** Jendeak garraio publikoetan duen portaera aztertzeko, adibidez, behatzailea garraioetan ibiltzen da. Kasu honetan, ikertzailea ez da arraroa jendearentzat. Izan ere, beste bidaiariek egiten duten gauza bera egiten du.

Egoera honen abantailak dira behatzaileak ez duela bere presentzia arrazoitu behar. Aztertzen ari den egoera edo portaeraren parte den heinean, ez du azalpenik eman behar. Bestalde, behatzaileak testuingurua ezagutzen du, eta, ondorioz, behaketa sakonagoak egin ahal ditu. Azken abantaila da era naturalean parte hartzen duenez, nahi dituen beste behaketa egin ditzakeela.

Era honetako behaketen desabantaila nagusia da behatzaileak ikertzen ari den egoera edo talde horrekiko distantzia falta izan dezakeela. Ikertzailea behatzen ari den horrekiko hurbilegi dagoenez, berarentzat normala dena beste ikerlari batentzat bitxia izan daiteke.

- b. **Behatzailea ezezaguna da taldearentzat, eta era artifizial batean parte hartzen du:** ikerlaria dela esan gabe, taldean sartzen

da, eta taldekideek egiten dituzten gauza berdinak egiten ditu; alegia, eurentariko bat bihurtzen da. Espia bat da.

Behaketa honen abantaila da, behatuak ez badira konturatzen, informazio pila lortu daitekeela; beste era batera lortuko ez genukeen informazioa lortzen dugu.

Desabantailak dira era honetako behaketek arazo moralak sortzen dituztela, azken batean behatzen ari garen pertsonak engainatzen direlako. Bestalde, behatuak euren artean espia bat dagoela konturatzen badira, ikerketa pikutara joateko arriskua dago. Azkenik, kontuan izan behar da behatzailea behatzen ari den taldearekin identifikatu daitekeela. Taldean gehiegi sarteak ikerketarako beharrezkoa den distantzia murriztu dezake.

- c. **Behatzailea ezaguna da, eta ez du taldean edo ikertzen ari den egoeran parte hartzen:** egoera honen abantaila da egoera argia dela. Denek dakite nor den ikertzailea eta zergatik dagoen eurak begiratzen. Inor ez da harritzen galderak egiten baditu edo gauzak behatzen baditu. Ondorioz, nahi dituen galdera guztiak egin ditzake.

Era honetako behaketen desabantaila da behatzailearen presentziaren ondorioz jendearen portaera aldatu daitekeela. Jendearen portaera artifiziala izan daiteke. Dena dela, autore batzuk esaten dute behin denbora bat pasatzen denean jendea ohitu egiten dela ikerlaria ikusten, eta bere portaera ikerlaria aurrean ez balego bezalakoa dela.

- d. **Talde batean integratzen den behatzaile ezaguna:** rol bat hartzen du. Adibidez, komunen bizitzari buruzko ikerketa bat egiteko, komuna batetara joan, ikerketa bat egin nahi dela esan eta rol bat hartzen da.

Jendeak badaki behatzaile bat dela; dena dela, rol bat hartzen duen heinean, taldearen bizitzan parte hartzen du, eta beste era batera lortuko ez litzatekeen informazioa lortzen du. Dena dela, beti egongo dira ezagutuko ez dituen arloak.

Era honetako behaketen abantaila da, behatzailearen egoera argia dela; beraz, nahi dituen beste galdera egin ditzake. Bestalde, behatzen ari den horretan integratzen den heinean, beste era batera lortuko ez lukeen informazio lortzen da. Honekin batera, ikerlaria ezaguna den heinean, teorizatu egin dezake behatuekin, eta ateratzen dituen emaitzak taldekoekin eztabaidatu ditzake, eta hori aberasgarria da ikerketarako. Azken abantaila da, taldeko partaide ez den heinean, taldekideekiko distantzia gorde dezakeela, eta hori ona da besteek ikusten ez dituzten edo ohikotzat jotzen dituzten gauzak ikusteko.

Era honetako behaketen desabantaila garrantzitsuenak dira, alde batetik, behatuek badakitela behatzailea ez dela taldekoa, eta, on-

dorioz, behatzaileak ezin duela talde horri buruzko informazio guztia bildu. Bigarren desabantaila da behatzaileak eragina izan deza-keela taldearen portaeran. Hau da, behatzaileak portaera artifizialak sortu ditzake.

Laburbilduz, gure ustez, aukerarik onena da ezaguna den behatzai-learnena. Dena dela, askotan ezinezkoa da horrelako behaketa bat egitea (kartzela, psikiatrikoan, monasterioan...), eta, ondorioz, ikerketaren berezitasun eta baliabideak kontuan hartuz, beste behaketa mota batzutan pentsatu beharko dugu.

10.5. Informazioaren azterketa

Behin behaketa egin eta informazioa bildu ondoren, azterketa eta interpretazio prozesua hasten da. Oso argi izan behar da behaketaren bitartez ezinezkoa dela elkarrizketatuaren esperientzia ulertu berak bizi izan duen bezala. Zeharka hurbiltzen gara behatutako fenomenora.

Muga hau kontuan hartuz, ikerketak helburu zehatz bat du: aztertutako portaera edo fenomenoaren esanahia ezagutzea. Horretarako, informazioa biltzeko erabilitako protokolo, fitxa eta apunte guztiak ordenatu ondoren, behatutakoaren deskripzioak egin behar ditugu. Deskripzio kualitatiboak egiteaz gain (testuinguruari buruzko azalpenak, jarrerak...), tauletan agertzen ditugun maiztasun guztiak agertu beharko ditugu. Lehen azterketa honetan garrantzi berezia du aztertutako portaeraren testuingurua (tokia, momentua...) behar bezala agertzea. Hau da, aztertutako portaera behar bezala testuinguratu behar dugu.

Lehen deskribapena egin ondoren, behatutako fenomenoaren esanahia berreraiki behar dugu. Parte-hartzaileek portaerari ematen dioten esanahia ulertzen saiatu beharko gara, baita portaera horren inguruan daudenek portaera edo fenomeno horri ematen dioten esanahia ere. Ezin dugu ahantzi gauzen azalean gelditzeko arriskua dagoela.

Ikertzaileak ezin du behatutakoaren deskripzio hutsa egin. Aruntzago joan behar du; hau da, interpretazioak egin behar ditu. Interpretazio horiek era eszeptikoan egin behar dira; alegia, norbere ikuspuntuak, aurreiritziak eta sineskerak zalantzan jarritz, interpretazio errazak saihestuz, ikusten denaren arrazoi errazegiak eztabaidan jarritz, eta egiten diren interpretazioak beste ikerketa batzuetatik lortutako datuekin kontrastatuz.

10.6. Azken txostenaren idazkera

Behin informazioa aztertu ondoren, azken txostena idatzi behar dugu. Edozein teknika erabiltzen denean bezala, behaketetan oinarrituta egin ditugun ikerketen txostenak ulergarria izateaz gain, argi adierazi behar dute zein-

tzuk diren eman diren pausoak eta hartu diren erabakiak (laginaren tamaina, erabilitako protokoloa...). Kontuan izan, txarto idatzitako eta egituratutako txostenek ikerketarik onena alferrik galtzen dutela.

Honela, bada, garrantzitsua da txostenaren atalak zein aurkezten diren ideiak elkarri ondo elkarlotuta agertzea. Horretarako, argi izan behar dugu zer esan nahi dugun. Gainera, esan nahi dugun hori egoki antolatzen jakin behar dugu; komunean dauden ideiak esalditan bilduz eta esaldien artean lotura logiko egokiak agertuz, gehiegizko betegarriak alde batera utzita.

Honekin batera, argi erakutsi behar dira egindako aurkiketak. Kontuan izan egindako aurkitzeak aurkezterakoan behatuek erabili dituzten hitz, esaldi eta aipamenak tartekatuta behar ditugula.

Era berean, txostenak eranskin bat izan behar du. Alde batetik, egindako behaketen fitxa teknikoak sartu behar dugu. Fitxa teknikoan, egindako behaketa bakoitzaren berezitasunak sartuko ditugu: behaketak iraun duen denbora, behaketa egin den data, tokia... Era berean, behaketa bakoitza ulertzeko garrantzitsuak izan daitekeen edozein berezitasun aipatu behar ditugu.

Bestetik, informazioa jasotzeko erabilitako fitxa edo protokoloak sartu behar dira eranskinetan.

10.7. Behaketaren balio eta fidagarritasuna

Atal honen hasieran esan dugun bezala, behaketaren aurka daudenek esaten dute teknika hau subjektiboa dela, eta bide hau erabiliz ezinezkoa dela fenomenoak diren bezala ezagutzea. Alde daudenek, aldiz, informazioa biltzeko teknika indartsua dela esaten dute. Ikertzailearen eta behatzen den fenomenoaren artean bitartekorik ez dagoenez, hobeto ezagutzen da errealitatea.

Esanak esan, egindako behaketen kalitatea hobetu dezakegu behaketaren fidagarritasuna eta balioa ziurtatuz.

10.7.1. TRESNAREN FIDAGARRITASUNA

Neurtzeko tresna bat fidagarria dela esaten dugu, behin baino gehiagotan erabili ondoren konsistentea denean, hau da, ondorio berdinetara eramaten gaituenean.

Gure behaketen fidagarritasuna hobetu egingo da, datuak biltzeko sortzen ditugun protokoloetan edo fitxetan erabiltzen ditugun aldagaiak ondo definituta daudenean, eta erabiltzen ditugun erantzun kategoriak exhaustiboak eta elkarrekiko ezeztatzaileak direnean. Era berean, informazio fidagarriagoa bilduko dugu behatzaileak sartu ditzakeen soslai guztiak ekiditen ba-

ditugu, eta informazioa biltzeko erabiltzen ditugun gailu guztien (ahots grabagailuak, bideoak...) eragina murrizten badugu.

Honekin lotuta, oso kontuan izan behar da gure behaketen fidagarritasuna zalantzan jar dezaketen arazoak daudela:

— **Pertzepzioari loturiko arazoak:** pertzepzioari loturiko arazoen ondorioz, aurrean dauzkaten estimuluen aukeraketa naturala egin dezakete behatzaileek. Gauza batzuk behatzen ditugu beste batzuk alboratuz. Estimuluen aukeraketa selektibo hau arrazoi desberdinengatik gerta daiteke:

- Bitarteko sentsorialetan eman daitezkeen arazoengatik: nekea, ondo ez ikustea...
- Estimulu guztiak hartzea ezinezkoa denez, estimulu batzuk bakarrik hartzen ditugu.
- Estimulu batzuei beste batzuei baino garrantzi gehiago ematen zaie.
- Halo efektuagatik: aurretik ikusitakoak guregan eragin duen inpresioak eragina du ondoren ikusten dugunarengan.
- Aingura efektuagatik: edozein pertzepzio lehen pertzepzio batengatik soslaitua egon daiteke.
- Memoriaren aukeraketarengatik: ez gara gauza guztietaz gogoratzten. Gizakiok ia beti gauza atseginetaz gogoratzeko joera dugu.
- Gure kulturak ere eragina du gure pertzepzioetan.

— **Behatzailearen pertsonalitateari loturiko arazoak:** behatzailearen pertsonalitateak eragina du egiten duen behaketan. Pertsonalitate mota desberdinak daude:

- Pertsonalitate deskribatzailea: ikusitakoa deskribatzera mugatzen da. Zehatza da.
- Pertsonalitate ebaluatzailea: ikusten duen guztia ebaluatzen du.
- Pertsonalitate eruditua: dena da interesgarria, dena ikasi beharra dago. Informazio asko ematen du, baina koherentzia gabe.
- Pertsonalitate poetikoa: poetizatze joera du.

Gure ustez, behatzaile onena da joera hauen guztien artean oreka bat lortzen duena.

— **Oinarri teorikotik etorri daitezkeen arazoak:** beste teknika batzuk erabiltzen ditugunean bezala, behaketa erabiltzen dugunean garrantzitsua da oinarri teoriko on bat izatea. Dena dela, oinarri teoriko horrek eragina izan dezake egiten ditugun behaketetan eta lortzen ditugun emaitzak interpretatzerakoan. Zentzu honetan, kontuan izan behar da behaketa guztiz neutro bat egitea ezinezkoa dela.

— **Teknikak berak sor ditzakeen arazoak:** behaketaren eraginez, behatutako subjektuen eta egoeren aldaketa gerta daiteke. Jendeak be-

hatzailearen aurrean era egokian agertzeko edo itxura zehatz bat emateko joera erakutsi dezake, eta honek eragina izan dezake euren portaeran.

10.7.2. IKERKETAREN BALIOA

Neurtzeko tresna bat fidagarria da, behin baino gehiagotan erabili ondoren ondorio berdinetara eramaten gaituenean. Balioak, bere aldetik, neurketarako erabiltzen den tresnaren eta neurtu nahi den kontzeptuaren arteko loturarekin zerikusia du. Erabilitako tresna baliagarria dela esaten dugu, ikertzaileak neurtu nahi duena neurtzen duenean.

Ez dago zalantzarik behaketaren bitartez lortzen ditugun datuen balioa neurtzea fidagarritasuna neurtzea baino zailagoa dela. Izan ere, gizakien, taldeen eta erakundeen portaerak neurtuko dituzten tresna perfekturik ez dago. Hala ere, behaketa baten balioa hobetu egingo da:

- Gai bera ikertzeko, aurretik arrakastaz erabili diren galdeketak, protokoloak eta fitxak erabiltzen badira.
- Gertatu dena gordetzeko argazki kamerak, ahots grabagailuak, bideo kamerak eta antzerako gailuak erabiltzen baditugu. Horrela, behatzaileen artean zalantzak edo kontraesanak badaude, material hau aztertu daiteke. Arazoa zera da: kamera edo mikrofonoen aurrean jendea beldurtu egiten dela, edota ez dela era natural batean portatzen.
- Behaketa pertsona desberdinek egin dezakete, eta gero ikusi dutena eztabaidatu egin daiteke, guztiek gauza bera ikusi duten argitzeko. Hau egitea interesgarria da, zeren behatzaileak aurrean dituen portarekiko ohitzeko joera du, eta gauzak behatzeko fintasuna galtzen du; hau da, aztertzen ari den horrekiko distantzia galtzeko arriskua dago, eta hori kaltegarria izan daiteke ikerketarentzako. Hasieran adiera erakartzen duten gauzek, denborarekin galdu egiten dute erakargarritasuna beraietara ohitzen bagara, eta hori oztopo bat da portaera eta fenomenoaren aberastasuna ezagutzeko.
- Ona da aztertzen ari garen taldeko edo pertsonen arteko norbaiten edo norbaitzuen lagun egitea. Ahal bada taldean rol edo posizio desberdinak dituztenenak. Bildutako informazioa eta lortutako emaitzak hauekin eztabaidatuko ditugu, eta behaketa bide onetik doan jakin ahal izango dugu.
- Interesgarria da ateratzen ari garen ondorioak ikerketatik kanpo dagoen norbaitekin eztabaidatzea. Askotan, ikerlaria gehiegi sartzen da aztertzen ari den fenomenoan, eta ikerketarako behar den distantzia eta fintasuna galdu dezake. Ikerketatik kanpo dagoen norbaiten aholkuak baliagarriak izan daitezke behaketarako beharrezkoa den finta-

suna berrezkuratzeko edo alde batera utzi ditugun arloak berriro ere kontuan hartzeko.

- Sen ona delakoak edo behatzailearen balio kulturalak gauzak bere ikuspuntuaren arabera eta ez diren bezala ikustera eramán ditzakete. Ahal den neurrian, gure sen onaren eta balio kulturalen eragina murrizten saiatu behar gara.
- Portaeraren eta portaera horren azalpenaren artean desberdindu beharra dago. Ez eman behatutakoari buruzko aurreiritzirik. Gertaerak aukeratzekoan eta aztertzerakoan neutroak izaten ahalegindu behar gara, nahiz eta argi izan guztiz objektiboa izatea ezinezkoa dela.
- Ikerketa hasieratik kontrolatu behar da. Hartutako notak, egindako laburpenak eta eskemak zein ateratako emaitzak behin eta berriz irakurri eta aztertu behar dira. Gauza bera egingo dugu hasieran jarri ditugun hipotesiekin. Ikerketa behin eta berriz birplanteatu beharra dago, ahazten ari garen zerbait dagoen ikusteko.

XI

Eduki azterketa

«Compared with techniques such as interviews, content analysis usually yields unobtrusive measures in which neither the sender nor the receiver of the message is aware that it is being analyzed. Hence, there is little danger that the act of measurement itself will act a force for change that confounds the data».

Weber, R.P. (1980): *Basic Content Analysis*

Gizarteetako erakunde, elkarte eta gizakien eguneroko harremanetan izugarrizko material komunikatzailea sortzen da; gizarte burubideen lekuko den materiala. Izan ere, gizakiek esan edota idazten dituztenetan, euren helburuak, jarrerak, egoeren interpretazioak, ezagutzak, iritziak, e.a. adierazten dituzte.

Ikertzaileek gizartegintzan sortzen diren komunikazio hauek ikertzeko eta behar bezala ulertzeko, era askotako teknikak sortu dituzte. Teknika horien artean kokatu behar da, hain zuzen ere, eduki azterketa. Izan ere, eduki azterketa testu batetik baliozko inferentziak ateratzeko prozedura desberdinak erabiltzen dituen ikerketa teknika da.

«...el análisis de contenido es una técnica de investigación que consiste en el análisis de la realidad social a través de la observación y del análisis de los documentos que se crean o producen en el seno de una o varias sociedades. Lo característico del análisis de contenido, y lo que le distingue de otras técnicas de investigación sociológica, es que se trata de una técnica que combina intrincadamente, y de ahí su complejidad, la observación y el análisis documental». Lopez Aranguren, E. (1989): «El análisis de contenido», Garcia Ferrando et Alia: *El análisis de la realidad social. Métodos y técnicas de investigación*. Madril, Alianza Universidad, 366. orrialdea.

11.1. Eduki azterketaren berezitasunak

«Content analysis is a research technique for the objective, systematic, and quantitative description of the manifest content of communication». Berelson, B. (1966): «Content Analysis in Communication Research» in Berelson, B. eta Janowitz, M. (Edit.): *Reader in Public Opinion and Communication*. The Free Press, New York, (Bigarren argitarapena), 263. orrialdea

Berelsonek eman zuen eta, nolabait esateko, klasikoa egin den definizioaren arabera, «Eduki azterketa, komunikazio baten ageriko edukiaren deskribapen objektibo, sistematiko eta kuantitatiboa egiteko ikerketa teknika da». Definizio honen arabera, edozein eduki azterketak berezitasun hauek izan behar ditu:

- Objektibotasuna:** ikerketa egiterakoan ikerlarien subjektibotasunak ahal bezain eragin txikiena izan dezan, testuaren kodifikazioa, eta, ondoren, egingo den azterketa ahalbidetuko duten erregistro kategoriak zehatz-mehatz definitu behar dira.
- Sistematizazioa:** hiru gauza adierazten dira sistematizazioa esaten denean: lehenengo eta behin, aztergai diren datuen aukeraketa (laginaren osaketa) aldeztu aurretik zehaztuta dauden irizpideen arabera egin behar dela; bigarrenik, eduki osoa ikertzen ari den gaiarekin harremanetan dauden kategorien bitartez era zehatzean aztertu behar dela; eta, azkenik, ikerketa osoan zehar ebaluaketa irizpide berdinak erabili behar direla.
- Zenbaketa:** kodifikazioa egiteko erabiliko diren kategoriei zenbakizko baloreak lotu behar zaizkie; hau da, ikertzen ari garen mezuan agertzen diren berezitasunak zenbat aldiz agertzen diren zenbatu behar dira. Kontuan izan behar da eduki azterketan agerpen maiztasunak testu horretan garrantzia duten arloen adierazle direla. Edukiaren berezitasun desberdinen agerpen maiztasunak berezitasun horien garrantziaren adierazle, eta, ondorioz, testu horren igorle zein hartzaileei buruzko informazio iturri dira.
- Ageriko edukia:** eduki azterketak esan dena hartzen du oinarritzat, agerian dagoena, eta albo batera uzten ditu mezua esan edo idatzi dituenaren ezkutuko intentzioak. Honela, bada, aztergai diren hitz edota esamoldeak mezua sortu den ingurune linguistikoan duten esanahia berarekin ulertu behar dira. Alegia, Berelsonek eman zuen definizio honen arabera, onartzen dena zera da: ikertzaileak komunikatzen denaren esanahia ekoizleak zein hartzaileak ulertzen duten modu berean ulertzen duela.

64. ADIBIDEA: erregistro kategoriak

BIZKAIERAREN ERABILERAK ADMINISTRAZIOAN

Bizkaieraren Erabilera Administrazioan ikerketaren baitan, Bizkaiko Foru Aldundiak, Bizkaiko Batzar Nagusiek eta Udalek sortzen dituzten testuetan zenbat bizkaiera erabiltzen den aztertu da.

Lehenengo eta behin, administrazioak sortzen dituen testu mota guztiak bereizi ondoren, euskaraz idatzita dauden testuetatik bizkaieraren ezaugarriak dituztenak zenbatu dira. Honela, bada, ikerketa honetan erabili ditugun erregistro kategorien artean testu motak ditugu, alde batetik, eta, bestetik, testua bizkaieraz idatzita dagoen edo ez. Laginean aukeratu diren testu guztiak akta, ziurtagiri, deialdi, foru dekretu, ediktu, txosten, jabeldura, oinarritzko arau, foru agindu, lege proposamen, arauz besteko proposamen edo barru araudia direlako arabera sailkatu dira, eta, ondoren, bizkaieraz dauden testuen eta bizkaieraz ez dauden testuen artean desberdindu da.

Bizkaieraren erabilera testu motaren arabera

	Euskaraz dauden agiriak guztira	Bizkaierazko agirien kopurua
Aktak	1	1
Ziurtagiriak	1	1
Deialdiak	1	0
Foru Dekretuak	278	16
Ediktuak	2	0
Txostenak	2	2
Jabeldurak	7	7
Oinarritzko Arauak	1	1
Foru Arauak	6	5
Foru Aginduak	17	0
Lege Proposamenak	1	1
Arauaz Besteko Proposamenak	15	15
Barru Araudiak	3	3
Ez da ageri zer nolako testua den	3	2
Guztira	338	54

Iturria: Elzo, J. (Zuzendaria) (1995): *Bizkaieraren erabilera administrazioan*. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.

Taulan ikus daitekeen bezala, bizkaiera ediktuetan, aginduetan, foru dekretuetan eta deialdietan erabiltzen da gutxien. Gainerako agiri motetan, bizkaiera da nagusi.

Testuen ageriko edukia aztertuz, mezuaren igoaren (komunikatzailearen) helburuen eta testuaren edukiaren edo edukia eta hartzailearen (irakurlearen edota entzulearen) arteko harremanei buruzko ondorioak atera daitezke. Testuan idatzirik dagoenak igoaren intentzio, jarrera eta berezitasunen ispi-lua izateaz gain, testu hori eskuratzen duten irakurleen berezitasunei buruzko informazioa ematen du (bere hezkuntza maila, interesak, baloreak...). Adibidez, egunkari bateko berrien eduki azterketa eginez, egunkari hori zuzentzen eta idazten dutenen intentzio, jarrera eta berezitasunak ezagutu ditzakegu. Era berean, egunkari hori erosten dutenen berezitasunak ere ezagutu ditzakegu.

Berelsonek 1952. urtean emandako definizio, berezitasun eta auresuposamendu hauek eduki azterketaren izaera ulertzeko oinarritzkoak badira ere,

azken urteetan kritika ugari jasan dituzte. Izan ere, definizio honek ez du behar bezala islatzen gaur eguneko eduki azterketen izaera. Gaur egun egiten diren eduki azterketak azterketa kualitatiboak eta kuantitatiboak egiten dituzte, agerian dagoena eta ezkutuan dagoena aztertzen dute eta testuaren berezitasunak deskribatzeaz gain, inferentziak ere egiten dituzte.

Honela, bada, agertzen diren definizio berrietan, eduki azterketa kuantitatiboak izan behar dela eta ageriko informazioa aztertu behar duela esaten duten berezitasunak desagertu egin dira. Eduki azterketaren definizio berriek, honenbestez, eduki azterketaren bitartez ez bakarrik agerian dagoena, baita ezkutuan dagoena ere aztertu daitekeela esaten dute. Gainera, mezuen azterketa deskriptibo soilak egiteaz gain inferentziak egin daitezkeela azpimarratzen dute.

«...en la actualidad se reconoce que el análisis de contenido puede tener tanto un fin descriptivo como un fin inferencial, y puede utilizar tanto técnicas de análisis cuantitativo como técnicas de análisis cualitativo; también hay acuerdo en que el análisis no está limitado al contenido manifiesto de los mensajes sino que puede extenderse a su contenido latente, y en que los análisis de contenido realizados deben someterse, como todo análisis, a pruebas de validez y fiabilidad». Lopez Aranguren, E. (1988): «El análisis de contenido» en Garcia Ferrando et Alia: *El análisis de la realidad social. Métodos y técnicas de investigación*. Aip. Lib. 366. orrialdea

11.2. Eduki azterketaren abantailak eta desabantailak

Eduki azterketa teknika baliagarria da testuetatik informazioa ateratzeko. Dena dela, beste edozein teknikak bezala abantailak eta desabantailak ditu. Beraz, eduki azterketetan oinarrituz ikerketa baliagarriak egiteko, oso konfiantza izan behar ditugu teknikaren abantailak eta desabantailak.

Eduki azterketaren abantailak

- Eduki azterketak aztertu nahi diren jokabideak eta adierazpenak beste teknika batzuk baino gutxiago baldintzatzen ditu. Inkestetan, sako-neko elkarrizketetan, bizitza historietan, eztabaida taldeetan edo saiakuntzetan dagoen ikertzailearen partehartzeak nahitaezko eragina du ikertuengan; eta hau, datu kutsatuen sorrera izan daiteke behin baino gehiagotan. Eduki azterketan, aldiz, mezua igorlea zein hartzailea ez dira aztertuak direla ohartzen. Aztergai den mezua ikertuengandik kanpo dagoen heinean, ez dago hauengan inolako eraginik informazioa bildu eta aztertzerakoan.
- Eduki azterketak material ez egituratua onartzen du. Datuak dauden moduan aztertzeko gaitasuna du; hau da, inolako aldaketarik egin gabe. Azterketa egin aurretik ikertzaileak ez du jakiten askotan zein-

tzuk diren baliozko kategoria eta adierazleak, eta, honenbestez, ezin izaten du egituratutako informaziorik sortu (inkesta baterako galderak, eztabaida talde bateko gidoia...). Kasu hauetan, eduki azterketa da ikerketarako bide egokienetarikoa.

- Gizakiaren erantzunei gehiegizko mugak jartzeak (inkesta, eztabaida talde edo sakoneko elkarrizketak egiterakoan erabiltzen diren gidoi eta galdeketa zarratuekin egiten den bezala) zalantzan jar dezake datuen balioa. Galdeketa itxiak giza errealitatea bere aberastasun eta konplexutasunean aztertzeko oztopo izan daitezke sarri askotan. Eduki azterketa, zentzu honetan, gizakien arteko komunikazioen transkripzio edo testuen azterketa zuzenean oinarritzen denez, giza errealitatea hobeki ulertzen laguntzen du.
- Inkesta bezalako bideetatik lortutako erantzunak izan dezaketen esanahi sinbolikoa alde batera utziz aztertzen dira, ia gehienetan; hau da, erantzunen atzetik egon daitezkeen metaforak, esanahi bikoitzak e.a. alde batera utzita (gai baten aurrean alde eta aurka daudenen ehunekoen azterketa soilean, emandako erantzunen azpian dauden esanahi sinbolikoak ahanzten dira, adibidez). Eduki azterketa teknikak testuingurua hartzen du kontuan, eta, ondorioz, aztergai den informazioaren esanahi sinbolikoak aztertzeko gai da.
- Eduki azterketak ikerketa aurrera doan heinean agertu daitezkeen galdera eta hipotesi berriak aztertzeko aukera ematen du. Inkesta, eztabaida talde, bizitza historia, sakoneko elkarrizketa eta antzerako beste teknike-tan ez bezala, behin eta berriz itzuli gintezke jatorrizko materialetara.
- Eduki azterketa iragana aztertzeko bide egokia da. Eduki azterketak iraganean idatzitako testuetatik beste bide batzuetatik lortu ezin daite-keen informazioa eskuratzen laguntzen digu.

65. ADIBIDEA: eduki azterketa teknika egokia da iragana aztertzeko

EUSKALDUNAK ETA ONDASUNAK

Euskaldunen ondasunekiko harremanak aztertu dituzten autoreen artean desadostasun eta kontraesanak nabarmentzen direla ikusi ondoren, hizkuntzan oinarritutako ikerketa burutu genuen *Euskaldunak eta Ondasunak* liburuan. Liburu honetan aurkezten diren ondorioak, honenbestez, hizkuntzaren azterketan, zehazki euskal esaera zaharren eduki azterketan oinarritzen dira. Euskal esaera edo lokuzioak, izan ere, denboraren joan-etorriaren gainetik gorde diren hitz egiteko erak dira. Hizkuntzaren bihotzean bizi eta herriak erabiltzen dituen adierazpideak izanik, iraganeko bizimodu, xede eta pentsamoldeak aztertzeko material ezin hobetzat jo daitezke. Zentzu honetan, ondasunekiko harremanei dagokionez iraganean izandako pentsaera eta ikuspuntuak ezagutzeko eta ulertzeko oinarri ezin hobeak dira.

Dena dela, azterketarako erabili diren esaerak ez ditut nik neuk bildu. Aurretiaz jasota baina, era honetan behintzat, aztertu gabe dauden euskal

esaera zaharretan oinarritu naiz; Justo Mokoroaren *Repertorio de Locuciones del habla popular vasca* (1990) bilduman, hain justu ere. Jatorri eta euskalki desberdinetako 92.167 esaerez osatua, honelako ikerketa bat egiteko *corpus* ezin aproposagoa dela deritzot.

Esku artean duzun ikerlan honen asmo nagusia, beraz, Justo Mokoroak argitaratutako esaera bilduma bere osoan hartzea, eta bertan adierazten diren ondasunekiko harremani buruzko berezitasunak ezagutzea izan da; euskal kulturaren, bereziki kultura ekonomikoaren, ohiturazko balore eta ikuspuntuaren ezagutza handitzea eta gaur egunerako baliagarriak izan daitezkeen zenbait ikasbide ateratzea.

Eduki azterketaren desabantailak

- Gerta daitekeena da testuak artxibatzen edo gordetzen dituzten pertsonen eta erakundeek ez dutela informazio guztia era sistematikoan gordetzen. Errazen lortu daitezkeen informazioa edo arazo gutxien ematen duen informazioa gordetzen dute bakarrik.
- Askotan, eduki azterketak egiteko ez dago informaziorik, informazioa ez da zehatza edo soslaitua dago. Ikerketak egiteko material idatziak eskaintzen dituzten datu bankuak ugaritzen badoaz ere, oraindik ere denbora eta diru asko kostatzen da era honetako informazioa lortzea.
- Nahiz eta artxibatuta egon, askotan muga edo oztopo asko daude informazio hori eskuratzeko, edo ezin dira ikertzaileak nahi dituen bezala eskuratu eta ikertu.
- Datu asko ditugunean eduki azterketa neketsua eta oso garestia izan daiteke.
- Erakundeek era askotara artxibatzen dituzte datuak (programa informatiko desberdinekin, adibidez), eta, ondorioz, arazoak izaten dira askotan, toki desberdinetako datuak bildu edo alderaketak egiteko.

Berelsonek eduki azterketaren hamazazpi erabilera desberdintzen ditu: «Para describir tendencias en el contenido de las comunicaciones. Para seguir el curso del desarrollo de estudios académicos. Para establecer las diferencias internacionales en materia del contenido de las comunicaciones. Para comparar los medios o “niveles” de comunicación. Para verificar en qué medida el contenido de la comunicación cumple los objetivos. Para construir y aplicar normas relativas a las comunicaciones. Para colaborar en operaciones técnicas de una investigación (por ejemplo, codificar preguntas abiertas en las entrevistas de encuestas). Para exponer las técnicas de la propaganda. Para medir la “legibilidad” de los materiales de una comunicación. Para poner de relieve rasgos estilísticos. Para identificar los propósitos y otras características de los comunicadores. Para determinar el estado psicológico de personas o de grupos. Para detectar la existencia de propaganda (fundamentalmente con fines legales). Para obtener información política y militar. Para reflejar actitudes, intereses y valores (“pautas culturales”) de ciertos grupos de la po-

blación. Para revelar el foco de la atención. Para describir las respuestas actitudinales y conductuales frente a las comunicaciones». Krippendorff, K. (1990): *Metodología del análisis de contenido. Teoría y Práctica*. Ediciones Paidós, Bartzelona, 46. orrialdea

11.3. Eduki azterketaren osagaiak

Eduki azterketa egiteko ez dago bide bakar bat. Eduki azterketa bakoitzak bere behar, helburu eta berezitasunak dituen heinean, zaila da eduki azterketak egiteko pausu zehatz batzuk aurkeztea. Hobe da, eduki azterketa egiterakoan era batera edo bestera agertu daitezkeen osagaiei buruz hitz egitea. Zehazki, edozein eduki azterketa egiterakoan kontuan hartu behar diren 6 osagai aurkeztuko ditugu: datuak, laginketa, azterketa unitateak, erregistro kategoriak eta erregistroa, inferentziak eta azterketa:

1. **Datuak:** eduki azterketarekin lortu nahi diren helburuak (edo erantzun nahi diren galderak) argi eta garbi finkatuta daudenean, aztergai den material komunikatzailea zehaztu behar da. Azterketaren datuak zeintzuk diren ezagutu, bereiztu eta definitu egin behar ditugu.

Datu hauek era desberdinetakoak izan daitezke: urte zehatz bateko egunkariak, hile bateko aldizkariak, idazle baten liburuak, alderdi politiko baten propaganda, bideo edo ahots grabazioak, pelikulak, CD batetako abestiak, politikari batek hauteskundeetan emandako diskurtsoak eta abar; hori bai, aukeratutako datu guztien unibertsoa aztertu nahi den gaiaren eta denboraren arabera zehatz-mehatz definitu behar da.

2. **Laginketa:** azterketaren helburuetarako balio dezaketen datuen zerrenda zabalegia eta, zentzu honetan, erabilgarritasun gutxikoa bada, lagin bat aukeratu behar da (urte zehatz batetako egunkari guztietatik asteartean argitaratutakoak hartzen dira, adibidez. Idazle baten liburu guztien artean zozketa egin eta erdiak aukeratzen dira azterketarako, politikari batek hauteskunde batzuetan emandako diskurtsoetatik herenarekin osatzen da lagina...).

Lagina era sistematikoan osatzeko, metodo desberdinak erabili daitezke. Azterketaren helburuak kontuan hartuz, laginketa mota onena aukeratu behar dugu. Aurretik ikusi bezala, bi motatako laginketak daude: laginketa probabilistikoak eta laginketa ez probabilistikoak.

Laginketa probabilistikoaren bitartez lagina prestatzeko, populazioa osatzen duten testu guztien zerrenda behar dugu. Zerrenda horretatik abiatuz, lagina osatuko duten testuak aukeratuko ditugu zoriz.

Eduki azterketarako laginak aukeratzekoan, lau eratako laginketa probabilistikoak erabili ditzakegu: zorizko laginketa sinplea, laginketa sistematikoa, laginketa estratifikatua eta konglomeratu bitartez egiten den laginketa.

- Zorizko laginketa sinplea:** laginketa mota honen bitartez lagina osatzeko bi bide daude: batetik, zerrenda osatzen duten testu guztiei zenbaki bat ematen diegu, eta lagina osatuko duten testuen aukeraketa zorizko zenbakien taula bat erabiliz lortzen dugu. Metodo hau erabilizteko, beraz, zorizko zenbakien taula prestatu behar dugu. Beste metodo bat da loteria-bonbo baten laguntzaz lagina osatzen duten testuak aukeratzea. Azken helburua, beti ere, lagina aukeratzekoan zoria ziurtatzea da.
- Laginketa sistematikoa:** laginketa sistematikoetan lagina osatuko duten testuak sistematikoki aukeratzen dira. Testuen zerrendatik K . testua aukeratzen da, non K populazioa laginaren tamainarekin zatitzean lortzen dugun zenbakia delarik. Zerrendaren zein tokitan hasi behar garen jakiteko testuen zerrendatik bat aukeratzen dugu zoriz, eta K zenbakia erabiliz, beste guztiak hartuko ditugu.
- Laginketa estratifikatua:** laginketa estratifikatuaren abiapuntua zera da: zenbat eta populazioa homogeneoagoa izan, are eta errazagoa dela populazioaren isla izango den lagina lortzea. Zentzu honetan, laginketa estratifikatuetan aztergai diren testuak multzoetan banatzen dira, eta, ondoren, zorizko laginketa sinple bat edo laginketa sistematiko bat egiten da multzo bakoitzaren barnean. Laginketa estratifikatua bi eratakoa izan daiteke:
 - Laginketa estratifikatu proportzionala: multzo bakoitzean hartzen den testu kopurua multzoaren tamainaren arabera da.
 - Laginketa estratifikatu ez proportzionala: multzo bakoitzak duen testu kopurua kontuan hartu gabe, multzo bakoitzetik testu kopuru bera hartzen da.
- Konglomeratu bitartez egindako laginketa:** testu guztien zerrendarik ez dugunean, edo zerrenda egitea garestiegi denean, eta bestalde, testuak konglomeratu edo talde naturaletan banatua daudenean (liburuetako atalak, autore batzuen testuak...), konglomeratu bitartez egindako laginketa egin genezake. Metodo honen bitartez, konglomeratu guztien zerrenda bat egiten da, eta, ondoren, konglomeratu batzuk aukeratzen dira zoriz (autoreen zerrenda batetik batzuen testuak aztertzen dira). Ikerketa egiterakoan aukeratutako konglomeratu bakoitza osatzen duten testu guztiak hartu ditzakegu, edo konglomeratuaren barnean zorizko laginketa sinplea edo laginketa sistematikoa egin dezakegu.

Laginketa ez probabilitikoetan ez daukagu testuen zerrendarik, eta, beraz, ez dakigu zein den populazio osatzen duten testuak laginean aukeratuak izateko duten probabilitatea. Lagina ikerlariaren interesen, nahien edo aukeren arabera osatzen da. Probabilitatezkoak ez diren laginketa mota bi dira erabilgarriak eduki azterketak egiterakoan:

- Iritzi laginketa:** ikerlariak ikertzen duen gaiari buruz duen ezagutzaren arabera, subjektiboki aukeratzen ditu lagina osatuko duten testuak. Hau da, irizpide subjektiboa erabiltzen du aukeraketa egiterakoan.
- Komenientziatzko lagina:** ikerlariak erraz lortu ditzakeen testuak aukeratzen ditu laginean.

Behin datuak aukeratu direnean eta laginketa egin denean hasten da eduki azterketa.

3. **Azterketa unitateak:** azterketa unitateak eduki azterketa oinarrituko den komunikazio elementuak dira. Hiru azterketa unitate bereiztu daitezke: laginketa unitateak, erregistro unitateak eta testuinguru unitateak:

- Laginketa unitateak:** ikertu nahi diren datuetan ikertzaileak bereizten dituen zatiak dira. Unitate hauek artifizialak (lerro kopuru zehatz bat, paragrafoak, zutabeak, orriak, minutuak, e.a.) edo naturalak (artikuluak, liburuak, editorialak, e.a.) izan daitezke. Eduki azterketa bateko datuak autore baten liburuak badira, adibidez, laginketa unitateak liburuaren atalak, pasarteak, lerro kopuru zehatzak... izan daitezke. Kontuan izan behar da batzuetan datuak eta laginketa unitateak berdinak izan daitezkeela (liburuetan oinarritutako azterketetan, liburuak dira datuak zein laginketa unitateak) eta beste batzutan desberdinak (datuak egunkariak izanik, laginketa unitateak editorialak, artikuluak edota berriak izan daitezke). Dena dela, azpimarragarria da laginketa unitate naturalak artifizialak baino maizago erabiltzen direla.
- Erregistro unitateak:** azterketarako garrantzitsua den informazioa agertzen delako, ikertzaileak laginketa unitatean bereizten duen eduki zatia da. Ondo hausnartu beharreko pausoa da; izan ere, eduki azterketa egiterakoan egiten den erabakirik garrantzitsuenetarikoa da sailkatu edo zenbatuko diren oinarritzko unitateak finkatzea. Berelsonek bost erregistro unitate bereizten ditu:
 - Hitzak: testu baten berezitasunen azterketa hitzen zenbaketa eta erregistro soilean oinarritu daiteke.
 - Esaldiak: hitz soilak aztertu beharrean, ikerketaren helburuentzako esanahi zehatza duten esaldiak kodifikatu eta aztertu daitezke.
 - Gaiak: ikuspuntu orokorrago bat lortu nahi denean, hitzak edota esaldiak sailkatu ordez, gaiak kodifikatzen dira.
 - Pasarteak: hitzak, esaldiak edota gaiak kodifikatu beharrean, pasarteak kodifikatu daitezke. Kontuan izan behar da pasarteak kodifikatzean hitzak edo esaldiak kodifikatzen direnean baino fidagarritasun txikiagoa lortzen dela; izan ere, informazio galera handiagoa dago.
 - Testu osoak: testu osoak maiz kodifikatzen eta aztertzen dira. Era honetako azterketetan zaila da fidagarritasun adierazgarri bat lortzea.

Aukeratzen den erregistro unitatea aukeratzen dela, ikerketaren helburuak kontuan eduki beharko dira.

66. ADIBIDEA: eduki azterketa

BIZKAIERAREN ERABILERAK ADMINISTRAZIOAN

Bizkaieraren Erabilerak Administrazioan ikerketaren baitan, Bizkaiko Foru Aldundiak, Bizkaiko Batzar Nagusiek eta udalek sortzen dituzten testuetan zenbat bizkaiera erabiltzen den aztertu da. Hau da, euskaraz idatzita dauden testuetatik bizkaieraren ezaugarriak dituzten testuak aukeratu eta zenbatu dira.

Aurkitze horiek egiteko, BRS/SEARCH programa informatikoa erabili dugu. Foru Administrazioak (Bizkaiko Foru Aldundiak + Bizkaiko Batzar Nagusiak) eta Udal Administrazioak sortzen dituzten testuen lagin adierazgarri bat aukeratu ondoren, testu horietan egon daitezkeen bizkaieraren ezaugarriak aztertu dira. Aurkitzeak egiteko, bizkaieraren formekin egindako hiztegi bat erabili dugu. Hau da, bizkaierazko testuak bilatzen lagundu diguten erregistro unitateak 10 hitz hauek izan dira: leuke\$, leiteke\$, leike\$, ebala\$, badau\$, dauk\$, dauz\$, jaurt\$, jagok\$ eta dot. Dolarraren ikurrak esan nahi du, hitz horren eratorri guztiak ere kontuan hartzen direla (leukez, leukezan, leuketen...).

Zenbat agertzen den Bizkaiera Foru Administrazioako erakundeetan

	Euskaraz dauden agiriak guztira	Bizkaierazko agiri kopurua	Bizkaieraz dauden agiri ehunekoa
Udal Administrazioa guztira	52	9	17,30
Bizkaiko Foru Aldundiko Sailak	37	—	
Hirigintza saila	77	—	
Ogasun eta finantza saila	32	—	
Lehendakaritza saila	4	4	
Lurralde antolaketa eta erakunde arteko harremanetarako saila	29	3	
Beste batzuk	2	1	
Ez da agiri			
Bizkaiko Foru Aldundia guztira	224	8	3,5
Bizkaiko Batzar Nagusiak	38	37	97,36
Foru Administrazioa guztira	262	45	17,17

Taula honetan ikus daitezkeen bezala, Bizkaiko Batzar Nagusiek bizkaieraz idazten dute. Areago, bizkaiera gehien erabiltzen duen erakundea da. Izan ere, erakunde honek sortzen dituen testuen %97,36 bizkaieraz daude. Beraz, Batzar Nagusien edo organo legegilearen eta Aldundiaren edo organo betearazlearen artean desberdintasun argia dago bizkaieraren erabilerari dagokionez.

Era berean, argi esan behar Bizkaiko Udal Administrazioak Batzar Nagusiek baino bizkaiera gehiago erabiltzen dutela euren testu idatzietan. Oro har, Bizkaiko Foru Aldundiko sailek ez dute bizkaiera asko erabiltzen, euskaraz idatzita dauden agirien %3,57 baino ez dago bizkaieraz idatzita.

—**Testuinguru unitatea:** erregistro unitate bat behar bezala zenbatzeko eta kategori desberdinetan sailkatzeko, aztertu behar den laginketa unitatearen zatia da. Erregistro unitate baten (hitzak, esaldiak, gaiak...) esanahia zehatza zein den jakiteko ikertzaileak aztertu behar duen laginketa unitatearen (artikulua, pasarte, editoriala...) zatia da, alegia. Testuinguru unitate ezagunenak, esaldia, pasarte, komunikazioaren atal edo zati bat edota dokumentu osoak dira. Testuinguru unitate bat aukeratzeko, azterketaren helburu zehatzak kontuan eduki beharko dira. Testuinguru unitatea gehienetan erregistro unitatea baino komunikazioaren zati handiagoa bada ere, beti ez da horrela izaten. Izan ere, erregistro unitatea eta testuinguru unitatea bat bera izan daitezke. Ezin daitekeena da testuinguru unitatea, erregistro unitatea baino txikiagoa izatea.

4. Erregistro kategoriak eta erregistroa: erregistroa azterketarako aukeratutako erregistro unitate bakoitza (hitzak, esaldiak, gaiak...) aurrez ikerketaren helburuen arabera definitu diren kategorietan kodifikatzearen prozesua da. Honek edukiaren berezitasunen deskribapena edota azterketa ahalbidetuko du; izan ere, kategoria bakoitzean, esanahi zehatz bat duten erregistro unitate guztiak sailkatzen eta zenbatzen baitira (urte bateko egunkari baten editorial guztiak gaien arabera kodifikatzen dira, Euskadi hitza erregistro unitate bezala hartuz, testu batean berarekiko jarrera positiboa, negatiboa edo neutroa adierazten den zenbatzen da, liburu batetako pertsonaiak guztiak sailkatzen dira eta euren agerpena, berezitasunak... aztertzen dira).

Komunikazio mota desberdinak aztertzeko kategoriak desberdinak antolatzen diren heinean, oso zaila da kategoria mota guztiei buruzko inolako azalpenik ematea (tamalez, ikerketa mota bakoitzak bere kategoriak sortzen ditu). Kontuan izan behar da, dena dela, azterketa egiteko erabiliko den kategorien eskema antolatzerakoan interesatzen diren dimentsio adierazgarrienak aukeratu beharra dagoela.

«1.—Toda serie de categorías comprendida en el esquema debe deducirse de un principio de clasificación unitario, esto es: debe referirse sólo a una dimensión significativa. 2.—Las diversas categorías deben excluirse entre sí. Lo que supone que cada una de las unidades lingüísticas relativas a la dimensión significativa de la serie de categorías debe incluirse en una sola categoría. 3.—La serie de categorías ha de ser exhaustiva, esto es: cada unidad lingüística relativa a la dimensión semántica de la serie (pero no cada una de las unidades lingüísticas del texto) debe catalogarse en una

de las categorías existentes». Mayntz R., Holm K. Hübner P. (1980): aip. Lib., 206. orrialdea.

Honekin batera, aipatzekoa da kategoriak egiterakoan ez dagoela arau finkorik; kategoriak, izan ere, gaiari buruzko teoriaran eta aztergai diren datuetan oinarrituz sortzen dira, eta azterketa aurrera doan heinean aldatzen dira. Aipatzekoa da azterketa ikuskatzaileetan, hau da, hipotesi zehatzetatik abiatzen ez diren azterketetan, zaila dela kategoria sistema bat eraikitzea. Kasu hauetan, aztergai den materialean murgiltzen gara, eta materiala bera bihurtzen da kategoria sortzaile.

5. **Inferentziak**: inferentziak egindako eduki azterketaren emaitzetan oinarritzen diren baina, era berean, mezuaren edukiarekin zerikusirik ez duten ondorioen formulazioa da. Inferentziak egiteko, aztergai diren komunikazioak ulertzen eta sortu diren testuinguruan kokatzen lagunduko dion oinarri teoriko sendo bat izan behar du ikertzaileak. Oro har, hiru inferentzia mota aipatu ditzakegu:

- Mezu edo komunikazioaren jatorri, arrazoi, izaera edo berezitasunei buruzkoa,
- komunikazio hauen sortzaileen izaera, sentimendu, intentzio eta abarrei buruzkoa, eta
- mezua zuzendurik doan jendeari (euren hezkuntza maila, baloreak...) edota komunikazioak eragindako ondorioei (sortutako jarrerak, portaerak...) buruzkoa.

«Se ha dicho que en todo análisis de contenido, incluso en el más estrictamente descriptivo, se realiza alguna inferencia, por rudimentaria que ésta sea. En los casos de análisis de contenido con fines más puramente inferenciales, el investigador tiene que utilizar una construcción teórica de las relaciones entre datos y su contexto para poder realizar y justificar esas inferencias. Esa construcción teórica debe especificar las conexiones existentes entre los datos, que funcionan como determinante, y el objetivo, que aparece como resultado; y debe también identificar cualquier factor que de alguna forma intervenga en tales relaciones. En definitiva, pues, la construcción teórica que el investigador utiliza le proporciona las reglas de inferencia que le permiten establecer el puente entre los datos que analiza y el objetivo que persigue» López Aranguren, E.: aip. Lib. 368. orrialdea.

6. **Azterketa**: eduki azterketaren munduan eman den eztabaida garrantzitsuena izan da eduki azterketa kuantitatiboa edo kualitatiboa izan behar den. Alegia, eduki azterketa edukiaren berezitasun batzuen agerpen maiztasuna aztertzerantz bideratu behar den, edo berezitasun hauek ematen diren edo ez eta nola agertzen diren esatera mugatu behar den.

«En el análisis de contenido hay que evitar el peculiar síndrome del “contar por contar”. Para huir entonces de los injustificados ejercicios de cuantificación de datos de mínima utilidad hay que especificar un obje-

tivo final claramente articulado». Wimmer, R.D. eta Dominick, J.R.: *La investigación científica de los medios de comunicación. Una introducción a sus métodos*. Editorial Bosch, Barcelona, 1996, pags. 174-175.

Gaur egun, eduki azterketaren baitan metodo bi hauen arteko gatazka gaindituta dagoela esan daiteke. Ikerlari gehienek esaten dute metodo osagarriak direla, eta neurketa kuantitatiboa edo kualitatiboa aukeratzea aztergai den arazoaren berezitasunen, ikerketaren helburuen eta egingo den eduki azterketaren arabera dagoela.

Honenbestez, aztergai den mezuaren edukien izaera eta garrantzia zehazteaz gain, azterketa kuantitatibo prozedura hauek erabiltzen dira gehienetan: a) Era desberdinetako estatistika deskriptiboetan oinarrituz (ehunekoak, ratioak...), hitzen, ikurren edo esamoldeen, hau da, aukeratutako erregistro unitateen agerpen maiztasunen azterketa. b) Eduki azterketaren bitartez, lortutako kategorien zein hauen eta beste bide batzuetatik lortutako aldagaien arteko harremanen azterketa: taula gurutzatuak, asoziazio neurriak (Ji karra-tua, kontinjentzia koefizienteak...), korrelazioak (pearsonen r ...). c) Katgoria desberdinak erabiliz indize orokorragoen eraiketa.

Azkenik, kontuan izan edukia azterketarekin batera estiloaren edo formaren azterketa egin daitekeela.

11.4. Eduki azterketaren balioa eta fidagarritasuna

Edozein azterketa balio eta fidagarritasun frogan menpe jartzen den bezala, eduki azterketa burutzerakoan ere, egindako ikerketaren balio eta fidagarritasuna aztertu behar dira.

11.4.1. EDUKI AZTERKETAREN FIDAGARRITASUNA

Ikerketa baten ondorioak onartzeko, erabilitako datu, zein ikerketan parte hartu duten ikerlariak eta erabili diren prozedurak ere fidagarriak izan behar dira. Ikusgune honetatik, eduki azterketa bat fidagarria dela esaten da, azterketarako eskema desberdinak erabiliz ondorio berdinetara heltzen denean (adostasuna), ikerlariak berak behin eta berriz egindako eduki azterketaren emaitzak berdinak direnean (egonkortasuna) edota ikertzaile desberdinek egindako azterketak ondorio berdinetara heltzen direnean (erreproduktibitatea). Beste hitz batzuekin esanda, lortutako emaitzetan zoriak edo okerrekin inolako eraginik ez dutela izan ziurtatzen denean.

Hau guztia kontuan hartuz, ordenagailua eduki azterketaren fidagarritasunaren lagungarri ezin hobea dela azpimarratu daiteke. Ordenagailuaren bitartez egindako azterketek zera ziurtatzen dute: zoriak edo okerrekin ez dutela aparteko eraginik izan; alegia, azterketa behin eta berriz eginda ere, ondorio berdina lortzen direla.

Eduki azterketen fidagarritasuna hobetzeko neurri batzuk hartu ditza-kegu. Besteak beste, baliagarriak izan daitezke honako aholku hauek:

- Erregistro kategoriak oso ondo zehaztu edota definitu behar dira. Erregistro kategoria argiak egin; hau da, zalantzak sortzen dituzten kategoriak ekidin.
- Kodifikatzaile bat baino gehiagok parte hartzen dutenean, zehatz-mehatz adierazi behar dira eduki azterketa egiteko jarraitu behar diren pausoak. Ona da aldez aurretik froga batzuk egitea.
- Kodifikatzaileen eta datuak ordenagailuak sartuko dituztenen heziketa ziurtatu behar da. Horrela, erantzunak jasotzerakoan, kodifikatzerakoan edo informazioa ordenagailuan sartzerakoan gerta daitezkeen erroreak gutxituko ditugu.

11.4.2. EDUKI AZTERKETAREN BALIOA

Fidagarritasunarekin batera, beharrezkoa da azterketak duen balioa jakitea. Neurketarako tresna bat baliokoa dela esaten da, neurtu nahi duena edo behar duena, behar bezala neurtzen duenean. Ikerlariak balioa neurtzeko teknika desberdinak aurkezten badituzte ere, bi dira, gure ustez, eduki azterketan benetako erabilgarritasuna dutenak:

- Balio pragmatikoa:** egindako azterketaren balioa jakin daiteke, lortutako ondorioak ikertu nahi den portaera edo berezitasunei buruzko beste ikerketa baten ondorioekin alderatuz; honela, bada, eduki azterketa baliagarria da egindako deskribapen eta inferentziak beste bide batzuetatik lortutako datuekin konparatu ondoren mantentzen direnean. Arazoa zera da, ia gehienetan honelako alderaketak egiteko azterketarik ez dela izaten.
- Eduki balioa:** eduki azterketa egiten erabilitako erregistro unitateak (kodifikatuko diren hitzak, esaldiak, gaiak...) azterketa egiteko erabili daitezkeen erregistro unitate guztien lagin egoki bat direla frogatzen dugunean, egindako azterketak eduki balioa duela esan daiteke. Aipatzekoa da eduki balioa, ia gehienetan, agerpen maiztasunetan oinarrituz lortzen dela. Azterketarako aztergai diren erregistro unitate guztietatik gehien agertzen direnak aukeratuz.

Egiten ditugun eduki azterketen balioa hobegotzeko, honako aholku hauek erabilgarriak izan daitezke:

- Beste ikerketa batzuetan arrakastaz erabili diren erregistro kategoriak erabili.
- Ikerketatik kanpo dauden pertsoneri pasatu sortutako erregistro kategoriak, euren ikuspuntua ezagutzeko. Interesgarria da lortutako inferentziak ikerketatik kanpo daudenekin eztabaidatzea.

XII

Iturri ez zuzenen azterketa

«Political scientists turn to the written record when the political phenomena that interest them cannot be measured through personal interviews, with questionnaires, or by direct observation. For example, interviewing and observation are of limited utility to researchers interested in large-scale collective behavior (such as civil unrest and the budget allocations of national governments), or in phenomena that are distant in time (Supreme Court decisions during the Civil War) or space (defense spending by different countries)».

Buttolph Johnson J. eta Joslyn A. R. (1995): *Political Science Research Methods*

Liburu honen sarreran esaten genuen bezala, ikerketak egiteko bide bat da beste batzuk sortu edota bildu duten materiala aztertzea. Eduki azterketa-rekin batera, iturri ez zuzenen azterketa da laugarren bide honetako teknika-rik ezagunena.

Atal honetan, teknika honek Gizarte Zientzietan duen garrantziari eta erabilgarritasunari buruz hiruzpalau aholku eman, era honetako azterketa egiteko erabili ditzakegun materialak aurkeztu, iturri ez zuzenen azterketaren abantailak eta desabantailak erakutsi, eta iturri ez zuzenen azterketak egiteko informazioa eskaintzen duten erakunde batzuk aurkezten ditugu.

12.1. Zer da iturri ez zuzenen azterketa?

Iturri ez zuzenen azterketa beste pertsona edo erakunde (erakunde publiko zein pribatuak, ikerlariak, gobernuz kanpoko erakundeak...) batzuk bildu, sortu edota gorde dituzten estatistika, dokumentu, grabaketa eta material pertsonalen (biografiak, egunerokoak, memoriak, eskutitzak, argazkiak,

edozein erregistro ikonografikoak edo ondasun pertsonalak...) azterketan oinarritzen den ikerketa teknika da.

Iturri ez zuzenen azterketak datuen erabilpen hobea egiten laguntzen du, baita ikerketen gastuak murrizten ere. Honela, bada, ikertzeko modu hau azterketak egiteko bide bizkorra, erraza eta merkeenetarikoa da. Askotan, gainera, ikerketak egiteko bide bakarra iturri ez zuzenak erabiltzea izaten da.

Erabiltzen ditugun materialak erabiltzen ditugula, ikerketa baliagarriak egin nahi baditugu, erabiliko ditugun datuak populazioaren lagin adierazgarrietatik hartuta daudela, eta aldagai edo kontzeptuak behar bezala operazionalizatuta daudela ziurtatu beharko dugu.

12.2. Iturri ez zuzenen azterketaren abantailak eta desabantailak

Iturri ez zuzenen azterketa ikerketak egiteko bide bizkorra, erraza eta merkeenetarikoa dela esan badugu ere, desabantailak ere baditu. Zentzu honetan, behar bezalako ikerketak egingo ditugu, dauzkan desabantailak kontrolatzen ditugun heinean.

Iturri ez zuzenen azterketaren abantailak

- Iturri ez zuzenen azterketarekin ez dugu aztertu nahi diren portaera eta jarretan eragiten. Inkestan, sakoneko elkarrizketan, bizitza historian, eztabaida taldean edo saiakuntzan ikertuengan eragina izan dezakeen ikerlariaren, elkarrizketagilearen edo moderatzailearen parte-hartze bat dago, eta hori datu kutsatuen sorrera izan daiteke askotan. Iturri ez zuzenen azterketarekin, datuak sortu zein gordetzen dituenak ez daki datu horiek nola erabiliko diren etorkizunean; beraz, errealitatea hobeto islatzen duten datuak lortu daitezke. Beste hitz batzuekin esanda, ikertzaileak datuen bilketan parte hartzen ez duenez, kutsatu gabeko informazio lortzen du.
- Geografikoki gugandik urrun daudelako edo iraganean bizi izan zirelako era zuzenean ikertu ezingo genituzkeen pertsona eta gaiak ikertzeko aukera ematen du. Lehen aipa bezala, ohituraz Euskal Herrian bizi izan diren ondasunekiko harremanak ezagutzeko esaera zaharretan oinarritu ginen. Esaera zaharrak herri baten bizipen eta pentsamoldeen lekuko eta adierazleak direnez, iraganeko gizarte burubideak aztertzeko material ezin hobeak dira.
- Datuak denbora askoan bilduak izan badira, bilakaera aztertzeko aukera dago; hau da, teknika honen bitartez, azterketa longitudinalak egin ditzakegu.
- Beste teknika batzuk baino merkeagoa eta bizkorragoa da. Informazioa sortu, antolatu eta gorde beste pertsona batzuk egiten duten heinean, ikerketa merkeagoak eta bizkorragoak egin daitezke. Kontuan

izan iturri ez zuzenen azterketak egiten ditugunean, ez dugula kanpo lanik egin behar.

- Iturri ez zuzenen azterketan, ikerketa aurrera doan heinean agertu daitezkeen galdera eta hipotesi berriak aztertzeko aukera dago. Inkestetan, eztabaida taldeetan, bizitza historietan edo sakoneko elkarrizketetan oso garestia da, behin informazioa bildu ondoren, berriz informatzaileei galdetzea. Iturri ez zuzenen azterketan, aldiz, behin eta berriz bueltatu gaitzke datuetara, galdera eta hipotesi berriak aztertzera. Informazioa eskuratzeko pertsonen menpe ez gaudenez, nahi dugun beste aldiz arakatu genezake informazioa.

Iturri ez zuzenen azterketaren desabantailak

- Gerta daitekeena da informazioa artxibatzen edo gordetzen duten pertsonen eta erakundeek ez dutela informazio guztia era sistematikoan gordetzen. Errazen lortu daitezkeen informazioa edo arazo gutxien ematen duen informazioa gordetzen dute bakarrik.
- Askotan, informazioa ez da zehatza eta soslaitua edo faltsua izan daiteke.
- Nahiz eta artxibatuta egon, askotan mugak edo oztupoak daude informazio hori eskuratzeko, edota ezin dira artxibategitik atera.
- Datu asko ditugunean iturri ez zuzenen azterketa neketsua eta oso garestia izan daiteke.
- Erakundeek era askotara artxibatzen dituzte datuak (programa informatiko desberdinekin, adibidez), eta, ondorioz, arazoak izaten dira askotan datuak biltzeko edo alderaketak egiteko.

*Euskal Herria, datuen talaia*tik liburuan (2002) lehen aldiz bildu ziren Euskal Herri osoko estatistika datuak. Euskal Herriko demografia, ekonomia, hezkuntza, euskara eta beste hainbat gai hobeto ezagutzeko liburu da. Hara zer zioen liburuaren koordinatzaile Iñaki Iurrebasok liburu honi buruz: «Administrazio eta iturri desberdinek eskainitako datuak askotan bateraezinak dira, batez ere Frantziak eta Espainiak eskaintzen dituzten datuak desberdinak direlako. Liburuaren egitea nahiko lan zaila izan da, ez hainbeste iturri desberdinak izateagatik, baizik eta erakunde bakoitzak modu batera ematen dituelako informazioak, batez ere Espainian eta Frantzian. Hori askotan gaindiezinezko muga da. Gauza desberdinak galdetzen bada, azkenean errealitate desberdinak nahasten dira, eta ez dira datu txukunak ateratzen. Bakarrik bateratu ditugu bermeak zituzten informazioak, eta lortutako datua ona bazen Euskal Herriko errealitatea irudikatzen. Egunkaria (2002-12-1): «Herri osoaren talaia».

12.3. Iturri ez zuzenen azterketan erabili daitezkeen materialak

Iturri ez zuzenen azterketan erabili ditzakegun materialak era askotakoak izan daitezke, eta irizpide desberdinen arabera sailkatu ditzakegu:

- Lehen irizpidearen arabera, dokumentu idatziak, (liburuak, edozein motatako literatura, egunkariak, notarioen aktak...), zenbakiak eta estatistikak dituzten dokumentuak eta idatziak ez diren eta estatistikak ez dituzten dokumentuak, hau da, aurreko kategoria bietan sartzen ez diren dokumentuak bereiztu ditzakegu (filmak, irudiak, argazkiak, diskoak, lanabesak...).
- Beste autore batzuk material episodikoak eta material korrienteak bereizten dituzte.

«Los documentos sobre los que los fenómenos sociales dejan huella son muy numerosos y variados: archivos, cómputos estadísticos, prensa, documentos personales, instrumentos y utensilios, imágenes, fotografías, filmes, discos, grabaciones magnetofónicas, etc.» Duverger, M. (1996): *Métodos de las ciencias sociales*. Ariel, Bartzelona, 115. orrialdea.

1. DOKUMENTU IDATZIAK, ZENBAKIAK ETA ESTATISTIKAK DITUZTEN DOKUMENTUAK, ETA AURREKO KATEGORIA BIETAN SARTZEN EZ DIREN DOKUMENTUAK

Dokumentu idatziak: idatzitako dokumentuak lau eratakoak izan daitezke: artxibategi publikoetan dauden materialak eta dokumentu ofizialak, prentsa, artxibategi pribatuetakoko dokumentuak eta zeharkako dokumentazioa.

- Arxibategi publikoetan dauden materialak eta dokumentu ofizialak** dira ikerketetan askotan erabiltzen diren dokumentu idatziak. Euskal Herrian, adibidez, ugariak dira Euskal Jaurlaritzaren, Aldundien eta Udaletxeen artxibategietako dokumentuetan oinarrituz egin diren ikerketa historikoak, politikoak eta soziologikoak. Bizkaiko Udaletxeek, Foru Aldundiak eta Bizkaiko Batzar Nagusiek egiten duten bizkaieraren erabilera aztertzeke, adibidez, Diputazioaren artxibategia arakatu genuen. Era berean, asko dira Julio Urquijo Fondoa, Koldo Mitxelena Fondoa edo Euskaltzaindiaren fondoa bezalako artxibategiak aztertzen dituzten ikerlariak.
- Prentsa:** esan beharrik ere ez dago, prentsan agertzen diren berri eta informazioak era askotako ikerketen oinarri direla. Hemerrotekak gizarte jakin batean gertatzen dena zein gizarte horren bilakaera aztertzeke informazio iturri aberatsa dira. Internet-en garapenarekin, gainera, egunkari ia guztien hemerrotekak oso erraz aztertu daitezke. Honela, kontsumoari buruz egin genuen ikerketa batean *Euskaldunon Egunkariak* (www.egunkaria.com) eta Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Kontsumo Zuzendaritzak *Internet*-en (www.euskadi.net) eskaintzen dituzten hemerroteka zerbitzuak erabili genituen.

- Artxibategi pribatuetako dokumentuak:** asko izan dira gai baten inguruan dokumentuak eta datuak bildu dituzten erakunde, idazle eta ikerlariak. Euskal kulturaren egoera aztertzeko, adibidez, Aek, Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza eta Ikastolen Elkartearen fondoak erabili genituen.
- Zeharkako dokumentazioa:** zeharkako dokumentazioa da ikerketarako propio sortu ez den baina ikerketarako erabilgarria izan daitekeen informazioa. Multzo honetan, egunkariak eta ahozko edo idatzizko literatura bezalako materialak sartzen dira. Ez ahozko literatura ez da sortu azterketa soziologiko edo politikoak egiteko helburuarekin, baina era honetako azterketak egiteko iturri aberatsa izan daiteke.

67. ADIBIDEA: zeharkako dokumentazioan oinarritutako ikerketa

EUSKALDUNAK ETA ONDASUNAK

Euskaldunak eta ondasunak liburua tesi bezala aurkeztu genuen *Ondasunekiko Harremanak Justo Mokoroaren Repertorio de Locuciones del Habla Popular Vasca* ikerketan oinarritzen da. Ikerketa honen helburua zen jatorriz eguneroko harremanak euskaraz burutu dituztenek bizi izandako ondasunekiko harremanak ezagutzea; eta euskal kulturari baliotsuak eta urriak izan diren gauzei —bereziki, ondasun iraunkor, etxe-abere eta elikagaiei— buruzko gizarte burubideak aztertzea.

Horretarako, eta orain arte argitaratu diren lanetan nahasketak sortzen dituzten kontraesanak nabarmentzen direla ohartuz, bide berri batetik abiatzea erabaki dut. Jatorriz euskaraz garatu diren harreman, burubide eta ikuspuntuen adierazpide diren esaera zaharretan oinarritu naiz. Era finko batean jaso ditugun hitz egiteko modu hauek hartzearen arrazoiak da hizkuntzaren bihotzean bizi eta, ondorioz, herri baten bizipen eta pentsamoldeen lekuko eta adierazleak direla; hizkuntza bera bezala, gizarte burubideak aztertzeko material ezin hobekak dira.

Azterketarako erabili ditudan esaerak, dena dela, ez ditut nik neuk bildu. Aurretiaz jasota dauden eta, ikuspuntu honetatik behintzat, aztertu gabe dauden euskal esaera zaharretan oinarritu naiz; Justo Mokoroaren *Repertorio de Locuciones del habla popular vasca* bilduman, hain justu ere. 92.167 esaerez osatua egonik, orain arte argitaratu den euskal esaera bildumarik aberatsena eta osatuena da, honelako ikerketa bat egiteko *corpus* ezin aproposagoa. Justo Mokoroak berak diosku nolako esaerak aurki ditzakegun bilduma horretan: «De estas expresiones, muchas las he recogido yo mismo directamente del habla viva: son las que, entre las “Fuentes” marco con el indicativo 10. Algunas las debo a amigos colaboradores cuyos nombres cito entre los “Testigos”. La mayor parte provienen de escritos de indudable vena popular, impresos o inéditos». Euskal gizarte burubideen isla diren lo-kuazio bilduma aberats baten eta honenbestez, ikerketarako corpus ezin hobe baten aurrean gaude.

Ikerketa honen asmo nagusia da, beraz, Justo Mokoroak argitaratutako esaera bilduma bere osoan hartzea, eta bertan adierazten diren ondasunekiko

harremani buruzko berezitasunak ezagutzea; euskal kulturaren —bereziki, kultura ekonomikoaren— ohiturazko balore, burubide eta ikuspuntuak ezagutza handitzea eta gaur egunerako baliagarriak izan daitezkeen zenbait ikasbide ateratzea.

Esaera bilduma honez gain, Jose Azpirozaren *Arbol Zarraren Kimuak* eta Erramun Etchebarneren *Erramun Harginaren Oroitzapenak* liburuen azterketa ere egin dut. Hain zuzen ere, biografia bi hauetan eta Justo Mokoroak bildutako esaeretan, gizarte burubide bera nabarmentzen ote den ikusteko. Euskaraz garatu diren giza errealitateen adierazle izanik, bata Euskal Herriko hegoaldean eta bestea iparraldean, esaeren azterketatik lortutako ondorioekin alderaketa egin eta lortutako emaitzen balioa ezagutzeko *corpus* ezin hobeak iruditu zaizkit.

Zenbakiak dituzten dokumentuak: zentzuak, erroldak edo mota askotako inkestak bitartez lortzen ditugun informazio kuantitatiboak ikerketarako iturri egokiak izan daitezke.

Zentsuak datuak biltzen diren unean euren egoitza udalerrri batean finkatuta duten edota, era askotako arrazoiengatik aipatu une horretan toki horretan bizitzen dauden pertsona guztien informazioa hartzen du. Hamar urtetik behin egiten da.

Udal errolda udalerrriko biztanleen eta udalerrri horretan aldi baterako daudenen zerrenda da. Herri agiri izaera du, eta bertan jasotzen dira udalerrriko biztanle guztien datuak. Bost urtean behin berriztatzen da.

Zentsuek helburua estatistiko hutsa dute, eta, ondorioz, haien informazioa estatistika-sekretupean gorde behar da. Erroldak, berriz, dokumentu publikoak dira eta euren helburu nagusia da egoitza frogatzea eta bizikideak sailkatzea, beraz jendaurrean agerraraz daitezke. Zentsuek ez bezala, errolden lehen helburua ez da estatistikak ateratzea baizik eta egoitza frogatzea eta bizikideak sailkatzea.

68. ADIBIDEA: zenbakiak dituzten dokumentuetan oinarritutako ikerketa

EUSKAL HERRIA GLOBALIZAZIOAREN AURREAN

Euskal Herria Globalizazioaren Aurrean liburua egiteko, Euskal Herriari buruzko datu estatistikoak biltzen dituzten Akitaniako INSSE, Nafarroako Gobernuako Estatistika Zerbitzua eta EAeko EUSTAT (Euskal Estatistika-Erakundea) erakundeek, zein Eusko Jaurlaritzako Ikerketa Soziologikoen Kabineteak eskaintzen duten informazioa erabili nuen. Horrekin batera, Deustuko Unibertsitateko Deiker taldeak 1990 eta 1995 urteetan egindako ikerketak eta Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 1998 urtean egin zituen *Sociometro Vasco* eta *Retratos de Juventud* delako ikerketak ere hartu nituen.

Aurreko kategori bietan sartzen ez diren dokumentuak: gizakiek sortzen dituzten objektu, tramankulu, sorkuntza e.a. guztiak (jantziak, lanerako zein aisialdirako tresnak, arte lanak, eskulanak, abestiak, ahotsak, zeinuak eta ikurrak, espazioa ordenatzeko, antolatze eta eraldatzeko moduak, etxe eta lorategien forma, hirien planoak...) informazioa ateratzeko eta ikerketak egiteko erabili ditzakegu. Era honetako materialak hiru kategoriatan sailkatu ditzakegu: dokumentazio teknikoa, dokumentazio ikonografikoa, fotografikoa eta zinematografikoa eta dokumentazio fonetikoa.

2. MATERIAL EPISODIKOAK ETA MATERIAL KORRIENTEAK

Dokumentu idatzien, estatistikak dituzten dokumentuen eta aurreko kategorian bietan sartzen ez diren dokumentuen artean desberdintzen duen irizpidearen aurrean, beste autore batzuk diote iturri ez zuzenen azterketak egitekoan, materialak episodikoak eta korrienteak desberdin behar direla:

Material episodikoa: era honetako materiala ez da gordetzen era sistematikoan ikerketak egiteko helburuarekin. Informazioa kasualitatez gordetzen da, edo arrazoi pertsonalen ondorioz biltzen eta gordetzen da; hau da, ikerketa ez den beste helburu batzuegatik biltzen eta gordetzen da. Material episodikoaren adibideak dira egunerokoak, memoriak, eskuizkribuak, eskutitzak, autobiografiak, talde baten batzarren aktak, panfletoak... Era honetako materialak informazio iturri garrantzitsua izan daitezke; askotan, gainera, Gizarte-zientzialariek lortu dezaketen informazio iturri bakarra izaten da.

Era honetako materialak duen arazorik handiena da kasualitatez gordetzen den informazioa denez, askotan ez dela erraza izaten eskuratzea. Gainera, asko kostatzen da era honetako materialak kodifikatzea.

Material korrientea: material episodikoa ez bezala, era honetako materiala erakundeek sortua izaten da, ia gehienetan, eta era sistematikoan gordetzen da ikerketak egiteko helburuarekin. Beraz, nahiko erraz eskuratu daiteke.

Mota askotako material korrientea dago: hauteskunde emaitzei buruzko informazioa, gobernuaren aurrekontuak, era askotako estatistikak, komunikabideei buruzko informazioa, legebiltzarrean egindako diskurtsoak, informazio bibliografikoa...

12.4. Iturri ez zuzenen azterketak egiteko informazioa eskaintzen duten erakunde batzuk

Gobernuek erabakiak hartzeko, politikak garatzeko eta ebaluaketak egiteko datuak behar izaten dituzte. Era berean, eragile ekonomiek merkatuaren eta, oro har, ekonomiaren bilakaerari buruzko informazio zehatza behar izaten dute. Gobernuz kanpoko erakundeek, gizarte eragileek zein komunikabideek gizartearen egoera eta bilakaerari buruzko informazioa behar izaten dute.

Hitz gutxitan esateko, kalitatezko estatistikak eta, oro har, informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa eskaintzen duten erakundeak gizarte demokratikoen oinarrietariko bat dira.

Asko dira gure ingurunean datu kualitatibo eta kuantitatiboak biltzen eta sortzen dituzten erakundeak. Guk hemen bederatzai aipatuko ditugu: Eustat, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, UPV-EHUko Politika eta Administrazio Zientzien sailaren web orria, INE, CIS, CSIC, EUROSTAT, Essex-ko unibertsitateko datuen artxibategia eta EURODATA Research Archive.

1. EUSTAT (www.eustat.es)

Euskal Herrirako Autonomia Estatutuak (1979ko abenduan onartua) ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen osoa du behar dituen estatistikak sortzeko; horretaz baliatuz, Eusko Jaurlaritzak Estatistika Zuzendaritza sortu zuen 1980. urtean.

Ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoaren estatistika jarduera egituratzeko eta antolatzeko, 1986ko apirilean, Euskadiko Autonomia Elkarteko Estatistikari buruzko Legea onartu zuen Eusko Legebiltzarrak.

Euskal Estatistika Legea Espainiako Estatuan onartu zen lehenengo Estatistika Legea izan zen. Lege honen ondorioz, Euskal Estatistika Antolakundea sortu zuen. Antolakunde horretan Estatistiken produkzioaz arduratzen diren erakundeak daude. Besteak beste, erakunde horretan daude EUSTAT, Eusko Jaurlaritzaren sail guztiak, foru-aldundiak eta udalak.

EUSTAT da Euskal Estatistika Sistemako erakunde garrantzitsuena. Kontuan izan 1997-2000 euskal estatistika-planean agertzen ziren 134 eragiketetatik, 81 EUSTATen ardurapean egin zirela (% 60,4).

EUSTAT erkidegoari buruzko estatistika-informazioa biltzeaz, aztertzeaz eta zabaltzeaz arduratzen da. Hobeto esanda, bere lana da estatistika-jarduna zuzentzea eta koordinatzea, estatistika-eragiketa bakoitzaren egitasmo teknikoa onartzea, planetan eta egitarauetan espresuki egozten zaizkion estatistikak lantzea eta estatistika-emaizak argitaratzea eta zabaltzea.

2. PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA (www.euskadi.net)

Prospekzio Soziologikoen Kabinetea Eusko Jaurlaritzaren Lehendakari-tzako Idazkaritzaren barnean kokatzen da organikoki. Bere helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko gizartearen egoera eta bilakaeraz informazio eguneratua eskaintzea. Besteak beste, honako ikerketa hauek egin zituen 2001. urtean: *Euskal Soziometroak*, *Ostalaritza-jarduerak duen balorapena eta eragina euskal gizartean*, *Turismoa Euskadiko Autonomia Erkidegoan, 2000-1999ko Gazteriaren erretratuak*, *Egoera Politikoari buruzko iritziak*,

Derrigorrezko irakaskuntza EAEn, Delituzko ekintzak EAEn 2000 urtean zehar, Euskal Gizartea eta «behi eroak» eta Legebiltzarrerako hauteskunde boto aurreikuspena.

3. UPV-EHUKO POLITIKA ETA ADMINISTRAZIO ZIENTZIEN SAILAREN WEB ORRIA (www.ehu.es/cpvweb)

UPV-EHUKo Politika eta Administrazio Zientzien sailaren web orrian, 1975etik EAEn egin diren hauteskunde ia guztien berri ematen da. Web gune honek EAEko biztanleen portaera politikoa ulertzeko eta ezagutzeko material estatistiko, grafiko eta kartografiko aberatsa ematen du.

4. CIS (www.cis.es)

Centro de Investigaciones Sociológicas (CIS) delakoa erakunde autonomoa da, eta organikoki Espainiako Gobernuaren Lehendakariartzako Idazkariartzaren barnean kokatzen da. Bere helburua da gizarte espainiarraren egoera eta bilakaeraz informazio eguneratua lortzea, batez ere inkestaren bidez.

Gaur egun duen izena eta antolaketa 1977. urtean sortu zen. Dena dela, erakunde hau 1963. urtean sortu zen Instituto de la Opinión Pública (IOP) izenarekin. Sortu zenetik, Espainiako errealitate politikoaren eta sozialaren egoera eta bilakaera ezagutzen lagundu duten 1.600 iritzi inkesta baino gehiago egin ditu.

Batenaz beste, inkestetan oinarritutako 40 ikerketa egiten ditu urtean. Noizbehinka, ikerketa kualitatiboak ere egiten ditu. Ikerketa hauek guztiak CISEk duen Datu Bakoan sartzen dira ikerlarien eta, oro har, herritarren erabilerarako.

Besteak beste, honako hauek dira CISEk egiten dituen ikerketa mota garrantzitsuenak:

- Hileroko barometroak: 1979. urtetik, egoera politikoari eta ekonomikoari buruzko iritzi publikoaren azterketak egiten ditu hilero.
- Ikerketa monografikoak: era askotako ikerketa monografikoak egiten ditu: gazteria, inmigrazioa, bizitza estiloak, kultura politikoa e.a.
- Udaletxe eta autonomia mailako ikerketak: estatu mailako informazioa biltzeaz gain, autonomia elkarteei eta udaletxeei buruzko informazioa ere biltzen du.
- Hauteskunde ikerketak: hauteskunde aurretik eta ostean CISEk ikerketa ugari egiten ditu, hiritarren hauteskunde portaera ezagutzeko helburuarekin.
- Beste erakunde publiko batzuekin egindako kooperazio akordioen ondorioz, erakunde publikoek behar dituzten ikerketak egiten ditu.
- Nazioarteko ikerketak: nazioarteko erakunde desberdinekin egindako akordioen ondorioz, nazioarte mailan garrantzia duten ikerketetan parte hartzen du. Honela, bada, Nazio Batuen Erakundearekin zein

EUROSTATekin (Europako Batasuneko Estatistika Erakundea) ikerketa askotan parte hartu du.

5. INSTITUTO NACIONAL DE ESTADISTICA (INE) (www.ine.es)

Erakunde hau Isabel II.aren Ministro Kontseiluko Lehendakaria izan zen Narváez Jeneralak sortu zuen 1856. urtean; hain zuzen ere, erreinuko estatistika orokorrak egiteko.

Hile batzuk beranduago (1857) Junta de Estadística izena hartzen du, eta bere lehengo lana da populazioaren zentzua egitea.

1873. urtean, Instituto Geográfico y Estadístico izena hartzen du.

1890. urtean, Sustapen Ministerioaren menpe gelditzen da, 1924. urtean Lan Ministerioaren menpe eta 1931. urtean Lehendakaritza Ministerioaren menpe.

1945eko abenduaren 31ko legeak Instituto Nacional de Estadística sortzen du. Bere helburua da dauden estatistika demografiko, ekonomiko eta sozialak biltzea, berriak sortzea eta Estatuko zerbitzu estatistiko guztiak koordinatzea.

Gaur egun **Instituto Nacional de Estadística** organismo autonomoa da, Ekonomia Ministerioaren menpe dago, eta 1989. urtean egin zen 12/1989 Estatistika Publikoaren Funtzioaren Legearen arabera arautzen da.

Lege honen arabera asko dira INEk dituen betebeharrak: zentzu demografiko eta ekonomikoak egitea, aurrekontu nazionalak prestatzea, hauteskunde zentzua egitea, adierazle ekonomiko eta sozialak egitea... Honekin batera, INEk estatistikan erabiltzen diren kontzeptuen bateratzea eta EUROSTAT eta beste estatistika erakunde batzuekiko harremanak antolatzea bezalako lanak ere egiten ditu.

6. CSIC (www.csic.es)

CSIC ikerketa erakunde publikoa eta autonomoa da, eta Zientzia eta Teknologia Ministerioaren menpe dago. Bere helburua da administrazioko zein beste era bateko erakunde ekonomiko eta sozialentzako baliagarriak izango diren ikerketak egitea.

Erakunde honen berezitasunik aipagarriena da jakintza arlo guztiekin loturik dauden ikerketak egin ditzakeela. Zentzu honetan, era askotakoak dira egiten dituen ikerketa ekimenak.

CSIC 1939. urtean sortu zen. Dena dela, erakunde honek garrantzia hartu zuen Ikerketa Zientifiko eta Teknikoa sustatzeko eta koordinatzeko 1986. urteko apirilaren 14ko legearen ondorioz. Lege honen arabera honako hauek dira CSICen helburuak eta funtzioak:

- Ikerketa zientifikoaren eta teknologikoen egitasmoak egitea.
- Ikerketa eta teknologia arloan administrazioei aholkuak ematea.
- Oinarrizko ikerketa sustatzea

- Elkarte Autonomoekin lankidetza harremanak egitea.
- Unibertsitateekin lankidetza harremanak egitea.
- Zientzia eta teknologiaren esparruan ikerlariak trebatzeko programak sustatzea.

7. EUROSTAT (www.europa.eu.int)

1953. urtean, Ikatzaren eta Altzairuaren Elkartearen beharrezanean erantzuteko lehen estatistika erakundea sortu zen. Apurka-apurka, erakunde honen lana handitzen joan zen, eta 1958. urtean, Europako Elkartea sortu zenean, Eurostat sortu zen Europako Batzordearen Zuzendaritza Orokor gisa. Gaur egun Luxenburgon kokatua dago.

Eurostaten helburua da Europako Batasuna osatzen duten estatuei informazio estatistikoa ematea, estatistikak bateratzea, eta, azken finean, estatuen artean alderaketak ahalbidetzea. Honekin batera, beste Zuzendaritza Orokorrei informazio estatistikoa ematen die, euren politikak behar bezala pentsatu eta bultzatu ditzaten. Era askotako erakunde eta gizarte eragileentzat garrantzitsuak diren estatistikak ere sortzen ditu. Azken helburua da alderaketak errazteko Europako Batasun osoan estatistika sistema bateratu bat sortzea.

Eurostatek ez du informaziorik biltzen. Lan hau estatuek egiten dute euren estatistika erakundeen bitartez. Behin estatuetoako estatistika erakundeek datuak bildu dituztenean, Eurostaten eskuetan jartzen dute informazioa.

8. ESSEX-KO UNIBERTSITATEKO DATUEN ARTXIBATEGIA (<http://www.essex.ac.uk>)

Artxibategi hau Erresuma Batuko Essex-ko Unibertsitatean dago, eta 1967. urtean sortu zen. Essexko unibertsitateak, ESRCek eta JISCek sortutako artxibategia da. Eduki azterketak egiteko euskarri informatikoan dauden testuak biltzen eta eskaintzen dituzte. Bereziki ona da Europako alderdi politikoen propagandak euskarri informatikoan eskuratzeko.

9. EURODATA RESEARCH ARCHIVE (www.mzes.uni-mannheim.de/eurodata)

EURODATA Research Archive Mannheim Centre for European Social Research (MZES) sortu zuen Mannheimko Unibertsitatean (Alemania) 1989. urtean. Informazio sozio-ekonomikoa eta politikoa eskaintzen du. Essexko unibertsitateko datuen artxibategiak bezala euskarri informatikoan dagoen informazioa biltzen eta eskaintzen du.

XIII

Gizarte zientzietan erabilgarriak izan daitezkeen programa informatikoak

«Now that high quality text-processing programs are becoming available for cualitative data analysis, it seems likely that qualitative researchers will enjoy the same two benefits that quantitative researchers receive from the computer: the ability, first, to work quickly and conveniently with much larger units of data, and second, to apply more sophisticated analytical techniques»

Pfaffenberger, B. (1988): *Micromputer Applications in Qualitative Research*

Asko dira Gizarte Zientzietan lagungarri izan daitezkeen programa informatikoak. Erabiltzen diren prozeduren fidagarritasuna ziurtatzen eta lan errepikatzaileak arintzen laguntzen duten heinean, ezinbesteko tresnak dira ikerketarako.

Inolako zalantzarik gabe, ordenagailuek eta programa informatikoek ikerketa prozesua erraztu egiten dute. Hau da, laguntza paregabea ematen digute inkestaren bidez lortutako datu kuantitatiboak zein sakoneko elkarriketak, bizitza historiak, eztabaida taldeak edota edozein motatako testu idatziak aztertzeko.

Atal honetan, Gizarte Zientzietan gehien erabiltzen diren programen aurkezpena egingo dugu. Zehazki, azterketa kuantitatiboak egiteko lau programa (SPSS, SPAD, SPHINX SURVEY eta GB STAT) eta testuen azterketak egiteko hamar programa (BRS/SEARCH, TECPACK, QRS NUD*IST, QSR NUD*IST Vivo, ATLAS.ti, Code-A-Text, WinMAX, HyperRESEARCH, The Ethnograph eta MAXqda) aurkeztuko ditugu.

Hasieratik esan nahi dugu atal honen helburua dela ikerketarako programa ezagunen aurkezpen orokorra egitea, hain zuzen ere, hauei buruzko ideia orokorra emateko helburuarekin. Zentzu honetan, programa hauek ze-

hatz-mehatz nola funtzionatzen duten jakin nahi duenak, edo dauzkaten berezitasunak ezagutu nahi dituenak programetara jo beharko du zuzenean edo hauen berezitasunei buruz hitz egiten den eskuizkribuak irakurri beharko ditu. Gogoratu egin nahi dugu www.scolari.co.uk web orrialdean aurkezten ditugun programa askoren azalpenak, aurkezpenak eta debaldeko demoak ikus daitezkeela.

13.1. Gizarte zientzietan erabilgarriak izan daitezkeen programa informatikoen abantailak eta desabantailak

Programa informatikoen laguntza paregabea ematen dute, baina ez dute lan guztia egiten. Ordenagailuekin ere ikerlariak lan ugari egin behar izaten du informazioa lortzen eta ordenagailuan sartzen; gainera, behar bezalako ikerketak egin nahi baditu, ezin du ahantzi ordenagailuek abantailekin batera desabantaila ugari dituztela.

Programa informatikoen abantailak

- Ordenagailuak oso tresna erabilgarriak dira erraz zenbatu daitezkeen datuak aztertzeko.
- Ordenagailuek ikerketarako erabiltzen diren prozeduren fidagarritasuna ziurtatzen dute. Egiten dituzten kontaktak gutiz fidagarriak dira.
- Lan errepikatzaileak arintzen dituzte.
- Kontaktak oso erraz egiten diren heinean, denbora aurrezten da.

Programa informatikoen desabantailak

- Ordenagailuak erabiltzerakoan ikertzailearen lehen lana da, erabiliko duen datu basea ordenagailuan sartzea. Testu prosezatzaileak, kalkulurako orriak eta irakurle optikoak asko garatu eta hobetu badira ere, lan neketsua da azterketarako datuak ordenagailuan sartzea.
- Datu asko ezin dira ordenagailuen bitartez aztertu; hain zuzen ere, zailak direlako kuantifikatzen. Sakoneko elkarrizketa, bizitza historia edo eztabaida taldeetatik lortutako datu asko eta asko (metaforak, ikerak...) ezin dira ordenagailuen bitartez aztertu.

13.2. Datu kuantitatiboak aztertzeko programa informatikoak

Datu kuantitatiboak aztertzeko programen artean **SPSS**, **SPAD**, **Sphinx Survey** eta **GB STAT** aurkezten ditugu. Bakoitzak bere berezitasunak, ahultasunak eta abantailak dituena ahantzi gabe, datu kuantitatiboak laburbildu edota aztertzeko era askotako koefizienteak, azterketarako prozedura ugari

eta era askotako teknikak eskaintzen dituzte; baita bildutako informazioa grafikoki irudikatzeko aukera ugari ere.

SPSS

SPSS (Statistical Package for Social Sciences) datu kuantitatiboak aztertzeke eta kudeatzeko programa indartsua da.

Chicagon sortu zen 1968. urtean, eta apurka-apurka hobetzen eta hedatzen joan da. Are gehiago, gaur egun Gizarte Zientzietan eta Natur Zientzietan gehien erabiltzen den programa informatikoa dela esan genezake.

Laurogeigarren hamarkada arte, sistema informatiko erraldoienetan erabili zitekeen bakarrik, eta, gainera, ingelesez zegoen. 1984. urtean, ordenagailu pertsonaletan erabiltzea ahalbidetzen zuen SPSS/PC+ programa agertu zen, eta, ondorioz, Gizarte Zientzietan zein Natur Zientzietan bere erabilera hedatzen hasi zen.

1992. urtean, Windows sistemapean lan egiten zuen SPSS/PC+ programa agertu zen. Gainera, hizkuntza desberdinetarako itzuli zen, eta, ondorioz, mundu osora hedatu zen. Gaur egun 9 hizkuntzataraz itzulia dago, eta programa kudeatzen duen enpresak 40 estatutan ditu ordezkaritzak.

Programak zortzi modulu ditu: base, estatistika profesionalak, estatistika aurreratua, taulak, tendentziak, kategoriak eta lisrel.

Base modulua baitan, datuen eta fitxeroen kudeaketa subsistema, erresoluzio handiko grafikoak egiteko subsistema, datuen azterketarako oinarriko estatistikak eta testu, grafiko eta datuen editorea daude.

Estatistika profesionalen moduluan honako teknika hauek aurkitu ditzaitez: taldeak egiteko teknikak edo clusterra, azterketa diskriminantea, azterketa faktoriala, dimentsio anitz dituen eskalamientoa, hurbilpenen azterketa eta fidagarritasun azterketak.

Estatistika aurreratuen modulua erregresio lojistikoa, azterketa logaritmiko zuzena, bariantzaren azterketa aldagai-anitza, erregresio ez zuzena, probit teknikak, Cox-en erregresioa, Kaplan-Meier-en teknika eta superbi-bentzia azterketa dauzka.

Taulak modulua taulak egiteko aukera ugari ematen ditu.

Tendentzien modulua serie tenporalen deskripzioa eta aurreikuspenak egiteko aukera ematen ditu.

Kategoriak moduluan kategoriatan sailkatu dauden datuen azterketak egiteko teknika aldagai-anitzak sartzen dira. Besteak beste, modulu honetan daude korrespondentzia azterketa sinplea zein anizkoitza, multzoen azterketa (CONJOINT) eta eskalazio onena prozedurak.

Azkenik, **Lisrel** moduluan izen honekin ezagutzen diren erlazio zuzen estrukturalen modelizazio teknikak sartzen dira.

Programa honi buruz informazio gehiago lortzeko ikusi www.spss.com

SPSS

Pasos básicos en el análisis de datos.

Analizar datos con SPSS es fácil. Simplemente tiene que:

Introducir los datos en SPSS. Es posible abrir un archivo de datos de SPSS previamente guardado, leer una hoja de cálculo o un archivo de datos de texto, o introducir los datos directamente en el Editor de datos.

Seleccionar un procedimiento. Seleccione un procedimiento de los menús para calcular estadísticos o crear un gráfico.

Seleccione las variables para el análisis. Las variables del archivo de datos se muestran en un cuadro de diálogo para el procedimiento.

Ejecute el procedimiento y vea los resultados. Los resultados se muestran en el visor.

SPAD

SPSS-ak bezala, SPAD programak aldagai bakarren maiztasunak zein aldagaien arteko harremanak aztertzeko aukera ugari ematen du. Zentzu honetan, datu kuantitatiboekin lan egiteko merkatuan dauden beste programek ematen dituzten prestazio berdinak ematen ditu.

Dena dela, SPAD programa bereziki ona da aldagaia-anitzen azterketak egiterakoan. Izan ere, programa honen bitartez lortzen ditugun irudi eta grafikoak beste programa batzuetan baino ulerterrazagoak dira. Berezi ona da osagai nagusien faktore azterketak, korrespondentzia anitzen faktore azterketak (CORMU) eta korrespondentzia sinpleen faktore azterketak egiteko.

Sphinx Survey

Paperaren bidez zein ordenagailuaren bitartez egiten diren galdeketak diseinatzeke, kanpo lana antolatzeke, galdeketak prozesatzeko eta aztertzeko gaitasuna du. Zentzu honetan, oinarriko datu estatistikoak eskaintzeaz gain, **Sphinx Survey** programaren berezitasuna da inkestaren bitartez datuak lortzeko eman behar diren pausoak antolatzen laguntzen digula.

Programa honen bidez, galdeketei emandako erantzunak oso bizkor sartzten dira ordenagailuan, eta sartutako galdeketetan dagoen informazioaren laburpenak berehala lortzen dira. Besteak beste, programa honekin era askotako taulak, ji-karratua, t-testa, korrelazioak, bariantza analisiak, faktore analisiak eta erregresioak lortu ditzakegu. Era berean, testuen oinarriko azterketak ere egin ditzakegu. Hau da, testuen eduki azterketak ere egin ditzakegu. Informazio gehiago lortzeko ikusi www.scolari.co.uk.

Ondoren aurkezten dugun bezalako formularioa erabiliz, oso erraz prestatzen dira galdeketak. Zentzu honetan, SphinxSurvey oso programa erabilgarria da galdeketa asko prestatu behar dituztenentzat.

SphinxSurvey-Lexica edition - BANK [Questionnaire design]

Title: STUDENT BANKING SURVEY

Comments: An example analysis with Sphinx, using data from a survey of student banking behaviour.

Organization: Sphinx Developpement

Period: 1997

N*	Question	Variable	Type
1	Have you got a bank account?	Bank account	C (single)
2	If yes, with which bank?	Bank	C (multiple)
3	If other bank, which one?	Other bank	O (text)
4	Did you open your bank account before arriving at University?	New account	C (single)
5	How did your bank come to your notice? (Tick any that apply)	Influences	C (multiple)
6	To what extent are you satisfied with the service you receive from your bank?	Satisfaction	C (scale)
7	Select 3 key services which influenced your choice of bank?	Key services	C (rank)
8	Did you go to the University Freshers Fair?	Freshers Fair	C (single)
9	How helpful did you find the Freshers Fair?	FF Helpfulness	C (scale)
10	How well-organised did you find the Freshers Fair?	FF Organisation	C (scale)
11	How welcoming did you find the Freshers Fair?	FF Welcome	C (scale)
12	How easy do you find it to meet with your bank's Student Business Officer?	SBO Availability	C (scale)
13	How understanding do you find your Student Business Officer?	SBO Understanding	C (scale)
14	How welcoming do you find your bank's Student Business Officer?	SBO Welcome	C (scale)
15	Are you considering changing banks whilst at university?	Change	C (single)
16	Select 3 main reasons which could make you change banks?	Motives to change	C (rank)
17	If other, which reason?	Other reason change	O (text)
18	What do you think the bank could do to improve its services to students?	Improvements	O (text)
19	What is your image of your bank?	Image	C (multiple)
20	What year of study are you in?	Study year	C (single)
21	What subject do you study?	Subject area	O (text)
22	Where do you come from?	Place of origin	C (single)

GB STAT

Aurreko hiru programak bezala, azterketa estatistikoak egiteko balio du. Datu kuantitatiboak eraldatzeko, aztertzeko eta lantzeko 300 aukera estatistiko baino gehiago eskaintzen ditu. Besteak beste, Kaplan-Meier superbibentzia azterketa, Cox eta erregresio lojistikoa, korrelazioak, probabilitateak eta fidagarritasun azterketak egiteko aukerak eskaintzen ditu. Era berean, bi eta hiru dimentsiotako irudiak egiteko aukera ematen du. Dena dela, programa honen berezitasunik aipagarriena da serie kronologikoen azterketak egiteko beste programek ematen ez dituzten aukerak ematen dituela. Informazio gehiagorako ikusi www.scolari.co.uk.

13.3. Testuen azterketak egiteko programa informatikoak

Ordenagailuz egindako testuen lehenengo azterketa saiakerak 60. hamarkada baino aurretikoak badira ere, 1966. urtean sortu ziren testuen azterketak automatikoki egiteko lehen prozedurak. Zehazki, Stone eta bere laguntzai-leak *General Inquirer* izeneko sistema sortu zuten.

Azterketarako sistema automatiko honek ikerketarako garrantzitsuak ziren kontzeptuekin loturik zeuden hitzak bilatzen zituen testuetan. Kontzeptuen eta hitzen harremana aurretiaz egindako hiztegian finkatua zegoen.

Hasierako programa hauetatik abiatuz, testuen azterketak egiteko programa hobeak eta merkeagoak agertzen joan dira merkatuan. Izan ere, era honetako programek ikerketa fidagarriagoak egin, informazio kopuru handiak azkar aztertu, testuen azterketetan izaten diren lan errepikatzaileak arindu eta azterketa teknika sofistikatuagoak erabiltzeko aukera eskaintzen dute. Arestian esan bezala, ordenagailuak eta programa informatikoak ezinbesteko tresnak dira, gaur egun, Gizarte Zientzietan.

Ez da erraza testuen azterketak egiteko ordenagailu programei buruz orokorrean hitz egitea; izan ere, programa informatiko bakoitzak bere berezitasun, abantaila eta ahultasunak baititu. Dena dela, ezin ukatu programa guztiek eskaintzen dituzten azterketa aukera orokor batzuk daudela:

- Alde batetik, ikerketarako garrantzitsuak diren hitzak bilatu, euren agerpen maiztasunak zenbatu, datu estatistikoak eman eta alfabetikoki edota agerpen maiztasunen arabera ordenatutako hiztegiak egiten dituzte. Kontuan izan behar da era honetako ikerketetan hitz, esaldi edo dena delako erregistro unitatearen agerpen maiztasunak, testu batean garrantzia duten esparruen seinale gisa hartzen direla.
- Bestetik, sustrai berdina duten hitzak (*euskara, euskalerrria, euskaldunak...*) bilatu, bereizi eta zenbatzeko gaitasuna aipatu behar da. Aukera honen bitartez, sustrai bereko hitzen agerpenak eta esanahiak oso erraz prestatzen eta aztertzen dira. Euskaraz egiten den deklinabidearen erabilerarengatik, aukera hau lagungarri paregabea da ikerketaren helburuekin zerikusia duten hitzak bereizi eta aztertzeko.
- Era honetako programek elkarren alboan doazen edota esaldi, paragrafo, testu... berean dauden hitzak bilatzeko eta euren agerpen maiztasunak aztertzeko aukera eskaintzen dute. Adibidez, Euskadi hitza terrorismo hitzari zenbat aldiz loturik agertzen den, edo esaldi berean hitz bi hauek zenbat aldiz eta zenbat dokumentutan agertzen diren jakin daiteke.
- Dena dela, testuingurua kontuan ez duen ikerketa eginez, hau da, testu bateko hitz adierazgarrienen agerpen maiztasunen azterketa soilean geldituz, polisemia arazoetatik maiztasun erroreak agertzen direla ez da ahanzi behar. Honelako azterketa deskriptiboen bitartez, hitz baten agerpen maiztasuna handia dela ikusi, eta, ondorioz, aztertzen den testuan gai batek garrantzia duela pentsa daiteke; errealtatean hitz berarekin gauza desberdinak adierazten direlarik. Kasu honetan, izenkideek sortzen dituzten errore moten aurrean egongo ginateke. Oker mota hau ekiditeko, testuingurua ezagutzea beharrezkoa da. Hori da, hain zuzen ere, era honetako programek eskaintzen duten beste berezitasun garrantzitsu bat: azterketaren helburuetarako adierazgarriak diren hitzak, esaldiak, kontzeptuak... guk nahi dugun testuinguruan (esaldian, paragrafoan, testuan...) ematen dizkigu. Honek hitzen kodifikazioa errazten du, eta izenkideek sortzen dituzten okerrak ekiditen laguntzen du.

—Azkenik, ezin aipatu gabe utzi zenbait programek testuen erregistro automatikoa egiteko aukera eskaintzen dutela. Aurrez prestaturiko hiztegi batzuetan aztergai diren hitzen eta hauek sailkatzeko erabiliko diren kategorien arteko harremana zehaztu ondoren, ordenagailuak berak egiten du hitzen erregistroa eta kategoria bakoitzean bildu diren hitzen zenbaketa. Zenbait ikerlariren ustez, era honetako lehenengotarikoa eduki azterketak hirurogeigarren hamarkada baino aurretikoak badira ere, esan daiteke azterketak era automatikoan egiteko lehen prozedurak Stone eta bere laguntzaileak sortu zituztela. Hain zuzen ere, General Inquirer izena duen, eta 1966. urtean agertu zen, lehen sistema automatikoaren bitartez.

Eduki azterketa egiterakoan ordenagailu eta programa informatikoez la-
guntza paregabea ematen badute ere, ezin dira ahantzi programa informati-
koez dauzkaten arriskuak:

- Hitzen sustraietan oinarritzearen arazoa: eduki azterketa egiteko pro-
grama informatiko gehienak hitzen sustraietan oinarritzen dira. Testu
batean *lege* hitzarekin zerikusia duten hitz guztiak (legegintza, legegi-
zon, legegai...) bereizi eta zenbatzeko, adibidez, *lege* sustraian oinarri-
tzen gara bilaketa egiteko. Aukera honek hitzen bilaketa eta zenbaketa
egiteko ordenagailuari sartu behar zaizkion hitzen zerrenda murrizten
badu ere, sortzen den arazoa zera da: aztertu nahi den hitzaren sustrai
bera duten beste hitz batzuk ere bereizi eta zenbatzen direla (lege kon-
tzeptua aztertzerakoan, adibidez, legen = lepra eta legezu = cariñoso
ere kontuan hartzen dira).
- Polisemia edo izenkideen arazo: aurrekoarekin lotuta, berdin idazten
diren baina esanahia desberdina dute hitzek, izenkideek alegia, oker
asko sor ditzakete (Iruditu = imajinar hitza zenbat aldiz agertzen den
zenbatzerakoan, iruditu = dibujar hitza ere zenbatzen da tartean). Ho-
nela, izenkideen artean desberdindu eta zalantzak ekiditeko, gaur-
gaurkoz nahitaezkoa da testuingurua kontuan hartzea, eta hitzak ba-
nan-banan aztertzea.
- Azkenik, kontuan izan behar da, euskarri informatikoan dauden testuen
artxibategi gutxi dagoela gure artean; beraz, ia gehienetan ikertzailearen
lehen lana da erabiliko duen datu basea euskarri informatikoan jartzea.
Testu prozesatzaile eta irakurle optikoen mundua asko garatu eta hobetu
bada ere, azterketarako testuak prestatzea lan neketsua da, oraindik ere.

Honela, bada, ordenagailuek lan neketsu eta aspergarri asko kentzeko
ahalmena badute ere, eduki azterketa egokiak egiteko ezinbestekoak dira
denbora asko gastatzea eta lan ugari egitea.

Testuen azterketak ordenagailuz egiteko dauden muga eta arazoak ga-
rrantzitsuak badira ere, egunetik egunera programa informatiko berriak eta
ordenagailu indartsuagoak agertzen ari dira. Zentzu honetan, ordenagailuz

egin ziren testuen lehenengo azterketetatik gaurdaino asko aurreratu dela ez dago esan beharrik. Guk hemen BRS/SEARCH, TECPACK, QRS NUD*IST, QSR NUD*IST Vivo, ATLAS.ti, Code-A-Text, WinMAX, HyperRESEARCH eta The Ethnograph programak aurkeztuko ditugu.

BRS/SEARCH

BRS programa informatikoak testuen azterketak egiteko estrategia desberdinak eskaintzen ditu. Alde batetik, trunkamientoak edo sustrai berdina duten hitzak bilatzeko gaitasuna du. Sustraiekin lan egiteko aukera honekin, ikerketaren helburuekin zerikusia duten hitzen hiztegiak sortu daitezke, ondoren ikerketarako interesgarriak diren hitzak aztertzeko.

Era berean, ikerketarako garrantzitsuak diren hitzen agerpen maiztasunak jakiteko aukera eskaintzen digu. Kontutan izan behar da, era honetako ikerketetan agerpen maiztasunak testu batetan garrantzia hartzen duten esparruen seinale gisa hartzen direla.

BRS programak elkarren alboan doazen hitzen edo esaldi berean dauden hitzen agerpen maiztasunak aztertzeko aukera ere eskaintzen du. *Politiko* kontzeptua, *korruptzio* kontzeptuari zenbat aldiz loturik agertzen den, edo esaldi berean hitz bi hauek zenbat aldiz eta zenbat dokumentutan agertzen diren jakin daiteke, adibidez.

BRS/SEARCH programak azterketaren helburuetarako garrantzitsuak diren hitzak (ikerketan honetan bezala erregistro unitatea hitzak direnean) testuinguruan emateko aukera ere eskaintzen du. Aukera honek hitzen kodifikazioa zuzena erraztu, eta izenkideek sortzen dituzten okerrak ekiditen laguntzen du.

TECPACK

BRS/SEARCH programak bezala, TECPACK programak ere hiztegiak eta hitzen zerrendak egiteaz gain, hitz bakoitza non kokatzen den zehazten digu. Honekin batera, interesatzen zaizkigun hitzak bilatzen ditu, eta testuinguruan ematen dizkigu. Programa honen berezitasunetariko bat da testuen kodifikazio automatikoa eskaintzen digula. Hau da, testua aldeztu aurretik prestatu eta definitu diren kategorien arabera kodifikatzen eta aztertzen da. Bestalde, ematen dituen emaitza kuantitatiboak zuzenean erabili daitezke SPSS programan. Ondorioz, teknika estatistiko sofistikatuak erabili ditzakegu testuen azterketan.

QRS NUD*IST 4

Oso programa egokia da zenbakizkoak ez diren datuen azterketarako. Bere akronimoak dioen bezala: testuak hartu eta hiztegiak, aurkitzeak eta

testuei buruzko teoriak egiten laguntzen du: **Non-numerical Unstructured Data** by supporting processes of **Indexing, Searching and Theorizing**.

Edozein formatutan dauden testuak inportatzeko, automatikoki kodifikatzeko eta kodifikazioak aztertzeko gaitasuna du. Honekin batera, hitzen eta esaldien aurkitzeak egiten ditu, baita kodifikatu ere. Aurkitzeak dokumentu desberdinetan egiten ditu modu interaktiboan. Ematen dituen emaitza estatistikoak beste programa batzuetara inportatu daitezke, azterketa kuantitatibo konplexuagoak egiteko. Era berean, beste programa estatistiko batzuetan sortutako datu kuantitatiboak zein taulak esportatzeko gaitasuna du. Informazio gehiago lortzeko ikusi www.scolari.co.uk.

N6 is the latest version of the NUD*IST. The software for code-based qualitative analysis. It combines management of Non-numerical Unstructured Data with processes of Indexing Searching and Theorizing.

Designed for researchers making sense of complex data, N6 offers a toolkit for coding, thorough exploration and rigorous management and analysis. With a full command language for automating coding and searching, and a Command Assistant that formats the command for you, N6 supports a wide range of methods. Its command files and import procedures make project set up very rapid, and link qualitative and quantitative data.

QSR NUD*IST Vivo

QSR NUD*IST Vivo azterketa kualitatiboak egiteko programa informatikoa da. QSR NUD*IST 4 programak bezala, testuak automatikoki kodifikatzeko eta kodifikazioak aztertzeko gaitasuna du. Hitzen eta esaldien aurkitzeak egin eta kodifikatzen ditu. Programa honen berezitasunik aipagarriena da azterketetatik ateratzen diren teoriak eta ideiak grafikoki irudikatze gaitasuna duela. Era berean, aztergai diren testuetan irudiak eta ahotsak sartzea onartzen du, ondoren dena aztertzeko. Informazio gehiago lortzeko ikusi www.scolari.co.uk.

QSR NUD*IST Vivo is a program for handling Qualitative Data Analysis research projects. It is a partner product and optional upgrade to QSR NUD*IST 4 and N6, the world's most widely used qualitative analysis software. Researchers can handle rich data as rich text, using bold, italics, colours and other formatting with full ability to edit, visually code and link documents as they are created, coded, filtered, managed and searched.

ATLAS.ti

Testuak, bideo irudiak, argazkiak eta soinuak aztertzeko gaitasuna du. Azterketarako garrantzitsua den informazioa aurkitzen eta kodifikatzen du. Era berean, aztergai diren testuen, bideo irudien, argazkien edo soinuen ar-

tean alderaketak egitea ahalbidetzen digu. Informazio gehiago lortzeko ikusi www.scolari.co.uk.

ATLAS.ti helps you to uncover the complex phenomena hidden in your qualitative data. ATLAS.ti is useful to analyzing unstructured data. ATLAS.ti can: - collect and organize your text, graphic, audio and visual data files, along with your coding, memos, and findings, into a project or «hermeneutic unit» - facilitate the activities involved in analysis and interpretation, in particular, selecting, coding, annotating, and comparing noteworthy segments - provide a comprehensive overview of your work; as well as rapid search, retrieval and browsing of all data segments and notes relevant to an idea - build networks which allow you to «connect» visually selected passages, memos, and codes, so enabling you to construct concepts and theories based on visible relations and to reveal other relations - allow you to use networks to explore and discover the «texture» of your data.

Code-A-Text

Oso programa egokia da elkarrizketen azterketa kualitatiboak eta kuantitatiboak egiteko. Zentzu honetan, aproposa da sakoneko elkarrizketak, bizitza historiak eta talde eztabaidak aztertzeke. Code-A-Text programak ikerketarako garrantzitsuak diren hitzak automatikoki bilatzen eta kodifikatzen ditu. Era berean, bideoan dauden elkarrizketak zein grabatutako elkarrizketak aztertzeke gaitasuna du. Informazio gehiago lortzeko ikusi www.scolari.co.uk.

C-I-SAID (Code-A-Text Integrated System for the Analysis of Interviews and Dialogues)

Code-A-Text bezala elkarrizketen azterketa kualitatiboak eta kuantitatiboak egiteko balio du. Informazio gehiago lortzeko ikusi www.scolari.co.uk.

C-I-SAID facilitates the study of documents ranging from interviews or dialogues to questionnaires containing open and closed questions. Can be applied to video, audio or text either alone or in combination. Offers a set of features that allow the depth of analysis, normally associated with a programme dedicated to qualitative analysis, within an analytic framework which is quantitative in orientation. Thus open ended coding, using comments and textual annotations, is accompanied by rating scales which can be categorical or numerical in format. Can undertake thematic content analysis of text (including comments applied by the user). Provides facilities for recording, transcribing and editing audio files. Additionally can generate information about the volume, pitch and speed of speech and save this information. Uses Boolean searches to identify those parts of a project which

are to be analysed further. These analyses can use both cross-sectional and sequential methods. It is possible to undertake a complete project from raw data entry to writing the final report within. However, a range of output options, such as Html, RTF, tab delimited and SPSS syntax files are also available.

Source data can be video, audio, spoken text, any form of plain text and questionnaires.

Coding can be based on rating scales, written comments, content analysis and acoustic analysis. These like many other methods can be directed to form rating scales and thus used in conjunction with other forms of analysis.

Output from searches can be directed to reports, tables and data grids, which are accompanied by a range of statistics that can be used to describe the documents in a project (along side qualitative methods)

It has a range of analytic methods including descriptive statistics, cross tabulation, difference of means and sequential analysis. Analysis can be within documents or between documents.

WinMAX

WinMAX testuen azterketak egiteko estrategia ugari eskaintzen ditu. Aurreko programek bezala, ikerketa egiteko aukeratu diren erregistro unitateak automatikoki bilatzen eta kodifikatzen ditu. Programa honen berezitasuna da lau leiho erakusten dizkigula pantaila berean. Batera ikusi ditzakegu aztergai den testua, kodifikatu behar diren hitz eta esaldiak, kodifikazio estrategiak eta kodifikatutako testu zatiak. Informazio gehiagorako ikusi www.scolari.co.uk.

winMAX is a powerful tool for text analysis that can be used for Grounded Theory oriented «code and retrieve» analysis as well as for more sophisticated text analysis, enabling both qualitative and quantitative procedures to be combined. The program has a simple and easy-to-use interface of four main windows showing the texts already imported, the list of codes, the list of coded segments and the text itself.

A unique feature is that codes can be weighted to give a measure of the significance of a piece of coding, making it possible to retrieve only the most important segments given a particular coding. Codes can easily be copied, merged, split or deleted, as your requirements become clearer while you explore the text.

winMAX allows you to attach memos to codes or to lines of text to record your emerging thoughts as you work with the text, and the memo manager keeps track of your memos and helps you to select from them according to a range of criteria: the activated texts or codes, the author, the date written or any character string they contain.

winMAX also allows you to define case variables in parallel with your text in order to record and analyze, for instance, the age or gender of

speakers. Data matrices can be imported and exported between SPSS, SAS or other statistical packages, although winMAX will perform basic quantitative analysis of your coding, including an analysis of coding frequency and any weighting you have applied.

The software has powerful retrieval functions, allowing Boolean, proximity and semantic retrieval. Coding can also be performed automatically and functions are provided for the analysis of open-ended questions in surveys and for teamwork.

Application areas are all kinds of text and qualitative data like narrative interviews, focus groups, all kinds of unstructured interviews, case histories, field notes, observation protocols, documents, letters and other written material.

HyperRESEARCH

HyperRESEARCH programak edozein iturritik lortutako datu kualitatiboak kodifikatzeko eta aztertzeko gaitasuna du. Testuak, bideo edo ahots grabazioak eta grafikoak aztertzen ditu. Programa honek ikerketarako garrantzitsuak diren hitzak automatikoki bilatzen eta kodifikatzen ditu. Informazio gehiagorako ikusi www.scolari.co.uk.

HyperRESEARCH enables you to code and retrieve, build theories, and conduct analyses of your qualitative data. Now with advanced multimedia capabilities, *HyperRESEARCH* allows you to work with text, graphics, audio and video sources — making it an invaluable research analysis tool.

The Ethnograph

Edozein formatutan dauden testuen azterketa kualitatiboak eta kuantitatiboak egiten ditu. Hitzak edo dena delako erregistro unitateak aurkitzen eta kodifikatzen ditu. Informazio gehiago lortzeko ikusi www.scolari.co.uk.

The Ethnograph is a versatile computer program designed to make the analysis of data collected during qualitative research. First launched in 1985, The Ethnograph was one of the first programs to pioneer computer assisted qualitative data analysis.

You can import your text-based qualitative data, typed up in any word processor and straight into the program. The Ethnograph helps you search and note segments of interest within your data, mark them with code words and run analyses which can be retrieved for inclusion in reports or for further analysis.

The Ethnograph will handle your project data files and documents whether your data comes in the form of interview transcripts, field notes, open-ended survey responses, or other text-based documents.

MAXqda

Aurreko programek bezala, MAXqda programak ere testuen azterketa kualitatiboak eta kuantitatiboak egiten ditu. Aztergai den testuan hitzak edo dena delako erregistro unitateak aurkitzen eta kodifikatzen ditu. Informazio gehiago lortzeko ikusi www.scolari.co.uk eta <http://www.maxqda.com>

MAXqda, the new program from the developers of winMAX, is a powerful tool for the analysis of text-based qualitative data that is also setting new standards in userfriendliness. Whether your data come in the form of narrative interviews, focus groups, unstructured interviews, case histories, field notes, observation protocols, document letters and other written material, MAXqda is powerful enough to handle large data sets.

XIV

Erabilitako liburuak

- AZOFRA, M.J. (1999): «Cuestionarios». *Cuadernos Metodológicos* (26. zenbakia), C.I.S., Madril.
- AGUIRRE BAZTÁN, A. (1995): *Etnografía: Metodología cualitativa en la investigación sociocultural*. Edit. Marcombo, Bartzelona.
- ATKINSON, P. eta HAMMERSLEY, M. (1994): «Ethnography and Participant Observation» in Denzin, N.K. eta Lincoln, Y.S. (Edit.): *Handbook of Qualitative Research*. Sage, London.
- BARDIN, L. (1986): *El análisis de Contenido*. Ediciones Akal, Madril.
- BABBIE, E.R. (1988): *Métodos de investigación por encuesta*. Biblioteca de la Salud, F.C.E., México.
- BASTERRETXEA, I. ALDEKOA-OTALORA, A., GOROSTIAGA, I., JUARISTI, P. (1997): *Euskal Alfabetatzearen Historia Zenbait Sortzailearen ahotan 1960-1990*. Labayru, Bilbo.
- BERELSON, B. (1952): *Content Analysis in Communication Research*. Free Press, New York, (Bigarren argitarapena).
- BERELSON, B. (1966): «Content Analysis in Communication Research». Reader in *Public Opinion and Communication*. Berelson, B. eta Janowitz, M. editoreak. The Free Press, New York (Bigarren argitarapena).
- BUDD, R.W., THORP, R.K., DONOHEW, L. (1967): *Content Analysis of Communications*. The Macmillan Company, U.S.A.
- BOSCH, J.L.C. eta TORRENTE, D. (1993): «Encuestas telefónicas y por correo». *Cuadernos Metodológicos* (n.º 9), C.I.S., Madril.
- BUTTOLPH JOHNSON, J. eta JOSLYN A. R. (1995): *Political Science Research Methods* (3rd edition). CQ press, Washington.
- CARRERA, P. eta FENÁNDEZ Dols, J.M.: «La observación: cuestiones previas» In Clemente Díaz, M. (Comp.): *Psicología Social. Métodos y Técnicas de Investigación*. Eudema, Madril.
- CLEMENTE DÍAZ, M. (Coord.) (1992): *Psicología Social. Métodos y Técnicas de Investigación*.
- DALECKI, M. G. eta HEALEY, B.: *Improving data for rural sociological research: a case study of operationalizing the content analysis of farm magazine ads*. Department of Agricultural Economics and Rural Sociology, Penn State University.

- DÍEZ NICOLÁS, J. (1975): «Observación» en *Diccionario Unesco de Ciencias Sociales*. Planeta, Madrid.
- DUVERGER, M.: *Métodos de las ciencias sociales*. Ariel, Barcelona, 1996.
- EGUNKARIA (2002-11-29): «Ezkutuko grabazioak modan».
- EGUNKARIA (2002-12-1): «Herri osoaren talaia».
- ELZO, J. (Zuzendaria) (1995): *Bizkaieraren erabilerak administrazioan*. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.
- ELZO, J. (zuzendaria) (1996): *Los valores en la Comunidad Autónoma del País Vasco y Navarra. Su evolución en los años 1990-1995*. Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz.
- EUSKO JAURLARITZA (TURISMO SAILORDETZA) (1996): *EAEko hoteletan ostatu hartutako turisten gastuei buruzko txostena*. Txostenak eta dokumentuak bilduma, 1996.
- EUSKO JAURLARITZA (TURISMO SAILORDETZA) (1999): *Negozio Bidaiak. Eguneko batez besteko gastua*. Euskal Turismoaren Txostena, 2. zenbakia.
- FLACSO (1975): «Entrevista focalizada» in *Diccionario Unesco de Ciencias Sociales*. Aguilar, Madrid, 796-797. orrialdeak.
- GARCÍA FERRANDO *et alia*: *El análisis de la realidad social. Métodos y técnicas de investigación*. Alianza Universidad, Madrid, 1989.
- GARSON, G. D. (1976): *Political Science Methods*. Holbrook Press, Boston.
- GERBNER, G., HOLSTI, O.R., KRIPPENDORFF, K., PAISLEY, W.J., STONE, P.J. (1969): *The Analysis of Communication Content*. Developments in Scientific Theories and Computer Techniques. John Wiley and Sons, U.S.A.
- GÓMEZ BUENO, C.: «Escalas: problemática subyacente» in Latiesa M. (Edit.) (1991): *El pluralismo metodológico en la investigación social: ensayos típicos*. Universidad de Granada, Granada.
- GUASH, O. (1997): «Observación Participante». *CISen koaderno metodologikoak*, 20. zenbakia, CIS, Madrid.
- HARVATOPOULOS, Y., LIVAN, Y.F. eta SARNIN (1992): *El arte de la encuesta. Principios básicos para no especialistas*. Ed. Deusto, Bilbo.
- HOLSTI, O. R. (1961): *Content Analysis for the Social Sciences and Humanities*. Addison-Wesley Publishing Company, U.S.A.
- JIMENEZ BLANCO, J. (1961): *Felipe II en las proposiciones de las Cortes de Castilla (1563-1592)*. Valencia, Universidad de Valencia.
- IBÁÑEZ, J. (1992): *Más allá de la sociología. El grupo de discusión: técnicas y crítica*. Siglo XXI, Madrid.
- IVAP (1997): *Argiro idazteko proposamenak eta ariketak*. IVAP, Vitoria-Gasteiz.
- JAUSET, A.J. (2000): *La investigación de audiencias en televisión. Fundamentos estadísticos*. Paidós, Barcelona.
- JONES, G.R. (1983): «Life History Methodology», en Morgan G., *Beyond Methods*. Sage, California.
- JONES, F.L. and OLSON, C.E. (1996): *Political Science Research. A handbook of Scope and Methods*. Harper Collins College Publishers, USA.
- JUARISTI, P. (1998): «Relaciones transfronterizas en el ámbito de la cultura y de la lengua vasca en la CAPV, CFN y en el Consejo Regional de Aquitania» en *La Construcción del espacio vasco-aquitano. Un estudio multidisciplinar*. Antón Borja, Francisco Letamendia y Kepa Sodupe (editores), Servicio Editorial UPV-EHU, Leioa.

- JUARISTI, P. *et al.* (1998): «Las relaciones de los niños y de los jóvenes con las viejas y las nuevas tecnologías de la información» en *ZER. Revista de Estudios de Comunicación*, n.º 4, Zarauz.
- JUARISTI, P. *et al.* (1998): «Media Use and the Relationships of Children and Teenagers with their Peer Groups. A Study of Finnish, Spanish and Swiss Cases» in *European journal of communication* 13(4), Gran Bretaña.
- JUARISTI, P. *et al.* (1999): «Qué ven y cómo juegan los niños y los jóvenes españoles. El uso que los niños y los jóvenes hacen de los medios de comunicación», *ZER. Revista de Estudios de Comunicación*, n.º 6, Zarauz.
- JUARISTI, P. *et al.* (2001): «Media childhood in three European countries» in *Children, Technology and Culture. The Impacts of Technologies in Children's Everyday Lives*. Ian Hutchby and Jo Moran-Ellis (Edit.). Routledge/Falmer, London.
- JUARISTI, P. *et al.* (2001): «Media Genres and Content Preferences» en Livingstone y Bovill (edit.): *Children and their Changing Media Environment: a European Comparative Study*. Lawrence Erlbaum Associates, New Jersey.
- JUARISTI, P. *et al.* (2000): «World Languages Report: a Preliminary Approach» in Omkar N. Koul and Devaki, L. (Editoreak): *Linguistic Heritage of India and Asia*. Central Institute of Indian Languages, Manasagangotri, Mysore, India.
- JUARISTI, P. (2001): *Euskaldunak eta ondasunak*. Pamiela, Pamplona.
- JUARISTI, P. (2001): *Euskal Herria Globalizazioaren aurrean*. BBK-Euskaltzaindia, Bilbao. Este libro recibió el Premio de Ensayo Mikel Zarate de Euskaltzaindia en el año 2000.
- KRIPPENDORFF, K. (1990): *Metodología del análisis de contenido. Teoría y Práctica*. Ediciones Paidós, Bartzelona, 1990.
- KRUEGER, R.A. (1991): *El grupo de discusión*. Piramide, Madril.
- LAL GOEL, M. (1988): *Political Science Research. A Methods Handbook*. Iowa State University Press, Iowa.
- LIZASOAIN, L. y JOARISTI, L.: *SPSS para Windows. Versión 6.0.1 en castellano*. Editorial Paraninfo, Madril, 1996, (Bigarren edizioa).
- LEEGE, C. D. and FRANCIS, L.W. (1974): *Political Research. Design, Measurement and analysis*. Basic Books, New York.
- LASSWELL, D.H.: «El análisis de contenido y el lenguaje de la política» in *El análisis del discurso de los medios de comunicación de masas. Cuadernos de Semiotica*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Facultad de Ciencias de la información, 1986.
- LOPEZ ARANGUREN, E. (1989): «El análisis de contenido» en García Ferrando *et Alia: El análisis de la realidad social. Métodos y técnicas de investigación*. Alianza Universidad, Madril.
- MANHEIM, B.J., RICH, R.C. (1988): *Análisis político empírico. Métodos de investigación en ciencia política*. Alianza Editorial, Madril.
- MANZANO, V.G., ROJAS, A.J. y FERNÁNDEZ, J.S. (1996): *Manual para encuestador/res*. Ariel, Bartzelona.
- MAYNTZ, R., HOLM, K., HÜBNER, P. (1980): *Introducción a los métodos de las sociología empírica*. Madril, Alianza Editorial, (Bigarren edizioa).
- MOCHMANN, E. (1985): «Análisis de contenido mediante ordenador aplicado a las ciencias sociales», *Revista Internacional de Sociología*. 43. bolumentea, 1. zenbakia.
- MOHLER, P., PH. (1985): «Algunas observaciones prácticas sobre la utilización de análisis de contenido en ordenador», *Revista Internacional de Sociología*. 43. bolumentea, 1. zenbakia.

- PFaffenberger, B. (1988): «Microcomputer Applications in Qualitative Research». *Qualitative Research Methods Series 14*, Sage Publications, California.
- POOL, ITHIEL DE SOLA (editorea) (1959): *Trends in Content Analysis*. Univ. of Illinois Press, Urbana.
- PUJADAS MUÑOZ, J.J. (1992): «El método biográfico: El uso de las historias de vida en ciencias sociales». *Cuadernos metodológicos*, CIS, Centro de Investigación Sociológicas, Madrid.
- QUALITATIVE SOCIOLOGY (1991): *Computers and Qualitative Data II, Special Issue, Part 1*, XIV bolumena, 3. zenbakia.
- RODRIGUEZ OSUNA, J. (1991): «Métodos de muestreo». *CISen koaderno metodologikoak*, 1. zenbakia, Madril.
- ROSKIN, G. M., MEDEIROS, A.J., and JONES, S.W. (1991): *Political Science. An introduction*. Prentice Hall, New Jersey, 4. edizioa.
- RUIZ OLABUENAGA, J.I. eta ISPIZUA, M.^a A. (1989): *La descodificación de la vida cotidiana. Métodos de investigación cualitativa*. Bilbao, Universidad de Deusto.
- RUIZ OLABUÉNAGA, J.I. (1996): *Metodología de la investigación cualitativa*. Universidad de Deusto, Bilbao, 1996.
- RUIZ OLABUENAGA, J.I., ARISTEGI, I. eta MELGOSA, L. (1998): «Cómo elaborar un proyecto de investigación social». *Cuadernos monográficos del ICE n.º 7*, Universidad de Deusto, Bilbao.
- SANCHEZ CARRIÓN, J.J. (1985): «Técnicas de Analisis de los Textos Mediante Codificación Manual», *Revista Internacional de Sociología*. 43. bolumena, lehen zenbakia.
- STAKE, R.E. (1994): «Case Studies» en Denzin, N.K. y Lincoln, Y.S. (Edit.): *Handbook of Qualitative Research*. Sage, London.
- STONE, P.J., DUNPHY, D.C., SMITH, M.S., OGILVIE, D.M., et. al. (1966): *The General Inquirer. A computer Approach to Content Analysis*. The M.I.T. Press, U.S.A.
- SCHWARTZ, H. y JACOBS, J. (1984): *Sociología cualitativa. Método para la construcción de la realidad*. Edit. Trillas, México.
- SELLTITZ et. al. (1967): *Métodos de investigación en las relaciones sociales*. Editorial Rialp, Madril.
- SIERRA BRAVO, R. (1992): *Técnicas de Investigación social. Teoría y Ejercicios*. Editorial Paraninfo, Madril.
- TULL, D.S. y ALBAUM, G.S. (1989): «Bias in Random Digit Dialed Surveys» in Singer, E. y Presser, S. (Edit.): *Survey Research Methods*. The University of Chicago Press, Chicago.
- WEBER, R.P.: *basíc Content Analysis*. Sage University Paper 46, 2. argitarapena.
- WEBER, M. (1979): *Economía y Sociedad*. FCE, México.
- WIMMER, R.D. eta DOMINICK, J.R. (1996): *La investigación científica de los medios de comunicación. Una introducción a sus métodos*. Editorial Bosch, Bartzelona.